

Izurategi'tar Jon

Urteko Igande guztietarako
Goizpar edo Ebangelioak

Elorio'ko Txanburu Jaunak egiñak



BERGARA'N
«La Tipográfica» irarkolan
1935

N- 8455
R- 36194

ATU
57629

Izurategi'tar Jon

Urteko Igande guztietarako
Goizpar edo Ebangelioak

Elorio'ko Txanburu Jaunak egiñak



BERGARA'N
«La Tipográfica» irarkolan
1934

1.º ABENDUKO IGANDIAK

2.º EREGEN OSTEKO IGANDIAK

NIHIL OBSTAT

Censor,

P. Fr. Joseph Dominicus a Sta. Teresia,

O. C. D.

Victoriae 11 Novembris 1933.

IMPRIMATUR

Victoriae, die 24 novembris 1933.

✠ *MATTHÆUS, Episcopus Victoriensis.*

EUZKADI'KO TXANBURU ETA JAUPARIEI

A G U R

Igandeetako goizparkijak argitaratutian, nire asmo bakarra izan da jaupari gaztiai lagundutia, ba urtiak erakutsi deuzte, neuk aurkitu nebazan eragozpenak, eurak be, aurkitu leikezala, gitxi dirialako, gaur artian beintxat, gai onetzaz argitaldu dirian goizparkijak.

Befogeta sei urte daruadaz txanburutzan, eta nire txanburutazuneko asikera euskerazko goizparkirik ez egoan, eta bakotxak, al ebazan lez, gertetan ebazan, erderatik artuta; eta esan nei, jaupari edo abade askok, neu auren nazala, erabilten genduala euskera motroia, erderakadaz nastua, kalte aundija euskeriari egiñaz.

Gaur euzkeriak aurerabide andiak egin dauz, asko ofaztu da; baña nik euskera garbi garbijan ezin argitaratu neikez, batetik euzkeria ikastoletan ikasi ez dodalako, amaren magalpian baño, eta bestetik gorengo mañan dagozan (intelektualentzako) idazten ez dodazalako, berengo mañan dagozan efitar eta eliztafentzat baño; auxegaitik danak doaz euskera eñaz, samur eta danak eñaz aituko dabezelako.

Parkatu ba nire asartasuna lan au argitaratutian; eta zuek, jaupari gazte biotzekoak, zeuen adimen argi ta euzkeriaren zaletasunez, utzegite guztijak eta erdal usañeko itzak garbitu, ofaztu eta osatu, ba auxe izango da niretzat atsegiñik andijena.

Gañera, goizparki onek, labur laburak egin dodaz, ikusi dodalako eliztar geyenak itzaldi luziakaz gobaituten diriala eta jaupa, meza nagusitik, iges egiten dabela.

IZURATEGI'TAR JON
Txanburua.





Abenduaren lenengo igandea

BULDIA

Venite ad me omnes... Matt. II-28

Jesu Kristo gure Jaunak, Judea eta Galileako lurian itzaldijak egiten eban zanian, donokitik ekarri ebazan ikaskizun eder eta mamintsuak gizonai erakusteko, beste gauza askoren artian zirautzen: *Venite ad me...* erdu nigana, estu, larri eta nekepean zagozenok, erdu danok, andi eta txikijok, jakitun eta ezjakiñok, aberatz eta txiruok, ba nik argituko dot zuen adiña, nik erakutsiko deutzuedaz zeruko ikaskizunak, eta eurakaz jaretxiko dozue arimako bakia eta osasuna. *Et invenietis requiem animabus vestris.* Jesu Kristoren dei samur oni oben eginda, gizarte andijak juazan bere ondoren, entzuten ebezan itzaldijak eta jaristen eben arimako osasuna, eta sarri askotan gorputzekua be bai.

Elexa Ama deunak be, abenduaren saferan deituten deutze gizaseme guztijai bulda santua artutera, bere bidez jaretxi daiguzan arimako onera eta mesede andijak auxegaitik aginduten deutze Txanburu eta elizgizon guztijai igande onetan iragarañ daijela buldia, azaldurik berak saratuten dauzan onura eta mesede andijak, dan danak obendu deitezana buldia artutera. Goiz onetan ba, buldiakaz itz egingo deutzuet; entzun ba adi eta gogo onagaz.

Buldia zer da? Itaune au egiten badeutzagu bada-ezpadako katolikuai, katoliko epelai, arimako arazuetan otzak dirian katolikuai, esango deuzkue buldia dala abade eta elizgizonak asmauriko paper zar bat euren patrikarak gizenduteko; onako tentelkeri eta gangarkerijak entzuten dira kafe etxetan, ardan geletan, batzarretan eta osterantzeko toki gaiztuetan, eta baita aberats

askoren etxetan be. Onan itz egiten dabenak, eruki dodaz, ba ez dakije zer esaten daben, ez dakije kristotar bati dagokijen ikaskizunik, ikastolan ikasi eben apufa aztu jake, ez dabe bafiro ikasten, eta ez dauke ikasteko zaletasunik, eta dagoz itxutasunik andijenian arimako arazuetan, eta auxegaitik esaten dabez tentelkeririk andijenak.

Onan itz egiten daben katolikuak uste dabe igandeetan eta jai nagusijetan mezatxu bat eta bera labufena entzunaz, eta urtian beiñ pekatuak arapataka eta gertaera barik aitortuagaz beste bage, katoliko onak eta zintzuak diriala, baña oker dagoz, ba katolikotasunak gauza bi eskatzen dauz, Elexiak siñistuteko agintzen dabena siñistutia, eta egiteko agintzen dabena egitia; eta gauza bi onek egiten ez dauzenak, izango da katolikua izenez eta bere erra, baña ez katolikua izatez eta izan biar leukian lez.

Buldia ez da abade eta elizgizonen asmakizuna, buldia ez da abadien irabazbidia, buldia ez da paper zati bat odolostiak batutekua; buldia da Aita Santuak Españatarai, bai dierrijan bai bere ugartetan bizi dirian gizaseme guztijai egiten deutzen mesede bat. Españatarak eta batez be Euzkotarak, beti izan dira Elexa Ama deunaren seme zintzoak, urkurtzaren eta Elexiar en alde beti arpegia atera izan dabenak eta berak zaindutiaren guda gogor eta odoltzuak igaro dabez, batzuetan moruakaz, beste batzuetan Turkiatarakaz, zinge edo heregiakaz, protestantiakaz ta abar, eta auxegaitik Elexa Ama deunak eta bere buru dan Aita Santuak, esker onez, egiñ izan deutzaz mesede andijak, eta eurretariako bat da buldia; bere bidez Españatarai arinduten deutze legia, gitxituten deutzez barauak ta bigilija edo aragi ez jatiak, eta emoten deutzez eskubidia, aragi, afautza, afaña eta esne gauzak jateko; aragija eta afaña jataldi baten ez izanik, garizumako barikuetan eta lau denporako barikuetan. Onezaz gañera emoten deutze erestasuna nekatu astunen parkaziñoia jaristeko, egiñiko voto edo promesak gauza eresago baten aldatuteko eta parkamen ugarijak irabazteko. Beste mesede asko be egiten deutzez buldiaren bidez, eta onek irakuñi leikez buldan bertan.

Gauza onek, eta geiago be, Aita santuak egiñ leikezala, eziñ iñok ukatu lei, ba Aita Santua da Elexako burua, Elexako agintarija, eta agintarija dala, emon leiz legiak, eta emaniko legiak kendu, gitxitu eta aldatu be bai; alan egiñ dau urte asko ez dala jai egun batzukaz, eta gura baleu kendu leiz jai egun guztijak, eta baita barauak eta bigilijak be.

Buldia mesede bat da, legazka edo pribilegijo bat da, eta mesediak eta pribilegiuak artu barik itxi leitekez; auxegaitik egijaz itz egiteko iñok ez

dauko buldia artzeko premiñarik: gura dabenak Elex-legia osoz osuan bete, ez dauko buldia artu beařik; baña gura dabenak legia arinduta gorde, orduan artu biar du buldia; katoliko egijazkuak, onak, zintzuak artuten dabe urtero buldia; baña katoliko otzak, izenez bakařik katoliko dirianak gura dabena da buldia barik buldiaren mesediak gozau, eta au eziñ leikiana da (ba euzkaldun esaeria da, sopak jan eta zufut egiñ era batera eziñ leikiela).

Artu ba buldia danok, eta artu ainbat lasteřen, gerorako itxi barik, eta entzun da ikasi zeñ andijak dirian bere mesediak.

KURUTZEKO BULDIA

Bulda artuagaz irabazten dira parkamen oso bi, urte bařuan eta gura dan egunetan autorkuntza egiñ eta Jauna artuagaz beste bage. Astero edo geija-gotan autorkuntza egiñ eta Jauna artuten dabenak ez dauke bařiro autorkuntza egiñ birařik parkamen ori irabazteko. Kurutzeko buldiagaz, eriotzako orduan be iristen da parkamen osua, autorkuntza eta Jauna artuagaz, eta gauza bi onek eziñ badauz egin, aoz edo biotzez damututa Jesus esanagaz beste bage.

Borondatezko baraua egiten dabenak, bakotxian irabazten dabez 15 urteko parkamenak, baña egon biar da grazijan edo Jaungoikuaren aizkidetasunian eta esan Aita guria eta Agur Marija eta Glorija, Aita Santuaren intenziñoiagaitik.

Eřomako estaziñoiak dirian egunetan irabazi leiz parkamen ugarijak Ele-xara ikusaldi bat egiñagaz eta Aita Santuaren izenian otoi egiñagaz.

Gañera kurutzeko buldia artzen dabenak parte dauke Elexan egiten dirian egite on guztijetan; ize irabazte andijak! izein eřez ordaindu geinkezan geure pekatuen zor guztijak! Zoriontzauak arazu onetan aleginduten dirianak, ba eriotzako orduan ez dabe damu izango.

Kurutzeko buldia artzen dabenak egiñ lei bere autorkuntza edozeiñ autor-entzuliagaz eta jaretxi bere bidez pekaturik andi edo astunen parkaziñoiak; baita be eskatu leikio autor-entzuleari egiñiko boto edo promesak aldatu da-gijozala beste gauza eřesago batzuetan. (Digase algo si se quiere sobre los pecados reservados y sobre el voto).

Beste mesede asko be sařatuten dauz bulda onek, eta eurak irakufi leikez buldan bertan, eta gitxitan jasoten dirialako itxiten dodaz azaldu barik.

ARAGI BULDIA

Bulda artzen dabenak, edozein egunetan eta jatorduan artu leikez esne gauzak, afautzak eta afaiña. Bulda onegaz gitxituten dira baru egunak eta aragi iste edo bigilijak. Baru egunak dira garizumako eguasten, bariku eta larunbatak, Mayatz Pasko besperia, Ama Birgiña jaiokunde besperia eta gabon eguna, eta egun au be aldatuten da aurfeko larunbatera. Bigilija edo aragi isteak dia garizumako barikuak, cuarta Denporako barikuak eta Pasko besperak, Ama Birgiña jasokundeko besperia eta gabon eguna; bigilija au be aldatuten da aurfeko larunbatera. Legazke edo pribilegijo onek gozetako bulda bijak artu biar dira, ba bata bestia barik ez dau balio.

ILLEN BULDIA

(Díganse dos palabras sobre esta bula y las condiciones para la aplicación de las indulgencias a los difuntos).

Ara emen, labufean baño ezpabere, azalduta Buldiaren mesediak; artu ba danok, balijau beragaz eta aberastu zeuen arimak, eriotzako ordu lañijan keska barik eta baketzu aurkitu zaitezzen; ointxe da irabazteko aldiya. ¡Oh ze tamal andija izango daben ordu artan nagijak arimiaren alde, ezerbe egiñ eztabenak, egunak, ilak eta urtiak erokerijetan igaro dabezanak; orduan ezagutuko dabe euren eñakuntzia, baña alpeñik; bañiz zoriontzuak arduratzuak eta arimako salbaziñoia gauza guztien gañetik bilatu izan dabenak, ba egun artan entzungo dabez pozezko itz auetxek: *euge serve bono et fidelis... intra in gaudium Domini tui*. Auxe da danoi biotzetik opa deutzuedana.

Beste sarera bat itzaldija asteko.

Gaur Españako eta Euzkal-efiko txadon guztijetan bulda santua iragarten da, eta beste haga, balijau leike beragaz urte guztirako, ba buldiak urte bat bakafik irauten dau. Elexako seme zintzoak Elexiaren esanak sinistu eta bere aginduak betetan dabezanak eta arimako arazuetan arduratzuak dirianak poz

pozik artuten dabe, dakijelako beragaz arinduten jakela, katoliko gentijentzat emoniko lege generala, gitxituten jakezala barau ta bigilija egunak, emoten jakezala efestasun andijak pekatu astunen parkaziñoia jaristeko, eta onezez gañera irabazi leikezelako parkamen andi eta ugarijak: baña bada-ezpadako katolikuak, izenez bakañik katoliko dirianak eta arimako arazuetan epelak, otzak eta nagijak dirianak, onek aurka egiten deutze bulda santuari, eta auxegaitik esaten dabez tentelkerijarik andijenak, gangarkeririk itzalenak eta erokerijarik txarñenak. ¡Zenbat bidar entzun ez dozuez onelako tentelkerijak kafe etxetan, ardaue geletan, batzafetan eta osterantzeko ekandu gaizkuen tokijetan! Eñuki dodaz, ba ez dakije zer esaten daben be; kristiñau ikasbide apurtxu bat balekije ez leuke tentelkeririk esango; baña ikastolan ikasi eben apurtxoa aztu jaken, ez dabe bafiro ikasten, eta dongaro dana, ez dauke ikasteko zaletasunik be, eta dagoz itxutasunik andijenian arimako jakintza eta arazuetan.

Onan bizi dirianak iratzartu nai neukez, argitu nai neukez, jakiñ dagijen zer dan buldia, ze onera eta mesede andijak safatuten dauzan eta zenbat parkamen beragaz irabazi leikezan. Entzun ba gogo onagaz.

Abenduaren lenengo igandea

(Irakufi edo esan goizpar edo ebangelijua eta jafaitu onan):

Elexa Ama Deunak, urtero, gaurko igandean, gogoratuten dauzku azkenengo epaikunde edo juizijua, bera gure begijen aulfian eukirik iratzartu daiten geure gogua, biztu gure sinismena, eta gertu gaitez an egun bildurgafi atarako bizitza bafi eta on bat artuagaz.

Epaikunde onen gomutia onura andikua da. Geronimo deunak egun bildurgafi au beti goguan erabilten ebalako, emon zan penitentzizjako laztasunik andi eta gogofenetara: beste deun askok be, egun onen bildurdez, ludi donga onetatik iges egiñik, lekaroan estaldu ziran, eta an eroiazan egunak, barauak

eta gaubelak laztasunik gogofenetan: guk be, egun au goguan erabilten badogu, alderatuko gara pekatutik, egingo dogu penitentzija, onduko dogu bizitzia, eta jaretxiko dogu betiko atsedena donokian.

Gogoratu daigun ba, egun bildurgafi au, eta onera andija atera daizuen, entzun gogo onagaz.

1. Azkenengo epaikundia, iru gauzak egingo dabe bildurgafija. Lenengo Auzi epaleak, bigaŕen kontu emotiak, irugaŕen epaijak.

Jesukristo gure Jauna izango da gure auzi epala, Jesukristo Jaungoiko eta gizon egiazkoa, Jesukristo aginpide guztija beragan daukana, argiro dirauzkun lez *data est mihi omnis potestas*. Jesukristo, ainbeste bidar iraindu doguna: bere aŕian egin doguz gaiztakerijarik andijenak, nazaikerijarik bal-tzenak eta asartasunik goŕotogaŕijenak: Jesus ixilik egon zan aldi atan, eŕukitasuna berbera zalako *miserickordiarum Dominus*, eta gure ona gura ebalako, astiak, ilak eta urtiak egon zan itxaroten, damututa, garbatuta, beragana biurtu gaitezana, baŕa epaikunde egunian, eŕukitasun guztijak bizitzan amaituten dirialako, zuzentasunaren eta zigofaren Jauna izango da, *Deus ultionum Dominus*, utzegiterik txikijenak argitaratuko dauz, eta ez da ezerbe nekaldu eta zigortu barik geratuko. Oldozkun onek ikaratuten eban Job deuna, eta esaten eban ¿zer egin daiket nik Jaunak biztu daitenian ni epaituteko? ¡Oh ze ikaria artuko dau pekatarijak Jaungoikuagaz aŕez aur, ikusi deitenian! Jesukristo ludi onetan bizi zanian aiŕ itzal andija sortuten baeban notiŕ guztijetan, ¿zelako itzala sortuko ez dau epaitutera datoŕenian? Getsemaniko baratzian, *Ego sum* esanaz beste bage atzeruntz jausi bazirian beragana jua ziran gizon dongak, ¿zelako ikaria eukiko ez dabe pekatariak ordu laŕi atan?

Gogoratu ba ontxe egun atako agergeria, eta gura badozue Jesusek egun atan arpegi alaiz, bigunez eta gozotasunez artu zagiezan, alegindu gaurtik bere asaria bigunduten, bizitzia onduagaz eta penitentzija egiŕagaz, ba alan egiŕagaz, geure alde izango da Jesus.

2. Gure bizitzako egintza guztijen kontu emotiak egingo dau bildurgafija azken epaikundia. Kontu emote au izango da ziatz ziatza: ez da ezertxo be ezalduta geratuko: *nihil est opertum quod non revelabitur*: dana urtengo

dauz azalera, argitara, pentzamenturik ixilēnak, gogorik eskutukuenak, asmo eta intenziñoerik bafukuenak an agertuko dira; berba ta egite on da txar guztijak an ikusiko dira izunkeri eta paltzokeri guztijak: ludi onetan aiñ eñez eta ixilik gordetan edo eztalduten zirianak, an agertuko dira: gofotuak, ikusi eziñak, ayerkunde edo bengantza gaiztuak, an agertuko dira: lotsaz autortu barik itxiriko pekatuak, eta ixilian edo eskutuan, nai bakarik, nai bestekaz egiñiko pekatuak be an ikusiko dira; ¡ze lotsarija! An ez dabe balioko atxakijak, ez ukatutiak, ez iñori efua esartiak. Auzi epale zofotzak dana ezagututen dau, dana dauko agiri-agirian: *omnia nuda et aperta oculis ejus*, jaijo giñan egunetik eriotzako eguneraño, pentzau, asmau, esan eta egin dogun guztia, dana ezagututen dau. Berak esango dau, ziurtasun guztijagaz, *ego vidi*, neuk ikusi zendudazan, neure begijen auñian egin zenduzan, arako nasaikerijak, arako lapuñetak, arako murmuija donga, honra eta creditu galtziak, *facientes malum coram oculis meis*, eta alan guzti be ixilik egon nintzan, ez neban murtik egiñ, *hóc fecisti et tacui*, gura nebalako zure ona, zu damutu, garbatu eta nigana biurtutia, eta nigaz baketu eta aizkidetutia; baña oraiñ amaitu dira efukitasunak eta ixilik egotiak, eta nere zuzentasunak agertuko zaitu zarian eta izan zarian lez. ¡Oh kontu emote bildurgarija!, zure gomutiak lekaroak penitentez bete dauz, lekaretxeak arima onez eta zeruak deunez. Gura badozue egun atan bildurik eza, gomutau safi safi beragaz bizitzan.

3. Azkenez, epaija izango da gure kontu emotia bildurgarija egingo dabena. Jesukristo gure Jauna, Jaungoiko eta gizon egijazkua, bizijen eta ilen epaikarija, izango da epaija emongo dabena, epai au izango da betikua, aldatu eziñ leikiana; epai onek erabagiko dau gure betiko zoriona edo betiko zoritxaña; gure aldeko epaija bada, une beratan edegiko jakuz donokiko atiak, jaubetuko gara ango aintzagaz, eta betikotasun guztian Jaungoikuagaz, goizonagaz eta deun guztijagaz, izango ga zorientzu, baña gure kaltezko epaija bada, jaurtiko gaitu inpernura, an dagozan txefen, oker eta gaizto guztijakaz, betiko neke miñ eta oñaze bildurgarijak jazan edo sufrietara.

Ludi ontan emoten dirian epaijak, nai zuzenak izan, nai zuzentasun bagakuak izan, aldatu leitekez eta aldatuten dira safi askotan, nai dala bitartekuen bidez, agintarijen efukiz eta askotan eskupeku eta diruaren bidez, baña Jesukristok emongo daben epaija ez da iñoz aldatuko, ez bitartekuak, ez di-

ruak, ez inok ez ezek be ez dabe makurtuko, arteza eta zuzena dalako eta bere epaijak zuzenak dirialako: *justos es Domine et rectum iudicium tuum.*

Ea ba, gogoratu safi safi kontu emote bildurgafi au; danoi elduko jaku egun au: batzuei lenago, bestebatzuei beranduago; eta gura badogu epai ona entzun, alegindu gaurtik, ondu bizitzia, itxi pekatua eta pekatuko bidia, iges pekatuko arisku guztijetatik, egiñ penitentzija, ordaindu pekatuen zofak, artu birtuteko bidia, jafaitu berari azkeneragiño eta eriotza osteko egunian entzungo doguz Jesusen aotik itz gozo eta pozgafi onexek: *Venite benedicti Patris mei, intra in gaudium.*

Abenduko bigaren igandea

(Irakufi edo esan goizparki edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Goizpar au irakurten dodan bakotxian otuten jat itaune bat egitia. ¿Zegaitik Juan deunak, bere ikaslen bidez, itandu eutzon Jesukristori ia bera etezan Mesias? ¿Benturaz ez ekijan? Bai, baekijan, ba berak bautizau edo ugutza eban Jordango efekan, berak ikusi ebazan zeruak edegiten eta Espiritu Santua uso baten irudijan jasten, berak entzun eban Aita zerukuak zinuñuala: «auxe da nire seme maitia»; onezaz gañera berak izentau eution gendadijari esanaz: ara emen pekatuak parkatuten dauzan bildots deuna: *Ecce agnus Dei...* ¿Zegaitik ba itandu eutzon ia bera zan Mesias? Itandu eutzon bere ikasliak ikusi eta ezagutu egijen, gurtu egijen eta jafaitu egijen.

Ikasbide eder edefak safatuten dauz goizpar onek, eta ikasbide onek emoten dauzkuz Juan deunak eta Jesukristo gure Jaunak. Ikusi daiguzan ba, eta onetarako entzun adi eta gogo onagaz.

¿Nor zan Juan batiatzalea? Emakumetatik jayo dan gizonik deunena; Espiritu Santuak, oraindiño amaren sabelian eguala deundu ebana; ume umeta-

tik eremu itzal baten bere urterik edefenak eruan ebazana, ez mundutar eruak lez, jantzi bitxidanez apainduta, aukera guztijan, jan edanetan eta gozotasun guztijetan, Jaunaren espiritudunai dagokijon lez; ganbelu nafuz bere aragijak estalduta eta gefian lafuzko itoltza, basa estijagaz janarituta, nekegafi guztijak artuta: Juanek bere bizi guztijan ez eban egiñ ez pekaturik, ez gauza dongarik, beti ondo baño; ez eutzon iñori kalterik egiñ, mesede baño; izan zan onoinen edo birtutiaren jafaiñe andija, penitentzizako laztasunetan bardiñik euki ez ebana, berba baten esatiañen, deuna oso osoan, eta alan guzti be, dakuzku presondegi itzal baten sartuta, baztartuta, iñok be jaramonik egiten ez eutzola; eritxi baten esan zeitekian, Juanek bere burua presondegijan ikustian, ifituko zala, dongaro esango ebala, zinismena eta itxaropena galduko ebala; baña ez, Juan deuna zan, eta deunak eruapen andijagaz dakije zoritxar guztijak eruaten, euretan Jaungoikuaren eskua ikusten dabelako, eta auxegaitik Juan deunak igaro ebazan presondegijak, zoritxar eta naigabe guztijak, ziñismen biziz eta eruapen andiz, txitik egiñ bage. ¿Zelan daruaguz Jaungoikuak nozian beiñ bialtzen deuzkuzan kurutzia? ¡Ah kristiñauak!, neu auren nazala, beinguan ifituten gara, asafatuten gara, jarduten dogu dongaro esaka, eta onera andijak geure arimarako atera bialfian, ateraten doguz kalte andijak. Ziñistu daigun n. k. gauza guztijak Jaungoikuaren eskutik datoza. Ez da sugatzetik orbel bat jausten, ez gure burutik ule bat bera, Jaungoikuaren nai edo borondate barik: jasoten jakun guztia, nai ona, nai txafa izan, jasoten da Jaungoikuak dakijala eta nai dabelako, eta Jaungoikuak laketuten badau zoritxafen bat gure gañian jaustia, izaten da geure onerako eta guri ondo gura deuzkulako. Jaungoikua gure Aita da eta Aita on eta ongile utsa: beragatik gudan zoritxafen bat laketuten dabian da, bere eruapen andiz eruanik, merezimentu andijak irabazi daiguzan eta aintza andijago eta aro edefago bat zeruan euki daigun.

Juan deunak presondegijan pasau ebazan naigaberik andijenak, alan ariman, zein da gorputzian, baña bere ariman eukan arimen egafija ez zan otzitu, ez gitxitu, ez amatau: presondegijan bertan jardun eban itzaldirik edefenak egiten: bere ikaslen eta entzulen biotzak biztuten, sututen eta gertetan, onera andijak atera egijezan Jesusen etofera egunetan. Guk bariz, makal alditxu bat daukagulako edo buruko mintxu bat daukagulako beste bage, bertan bera bialfianik andijenak itxiten doguz, eta atxakijak bilatuten doguz otzijak ez egiteko, mezarik ez entzuteko, Jauna safi ez artzeko. ¡Ze desberdintasuna! ¡Ze adorerik eza! Ikasi daiguzan Juanen ikasbide edefak, eta euki

auferruntzian borondate senduago bat, adoretzuago bat, beti eta edozein eratan beteteko, atxakija barik, bai Jaungoikuagazko eta bai geure buruagazko biar izanak.

Juan deunaren mandatarijak egin eben itauniari Jesusék ez eban erantzun berbakaz, eginakaz baño, ba euran aurian eta eurak ikusten ebela, osatu zituzan gaijuak, argitu itxuak, sendatu efeñak eta entzuten ipini goiak; eta onenbestegaz autortu eban bera zala Mesias egijaskua eta Jaungoiko gizona, ba mirarijak egiteko eskubidia bakarik Jaungoikuari dagokijo.

Guk be egitadakaz erakutzi daigun kristotafak eta Kristoren jafailak gairiala; egitadak autortuten dabe bakotxa zer dan, *ex fructibus cognoscetis eos*. Askok esaten dabe: ni katolikua naz, ni Elexiaren seme zintzoa naz; baña aratuten badogu zerbait euren bizieria, ikusiko dogu askoren katolikotasuna dala izenezkua bakarik eta Elexiaganako maitasuna eta zintzotasuna miñezkua bakarik dala. Egijazko katolikotasuna dago Elexiak zintzotuteko agintzen dabena zintzutian, eta egiteko agintzen dabena egitian; eta gauza bi onek bage ez dago katolikotasun egijazkorik. ¡Zenbat utzegite ez dago onetan! ¡Zenbat katolikok ukatuten dabe infernua, garbitokija, parkamenak eta abar! ¡Zenbatak esaten dabez gangarkerijarik andijenak kafe etxetan, ardau geletan eta osterantzian, buldiakaz, baru eta bigilijakaz! Onelakuen katolikotasuna neure txinotasuna beste da.

Azkenez, mandatarijak Juan deunagana biurtu ostian, Jesusek goraldirik andijenak egin ebazan Juanegaitik, ba esan eban Juan igarlia baño andijagua zala, eta emakumetatik ez zala Juan batiatzalia beziñ gizon andirik jayo: *inter natos mulierum non surrexit major Joanne Baptista*. ¡Zoriontzua onako goraldijak Jesusen aotik entzuten dauzana. Ludi onetan nozian bein entzuten doguz goraldijak, baña geijenian izan oi dira miñezkuak, gezufezkuak, paltzuak; mundu eta mundutafak beti dira bardiñ: izunak, hipokritak, paltzuak: gaur goralduten dabena, bijar ostikopian sartzen dabe. Begira ezpabere zer egin eben Jerusalematafak Jesukristo gure Jaunagaz: abar igandean *Ho sanna, ho sanna* abestuagaz goraldue eban; barikuan bariz *tolle tolle* garazika beratu eta il eben.

¡Eliztar biotzekuak!, ez bilatu mundutafen goraldirik, ez egin ezerbe mundutafen on eritxiz, ez eta mundutafak txalotu zagiezan; egin gauza guztijak Jaungoikuagaitik, bere naija betetiafen, bere aintza geitu eta zabaldutiafen, eta zeuen animak aberastutiafen; eta onan egiten badozue, Jaungoikuak goralduko zaitue emen lufian eta aintzatu an goijan. Alan izan dedilla.

Abenduko irugaren igandia

(Irakurri edo esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Judeguak Jerusalengo elizgizonen bidez Juan batiazaliari egiñ eutsen itaunia, gizaseme guztijak, bakotxak bere buruari egingo baleukie, ize onera andijak aterako leukiezan euren arimarako! Guazen ba gogai laburtxu bat itz onekaz egitera, *¿tu quis es?* — Itandu deijogun ba, gure buruari: *¿tu quis es?*, *¿zu nor zara?* Zara Kristotara?, Jesukristoren jafaile egijazkua?, Jesukristoren ikaskizunak ziñistu eta bere otzegintzan bizi zariana?, betetan dozuz zintzo zintzo Jaungoikuaren aginduak eta Elexa Ama Deunarenak, naita argaltasunez efakuntza txikiren batzuk euki? *¿Zu nor zara?*, zara Sakramentuak safi eta gertaera onagaz artuten dozuzana, meza santua jaiero gogoz entzuten dozuna?, zara apala, moduzkoa, onerazpentsua?, zara biotz biguneko eta efukiofa?, zara garbija biotzez, itzez eta egitez? Zure gogapen edo kontzientzijek erantzuten ba deutsu bayetz, ondo zuaz, zuzen zabiltz: jafaitu bide ofi, bera dalako zuzen biderik onena deuna izateko eta donokijagaz jaubetuteko; baña zeure gogapen edo kontzientzijek esaten badeutsu zariala kistotar epela, otza, onerazpen bagakua, Jaungoikuagaz, arimiagaz eta zeruagaz aztuta bizi zariana, arimarik ezpazeunka lez aberen antzera bizi zariana, afokeriz eta andi ustez beteriko gizona zariala, ta nasaikerijako bi-diari jafaiturik, atsegin loijetan ondatuta zagozana, orduan oker zabiltz, okefeko bidetik zuaz, eta noraezekua dozu bide okefak itxi eta bide zuzenera sartzia, bertatik jafaitutia, eta ez egun baten, ez ila edo urte baten, ezpada bizitza guztian, ba onan bakañik egijaztuko dozu zeure betiko salbaziñoia.

Ezin ukatu lei, gañantzi andija daukala itaune auxe geure buruari egitia: *¿tu quis es?*, *¿zu nor zara?*; ba beronek jakin eragingo deusku geure bizitzia-
ren asieran ezertxo be ez gariala eta geure indar utsez ezin dogula ezerbe egiñ, ba beste batek jantzi, janaritu eta erabili biar gaitu; bañiz geure bizitziaren azkenian miserija uts gara, au da, usteltasuna eta autsa besterik ez. Itaune onek jakiñ erazoko deuzku daukagun guztia: nai izatia, nai bizitzia,

nai osasuna, edertasuna, dirua, aukeria, dana Jaungoikuaren eskutik artu dogula eta berari bakarrik zor deutzagula, eta ezaubide onek egingo gauz esker onekuak, aspertu barik Jaungoikua onetsi eta esker onak emoteko gugaz aiñ ontasun andija euki dabelako. *Confitemini Domino quoniam bonus*, Dabid bakaldunak zirautzan lez. Auxegaitik, egunero, elexara guazanian edo elexan gagozانيا, egin biar genuzkijo geure buruari itaune auxe: *¿tu quis es?*, ¿zu nor zara?

Baita lagun urkuari be, batez be gure aizkide izan gura dabinari itaune auxe egiñ biar genuzkijo: *¿tu quis es?*, ¿zu nor zara?, zelakua da zeure ziñismena?, zelakuak dira zuk jafaituten dozuzan legiak?, zelakuak daukazuzen oiturak?, zelakuak zure asmoak eta intenziñoiak?, ¿zer da zure egintza guztijetan bilatuten dozuna?, berba baten esateko, ¿ze gizon modu zara? Ona ba zara, arteza eta zintzua ba zara, aizkitasun egijazkua bilatuten badozu, erdu ordu onian, aizkide izango gara, alkafen laguntzan bilatuko dogu bijon ona emen lufian, eta on bat andijagua, iraunkofagua eta betikua an goijan; baña erdiz erdizko aizkidia izan gura badozu, miñ utsezko aizkidia izan gura badozu, gaurko egunian asko dirian lez, seme ona besteen lepotik bilatu gura badozu, itz baten esatiaren aizkide izun edo hipokrita paltsua izan gura badozu, Judas'en antzera, ua ortik, ua etofi zaran bidetik, ba ez dot gura ik eskintzen dauztan aizkidetasunik, neure galdumendirako bakarrik izango litzatekialako.

Itaune auxe berberau egiñ biar leuskijue ezkongaijak ezkontzarako berbia emon baño lenago: *¿tu quis es?*, ¿zu nor zara? Jaungoikuaren adizkide zara?, Elexiaren seme zintzoa zara?, bere esanak eta legiak gordetan dozuzana?, oitura oneko gizona zara?, langile ona, arduratsua eta begiratua zara?, gauza guztijetan zeuria zaindu eta bestenai ikuturik egiten ez dakizuna?, ze ezkongai modu zara? Jaungoikuaren izenian eta Jaungoikua obeto otseginduteko asmoz zatoz emastegai bila? Erdu ordu onian eta Jaungoikuak onetsi zaigazala; baña Jaungoikuaren, arimiaren eta zeruko gauzai jaramonik egiñ gura ezpadeutzazu, ziñiste bako gizonen antzera bizi gura badozu, zure oituretan nagija, ardura bakoa bazara, edalia, jokolarija, eta asefakuntzia baño ezpadakartsu ez, ez emazte bila, ezpada serbitzari eta menpeko bila bazatoz, eta dongaruago dana diru bila, katanafu bila bazatoz, ua ortik, ua etofi azan bidetik, naijago uat neskazar bizi i lako baldrasagaz batu baño, emen lufian asafia eta guda gogofa igaro eta gero inpernuan bizi izateko.

Euki daiguzan ondo josirik geure adiñian eta biotzian, gogoraziño osasuntzu eta onuragañi onek, jakiteko nogaz aitu biar garian negahezko ludi one-

tan, bilatu daiguzan beti zeruagaz jaubetuten lagunduko deuzkuen aizkidiak, alderatu daiguzan geugandik bide okefetik eruan gaituezan aizkidiak.

Azkenez gogoratu sañi sañi Jaungoikuagaz, eta berak egiñiko eskintzarijakaz iraun bizitza onian eriotzaragiño, ba onan bizitzen ba gara Jaungoikuak onetsiko gaitu emen luñian eta an goijan emongo deusku guretzat izentaurik daukon aintzazko aro edeña. *Esto fortis usque ad mortem et dabo tibi coronam vitae.* Alan izan dedila.

Abenduaren laugarren igandea

(Irakurri edo esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Juan batiatzañe deunak Jordango ibai inguruan iragafi eta erakutzi ebana beti irakatzi izan dau eta irakasten dau gaur be, Elexa Ama Deunak, jauparijen edo elizgizonen bidez. Bautismo ostian pekatu astuna edo ilgarija egiten dabenak ez dauke beste biderik zeruagaz jaubetuteko, penitentzijako bidia baño: itxasuan galdu agiñian, ito agiñian dabilzazan efukarifik, edozeiñ egur, ol edo gauzai oratuten lez ez itoteko, era beratan pekatu astuna egiñ daben guztijak oratu biar deutze penitentzijari zeruagaz jaubetu gura badabe. Penitentzija barik ez dago salbaziñoerik; penitentzija barik ez dago zeruan sartuterik. *Nisi penitentiam...*

Eta ¿zer da penitentzija? Penitentzija izan leiteke onoimena, birtutia eta baita be Sakramentua. Penitentzija birtutia lez da, biotzeko damua, garbaija, pekatua egiñ dabelako eta pekatuagaz Jaungoikua iraindu dabelako, safatuten dabela asmo sendo bat geijago pekaturik ez egiteko eta Jaungoikuari egiñiko irañak ordainduteko *animi dolor at detestatio de peccato commiso, cum proposito non peccandi de caetero.* Alan diño Trentoko batzar deunak. Pekatua egitian jaurtiten dogu Jaungoikua biotzetik; beraz Jaungoikua bañero etofiko bada biotzera jaurti biar dogu biotzetik pekatua, ba Jaungoikua ta pekatua eziñ egon leitekez aldi baten biotzian. Pekatua gofotau

biar da Jaungoikuagaz aizkidetuteko, eta ezingo gara Jaungoikuagaz aizkidetu pekatuan gagozan artian edo pekatua laztan dogun bitartian. Era batera eziñ izan geintekoz Jaungoikuaren eta pekatuaren aizkide; edo batagaz edo bestiagaz: Jaungoikuak ez dau gura biotza erdikaturik, oso osua baño; beraz oso osuan emon berari, edo pekatuari.

Jaungoikuak eskatuten dau, pekatuagaz berari egiñiko iraña ordaindutia, eta au efazoeskua dala eziñ ukatu giñai, ba geuk be beste onenbeste eskatuten dogu; esaterako norbaitek iraiñ bat, gaitz bat edo kalteren bat egiten badeuzku, bertatik eskatuten dogu iraña ordaindutia, gaitz egiña edo kalte egiña osatutia, eta au egiñ ostian parkatuten deutzagu eta aizkidetasuna bafistutan dogu: emendik ezagutu ziñai penitentzizako birtutia, edo bardiñ dana, pekatuagaz damututia, garbatutia, pekatua gofotetia, eta egiñiko iraña ordaindutia dala biar-biafekua, nora ezekua, Jaungoikuagaz aizkidetuteko, betiko salbaziñoia jaristeko, zeruagaz jaubetuteko.

Au onan izanik, ¿ze pentzau edo esan giñai arako kristotar edo kristiñau, efeparu barik, pekatuak andijenak egiñ, pekatuan luzaro bizi eta pekatuari diraubenakgaitik? ¿Zer arako pekatu andi ta asko egiñ ostian, beti jan edana, jolasa, dantzia et atsegiñ zatafak baño, beste gauzarik goguan daukenakgaitik? ¿Zer arako kristotar, aberen antzera, beti luñera begira luñeko atsegiñak goguan dabezala eta iñoz be zerura [begiratuten ez dabenakgaitik? ¡Ah eruak diriala, itxuturik dagozala, eta itxuak edozeiñ tokitan jausi eta amilduteko ariskuan dagozan lez, alantxe dagozala infernuan jausteko ariskuan, eta jausiko diriala bat bateko eriotziak arapetan badauz pekatuko egoeran eta pekatuz erainduta.

Penitentzija Sacramentua lez da: Jesukristo gure Jaunak egiñiko zazpi Sakramentuetatik bat, zeñen bidez parkatuten jakuz bautizau ostian egiñiko pekatu guztiak; baña Sakramentu onen bidez parkatuko bayakuz pekatuak, premiñazkua da, nora ezekua da, pekatu guztijak ziatz, argiro eta garbiro biotzian edo ariman dagozan lez, autor-entzuliari autortutia: egijazko pekatuak egijazkuak lez, dudan daukeguzanak dudazkuak lez, agirikuak agirikuak lez, ixilikuak ixilikuak lez, geitu barik, gitxitu barik, edertu edo apaindu barik, iñori efua ezafi barik, bilotz bilotzik dirian lez, eta autortu biar dira damutasun andijagaz, beraniko apaltasunagaz eta geijago pekatuak ez egiteko asmo senduagaz. Itxiten badau pekatuaren bat edo pekatuaren zerzelidaren bat dakijala autortu barik, autorkuntzia izango da txafá, dongia, eta geratuko da len baño txafágo eta dongágo eginda.

Gañera autorkuntza egitera doianak euki biar dau gogo sendo bat autor-entzuliaren esana egiteko eta emoten daben penitentzia betetako; gogo au ez daroianak ez da ondo autortuko, ez jakoz pekatuak parkatuko, ez da Jaungoikuagaz aizkidetuko, eta il̄ten bada ez da salbatuko. Orain̄ ba, ¿zer esan arako autorkuntzarik egiñ gura ezdabenakgaitik eta autorkuntziari an-draskuen eta *beaten* zeregiña lez begiratuten deutzenakgaitik?; ¿zer esan arako gogo barik, ezamezakgaitik bakarik, autorkuntzia egiten dabenakgaitik?; ¿zer esan arako gizon da emakuma, gertaera barik, asterena egiñ barik, damutasun barik autorkuntzia egiten dabenakgaitik?; ez besterik ezpada oker dabilzala, Jaungoikuaren gofotuan bizi diriala eta bat bateko eriotziagaz il̄ten badira betiko galduko diriala.

Iratzartu ba ondijek, artu penitentzia egiteko zaletasun andi bat, gertu bere bidez zeuen biotzak uferatuten dirian jai andijetarako, ba zenbat garbi-jako eta ariman gertuago, ainbat onera, mesede, grazi eta onetzi geijago jaretziko dozuez datozen egun pozgarijetan.

Eskatu, ba, Birgiña Marijari, sortu daijazala zuen biotzetan egun onetan bere biotzean eukazan gogo bigun da gozuak, bera lez gertaurik Jesusen jayotzarako, jaretxi daiguzan arimako onera andijak emen lufian, gero an goijan abestirik ederenak abestu daiguzan, gotzonakaz batera, betiiraun guztijan. Alan izan dedilla.

"In Vigilia Nativitatis"

laugarren igandean jausten danerako

(Irakufi edo esan gura bada goizparkija, edo bestelan azi onan itzaldija).

Urte baruan ez dago gaurko eguna lango egunik, ez eta gaurko gaba lango gaurik: egun onetan, eta batez be gau onetan, dana da poztazuna, alaitasuna eta atsegiña: gau onetan poztuten dira umetxak, poztuten dira neska mutilak, eta baita be atxo-agurak; eta poztazunak, biotzian gañez egiñik, ir-

teten dau kanpora, azalera, eta agertuten da abesti ederetan; ¡zelako abesti samur, bigun, gozo eta maitekofak abestuten ez dira gau onetan!, batez be Euzkal-erijan. Elexa Ama Deunak be agertuten dau poztazunik andijenaz, eta poztazun au bere seme guztijetara zabaldu gura daben lez, dirauzku gaurko otoyetan: *Hodie scietis quia veniet Dominus et mane videbitis gloriam ejus*: Gaur jakingo dozue Jauna datofela eta bijar bere aintza ikusiko dozue. Santutu edo deundu zaitez gaur, gertu zaitez, ba bijar Jaunaren altasuna ikusiko dozue: *Santificamini hodie, et stote parati, quia crastina die videbitis Majestatem Dei in vobis*. Gertu ba zeuen arimak autorkuntza eta Jaun artze on baten bidez, arindu zeuen arimak ziñismen biziz eta aberastu egite onakaz, Jesusen jayotzia izan dediñ zuentzako pozgafija eta onera edo mesede andikua. Gaurko gabian jayo zan Jesus gure Salbagile andija; berangaitik uste dot egokija izango dala bere jaijotzaz zerbait esatia. Entzun gogo onagaz.

Gauza guztijak amaira daruazan Jaungoikuaren arduratasunak alan nairik, Zesar Augusto Emperadoriak edo Kaiserak agindu eban bere diefiko notin guztijak padro baten ipiñi zeitezela, eta agindu oni oben egiñaz, Jose ta Marija Nazaretetik Belenera juan ziran, Belen zalako Joserren jaijoteñija. Nazaretetik Belenera ogeta amar bat legua dagoz; bide luze eta gatxak zirian, eta negu gogofaren erdijan izan afen, bide guztijak oñaz eginbezan. ¡Ze nekatuta elduko zan Birgiña Marija, amabost urte baño ez eukazana, bere semia argitara emoteko egunetan! Belenera ilun abañian eldu ziran, eta uste eben seniden batek euren etxian artuko ebezala, baño aterik ate ibili afen, eskekuen antzera, ez eben idoro etxe bat bera^ggaba igaroteko. ¿Zer egiñ eukian era atan? Gaba gañean zan, zer janik ez euken, gau ilun ta otza, nun edo nun igaro biar eben; ez jakintasun onetan zuzenduten dabez euren oinkadak erititik kanporantz, eta an eri inguruan Jaungoikuak izentau eutzen estalpe bat, cobatxu bat, nun sartu oi zirian eskekuak eta txiroak, eta nun gordetan ebezan aberiak gauba igaroteko; aldi atan idi bat eta asto bat egozan. ¡Zelako ostatua!, ¡zelako jauregija gertetan deutze Jaungoikuak bere gurazuai! ¡Emen bai erakusten dabela argiro apaltasuna gura dabela gauza guztijetan eta gauza guztien gañetik! Jaungoikuak gura izan baleu, jauregirik edereña, apainduena eta aukerakuena gertaiko eutzen, ba bere eskuan daukoz gauza guztijak, Igarliak abestuten dauan lez: *tui sunt caeli et tua es terra*, baño Jesus

etoñen afokerija eta baneuja zapaldutera; eta auxegaitik gertetan deutze toki apal eta txiroa.

Jose eta Marijaren lenengo egintza estalpien sartueran izan zan Jaungoikuari eskerak emotia, gero euren gauzatxuak atondu ostian, Marija, belaunikatu ta otoirik samur eta beroenak egiñ ebazan, eta amaitu ebazaneko arannun dakutzan bere begijen aurian bere semetxu maitia, zein argitaratu eban ezelako min barik eta bere dontxelatasunaren kalte barik, ba bere semetxua urten zan bere sabel garbitik eguzkija kristal batetik lez, usain gozua lora eder batetik urten dauan lez. ¡Gau zorientzua Mariarentzako! ¿Nok adierazo lei zer jaso zan Marijaren ariman? Gotzonen minna biar litzateke onetarako, ba gure minna motelegija da ain gauza miragarija esateko.

Ama bigun, samur eta maitekor bati dagokijon lez, batu eban bere semetxua oijal zuri, garbi eta txiroakaz, janaritu eban bere ugatz ugari eta gozoakaz, eta ez eukirik kumarik, ezari eban aska baten lasto gainan eta abere bijen erdijan, zeintzuek berotuten eben beren arnaziagaz. Gero bere Jaungoiko eta egilari zor eutzon itzalagaz gurtu eban, emonik esker andiak bere amatzat aukeratu ebalako.

Ara emen Jesusen jaiotza apala eta txirotasunez inguratua. ¿Nok uste izango eban onan jaijoko zala zeru lufen egilia, gauza guztijen jaubia, gotzon eta serafin guztijen gainetik bere jarlekua daukana? ¿Nok uste izango eban Jose eta Marijaren laguntzan bakarrik jaijoko zala aneita gotzon bere laguntzan daukazan Jaungoiko andija? Inok be ez; baña Jesus etoñen ludira ikasbiderik ederenak emotera, eta ikasbide onek emoten dauz ludi onetan saferan, jaijotzan bertan, eta onek dira apaltasuna eta txirotasuna: *jan clamat exemplo, quod postmodum predicaturus est verbo*, diño Bernardo deunak.

Eta ¿nortzuei deituten deutze Aita zerukuak bere semiari ikusaldija egitera? Jerusalengo Bakaldun eta agintarijai? Ez. Jerusalengo andiki, aberatz eta jakitunai? Ez. Aukera guztijan bizi dirian judeatarai? Ez. Artzain txiro eta apalai deituten deutze, biotz garbi eta arima zintzuai deituten deutze, ba onexek dira Jaungoikuaren gogokuak, onexek dira Jaungoikuak maite dauazanak. Belengo inguruan landa zelai bat egoan belar ugarikua; antxe egoan artzain pilo bat ganaduak zaintzen, eta uste barik onexei agertu jaken gotzon bat ziraukela: *Pastores, nolite timere, evangelizo vobis, gaudium magnum: artzainak, ez ikaratu, ez bildurtu, ba iragarten deutzuet albiste on bat zuen biotzak gozotazunez beteko dauzana: Daviden onijan, zuen eta ludiko Salbagilia ointxe jayo da: zoyaze eta askatxo baten etzanda aurkituko dozue. Ari-*

tuta egozan artzañak gotzonaren itzak entzunda: ez ekijen zer egiñ, ez ze bide artu, eta onetan agertuten jake beste gotzon talde andi bat *Gloria in excelsis Deo* abestuten, eta danak poztuta, sututa, duaz Belenera mirarija ikustera: ara eldutan ikusten dabe Jesus jayo bañija, belaunbikatu eta gurt uten dabe, eskefak emoten deutze eurai lenengoz deitu izan deutzelako, eta biur-tuten dira euren ganaduakgana, idoroten daben guztiai ikusi daben mirarija iragañijagaz.

Onan jayo zan Jesus, txirotasunez eta apaltasunez ingurututa, eritxi baten iñoren gomuta eta laguntasun bage, eta alan guztiz be bere jayotziak poztu eban zerua, lufa, eta poztu ebazan biotz guztijak.

Aita zerukua poztu zan, ekizalako jayotza onezaz pekatuaren gatxak osatuko ziriala, eta Jaungoikua eta gizonagazko asafiak amatauko ziriala; poztu zan deun Jaungoikua gizonakaz bizi al izateko eguna eldu zalako, eta poztu zan Espiritu Deuna be ekuzalako egijazturik gizon egintzako eskutapen miragañija.

Poztu ziran gotzonak, ba zerutik urtenik, alde guztijetan abestu eben aintza Jaunari goi aldiñan eta bakia lufian biotz oneko gizonai; poztu ziran Aita lenak eta Abrahan tokiko arima onak, ekuzelako jayotza onen bidez laster edegiko jakezala ango aitiak eta igo zeruko aintzaz jaubetutera.

Poztu gaitian gu be, ba Jesus jayo zan gu diabruaren menpetik ateratiafen, gu pekatuetatik askatutiafen, gu graziz eta doez aberastutiafen; baña begira, eruan gura gauz zerura, ez afokerijako bidetik, ezpada apaltasunetik; ez aberastasuneko bidetik, ezpada txirotazunetik; ez aukeratazuneko bidetik, ezpada iñdura edo mortifikaziñozko bidetik. Ikasi ba Jesusek Belengo azkatxutik emoten deuzkuzan ikasbide edefak, eurak jañaiturik eldu gaitezan betiko zoriontasunera. Alan izan dedila.

Jesusen jayotz osteko lenengo igandea

(Irakurri edo esan goizpara eta jañaitu onan):

¿Zer esan gura eban Simeon deunak berba bildurgari onekaz: *Ecce positus*

est in ruinam et in resurrectionem multorum? Ara, ume au izango da askoren galdumendirako eta beste askoren biztuera edo osasunerako. Esan gura eban, batzuek ontzat artuko ebezala Jesusen irakatzijak eta eurak jařaiturik salbauko ziriala, bařa beste batzuek ez eutzela bere irakatzijai jaramonik egingo, eta galduko ziriala; eta alan jaso zan, ba batzuk laztandu ziran urkuts edo erligiño santuagaz, jařaitu ebezan bere irakatzijan, ondu eben bizitzia, iraun eben bizitza onian eriotzaragiño eta jaubetu ziran zeruagaz; beste batzuk bařiz urkutz edo erligiñoiaren aurka jaři ziran, ezestu eben alde guztijetan eta euren itxutasun eta gořotuan iraun eben eriotzaragiño eta galdu ziran betiko.

Beste onenbeste jasoten da gure egunetan be: asko dagoz Jesus zein dan ezdakijenak, ezagutu be gura ez dabenak, Jesusen irakatzijak eta legiak aintzakotzat artuten ez dabezanak, azkatasunik eta nasaikerijarik andijenian bizi dirianak eta al daben guztija Jesusen eta bere erligiño santuaren kaltez egiten dabenak; beste askok bařiz Jesus ezagututen dabe, gurtuten dabe, bere irakatzijak eta legiak zintzotasun guztijan betetan dabez eta bere ikasle eta jařailak izatia honra anditzat daukena; alan izan da beti, alan da gaur be, eta alan izango da auřerentzian be.

Jesus umetxuak jaijokeratik emon deuzkuz ikasbiderik edefenak; eurak jařaituten badoguz, Jesus izango da guretzako salbagilia. ¿Ze ikaskizunak dira onek?

Lenengoa apaltasuna. Jesukristo gure Jaunak ondo ekijan ařokerija izan zala gotzonak zeruan eta gizona luřian galdu ebazana; ařokerijatik datoz ludi onetan aiñ ugari dakuzkuzan pekatu, gatx. nazpiñe eta zoritxar guztijak, eta euren osagařitzat emon gura izan deuzku apaltasuneko irakatzi edeřa; auxegaitik, Jaungoiko altzua izanik, gauza guztien egilia, eta jaubia izanik eta bere eskuan gauza guztien juan etořija eukirik, txiki, men eta ezerbereztuta, estalpe txiro baten jayota, eta agertuten da, ez andiki eta aberatzai, ez jakitun ařoiari, ez aukeratasun eta patxada guztijan bizi diranai, ezpada artzaiñ apalai, mundu gaiztoak aintzakotzat be ezdaukazanai eta ezjakiñai, euren oituretan garbiyak dirianai, eta Jaungoikuaren ezan eta legiak zintzotasunik andijenagaz betetan dabezanai. Guri be, apalak bagara, agertuko jaku Jesus adiñeko argitazunakaz, biotzeko gozotasunakaz eta bake andijagaz, ba apalakaz, zintzoakaz eta biotzez tolesbakuadaz daukoz bere artu emon eta bařukotasun guztijak, argiro dirauzkunez igarriak: *cum simplicibus sermocinatio ejus.*

Bigafen ikaskizuna txirotasuna. Jesusek ondo ekijan txindijai, ondasunai eta eukijai jakon zaletasun lafegijak daukola mundua galduta. ¡Zenbat pekatu egiten ez da diru apurtxu bat irabaztiaren! ¡Zenbat guzur, gaiztakerija eta kalte egiten ez da ondasunakaz jaubetutiafen! ¡Zenbat lapufeta eta gizon erailte inorenagaz jaubetutiafen! ¿Zek dakars askotan guda gogor ta odol-tzuak, diefirik andijenak ondatutiak, erijak txirotu eta sendijak eskeko bidian ipintziak? Diru guriak, lafegi irabazi nai izatiak. Igaro dan guda andi eta odoltzua, lau urte iraun dabena, einbeste eriotza, triskantza eta ondamendi egiñ dauzana, ¿zetatik sortu zan? Sal-erostetik. Diefirik andijenak bata bestiananako bekarikeriz bizi izan dira: urlija diefirjak sal-eroste andi eta zabalak daukazala ta, merkiago saltzen dabela ta beste diefirjai kalte egiten deutzala ta, eta beste onelako mila atxakija esan ta ipiñita, juan ziran eskuetara, sua isiotu zan, eta sua beiñ isiotu ezkeru ¿nok jakiñ noraño zabalduko dan?, ¿nok jakiñ zelako ondamedijak ekañiko dauzan? ¡Oh ze eñu andija dauken Jaungoikuaren begijetan, su au isiotu eben diefirjetako agintarijak!

Jesus umetxuak, ekandu gaizto au osatu gurarik, emon gura izan deuzku osagafirik onena; auxegaitik lenengo erakusten dau egiñagaz, geruago bere bizitzan, itzez, [berbaz erakutziko dabena; auxegeitik agertzen da Belengo estalpien txirotasunik andijenian. Ez dauko etxerik gau otza igarotzeko, ez oerik etzarteko, ez jantzi apaindurik, oyal zuri garbi batzuk baño bere aragi bigun samurak estalduteko, eta ez dauko bizitzarako biar bialeko dan gauzarik. ¡Oh txirotasuna!, ¡ze maitekor izan zaitu Jesusek! Borondatez lastanduzan txirotasunagaz, ba bera zan gauza guztien jaubia, beriak ziran eta dira zeru lufetan agiri dirian gauza guztiak, igarle deunak dirauzkun lez: *tui sunt cæli et tua est terra*; beria da guk daukagun guztia, ba berak emona da, geurez ez daukagulako ezertxo be, eta alan guzti be agertuten da ez-eukirik andijenian, txirotasun bizi bizijan. Eta ¿zergaitik? Erakusteko guri egijazko zoriontasuna ezdaguala asko edo gitxi eukitian, ezpada Jaungoikuaren nai edo borondatia egitian eta berak emon deuzkunagaz pozik egotian baño; auxegaitik esan eban gerotxuago: *Beati pauperes spiritu, quoniam ipsorum est regnum cælorum.*

Ez euki ba zaletasun lafegirik ondasun eta aberastasunai, arimiarentzat kaltegarija dalako eta safi askotan gure betiko galdumendija dalako.

Jesusek bere jayotzan emoten deuzkun irugañen ikaskizuna da ildurate edo mortifikaziñoia. Kalterik geijen ludi onetara eta gizartera dakañen ekandua nasaikerija da: berak ondatu eban ludija ujal ikaragarijagaz, berak efe

eta kiskaldu ebazan Sodoma eta Gomofa-ko uri andijak, berak ekafi eban madarikaziñoerik andijena Pompeyako uri aberatzera, Martiñikako ugartera eta beste toki askotara, eta esan lei gaur be urijetara, erijetara eta sendijetara berak dakarzala zoritxar guztijak. Ekandu gaizto onen osageija ildurattia edo mortifikaziñoia da. Gatx au osatutiafen, Jesusek asten dau bere bizitzia ildura gogofakaz: igaroten dau otza, jaramonik eza, destañak, deslaitasun edo desanparuak bere jayotzan, esetzijak, irañak, ikusi eziñak eta gorotuak bizitzan, presondegijak, sartadak, kurutziak, biartunak, lotsarijak eta erioztarik gogor eta miñezkuena azkenengo orduetau. Kurutziagaz laztandu zan jayokeran, kurutziak lagundu eutzon bizitzan, eta kurutziagaz azkenian be ilzan.

Jesusen antzekuak izan gura badogu, maitatu daigun apaltasuna, txirotasuna, eta laztandu daigun kurutzia: Jesusen ostian kurutzia eruaten ezpadogu ez gara zeruan sartuko; esetzijak, naigabiak, negařak, zoritxařak eta samintasunak dira gure ludi onetako jabegaiak (herencia): eruapen andijagaz eruaten badoguz izango gara Jesusen antzekuak, eta emen lufijan Jesusen antzekuak dirianak an goijan izango dira bere lagunak betikotasun guztijan bere aintzaz inguraturik biziko dirianak, zein guztioi biotz biotzetik opa deutzudan.

Urte barija

Gaur asten dogu urte barija, eta gizartian oituria dan lez, senidiai, aizkidiai eta ezagunai urte on eta zoriontzu bat opa izatia, nik be zuei, n. e. maitioi, opa deutzuet biotz biotzetik urte on bat, urte baketzu bat, urte zoriontzu bat, baña ez mundutařak opa deutzuen urtia: mundutařak ipinten dabe zoriona anditasunian, aberastasunian, aginpidian, aukeran bizi izatian; onako zorionik ez deutzuet opa, izango litzatekialako zuetariko askoren galdumendirako: ondasunak, aberastasunak eta aginpidiak asko itxututen dabez, eta euren biotzak Jaungoikuagandik aldentuten dabez, eta gorantz, zeruruntz be-

giratu bialian, berantz, luferantz begira ipinten dabez, eta emendik sortuten da geijenian euren galdumendija. Nik opa deutzuet urte bat ona, Jaungoikozkua, baketzua, zorientzua goi eskafez eta merezimentuz beterikua: onakoxia da benetan urte ona. ¡Zorientzuak Jaungoikuagaz bizi dirian eñijak: *Beatus populus cujus Dominus Deus ejus.*

¿Zer balio deuzku urte bat geijago bizitia urte ori pekatuan eta Jaungoikuaren asafian igaroten badogu? ¿Zer balio deuzku urte bat geijago bizitia auferakadatzu bat egiten ezpadogu onoinenian eta Jaungoikuaren maitasunian? ¿Zer balio deuzku urte bat geijago bizitia, urte ofetan osotuten ezpadoguz urte zafian egiñiko pekatu, gaiztakeri eta utzegitiak? Ezerbere ez. ¿Zer egiñ biar dau ba kristiñau zintzo batek Jaungoikuak emoten deutzon urte bafi onetan? Bere arimia salbau gura badau, zeruratu gura badau, egiñ biar dabena da begiraldi bat atzeruntz emon eta ikusi zelakuak izan dirian igaro dirian urtiak: onak eta onera andikuak izan badira, jañaitu auñera ibili izan dan bide-tik, eta eskatu Jaungoikuari indaña eta laguntza azkeneragiño zuzen zuzen ibilteko, ba azkeneragiño zuzen, artez eta ondo dabilena jaubetuko da zeruagaz, Alan diño Pablo Apostolu deunak: *qui perseveraverit usque in finem salvus erit.* Urte txafak eta arnazi edo igali bagakuak izan badira, artu erabagi sendo bat kristiñau zintzo bati dagokijon lez bizi izateko, garbitu arimia pekatuaren orban guztijetatik, osotu edo eñemedijau utsegitiak eta jañaitu zeruko bidiari gogoz eta aspertu barik. Gaur asi dogu urte bafiña; ¿baña urte au amaituko ote dogu? Askok uste dabe bayetz osasun ona daukelako, sendokote dagozalako; baña bizitzia eta osasuna ez dagoz gure eskuan, Jaungoikuaren eskuan baño, eta Jaungoikuak emoten dau eta kentzen dau berak gura dabenian: berak daki eta erabakita dauka nori deituko deutzon aurtengo urtian, datoñen ilian, datoñen astian; batzuei deituko deutze laster, beste batzuei beranduago, eta guk itxiten doguzan utzunak ludi onetan beingo baten beteko dauz.

Egiñ daigun ba gogarte laburtxu bat, oldoskun edo pentzamentu onetzaz.

Eskar andijak zor deutzaguz Jaungoikuari amaitu dan urtian egiñ deuzkuzan mesediakgaitik. Berak gorde deuzku bizitzia eta osasuna, berak emon deuzku janarija, edarija, jantzija, bizitokija eta abar, berak gorde gaitu aibat arisku eta galbidetatik, zeintzuetan ziur ziur galduko giñan. ¡Zenbatek galdu ezdabe bizitzia eta osasuna igasi dan urtian! Batzuek galdu dabe gai-joz, beste batzuk itxasoan itota, miñetan apurtuta, automobiletan zatituta, uste bagako daunbada bategaz il da. ¡Zenbatek galdu ezdabe osasuna, eta

dagoz gaur oian etzanda, gaijotegitan, klinikan, osagiñen eskuetan, ayeneka eta miñez. Guri bañiz ez jaku ezerbere jaso; eta ¿nori zor deutzagu mesede au? Bakarik Jaungoikuari, ba bere eskuan daukoz bizitzia ta eriotzia, osasuna ta gaijotasuna. Mesediak esker ona eskatuten badabe, ¿ze ¿zijo edo motivo andija Jaungoikuari esker onak emateko!

Baña mesede onek andijak badira, andijaguak dira arimiaren aldetik egiñ deuzkuzanak. Pekatu astuna edo ilgarija egiñ genduan unian bertan jaurti geinkezan gaiztora edo infernura, eta ez gaitu jaurti, ezpada erukirik andijena-gaz itxaron deuzku, damututa, garbatuta eta pekatua autortuta beragana biur-tu gaizan. ¿Zer izango zan gugaz ¿erukirik ¿izan ezpagendu? Igarle deunak argiro dirauzku: *habitaset in inferno anima tua*. Zu gizona, zu emakumia, mu-tiñia edo neskatilia, ¿zer izango zan zeukaz arako egunian, arako gaubian, arako aldiñan, ardituta zengozanian, biraoka zebiltzazanian, jolas gaizto edo dantza zikiñetan zebiltzanian, bat batera il izan baziña? *Habitases in inferno...* Beraz il ezpazara eta infernuan ezpazagoz, zor deutzazu bakar bakarik Jaun-goikuaren erukitasunari. ¿Ze zijo edo motivo andija, diñot bañiro be, Jaunari esker ona agertuteko!

Urte bañija asi dogu, eta urte au emon deuzku Jaungoikuak, ez zorakeri-jetan igaroteko, ez gaiztakerijetan ibilteko, ez nagikerijan egoteko, ezpada beragaz ondo balijaurik, onera andijak aterateko. ¿Zer da ba urte bañi onetan egiñ biar deguna? Lenengo eta beiñ lenagoko pekatuakaz damutu, utzegite guztijak osotu, Jaungoikuari egiñiko irañak ordaindu, eta bizitza bañija artu eta berari jañai azkeneragiño: auxe diño Euzkal-eriko esaera zar batek be: «Urte bañija, bizitza bañija». Artu ba bizitza bañija, Jaungoikozko bizitzia, Kristotar zintzo bati dagokijon bizitzia: zuzendu oraiñ arte egiñiko oker guz-tiak eta jañai sendoro eta aspertu barik zeruko bidiari, bide ofen azkena ze-rua da ta. Emon eskerak Jesukristori egiñ deuzkuzan mesediakgaitik eta emon deuzkuzan goi eskerakgaitik, eskatu grazi eta laguntasun bañijak eu-rakaz indartuta, egintza onetan eriotzaragiño iraun daigun, gero eriotz os-tian an goijan zari andi eta amaibakua artu daigun, zeñ biotzetik danori opa deutzudan.

Eregeñ asteko igandea

(Irakurri edo esan goizpafa eta jafaitu onan):

Ume Jesusegaitik goizpafak diñuana zuen seme-alabakgaitik esan albalizte, ¿ze seme-alaba zuzen eta eratukuak izango zendukezan! Nik uste dot guraso guztiak gura leukazela seme-alaba on, esaneko eta aingerutxu batzuk eukitia; baña, ¿zer egiten dabe onetarako? Askok, ez esatiafen geijenak, ezerbere ez: seme-alaben ontasuna eta mentasuna dator asijera ona emotetik: asijera onak beti emoten dauz arnari edo igali onak; auxegaitik gurasuak alegindu biar dira euren seme alabai asijera ona emoten kendurik euren okefuna guztiak eta ezi eta azpiraturik euren mukerkerija eta zitalkerija guztiak.

Ikaskizun au onera aundikua dalako, goiz onetan beretzaz itz egingo deutzuet. Entzun ba gogo onagaz.

Seme-alabak gurasuen eskuetan dira buztiña zati bat oleruan eskuan lez, egur zati bat santu egile baten eskuan lez, argizai biguna edozeñen eskuan lez. Oleruak buztiña zatijagaz gura dabena egiten dau: pitzar bat, lapiko bat, lorak eukiteko ontzi bat; taiju egiliak egur zati bategaz egiten dau gura dabena: nai badau aingeru totolo bat edo diabru txiki edo andi adardun bat: bardiñ bardiñ egiñ lei argizaijagaz be. Gurasuak, gura dozuez seme-alaba on, apal, esaneko eta lotsakijak euki? Zeuen eskuan dago. ¿Gura dozue izan dittezan okefak, gaiztuak, lotza bagakuak? Ori be zeuen eskuan daukazue: zelako asijeria emoten deutzazuen, jasoko da bata edo bestia. Begira zer diñuan Espiritu deunak: *Adolescens juxta viam suam etiam cum senuerit, non recedit ab ea*: Gaztiak gaztetan artzen daben bidia zartzaroan be jafaituko dau.

Edegi daiguzan idazti deunak, eta euretatik ikusiko dogu asijera ona artu daben seme-alabak garbi eta efubakotasun andijan gorde izan diriala. Tobias gaztia ¿zegaitik izan zan aiñ ona, apala, esanekua, efukiofa eta Jaun zaleta-

sun andikua? Gurasuakgandik artu eban asijera onagaitik; gurasuak euki eben ardura andija gazte gaztetatik beren umetxuak Jaungoikuaren lege santua ikasi egijan, eurak sartu eben biotz garbi eta efubako atan Jaungoikuaren bildur santua eta pekatuaganako gofotua: *ab infantia timere docuit et abstinere ab omni peccato*. Susana gaztia ¿zegaitik gorde zan aiñ garbirik eta ez zan jausi iru agura donga eta zikiñen esetzijetan? Asijera ona artu ebalako: bere gurasuak alegindu ziran gaztetatik erakusteko Moisesen legia, eurak sortu eben bere biotzian garbitasunaganako zaletasun andija, auxegaitik emon ebazan gero onbide aiñ edeñak: *Patres illius erudierunt filiam suam secundum legem Moisi*. ¡Gurasuak!, benetan maite badozuez zuen umetxuak, Tobias eta Susanaren gurasuak egiñ eben lez, emon zuen seme-alabatxuai gazte gaztetatik asijera ona, zuzendu euren lenengo oinkadak onoimeneko bidetik. Baña gurasorik geijenak ez dabe au egiten, eta seme-alabak gazte gaztetatik bide okerak artuten dabez. Guraso askoren maitasuna ez da ona ta sendua, ezpada txarfa eta kaltegarfija baño: batzuetan eurak ez naigabetuñen eta beste batzuetan ez negañez ikustiañen, itxiten deutze eurenaz urteten, nai daben guztija esan da egiten, euren ekandu zitalak ez dira azpiratuten, euren gurari bidebagakuak ez dira ukatuten, euren dongakerijak ez dira zigortuten... eta ¿gero zer? Urteten dabe seme-alaba oker, muker, zital eta lotsa gaiztokuak; emen ikusten da mutiko bat erantzuera txarfekua, gezurtija, biraotija, lapufe, zijora emona; an ikusten da neskatilatxu bat baneuje eta apaindurija zalekua, mukeña eta sistrinkerijak baño ez daukazana; emen ikusten da mutiko bat urtiak baño len gizon eginda: fumalarija, jokolarija, edarijari emona; an ikusten da neskatilatxu bat etxe guztia aidian darabilena, eta ez etxeakuakaz, ez ausuakaz, ez iñogaz be bakian bizi ezin dana. ¡Gurasuak!, azi ona ereiten ez dan soluan bedar gaiztua, sasija eta lafa ikusten dan lez, alantxe azi ona ereiten ez dan biotzetan eziñ ikusi lei ekandu gaiztua, zitalkerija, lotsabakerija eta pekatua baño. Au ez da seme-alabak maitatutia, gofoto izatia baño; maitasun egijazko eta onak bilatuten dauz maitiarentzako onera guztijak, eta ez kaltegarfi izan leikiiozanak. Naturalistak esaten dabe tximiñuak lafegijan maitatuten dabezala euren umiak, eta auxegaitik beti daroiezala eurakaz, maitazuneko koipekerijak egiten, eta ainbesteraño laztandu eta estututen dabez eze, safitan ilten jakez lafegi estututiañen. Beste onenbeste jasoten jake guraso askori be: lafegijan maitetuten dabezalako, itxit en deutze gura daben guztija egiten, eta ilten dabez euren arimak pekatuko erioztziagaz.

Gurasuak ezi biar dabez euren seme-alaben mukertasun eta zitalkeri guztijak efuki bage: lenengo berba bigun, gozo eta efazoezkuakaz, eta onan eziñ dabenian zigortuagaz, makilia erabilijagaz: Espiritu Santuak dirautze makilia erabilteko, eta makilia edo zigofa erabilten ezpadabe ez dabez zuzenduko, ez eta bide onera ekariko.

Maitasun lafegi eta bidebakuagaz asten diran seme-alabak, goiz edo berandu, izango dira gurasuen boferuak: asiera ona artuten ez daben seme-alabak ekarten deutez gurasuai samiñtasun andijak. Beiñ baten sartu eben presondegijan artzaiñ gisagaijo bat esan barik zegaitik sartuten eben; presondegiko bakartasunian eguala asi zan bere burua astertuten jakiteko zegaitik sartu eben, eta diño bere artian: nik ez dot ezer oztu, ez dot iñor il, ez deutzat iñori kalterik egiñ, neure goguan ez daukat kezkarik: egunero egiñ dodaz neure otoijak, abestirik [edeñenak abestu dodaz ardi zaiñ ibili nazanian... ¿Ete dago onetan efenik, paltarik, gaiztakerijarik? Ez dot uste. ¿Zegaitik sartu nabe presondegijan?... Onetan dator Jueza presondegira eta eskatuten deutzoz mila eñal bere egintza dongiagaitik. Jauna, dirautzo artzaiñak, besteren bat gaitik artu nabe, ba nik ez dot gauza txarrik egiñ. Juezak dirautzo: ¿ez zara zu urlija artzaiña? Bai jauna, berbera, erantzuten deuzo artzaiña. Ondo da, dirautzo Juezak, zuk ez dozu gauza txarrik egiñ, baiña zure mendekuak egin dabe: zu otoi egiten zengozala, zu abestuten eta txibilitua jotzen ziñarduzula, zure ardiak soluan sartu eta kalte andijak egiñ dabez; arek ez ekijen zer egiten eben; zeuria da eñu guztia, zeure mendian egozalako eta euren arduria zeuk bakarrik zeukezalako. (Aplicase la moraleja a los padres).

Deritxat ba, guraso asko, berez onak, elizkoiak, onoimentzuak eta bere egitetan eta artu emonetan zuzenak izan da be, galduko diriala euren seme-alaben pekatu eta gaiztakerijakgaitik.

Ludi onetan dakuzkuzan gatx eta zoritxar guztijak datoz seme-alabai, asijera ona ez emotetik; ludi au okertuta, gaiztotuta eta naspilduta badago, da guraso ardubaga asko dagozalako eta euren biar izanak alde onetatik beteten ez dabezalako. Seme-alabai erakutziko balizkijue Jaungoikua ezagututen, Jaungoikuari bildur izaten, bere lege deuna eta Elexiarena zintzo zintzo beteten, beste ikusgarri bat izango leuke ludi onek: ez litzake ikusiko ez sozialistarik, ez pistolerurik, ez presondegirik, ez eta guardazibilik: biziko genitekez alkañen maitasunian eta bakerik gozatzuenian.

Bete ba, gurasuak, zeuen biar izanak, arduraz, eta alegiñ guztijagaz eskatu onetarako biar dozun laguntasuna Jaungoikuari ziñismen biziz eta uste

osuagaz, eta onan egiñagaz, Jaungoikuak donetziko zaituez, seme-alaba onak izango dozuez, eta eurak izango dira bizitzan zuen onria, eriotzan zuen poztasuna eta eriotz ostian zuen aintza donokijan.

Eregeen osteko bigarren igandea

(Irakurri edo esan goizpafa, eta jaraitu onan):

Entzun dozuen lez, Andra Marija Kanango esteguetan aurkitu zan, eta bere esan eta egite guztijak ikasbide eder eta mamintsuak saratuten dabezalako, uste izan dot eurak azaldutia, onera andijak aterako doguzalako.

Zer egiñ eban Andra Marijak Kanango esteguetan? Gauza gitxi: ezer be ez, alan esaterako. Alan guzti be jaretxi ebaiazan mesede andijak ezkon bari arentzako; ixil, baña adi adi egoan, eta ezagutu eban ardaua kastau jakela, eta lotzari andijan aurkituko ziriala ezkon barijak ardao paltia ezagututen ebenian, eta efukituaz eurakaz, berbertatik neuria artzen dauz ardao paltia edo ardaorik eza osatu edo efemedijatzeko: zuzenduten da bere seme Jesusengana eta dirautso: *vinum non habent*: ardaorik ez dauke; eta berba labur onekaz askortu eban bere bizitzako lenengo mirarija egitera. ¡Zer ontasun eta efukitasun andija agertzen dau Andra Marijak aldi onetan!: ezkon barijak ardaorik ezakaz konturatu baño lenago, lotsari andijan jausi baño lenago, eurak mesedia eskatu baño lenago, Andra Marija bera auferatuten da estura atatik ezkon barijak ateratera eta euren premiña andija osatu edo efemedijetara. ¡Ze Ama bigun eta efukioña! Kanango ezkon barijakaz egiñ ebana, egu-nero egiten dau gugaz be: berak ezagututen dauz gure premiña guztijak, alan gorputzekuak, zein da arimakuak; berak ikusten dauz gure estu-aldijak eta laafitasun guztiak, baita be gure sotiñ eta negafak, eta gure eskarijen be gira egon barik, bera auferatuten da guri lagundutera. ¡Zenbat bidar Ama

erukitzu onek, geuk eskatu barik eta geuk ez dakigula, egiñ deuzkun mesederik andijenak! Arako gajotasunetik, arako eriotzako afiskutik, arako estutasun eta zoritxarretik, arako pekatutik, ¿nok atera izan gaitu? Andra Marijak, gure Ama bigun, samur eta erukitzuak, eta au egiñ badau aiñ safi eta geuk eskatu barik, ¿zer egiñgo ez dau guk zihismen biziz eta uste osuagaz eskatuten deutzagunian? Ama batek beti entzuten dauz bere seme-alaben eskarijak. ¿Zelan entzungo ez dauz Andra Marijak bere seme erbestetuok egiten deutzaguzan eskarijak? Ama batek, txiroa izan da be, beti emoten badau bere seme-alabak eskatuten dabena, ¿zelan emango ez dau Andra Marijak, ama guztien artian ongilena eta aberatzena izanik? Zihistu daigun ba, geure estualdijetan, zoritxar guztijetan eta premiña guztijetan beragana uste osuagaz elduten bagara, egiñgo dabela gugaz Kanango ezkon bafijakaz egiñ ebana; eta auxe da lenengo atera biar dogun ikaskizuna.

Bigarren ikaskizuna daukagu Andra Marijak esteguan esan zituzan berbertan. ¿Zer berba esan zituzan? Gitxi, eta eurak ixilik eta moduzkotasun andijagaz, eta onetan erakusten dauzku guk be izan biar dogula ixilik eta begiramentu andikuak gure berba aldjetan. ¡Zenbat berba egiten ez da ikusaldjetan, lagun artian, bidetan, batzarretan eta osterantzian! Batzuetan gauora barik eta ixilik ez egotiarren, beste batzuetan lagun urkuari irika eta bafe egitiarren, beste batzuetan eta dongaruago dana lagun urkuari miñ emotiarren eta bere izen ona eta onria ostikopian erabilitiarren. ¡Zenbat pekatu egiten ez dogu begiramentu apurtxo bat ez eukitiarren eta ixiltasun geiago ez gordetiarren! Espiritu deunak diño, bafitxuak beti egiñgo dabela pekatu: *in multiloquio non deerit peccatum* (Prov. 10, 19). Andra Marijak emoten deuzku onetan onbiderik edereña eta ikaskizunik onuratzuena, ba ez eban egiñ berbarik premiña bage, eta premiña eldu zanian be iru berbatxo besterik esan ebazan, eta eurak eskabide bat egiteko: *vinum non habent*.

Andra Marijak esan eutzen esteguko otzeinai bere Semiak esaten eutzena egiteko: *quodcumque dixerit vobis fecite*. Alan egiñ eban, ba osta esan eutzen Jesusek bete egiyezala urez an egozan sei afizko ontzijak. Berbertatik bete zituezan, eta Jesusek ura ardao biurtu eban. Ara emen zelan entzuten dauzan Jesusek bere Amaren otoyak, bere Amaren eskabidiak. Auxe berau esaten deuzku guri be, Andra Marijak: nire Seme Jesusek esaten deutzuen guztija egizue, ba bere esana beteten badozue, eskatuten dozuen guztija lortuko dozue. Eta ¿zer da Jesusek esaten deuzkuna?, ¿zer da Jesusek agintzen deuzkuna? Esaten deuzku gorde ¡daiguzala bere aginduak: *serua mandata*.

Bere aginduak gordeten badoguz, Jesusek ez deuzku ukatuko ezer be; Jesus berbakua da, Jesus ez da gizonan lezkua: gizonak asko eskintzen dabe, eta gitxi eman; gizonak asko eskintzen dabe, eta geijenian eziñ emon izaten dabe; gizonak asko eskintzen dabe, eta sañitan atxipetuten gabez, baña Jesusek eskintzen dabena emoten dau, berbakua dalako, ona dalako, guztija al dabelako, eta iñor be ez iñoz atxipetuten ez dabelako. Begira zer dirauzkun berak: *Si precepta mea servaveritis quodcumque volueritis petetis et fiet vobis.* ¿Gura dozue Jesusek emon daizuen goi eskar edo grazija esetzi edo tentaziñoiak gortutzeko eta aragijaren griña gaiztuak eta zitalkerijak azpiratuteko? Ondo da; emongo deutzue; baña zeuek be egiñ bere esana, au da, iges egiñ pekatuko bide eta añiskuko toki guztijetatik, eta baita be mundutafren jolas gaiztuetatik. ¿Gura dozue Jesusek emon daizuen goi eskaña, bizitza onian irauteko eta eriotza on bat egiteko? Ondo da; emongo deutzue; baña zeuek be egiñ bere esana, zein dan bizi Kristotar bati dagokijon lez, artu sañi sañi Sakramentu santuak, entzun mezak eta bizi beti arimako garbitasun andijan. ¿Gura dozue Jesusek emon daizuen osasuna eta librau gaijotasunetik? Ondo da; emongo deutzue; baña zeuek be egiñ bere esana, ez ibili jan edan lañekijetan, gabeko ibilera gaiztuetan, eta abereen antzera atsegiñ loijetan. ¿Gura dozue Jesusek zaindu eta gorde daijazan zuen aziendak, ondasunak, aberastasunak, etxiak, lan, mendijak, ganaduak eta abar? Ondo da; gordeko deutzuez; baña egiñ zuek be bere esana, au da, gorde zintzo zintzo igandiak eta jaijak, meza santua entzunaz, itzaldija entzunaz, eta beste arimako egiñkizunak egiñagaz, eta euretan biañik ez egiñagaz. Jaungoikuaren esanari jaramonik egiten ez deutzenak edo jarkiten dirianak, eziñ leije mundu onetan gauza onik izan: goiz edo berandu zigortuko dauz emen luñian, eta gogofago beste bizitzan.

Ea ba, josi ondo zeuen biotzetan ikaskizun eder eta mamintzu onek, euki Andra Marijagan uste andi andi bat, izan berari onerazpen sutzu bat, egiñ beti Jesusen esana, eta Kanango ezkon bañijakaz egiñ ebana egiñgo dau gugaz be, bere efukitasuna eta onguria ez dalako gitxitu, asi eta geitu baño. Berak donetzi zagiezala emen luñian eta gero sartu zagiezala zeruan, biotzetik opa deutzuedan lez.

Éregen osteko irugaren igandea

(Irakufi edo esan goizpafa, eta jaraitu onan):

Jesukristo gure Jaunak, uri, efi eta ausunetan bere itzaldi eder eta maimintzuak egiten ebazanian, mesediak be esku zabalez egiten zituan. Kafarnaun, Betzaida, Magdala eta beste Galileako uri, efi eta ausunak dira egija onen testigurik argijenak. Onetariko efi batetik igarotian — ez dakigu ziur ze efi zan — uferatu jakon gizon bat, zeñek, bere itxusitasuna estaldu nairik, belaunbikotu eta arpegija luñian estalduta, apaltasun guztijagaz esan eutzon: «Jauna, gura bozu garbitu naikezu».

Gizon au legenduna zan, eta legena gaijotasun txafa da, nekez osatuten dana edo obeto esateko iñoz be osatuten ez dana. Mota gofi batzuk gorputzian agertzen dira, onek berarizko indafa artuten dabe, eta beinguan puzluak arpegijan, esku ta oñetan zabalduen dira, eta geldika geldika aragi guztija jaten dabe. Moisesen legiak aginduten eban legendunak efitik kanpora bizi zeitezala, iñor ezaindu ez egijen, eta alan gizagaijuak alderatuten ebezan gizartetik, eta bakar bakañik edo beste legendunakaz bizi biar izaten eben. ¡Ze efukigafia legendunen bizierial!

Onakoxe gizona zan Jesukristogana uferatu zana eta apaltasun andijagaz esan eutzona: «Jauna, gura bozu osatu neikezu». ¡Ze otoi edefa! Berba gitxitan ¡zenbat gauza esan eta eskatuten deutzo Jesukristori! Alakoxiak izan biar leukez gure otoijak be. Otoija da Jaungoikuagana biotza jaso eta mesediak eskatutia: gauza bi onek egiñ ebazan legendunak, eta onezaz gañera bere otoijak euki ebazan otoi onaren zezelidade guztijak. 1.º Apaltasuna; au erakutzi eban Jesusen auñian belaunbikotuaz eta Jesukristo Jaungoiko eta gizon egijazkua lez esagutu eta gurtuagaz. 2.º Ziñismena; au erakutzi eban ziñistuagaz Jesukristok eukazala eskubide guztijak gaijotasunak osatuteko eta osatu leikezala gogoz bakañik eta gura badau itzez edo ikututez. 3.º Uste edo konfijantza osua; eta au erakutzi eban ziñisturik Jesukristo zala ontasuna ber-bera eta ongile utsa, eta emongo eutzola eskatuten eutzon mesedia, eta alan jaso zan. Guk be geure otoijak egiñgo bagenduz legendun gizagai-

Juaren antzera, apaltasunez, ziñismen biziz eta uste osoz, beti jaretxiko gendukez eskaturiko mesediak; baña geijenian geure otoijak egiten doguz gano-ra barik, eta batutasun barik, eta ez dogu ezebe lortuten. ¡Oh ze otoi edefa izango litzatekian, Jesusi ikusi alditxo bat egitera gatozanean esango bageunzkijo: Jauna, gaixo naz, baña zuk gurabozu osatu naikezu!; gaixo naz ariman, okefuna andijak daukadaz, ekandu txarrik azpiratuta nauke, zitalkerijak lotuten nabe, ez daukot zeruko gauzen zaletasunik, bañiz lufeko gauzeta lafegijan irasita nago, baña gurabozu, Jauna, osatu naikezu. Au esango bageuntza Jesusi, izenbat mesede jaretxiko geunkez!

Guazan auñera. ¿Zelan artu eban Jesusek legendun gizagaijua? Bigun, gozoro, ontasunik andijenagaz, gaijo guztijak eta premiñan egozan guztijak artuten ebazan lez. ¡Ze ikaskizun edefa emoten deuzku Jesusek onetan be! Ba guk gugana datozenak, batez be eskekuak, txiroak eta naigabetuak badi-ra, artzen doguz gogo txarrez, arpegi ilunez, asarrez, eta jaurtiten doguz gugandik, geituten dogula onan egiñaz, euren naigabe eta zoritxafa. Jesusen antzekuak izan gura badogu auñerantzian, gugana datozen eskale, naigabetu eta osterantzekuak artu daiguzan bigun eta gozoro, bere meseden duiñ egiñ gaitezana. Legendun gizagaijua garbituta, osatuta ikusi zanian, poztu eta alaitu zan, eta esker onik andijena agertu eutzan bere ongilia zan Jesusi. Alantxe egiñ biar dogu guk be mesederen bat artuten dogunian, ba esker ona agertuagaz mesede bafijan duiñ egiten gara. Egija da Jesusek ez eutzala itxi legendunari esker on au agiri agirijan agertuten, ba esan eutzon agertu zedi-la elizgizonegana eta Moisesen legiak aginduten eban oparija eskiñi egijala, danak ezagutu egijen osatu zala; baña legendunak, bere poztazuna eziñ gorderik, aztu zan Jesukristok esan eutzonagaz eta zabaldu eban alde guztijetatik beragaz jaso zan mirarija.

Jasoera onetan Jesusek emoten deuzku ikaskizun eder bat, eta da, gauza on bat egiten dogunian, nai dala limosna bat, nai beste efukizko egintza bat, ez daigula bilatu gizonen goraldija eta txalua, ezpada ezari deijogula dan dana Jaungoikuari, bera bakarik aintzatua eta goraldia izan dedin. Geurez indargabeak, ezerberezak eta utsak gara, eta eziñ giñai gauza onik egiñ, eta egiten dogun on apurtxua da Jaungoikuak berak lagunduten deuzkulako; auxegaitik, gure egite on guztijak berari bakarik ezari biar deutzaguz, aintza guztija beretzako izan dediñ.

Josi ba zeuen biotzetan ikaskizun eder eta mamintzu onek; zuzendu eurrakaz zeuen egitada guztijak, izan beti esker onekuak, eskerbakotasuna

biotz zistriñen egikufa dalako; eta onan egiten badozue, jaretxiko dozuez emen lufian donetzitasun ugarijak eta an goijan amaibageko zoriontasuna. Alan izan dedilla.

Eregen osteko laugarren igandea

(Irakurri edo esan goizpará, eta jaraitu onan):

Goizpar onek gogoratuten deuzku ekatz gogofa, zeñetan galdu agiñian egon zan apostoluen txalupatxua: irudituten deuzku gure arimiak erbeste onetan daukazan arisku, ezetzi eta zirikaldi andijak, zeintzuetan galtzeko ariskuan ikusten da sari askotan. ¿Zer egiñ biar dogu ba arimia ez galtzeko? Euki uste edo konfijantza andi bat Jesukristo gure Jaunagan, eta artu biar dirian neurijak bera ez galtzeko. Arimako salvaziñoia da mundu onetan daukagun eginkizunik andijena: onexetara zuzendu biar doguz geure ardura guztijak eta alegiñ guztijak be; onetarako gogoratu: 1.º arimako salbaziñoia dala eginkizunik andijena, 2.º eginkizunik baliotzuena, eta 3.º eginkizun bakara. Guazan ba aratutera iru oldozkun edo pentsamentu onexek.

1.^a Gizonak ludi onetan daukan eginkizunik andijena arimia salbetia da. Baña ¿zer da arimia salbetia? Arimia salbetia da lufeko bizitzatik zeruko bizitzara pasatia; infernuko neke miñ gogofetatik gaizkatu edo libretia, betiko zoriontasunagaz jaubetutia, auxegaitik arimako salbaziñoia da gutariko bakotxari geijen juakona, gañantzirik andijenetariko zeregiña, dalako betikua; beste egintza edo egiteko guztijak dira lurtafak: au bariz da zerutaña; beste egintza guztijak dira edo irauten dabez urte batzuek: au bariz da betikua, beti iraungo dabena. Eta ¿nok ez daki beti iraungo dabena gauza batek

gañantzi andijagua daukola urte batzuk bakarik iraungo dabezan gauzak baño? Alan guzti be, asko dagoz Kristotafen artian gañantzi geijago emoten deutzenak lufeko gauzai zerukuai baño, gorputzeko gauzai arimakuai baño, lufeko bizitza labur eta naigabez betiari, zeruko bizitza zorientzuari baño.

Begira ezpabere zenbat eta zenbat bizi dirian Jaungoikuagaz aztuta: goizian jaikieran, ez añatzian oerakuan ez dira ziñatuten, ez Aita-gure bat otoi egiten, ez biotza zeruruntz jasoten, ez zispuru bat gora bialtzen: egunik geijenak bardiñ igaroten jakuez, Jaungoikorik ezpalego lez, euren arazuetan, sal-erostetan eta abar, eta gero esango dabe kristiñauak diriala, katoliko egijazkuak diriala, baña euren kristotasuna eta katolikotasuna ao-miñezkua da bakar bakarik. Itzak edo berbak ez dabe ezer balijo, egintzak baño. Jesukristo gure Jaunak argiro dirauzku: ez diriala zeruan sartuko «Jaun Jaune» esaten dabenak, ezpada bere Aitaren naija egiten dabenak baño. Eta Jaungoikuagaz aztuta bizi dana, ez dago zetan esan be bere arimiagaz be aztuta bizi dana. Emon begiraldi bat Andaluzia eta beste Españako lur alde askotarra, eta ikusiko dozue eunetik larogeta amañek ez dabela mezarik entzuten, ez autorkuntzarik eta Jauna artzerik egiten, igande eta jai egunetan biar egiten dabela, arimiaren alde tantik ez dabela egiten, eta alan elduten dira erioztako ordura, eta orduan be ez eurak, ez eta etxeak ez dira gomutetan ezegaz be eta ilñen dira txakurak lez. Baña ez dago zetan juan aiñ urñ: geure euskal-erñ maite onetan, beti Jaungoikotara izan dan lur alde eder onetan, mezia entzutia, autorkuntza egiñ eta Jauna artzia, itzaldijak entzutia, bezperak eta agurtza deuna otoi egitia, elizkizun eta ibilñkundetan parte artzia, geure asaba zañetatik arturiko oitura edera izan dana, ¿zenbat dira gaur gauza onek egiten dabezanak? ¿Ez dogu ikusten gazterijak itxi dauzana gauza onek guztijok?, dotriñarik tantik ez dakijana, eta arimako arazuetan epelak eta otzak diriana? Eta ¿nundik sortu da itxutasun galgañi au? Zeruko gauzai jaramon gitxi egitetik eta lufeko eta gorputzeko gauzetara zaletasun lañegija artutetik. Artu ba zaletasun geijago arimako arazuetara, gogoratu J. K. gure Jaunak dirauzkuna: *querite primum regnum Dei*: bilatu lenen eta gauza guztijen gañetik arimako salbaziñua, bera dalako gure eginkizunik nagusijena.

2.^a Arimako salbaziñua da eginkizunik balijotzuena, eta benetan beste gauza guztijak galduañen, geugandu geinkez, osotu geinkez, efemedijau geinkez; dirua eta ondasunak galduten dauzanak bañero beregandu leikez, lana zintxo zintxo egiñagaz, kastuak gitxituagaz, begiratua izanagaz; etxe bat efeten bada, beste bat irabazi leike, baña arimia galtzen bada betiko gal-

tzen da: *semel perire in æternum perire*: ez daukagu arima bat baño, eta bera galduaz betiko galduten dogu, eta galtze au eziñ ezelanbere efemedijau lei, eziñ ezegaz be osotu lei: *semel perire* .. Auxegaitik dirauzku Pedro Apostolu deunak, ikaraz eta bildufez bilatu daigula geure arimako salbaziñua; eta ez uste izan mezia entzuten dogulako eta autorkuntza safi egiñ eta Jauna artuten dogulako edo beste gauza on batzuk egiten dogulako lafegi egiten dogula, ez: arimako arazuetan ez dago lafegi egiterik: zenbat geijago oba. Pablo Apostolu deunak, ainbeste lan egiñ ebanak Jhesukristoren irakatzijak lurbifa guztijan zabalduen, ainbeste esetxi, presondegi eta kate pasau edo sufridu ebazanak, bere gorputza nekegafirrik andijenakaz zigortu ebazanak, dirauzku bildur zala bere arimako salbaziñoiagaitik; eta guk, ainbeste pekatu egiñ dogunok, penitentzija gitxi egiñ dogunok eta geure bizitzako egunik geijenak nagikerijan eta arimiaren alde ezerbe egiñ ez dogunok, ¿ez gara bildur izango? Bai kristiñauak, bildur izan daigun, eta bildurak gordeko gaitu eta askortuko gaitu auferuntzian zerbait geijago egitera.

3.^a Arimako salbaziñua da gure eginkizun bakara, premiñazkua eta nora ezekua. Mundu onetako eginkizun guztijak ez dira premiñazkuak: esaterako ez da premiñazkua ni Pafoko edo Txanburu izatia: beste batek egiñ leiz nire zeregiñak; urlija edo berendija efegi izatia ez da premiñazkua: beste bat izan leike, eta arek bete leikez efegiaren zeregiñ guztijak; urlija edo berendija agintarija izatia ez da premiñazkua, beste bat izan leikialako eta arek baxen ondo agindu leikialako, baña arimako salbaziñua bakotxaren zeregiñ bakara da, norbera alegindu barik salbetan ezpada, ez dau iñok salbauko, ez aitak, ez amak, ez neba afebak, ez aizkidiak, ez aingeruak, ez eta Jaungoikuak berak be. Auxegaitik egoki esaten dau Agustin Deunak: *qui fecit te sine te, non salvabit te sine te*: zeu barik egiñ zinduzanak ez zaitu salbauko zeure aldetiko alegiñ barik.

¡Zorigaiztokua! egija osasungari onekaz bere eginkizun guztijak zuzenduten ez dauzan kristiñaua, ba biziko da itxutasun negargarijan eta eriotzako orduan jausiko da betiko infernuan.

Artu ba zeuen adiñian eta josi ondo zeuen biotzian egija osasungari onek, eta artu gaurtik neuñi guztijak arimia salbetako, zeruagaz jaubetuteko. Eskatu Jaungoikuari onetarako biar dozuen laguntasuna, eta eskatuten badozue ziñismen bizijagaz eta itxaropen sendo sendo bategaz, emango deutzue, ba bere gurarija da gure salbaziñua, zeñ guztioi opa deutzuetan. Alan izan dedilla.

Eregeen osteko bostgaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Eskutapen ariagarri bat saratuten dau ebangelijo deun onek. Garija eta olua edo salgia soluan batera erne eta asi zirian lez ebateko sasorarte, alantxe Jaungoikuak be laketuten dau onak eta gaiztuak ludi onetan batera bizi deitezela eriotzara arte. Ebateko sasoiari, gari epalak garija alde batera eta olua edo asi txarā bestera aldenduten daben lez, alantxe Jaungoikuak be alderatuko dauz onak zerurako eta gaiztuak inpernurako.

Aratu daigun ba eskutapen ariagarri au ainbat argijen. Entzun gogo onagaz.

Ludi au solo baten antzerakua da. Solo baten safi askotan ikusten dira garija, salgia, bedar txarā eta abar: ludi onetan be ikusten doguz, alde guztijetan, nai efijetan, nai ausunetan, nai sendijetan, gizaseme onak, elizkoiak, zuzenak, eta baita be gizon dongak, okeñak eta elizarako zaletasunik ez daukenak. Naspila au ikustian, askok esaten dabe Jaungoikuak gizon eta emakume donga guztiak ludi onetatik kendu biar leukezala, gizartian kalte andijak egiten dabezalako. David igarla deunak, ikustian pekatarijak eta gizon dongak beti goralduta, txalotuta, osasunik onenian eta aukera guztijan bizi ziriala, zirautzan Jaungoikuari: *usquequo peccatores Domine, usquequo peccatores gloriabuntur?*: ¿noiz artian, Jauna, itxiko deutzazu pekatarijei aintzatuak izaten? Daviden antzera. beste deun askok be, auxe berberau zirautzen Jaungoikuari: berba onekaz esan gura eutzen beratu, azpiratu eta humildu egijazala gizon dongak. Guk be, safi askotan esaten dogu Jaungoikuak gizon zatar, donga eta persegitzaliak il biar leukez, kalte andijak gizartian egiten dabezalako; baña onan itz egiten dogun bakotxian erokerija andija agertuten dogu.

Jaungoikuak guk baño obeto gauza guztijak ezagututen dauz, eta itxiten deutze pekatarijai eta gizon dongai bizi izaten zijo edo efazoe askogaitik.

1.º Bere ontasun andijagaz baliau ditezan. Jaungoikuaren ontasuna andija eta azken bagia da, eta auxegaitik ez dau gura pekatarijaren galdumendirik, bere salbaziñua baño; argiro dirauzku J. K. berberak: *non veni vocare justos sed peccatores*. (Esan euskeraz). Osasundunak ez dauke osagiliaren bialarik, gaijotijak baño: *non est valentibus medicus sed male habentibus*. Jaungoikuak aingeruai baño gizonai ontasun edo erukitasun andijagua agertu izan deutze, ba aingeruak pekatu bakar bategaitik jaurti ebazan infernura denporarik emon bage bigarren pekatua egiteko eta lenenguagaz damututeko; bafiz gizonak pekatu bat, bi eta mila pekatu egiñda be, ez dau jaurti infernura, eta itxaron deutze damutu ditezan, beragana biurtu ditezan, salbau daitezan, eta onetarako be berak emoten deutze oña, batzutan bafutiko deidakaz, beste batzuetan arimako keskakaz, eta baita be zemaijakaz eta zigorkadakaz, iratxartu eta beragana biurtu ditezan. Beraz Jaungoikuaren ontasunagaz balijau gura ez dabena, bere eruz galtzen da, bere eruz infernuan jausten da. Epaikunde egunian Jaungoikuak esango deutzo pekatarijari: *quid debui ultra facere et non feci?*: ¿zer geijago egiñ neikian zugaitik?: itxaron neutzun, eta ez zenduan ondu gura izan: deitu neutzun, eta ez zeuztan jaramonik egiñ: zeure eruz, ba, galdu zara.

2.º Jaungoikuak pekatarijai eta gizon dongai itxiten deutze ludi onetan bizi izaten bere zuzentasuna agertutiafen. Gizonak pekatu egiten dabengan Jaungoikuak jaurtiko baleu infernura, askok esango leuke Jaungoikoa gogofegija dala, eruki bagia dala, aiñ ariñ pekatarija zigortuten dabelako; baña itxarotian pekatarijai agertuten dau erukitasun eta zuzentasun andija. Evangelijo santuan daukagu pasaera bat egija au argiro erakusten deuzkuna. (Digase lo de la higuera que no daba fruto). Auxe berberau egiten dau Jaungoikuak pekatarijakaz be. Onék bizi dira Jaungoikuagaz, arimiagaz eta zeruagaz aztuta: ez dabe zerua irabazteko duiñ dan gauzarik egiten, galtzeko arisku andijan dagoz, eta eriotziak arapetan badauz infernuan ondatuko dauz; baña Jaungoikua erukituten da eta itxaroten deutze, pekatuaz damututa, bizitzia onduta, penitentzijako egintza onak eginda, salbau ditezen. ¡Ze ontasuna! ¡Ze zuzentasuna gure Jaungoikuarena!

3.º Azkenez, Jaungoikuak pekatarijai eta dongai itxiten deutze ludi onetan bizi izaten bere al izate andija agertutiafen. Ziñismenak erakusten deuzku Jaungoikua dala alguztiduna: ez dago berak eziñ leikian gauzarik: berak gura baleu, une batian kizminduko leukez agintari guztiak, ezerestu indar guztiak, il eta ondatu infernuan donga eta pekatari guztiak; baña ez dau egi-

ten, eruapen andija daukalako. Jaungoikuak ikusten dauz gizon dongak bere Elexa deunari egiten deutzen guda gogofa, zinge edo eregiak arimetan egiten dauzen kaltiak, entzuten dauz ao zikiñduak esaten dabezan birao ta blasfemijak, ezagututen dauz ludi onetan egiten diran pekatu, gaiztakeri, okerkeri eta naspilē guztijak, baña ixilian daruaz danak. Jaungoikua betikua da, eta ondo daki goiz edo berandu beregana elduko diriana danak, eta ixilik dago; baña elduko da bere eguna, eriotzako egun bildurgarija, eta orduan esango dau: *extendam super eos retem meum*: zabalduko dot euren gañera neure saria, eta danak ařapau eta banatuko dodaz. Onan egiñ eban Herodes dongiagaz, onan egiñ eban Eřomako agintarijakaz, zinge eta eřege guztijakaz, eta onan egingo dau auřeruntzian be Elexako arerijo guztiakaz. Jaungoikua betikua da, eta an goijan itxaroten deutze patxada guztijan here eta Elexa Santuaren arerijo eta persegitzale guztijai, bere ontasun andijagaz balijau gura ez eben guztijai.

Edestijan irakurten dogu Eupulus zeritzon gizon donga batek bere eřegiaren kaltez beti dongaro esaka ebilela, batzuetan guzur eta asmakizunakaz, beste batzuetan abesti nabarmenakaz. Baña gauza guztijak, goiz edo berandu, azkena dauke, eta Eupulus zorigaiztokuari be eldu jakon bere azkena: jausi zan alako baten eřegiaren eskuetan, eta onek asafez beterik dirautzo: *Eupole, tu me in scena saepe me meruisti, ego te semel mergan*. (Dígase !en vasko). Onan egiten dau gure Jaungoiko onegijak be eskergaiztoko pekatari eta gizon dongakaz. Zuk, esango deutzu egunen baten, zuk eskergaiztoko ofek, iraindu nozu egunero, zuk ausi dozuz nire aginduak, zuk ostikopian erabili dozu nire odol deuna, zuk irika eta baře egiñ deutzazu nire nekaldi eta pasiño santuari, baña eldu da nire ordua, zuaz oraiñ eure lagunak gana, betiko oñazetara.

¡Kristotafak! Josi ondo zeuen biotzetan egija bildurgari onek: ez uste lařegirik euki, ez izan asartuak, itxi pekatua, aldendu pekatuko bidetik, damutu oraiñ artian egiñ dozuezan pekatu eta gaiztakerijakaz, Jaungoiko on eta eřukiořak parkatu daizuezan, eta eriotz orduan bere besoetan atzedan dagizuen, eta betiko zorientasunagaz jaubetu zaitezten. Auxe da guztioi biotz biotzetik opa deutzuedana. Alan izan dedilla.

Eregeen osteko seigarren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Ikaskizun eder eta mamintzuak safatuten dauz entzun dozuen goizpafak bere irudi edo parabola bijetan. Bijak azaldutia lafegi luzatutia izango litzake, eta laburzalia nazalako eta neure eliztafak adi edo gogotzu entzun daijen, bakañik bigařen irudija azalduko deutzuet.

Ebangelijo santuak diño zeruko dieñi edo efeiñua dirudijala arako azkafi edo lebaduria, zeñ naxtan eban emakume batek urunagaz guztija txantxartu edo jagi artian. Azkafi edo lebaduriak jagi eragiten deutzo ogijari eta ipinten dau masa guztija ogi on, gozo eta osasuntzu izateko egoeran: lebadura bako ogija izan oi da ogi astuna, gatx bakua eta osasunerako kaltegarija bere astuntasunagaitik.

Oraiñ ba, lebaduriak ogi masan egiten dauna egiten dau gizartian Jesukristo gure Jaunaren espirituak, J. K. dalako, erakusle jakintzuak dirauzkunez, Jaungoikozko lebaduria: *fermentum est Christus Dominus*. Jaungoikuak antxiñatik erabagi eban gizona pekatuko lebaduratik garbitutia. Ara zegaitik zirautzen Pablo apostolu deunak Korintiotafai: *expurgate vetus fermentum ut sitis nova conspersio*: garbitu zaiteze lebadura txafetik, au da pekatutik, izan zaitezen masa bafija Jesukristogan. Adanen pekatuak ondatu eban gizatasun guztija pekatuan eta pekatuagaz batera zabaldu ziran gizartian oitura eta ekandu txaf'guztijak. Jaungoikuaren ezauberia aztu zan, ziñismena amatau zan, onoimen edo birtutia eztaldutu zan, zeruko gauzetarako zaletasunik ez egoan: dana zan itxutasuna eta gaiztakerija. Baña jatxi zan Jesukristo gure Jauna lufera, sartu zan, alan esateko, gizatasuneko masan, eta beiñgo baten aldatu eban gizatasun guztija eta jaso eban pekatuko egoeratik grazijazko egoera bafira; bere jaijotza apalagaz bafiztau eban aztuta egoan apaltasuna; bere txirotasun eta ez eukijagaz bafistau eban aiñ gofotogarija zan txirotasuna; bere otxantasunagaz eta karidadiagaz bafiztau eban lagun urkuaganako maitasuna, eta bere moduzkotasun eta onbide edefakaz bafiztau ebazan oitura on guztijak; berba baten esatiafen, bafiztau eban gizatasun guztia. Jesukristok zerura igo ostian, apostoluak eta onen ondoriengokuak

zabaldu ebezan lurbira guztian bere ikaskizun eder eta mamintzuak, eta gizartia bariztau zan. ¡Zenbat gizon Jaungoikozko, zenbat martiri, zenbat konfessore, anakoreta, ermitaño, donzela eta arima garbi sortu ez ziran aldi atan! Eta ¿nok egiñ eban aldakuntza miragari au? Jaungoikozko lebaduriak, Jesukristo gure Jaunaren espirituak. Beraz efazoe andijegaz esan zeitekian: *fermentum est Christus Dominus*.

Jesukristo gure Jaunak gura dau gu-be gizartian lebaduriaren antzekuak izan gaitezala, gizarte guztija jagi eta ondu daigun, eta au egiño dogu gizonen biotzetan Jaungoikuaren ezauberia sartuagaz, ziñismena biztuagaz, lagun urkuaganako maitasuna zabalduagaz eta oitura onen asija ereiñagaz. Baña esango dau norbaitek: guk lan ori eziñ giñai egiñ, gure biziera eta biar izanakaz lafegi be daukagulako. Egija da, Jaungoikuak ez deutze notin edo persona guztijei aginduten jua ditezala lurbira guztitik bere ikaskizunak zabaldutera, baña bai agiñduten deutzo bakotxari bere mañan lan egiñ daijala gizartia kristiñautasunian bizi dediñ, ondu dediñ eta salbau dediñ.

Aita Santu Pío XI-gařenak, ikustian munduko gaiztakeriak eta gatxak geituaz duazela, agintzen deuzku katoliko guztiak batuta, alkar artuta, iñoz baño adore, kemen eta zintzotasunagaz lan egiñ daigula. Auxegaitik alde guztijetan, bai Españian, bai Prantzijan, Belgikan eta beste diefi askotan, batu dira batzar ospetzuak gai onetzaz, eta neuñ eta zuzenbiderik edefenak artu izan dabez.

Kristotar askok ez dauke adore eta kemenik euren kristotasuna agirijan agertuteko: batzuek lotsaz, beste batzuek bilduñez, kikilduten dira, eta dongai indařa artzen itxiten deutze. Batzar edo Kongregaziñoetan be, beste onenbeste jasoten da: asko lotsatuten dira batzařeko agirija agertuten, edozeiñ lez, astakerija entzuten badabe, ez dabe arpegirik ateraten, ixil ixilik geratuten dira, eta gaiztuak, dongak, lotsabakoak beti nagusi. Onako Kristotar epela-gandik ¿zer itxaron leike? Bardiñ jasoten da oitura donga eta nabarkeriakaz be: aspaldi onetan aske dabilz lizunkerik eta nabarkerik guztijak, bai jolasetan, bai dantzetan, bai gabeko ibileretan, eta batez be uda aldijan, plaijetan. Eta ¿zer egiten dabe gurasuak eta agintarijak oitura galgari onek kentzeko? Gitxi edo ezerbere ez.

Aita Santuaren gurarijak beteko badoguz, nora ezekua da danok alkar artutia asmoz eta egitez, eta ekiñ adoretz ziñistia biztuten, oitura onak bariztetan, eta onoimen edo birtuteko usaiñ gozua gizartian zabalduten. Onan izango gara lebaduriaren antzekuak, dana bariztauko doguna.

Onetarakoxe sortu izan dira Elexa Santuan gazterijako batzafak, bai Luistafak, Koskak, bai Marijaren alabak eta abar, beste enparau gaztiak baño onaguak, garbijaguak eta elizkoiak izan ditezan eta birtuteko usaiñ gozua alde guztijetan zabaldu daijen, eta au eziñ leike egiñ bada-ezpadako jolas, dantza zikiñ eta ibilera gaiztuai jafaituagaz. Gazteri batzafak ez dira sortu, askok uste daben lez, ilian beiñ konfesau eta Jauna artzeko, ezpada bizitza onduteko, birtutetan auferatuteko, eta Kristotar bati dagokijon lez bizi izateko; eta onelako asmorik ez daukanak eta biar dan adore eta kemenik ez daukanak ondo egiñgo dau batzafian ez sartutia edo batzafetik urtetia.

Baña, esango dau norbaitek, onan egiñaz gitxituko dira gazteri batzafak, eta au izan leiteke erligiñoiaren kaltez. Ez, da mila bider be ez. ¿Zer da obea: asko bada-ezpadako, edo gitxi onak? ¿Zer da obea: 40 peseta paltso, edo 20 peseta onak? Zeuek erantzun. Nire eta beste askoren eritxijan oba da batzafian gitxi baño beroak eukitia, asko eta epelak eukitia baño; beroan artetik urtengo dabe barriak, baño epelen artetik beroak urtetia gatxa da. Ara zegaitik esaten eban gure Gotzain jaunak, Malagako Gotzafiak eta beste askok, oba dala batzafian gitxi eta onak, zintzuak eta adoretzuak eukitia, asko bada-ezpadako epel eta otzak baño.

Izan gaitian, ba, ziñistez eta egitez Kristotar onai dagokijon lez; zabaldu alde guztijetara ziñiskintzako egi, argi ta garbiak, oitura on eta txalogafijak, eta au egiñagaz beteko dogu Jaungoikuaren eta Elexa Deunaren naija, eta irabaziko doguz emen ludijan donetzitasun ugariak eta an goijan azken bako sarija, zeñ danoi opa deutzuedan. Amen.

Garizuma aureko lenengo igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

¿Zeñen irudija dala uste dozue goizpar onek aitatuten deuzkun etxauna? Da gure Jaungoikua, gauza guztien egilia, jaubia eta arduraduna. Mastija

bañiz da gizatasunaren irudija: ludi guztijan zabaldua dagoan gizasemiak egiten dabe gizatasuna. Gure Jaungoiko arduradunak beti eta aldi guztijetan bialdu izan dauz langiñiak masti onetara. Ludijaren asieran Aita-len eta Igarlak bialdu ebazan bere naija iragartera; geruago bialdu ebazan legegiñak eta epaikarijak bere eñija zuzendu egijen; geruago bañiz bere Seme bakaña bialdu eban gizaseme guztiai zeruko bidia erakustera eta diabruaren mendetik gaizkatutera. Bere Semiaren ondoren, eta berak irasi edo fundau eban Elexa Santua, bialdu ebazan apostoluak, misolarijak, jakintzuak eta izlari ospatzuak, lana sendo egijen ebangelijo santua zabaldu egijen eta bere bidez Jesukristo gure Jaunaren ezauberia ludi guztijan iragarñi egijen. Mastijaren izezagaz baita be aitu giñai *arimia*, zeññ emon deuzkun Jaungoikuak bera zaindu eta gordetako eta bere alde lan egiteko, eta ez une edo aldi baten, ezpada bizitza guztian, ba azkenian, au da eriotzako orduan, ñizango da kontu emotia, alogera artutia eta betiko sarijagaz jaubetutia.

Jaungoikuak gura dau, masti jaubiak mats mordo edefak artzeko lana sendo egiten daben lez, alantxe guk be lana egiñ daigula arimiaren alde santutasuneko igali edefak artu daiguzan. ¿Zer egiten dau mats mordo edefak artu gura dauzan masti jaubiak? Mastija atxurtu, sasijak kendu, bedar txafak iñ, eta zimartu, ba nagikerijaz jaramonik egiten ezpadeutzo ezdau ezerbe artuko, edo artuten dabena izanko da mats garatxa, mingotxa, jateko balijo ez dabena. Auxe berberau egiñ biar dogu geure arimiagaz be santutasuneko igaliak emango badauz: esi eta azpiratu bere griña gaiztuak, kendu ekandu txafak, zapaldu pegatuko asi gaiztua eta ereiñ birtuteko asi onak eta Jaungoikuaren bildur santua, eta lan au egiñ biar da gazte gaztetatik, asijera on baten bidez, ba geruago lan egitia izango litzateke gatxa eta onera bagakua.

¿Ze ardura euki dogu oraiñ artian geure animakaz? ¿Ze lan egiñ dogu bere alde igaro dirian urtetan? Gure umetasun, gaztetasun eta gizatasuneko urtetara begiralditxo bat emoten badogu, ikusiko dogu gauza gitxi edo ezerbere ez dogula egiñ. Umetasunian gure oldozkun eta gurari guztijak umekeri-jetan eman genduzan; gaztetasunian bañiz jolasa, dantzia, apaindurija lafegija, gaiztakerija eta pekatua izan zan gure egintza bakaña. ¿Nok ez daki gaurko gaztegiak zelako bizieria daroian? ¿Zer ikusten da eurretan? Afokerija galgarija, menpetasun eta itzalik eza, ibilera nasaija, berandu etxeratutia ta abar. ¿Zer entzuten jakue gaurko gaztiai? Biraua, blasfemija, berbeta zikiña eta abesti nabarmena. Gizatasunian oster, egunero ikusten dogunetik esan lei arimiakaz ardura gitxi agertuten dabela, batetik etxeko arasuak, bestetik

bizidia, irabazpidia, dirua, jana, jantzija, sal-erostia, tratua, perija ta abar da euren asmo eta oldoskun bakafa; arimiakaz ezerbe ez: arimia albo batera itxiten da: esan lei arimiak gitxiago balio dabela gorputzak baño. ¿Noiz artian iraungo dau itxutasun galgari onek? ¿Zer balio deuzku osasun ona eukitia, aberastasun andijak pilotutia eta ludi guztijagaz jaubetutia, arimia galtzen badogu? Auxegaitik gure ardura guztijak izan bitez arimiakaz; gorputza ustelkoña da, eta ustelduko da urte gitxi bafu; arimia bafiz ilezkoña da, eta biziko da, beti iraungo dau, edo zoriontasunez inguratuta, edo zoritxafez ondatuta.

Goizpar edo ebangelijuak diño etxaunak agindu eutzola bere otsein-nagusijari iluntzian langile guztijai bere jornala ordaindutia. ¿Zegaitik iluntzian, eta ez lenago? ¿Zer adietan emon gura deuzku iluntze onegaz? Gure bizitzako iluntzia eriotzako ordua da: gure bizitza laburra da: jaijoten gara, eta oinkada batzuk emonaz beste baga, lurperatuten gabez. Auxegaitik J. K. gure Jaunak gure bizitzia egun bategaz bardinduten dau; eta Pedro Apostolu deunak diño mila urteko bizitzia egun bateko bizitziagaz bardindu leitekiala. Beraz iluntzian, au da eriotzako orduan emongo deuzku J. K. gure ondo egiñaren alogera, edo dongaro egiñaren zarija.

Baita be, goizpar edo ebangelijuak diño langile guztijai alogera bardiña emon eutzela, alan goizian goizetik mastira joan zirianai, zein da eguardijan, afaizaldian, nai iluntzian joan zirianai, eta onegaz esan gura deuzku J. K. aldi labur baten alogera andija irabazi genkiala, lana gogoz eta adorez egiten badogu. Jaungoikuak obeto begiratuten deutzo gogoz eta adorez egiten dan lanari naita ordu gitxikua izan, nagikeriz eta ordu askotan egiten dan lanari baño. Begira zer jasoten dan langile askogaz: oratuten deutze lanari izentauriko orduetan, baña batian urlijari begira, bestian berbetan, zigafua isiotuten, gero bafiz paletia itxi dabela, ara eta ona joan biar dabela... ez dabe lanik tantik be egiten; beste batzuk ostera, langile zintzuak dirialako eta adorez biar egiten dabelako, beiño baten amaituten dabez lanak. Eta auxe berberau ikusi ebalako, ugesabak danai aloger bardiña emoteko agindu eban. Auxe berberau jasoten da arimako lanetan be: batzuk gazte gaztetatik asten dira Jaungoikuaren otseiñgintzan: ikasten dabez Kristotar bati dagokijozan ikaskizunak, egiten dabe autorkuntza, Jauna zafi artzia, otoiya eta beste egikera on batzuk. ¿Baña zelan egiten dabez? Oituraz, ganora bage; oztazun andijagaz, onerazpen edo devoziño gitxigaz; eta auxegaitik ez dabe oinkada bat bera auferatuten, ez onoimenian, ez Jaungoiko zaletasunian, ez eta santuta-

sunian. Gazterijak zerbait egiñ gura leuke bere arimiaren alde, baña bere zaletasun mundutafak itxi barik: goizian Jauna artzera, baña aratsaldian bada ezpadako jolasetara eta Jauna iraindutera: goizian elexara Magdalena baten antzera, aratsaldian plazara, jantzi, pitxi eta koipez, mutilen bat beragandutera; onan eziñ leiteke irabazi zeruko alogerarik.

Azkenez, beste batzuk oratuten deutze arimako lanai iluntzian, au da, bizitzako azkenengo urtetan, mundua urte luzetan otzeindu ta gero, atsegiñ eta gozotasun guztiak igarota gero, baña benetan biurtu dirialako Jaungoikuagana oratuten eutzen arimako eta zeruko arazuai, gogoz, adorez, eta aldi laburrian egiñ ebezan auferapide andijak eta irabazi aloger andijak. Esan beije an goijan aintzaz inguraturik bizi dirian deunak Magdalena, Agustin, Inazio eta abar; onek irurak bizitzako bide erdijan asi zirian Jaungoikua ezagutu, maitetu eta otzeinduten, eta alan guzti be askori auria artu eutzen, bai onoimen edo birtutetan, baita be Jaungoikuaren maitasunian eta deuntasunian, eta gaur Elexa Ama Deunak ospatuten dauz bere semerik onenak lez.

Eskatu deijogun Jaungoikuari, beti eta aldi guztijetan, eta ordu guztijetan, ziñiste biziz, biotz garbiz eta zintxo zintxo ibilteko, eskar edo grazija, eta eskatuten badeutzagu apaltasun andijagaz, emongo deuzku, bere aintzarako eta gure arimen onerako. Alan izan dedilla.

Garizuma aureko bigaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Gure Jaungoiko on onak danok beragandu gura gauz, danok donokiratu gura gauz, baña ez indafez, ez defigoñian, ezpada gure naiz edo borondatez: ara zergaitik eriten daben gure biotzetan bere itz deuna, bera entzun, bera ziñiztu ta egiñagaz salbaziñoeko igali on da ugarijak emon daiguzan. Goiz onetan esango deutzuet ba: 1.º Jaunaren itza entzuteko daukagun egiñ beaşa, eta 2.º zelan entzun biar dogun.

Zafi esaten da gizonen artian, nai batzafetan, nai kafe etxetan, ardaugelatan eta osterantzian be, Jaunaren itza (sermoia) entzutzeko bearik ez daguala, sermoia entzun barik be salbau leitekiala, amar aginduetan ez daguala ofelako agindurik eta abar; onakoxe esanak emakumen artian be entzuten dira; baña onan oldostu edo pentsetan dabenak eta itz egifen dabenak erakuntza andijan dagoz, bada Jaunaren itza (sermoia) entzutia ez da nora ezekoa, ezpada bear bearekoa, lenengo Jesukristok agintzen dabelako, bigarango Elexa Ama Deunak agintzen dabelako, eta irugarango geure izatiak agindu edo eskatuten dabelako. Ikusi daiguzan banan banan iru agindu onek.

Lenengoa. Jesukristo ludi onetara etofi zan gizonak txefenaren mendetik gaizkatutera, gizonai zeruko bidea erakustera; eta au egiñ eban ikaskizun eder eta mamintzuak erakutziaz: ogei ta amar urtian egon zan Jose eta Mariaren menpean, zurak lantzen, etxeko arazuak egiten ta abar, erakutziaz gizaseme guztiai apaltasuna, mentasuna eta lanerako zaletasuna; bere bizitzako azkenengo iru urtetan ibili zan uririk uri, eirik efi, toki guztijetan, ausuetan, itxas ertzetan, basuan, zelaijan, eta baita be txaidetan itzaldirik ederenak eta mamintzuenak egiten; bere ondoren juazan oste andijak, lau ebanjelarijak ao batez dirauzkunez.

Donokiratutera joianian, bere ikaslai (apostoluai) agindu auxe emon euzten: *Ite docete omnes gentes*: zuaze ludiko bazter guztijetatik ziar, eta iragafi egijozue gizaseme guztiai niri entzun eta nigandik ikasi dozuea guztia. Agindu au ez zan apostoluentzako bakarik izan, baita bere ondoriengo Gotzaiñ, abade eta misiolari guztijontzako be, eta auxegaitik Jesukristoren egunetatik gaur agiño, Gotzaiñ, abade eta misiolari guztijak jardun izan dabe, eta jardungo dabe iñor aspertu bage, Jesukristoren irakatzu deunak lurbira guztijan zabalduten. Orain, ba, Gotzaiñak, abadiak eta misiolarijak gizaseme guztijai irakasteko agindua badauke, gizaseme guztiak eurai entzun eta ikasteko egiñ beafa dauke: agindu bi onek alkafi oratuten deutze. Emendik agiri da Jaunaren itza edo sermoia entzutia ez dala nola ezekua, ezpada egiñ bear estua.

Bigarrena. Elexa Ama Deunak agintzen deuzku Jaunaren itza (sermoia) entzutia: Trentoko batzar deunak dirautze Gotzaiñai, iragarteko eliztar guztiai bakoxta bere eleizara edo parokijara joan eta Jaunaren itza entzuteko daukan egiñ beafa: *Moneatque Episcopus populum diligenter teneri, unusquisque parochiæ suæ interesse, ad audiendum verbum Dei*. Gañera Elexa Ama Deunak berak Txanburu edo Paroko guztiai agintzen deutze, igande eta

jai nagusijetan goizpar edo ebangelijo santua iragarri eta azalduteko. Orain ba, guri Elexa Ama Deunak agindu au ipiñi deuzkun lez, zuei, eliztañoi, ipiñi deutzue entzun eta ikasteko egiñ beara. Au onan bada, ¿zer esan giñai ofako gizon eta emakume urte guztian Jaunaren itza entzun bage geratuten dirianakgaitik?, ¿ze ofako gizon igandeetan eta beste jai egunetan ordu luziak ardaugeletan eta kafe etxetan igaro eta ordu erditxo bat itzaldija entzuteko artuten ez dabenakgaitik?, ¿zer ofako gizon, andra eta neskatila mezetara etori afen sermo orduan mezetatik urteten dabenakgaitik? Ez besterik ezpada Kristotar otzak eta eliztar epelak diriala, obeto esateko Jesukristoren berbakaz, ez diriala Jaungoikuarenak: *vos ex Deo non estis quia verba Dei non auditis*. Jaungoikuarena danak, zirautzen Jesukristok judatañai, Jaungoikuaren itza (berbia) entzuten dau: *qui ex Deo est, verba Dei audit*.

Irugarrena. Geure izatiak, bizitziak, eskatuten dau Jaunaren itza entzun daigula. Geure izatiak janarija eta edarija bilatutera beartuten gauz, ba janari eta edari bage gure bizitziak eziñ iraun lei; gizona ez da gorputz utza, ez da arima utza be, gorputz eta arimia alkartuta egiten dabe gizona; biar dau, ba, berarizko janarija gorputzerako, eta berarizkua arimiarentzako be; arimiaren janarija Jaunaren itza da, janari indartzua, osasuntzua: berak emoten deutzo osasuna pekatuko gatxagaz gaijorik dagoan arimiari: berak indartuten dau makala ta indarbagea zeruko arazuetan dan arimia: berak nagija askortu eta adoratuten dau. ¡Zenbat bider lo soñuan egozan pekatarijak itz santu onek iratzartu ez dauz! ¡Zenbat pekatari lupatzetan ondaturik egozananak itz santu onek lokatu eta penitentzijako bidera ekañi ez dauz! ¡Zenbat arima otz eta epel itz santu onek Jaungoikuaren maitasunian sutu ez dauz! Eta ¡zenbat eta zenbat, dongak izanik, Jesukristoren etzai gogofak izanik, apostolu andi izatera biurtu ez dauz! Edestija edegi, eta antxe irakuñiko dozue; jaso zeuen begijak zeruruntz, eta an penitenten koru ederian, aintzaz eta zoriontasunez inguratuta, ikusiko dozuz. Ez ba nagijak izan, ez atzeriak izan Jaunaren itza (sermoia) entzuteko.

¿Eta zelan entzun biar da itz santu au? Lenengo, itzal andijagaz. Efege bati, agintari bati, andiki bati bere esana edo agindua itzal andijagaz entzuten badeutzagu, ¿zenbat itzal andijaguagaz entzun biar ez deutzagu Jaungoikuari? Sermolarijak Jaungoikuaren izenian berba egiten dau; auxegaitik Jesukristok esaten dau: zuei ziñistu eta entzuten deutzuenak, nigan ziñistu eta niri entzuten deuzt: *qui vos audit, me audit*, eta zuei entzun gura ez deutzuenak, niri ez entzun egiten deuzt: *qui vos spernit me spernit*. — Bigafengo, en-

tzun biar da gogo onagaz. Gogoz eta atsegiñez artuten dan janarijak beti ondo egiten dau eta gorputza sendotu eta gizenduten dau; bafiz gogo barik artzen dan janarijak geijenian aotik kanpora jaurtiten da, eta ez dau onik egiten; gañera gogorik ez daguanian ez jateko ez eta edateko, ezaugarri izaten da gaijoren bat daukala; beste onenbeste jasoten da Jaungoikuaren itz santuagaz be: gogo bage entzuten bada ez dau onik egiten, arimako arnari, igalli edo fruturik ez dau emoten: len bestian edo txarago geratzen da: gaijo galgarrija dauko ariman: ez dauko Jaungoikuaren, arimiaren, ez zeruko gauzen zaletasunik. — Irugarfengo, Jaunaren itza entzun biar da atenziño eta deboziño andijegaz, ikasteko eta egiteko asmo sendo sendo bategaz; auxegaitik, entzuna gorde biar da biotzian, zari zari gogoratu, entzunagaz zuzendu, egiñ biar guztijak izan ditezan onak, Jaungoikuaren gogokuak eta merezimentu andikuak arimiarentzako eta zerua irabazteko. Azija ereiten danian ez da agirijan itxiten, ezpada estalduten da luřagaz edo zatzagaz, txorijak jan ez daijen. Bardiñ bardiñ egiñ biar da sermoian entzuten danagaz be: gorde biotzian, estaldu bere gañian gogartia egiñagaz, gero arnari onak emon daiezan: au ez egitiagaitik jasoten da Jesukristok goizpar edo ebangelijo santuan diñuana. (Repitase lo que dice el evangelio).

Eskatu, ba, Jaungoikuari, meza santu onetan, bere itz samur, eder eta osasungarrija, entzuteko zaletasun andi, bizi eta sutzua, arnari edo frutu andija atera daizuen, eta au egiñik, berak donetzi zagiezan, ba esanik dauko: zorientzuak diriala bere itz santua entzun eta biotzian gordetan dabenak: *Beati qui audiunt verbum Dei, et custodiunt illum*, zeñ guztioi opa deutzuedan.

Garizuma aureko irugarren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Elexa Ama Deunak, jakinduri andijagaz eta guztiz egoki, gogoratuten deuzku igande onetan Jesukristo gure gaizkale andijaren nekaldi gogor eta

samiñtasunez betia, bera goguan artuaz alderatu gaitian egun onetako zorakeri, gaiztakeri, nasaikeri eta pekatu andijetatik. Egun onek txerfenak asmauriko egunak dira, egun onek infernutafen egunak dira, egun onetan piloka arima asko infernuan ondatu dabez. Egun onetan, esan giñai, Kristotar askok lotsia alde batera itxiten dabela, zatarkeri eta lizunkeri guztijak ezezago egiteko; baña gogoratuko balebe Jesukristoren nekaldi gogoña, ainbeste zakarkeri eta pekatu egiten ez litzatekez asartuko.

Aldendu gurarik zuek onako gaiztakerijetatik, goiz onetan esango deutzuet zein gogofogarijak diran Jaungoikuaren begijetan Aratusteko egintzak. Entzun gogo onagaz.

Elexa Ama Deunak beti eta era guztijetan agertu izan dau, bere seme-alabak galdu ez ditezan, ardurarik andijena; txerfenak bariz, mundu galduaz alkartuta, Kristotar guztiak galtzeko alegiñtzen da. Elexa Ama Deunak gura dau bere seme-alabak egun onetako erokeri guztijetatik alhenduta, Kristotar bateri dagokijon lez, bizitza onian iraunda, otoi eginda, penitentzijako laztasun batzuk artuta, gertau ditezan garizuman sartzeko; txerfenak bariz gura dau, garizumaz gogoratu barik, jaraitu daiguzala egun onetako zatarkeri guztijak, ezezago bere laguntzan infernuan ondatu gaitezan.

Aratusteko erokeri eta jolas gaiztuak gentilak asmaurikuak dira: gentilak Jaungoiko guzuezkuak gurtuten ebezan, eta Bako zeritxon Jaungoiko guzuezkuaren honran zatarkeri eta lizunkeri guztijak egiten ebezan; beraz Kristotarak aren jolas gaizto eta zakarkerijai jaraiturik, aren antzeko egiten dira. Egun onetako jolasak izan oi dira dantza nastuak, norberari ez jaokon soñekua jaztia, arpegija estaldutia, jan edan lafegijak egitia eta astakerijarik andijenak egitia, eta au edonok daki eziñ izan leitekiala Jaungoikuaren gogokua. Dantzia berez gauza txafa dala, eziñ esan lei: dantzatu zan David bakalduna Kutxa Deunaren aurian; dantzatuten dira Sevillako uri andijan eta Jesusen aurian *seises* deritzuen mutikuak; Oñatiko erijan eta beste toki askotan be, mutikotxuak *Corpus Christi* eguneko ibil-aldi edo prozesiñuan dantzatan egiten dabe; eta au eziñ leike esan gauza txafa danik. Gure Euskal-efi onetan egiten dirian dantzak, aufeskuak, bana-banakuak eta dantza askatuak, ez dauke gatxik: edo-nun eta edozeñek egiñ leikezanak dira; baña dantza nastuak, batez be arpegija estalduta egun onetan egiten dirianak, nai zeijan

(plazan) eta etxe saratuetan, dongak dira, txafak dira, gizaseme askoren galdumendijak dira. Begira Elexako deun edo santurik andijenak zer dirauzkuen. Cipriano Deunak diño dantzak erijetako oitura onak galtzen dabezala, ekandu txafak zabalduen dabezala, lizunkerijako sua biztuten dabela, eta arima asko orbanduten dauzala. Krisostomo Deunak diño dantzia dala nasai-kerija guztiek ikasten dirian ikastolia, eta gabeko dantzetan egiten dirian pekatuak izar biurtuko balira gaurik ilunena egunik argijena izango litzatekia-
la. Deritzot Deun bi onen eritzija asko dala, geijago ez luzatutiafen.

Arpegija estaldutia eta norberari ez jaokon soñekua jaztia Jaungoikuak antziñako lege zarian debekau eban. Ara zer ziñuan: «Ez da gizona emukuma jantziko, ez eta emakumia gizonetzko, eta onakorik egiten dabena nire begi-jetan gofotogafija izango da»: *Non induetur mulier veste virili, nec vir veste femina, abominabilis est apud Deum, qui fecerit hæc*. Emakumia gizon jazten danian saltzen dau lotsia ordu batzuetarako, eta au egiten dau berak nai daben guztia askatasun oso osuan egiteko: lotsiak moduzkotasuna eta garbitasuna gorde eragiten deutzo, baña lotsia estaldu edo gorde ezkerokuan bere garbitasuna beinguan birenduten da, galtzen da. Bardiñ jasoten da arpegija estaldutiaz be: arpegija estalduten dabena estalduten dabe bestelan edo arpegi agiriz ez leukiana egitiafen. Baña Jaungoikua eziñ atzipetu (engañau): Jaungoikuaren begi zolijak dana ikusten dabe, bai arpegi estaldua eta bai agirikua be. Iges, ba, onelako zatarkerijetatik, Jaunaren gofotua zeuen gañera ekañ gura ezpadozue.

Jan-edan lafegija da egun onetako beste egitera txafá. Egundetan gazterija askok ez dauke beste oldozkun edo pentsamenturik sabela baño, sabela bete bete egiñ eta sabelari gañez egiñ. ¡Zenbategi arda lafegijagaz galtzen dabe sentzuna! ¡Zenbategi gizontasuna galdu eta abereen antza artuten dabe! ¡Erukarijak! Aldi txar batek artuko balebez, asko artu izan daben lez, bertatik jausiko litzatekez infernura, ba ordikerija pekatu astuna da, eta Paulo Deunak diño ordijak ez dabela zeruan tokirik izango: *neque ebriosi regnum Dei possidebunt*.

Kristotafak egundetan Jesusen nekaldi gogofagaz gogoratuko balira eta oldortu edo pentsauko balebe zelako eriotza samiñ eta miñgarija igaro eban gu gaizkatutiafen eta donokiratutiafen, ez leuke aiñ ezez pekaturik egiñgo: esker onez eta bere maitasunez alderatuko litzatekez toki gaizto guztietatik. Baña, zoritxarrian, ez dabe onelako gauzarik gogoratuten; eta itxuririk ludi onetako zorakerijakaz, euren ondoren duaz lizunkereri bila, gozota-

sun biā, atzegiñ biā. Fruamur, diñue: gozau daigun bizitzia eta osasuna daukagun artian, gero iñgo gara ta. ¡Eruak! Egunen baten ezagutuko dabe euren sentzunbakotasuna, eta orduan berandu izango da.

Eta ¿zer da guk egun onetan egiñ biar doguna? Ordaindu Jesusi egun onetan egiten jakozan irañak, mezia entzunagaz, Jauna maitasun andiz artuagaz, otoi samur samufakaz, berari egun baruan ikusaldi batzuk egiñagaz, eta beste egintza askogaz. Onetariko bat ona izango litzake oerakuan, besuak zabalik, bost Aita-gure, bost Agur-Marija eta Glorija esatia, bere bost zaurijen honran: au izango litzateke atsegiñgaríja Jesusentzako. Egiñ, ba, al dozuen guztia Jesusi egun onetan atsegiñ emoteko; eta au egiten badogu doneztiko gaitu emen luñian eta gero sarituko gaitu an goijan betikotasun guztirako, zeñ danoi opa deutzuedan. Alan izan dedilla.

Garizumako lenengo igandea

(Irakurí edo esan goizpara, eta jaraitu onan):

Jesukristo gure Jauna jatxi zan zerutik luñera gure gaizkatzalía eta irakaslía izateko; gaizkatu genduzan bere nekaldi eta eriotza santuaren bidez, eta irakatzí euzkuzan eta irakasten deuzku gaur be goizpar edo ebangelijo santuaren bidez zeruko ikaskizun eder eta mamintzuak. Gaurko goizparaz erakusten deuzku zelan goituko doguzan ludi onetan daukaguzan eta izango doguzan ziltzaldi edo tentaziñoiak.

Ikusi daigun ba, goiz onetan, zer dan ziltzaldija, nundik sortuten diran ziltzaldijak eta zelan garaitu geinkezan. Entzun, ba, gogo onagaz.

Ziltzaldi edo tentaziñoiá ¿zer da? Txaferako edo pekaturako zirikaldira bat da. *Incitamentum voluntatis ad malum*. Ziltzaldijak batzuetan sortuten dira

geugandik. Jatorrizko oben edo pekatuak zaurituta itxi eban gizona, bai bere ariman, baita be bere gorputzian: bere ariman, ilundu eutzalako bere adiña, eta okertu edo mukertu bere naimena; bere gorputzian bariz, obenduta, makurtuta itxi ebalako dongakerija guztijetarako: *sensus et cogitatio hominis prona sunt in malum ab adolescentia sua*. Emendik sortuten da arimiaren eta gorputzaren arteko guda bizija: arimia zerutaña dalako, zeruko atsegiñak bilatuko dauz; gorputzak baña, lurtaña dalako, lufeko atsegiñak gura dauz; eta guda onetatik sortuten dira ziltzaldi edo tentaziñoiak. Ludi onetan ez dago inorbe ziltzaldi bagarik, ba lufak beragaz daroian lez bedar txafen azija, alantxe guk be geugan daruagu ziltzaldijen azi gaiztua.

Beste batzuetan ziltzaldijak etorten jakuz txefenagandik. Txefenak ikusten dau ludijan bizi dirianak gabiltzazala berak an goijan galdu ebazan jarlekuen bila, eta amofuz beterik egiten dauz alegiñ guztijak eurakaz jaubetu ez ditezen; auxegaitik gizaseme guztijak zirikatuten dauz, batzuetan nagikerijara, dakijalako nagikerija dala oben edo pekatu askoren sustraija; beste batzuetan jan-edan lafegira, nasaikerijara, pitxi eta apaindurijara, auxe dalako arima asko galduteko biderik efazena. Txefena zufa da, argija da: guk baño adiñ argijagua dauko (aingeruzko argija dauko ta), berak ezagututen dauz gure gora-bera guztijak, igure alde on da txafak, gure obentasun guztijak: berak daki noiz, nun eta zelan jausi eragiñgo deuzkun, eta andijek zirikatuten gauz; eta zenbat gizaseme ondatuten dauz pekatuan!

Txefenak toki guztijak daukoz egokitizat gizasemiak ezestu eta zirikatuteko: elexak, lekaretxiak, eremuak eta abar. ¡Zenbat gizaseme atzeratuten dauz elexatik, elizkizunetatik, Sakramentuetatik eta Jauna artzetik! ¡Zenbati urten eragiten deutze lekaretxetatik! Irakuñi edestija, eta an ikusiko dozue zelako jauskera negargarriak izan dirian. Eremuko bakartasunian be txefenak bere lana egiten dau: Antonio Deuna eta Pakomio Deuna urte askotan zirikatu ebazan; oyan gaijorik dagozanak be zirikatuten dauz, batzuei ziñistu eragiñagaz laster osatuko diriala, Sakramentu barik il ditezan; beste batzuei oster a gogoratuten deutzez euren pekatu astun eta ilgarriak eta Jaungoikua- ren asaria, galdu daijen salbaziñoeko itxaropena. ¡Oh, zenbat kalte egiten dau arimetan txefen gaiztuak! Baña nun kalterik geijen egiten daben txefenak esan giñai dala efomorijetan, dantza tokijetan, ziñe ta teatruetan, gabeko ibileretan ta abar; toki onetan guztijetan, eskañuak butroian lez, alantxe piloka arimak afapetan dauz. ¡Kontu, ba, etzai bildurgari onegaz: zufa da, gaiztua da, malunskerija asko daukoz. Ara zergaitik dirauzkun Pedro Apos-

tolu deunak: iratzartuta eta zur bizi gaitezala, gure etzaya beti geure inguruan dabilako: *sobrii stote et vigilate, quia adversarius vester diabolus circumcivit quem devoret.*

Beste batzuefan ziltzaldijak, tentaziñoiak, etorten jakuz geu inguratuten gabezan gauza guztijetatik. Ludi onetan ikusgarri, entzungarri eta atzegiñgarri asko dagoz oben edo pekatua bultza egiten deuzkuenak. Gañera geure sentzunai askatasun lafegija emoten deutzagu, gura dabena ikusi, entzun, esan da egiteko, eta emendik sortuten dira ainbat ziltzaldi, geijenian pekatuan ondatuten gaituezanak.

Eta ¿zelan goituko doguz ziltzaldijak? Lenengo, euretatik iges egiñagaz. Efe gura ez dabena, aldendu bedi suagandik, ba su onduan ariskua dago efeteko: gure ama Eva paradisuako baratz ederian txerenagaz izketan jarri zalako, jausi zan pekatuan; Pedro Apostolu Deuna, Kaifasen etxian eta neskatila lotzabako bategaz izketan jardun ebalako, jausi zan pekatuan, urlija jausten da ordikerijako pekatuan lafegijan ardau-gelara juaten dalako; berendija jausten da nasaikerijako pekatuan aizkidetasun itxua daukalako; bestia jausten da murmuraziñoeko pekatuan miña gordetan ez dabelako; eta onan beste asko. Arisku eta galbidetatik aldenduten ez dana, bere naiz, bere efuz jarten da ziltzaldijan eta eziñ itzaron lei Jaungoikuaren laguntzarik; eta Jaungoikuaren laguntasun bage, geure indar utzagaz, ¿zein ziuña izaten da gure jauskeria! Argiro esaten dau Espiritu Deunak: *qui amat periculum, in eo peribit:* ariskua maite dabena, ariskuan jausiko da.

Jesukristo gure Jaunak bide bi izentetau deuzku ziltzaldijak goituteko: 1.º zur egotia, eta 2.º otoi egitia. *Vigilante et orate ut non intretis in tentationem.* ¿Zer da zur egotia? Da adi egon eta astertutia zeintzuk gauza dirian gu pekatua zirikatuten gauzenak; batzuentzako izango da idazki eta paper txarrik irakurtia; beste batzuentzako jokua, ardau-gelia, aizkidetasuna, begijak aske ibiltia, dantzia eta abar. Arisku onek ezagutu eta euretatik aldenduten danak ez dau ziltzaldirik eukiko, ba sua ametetan danian keiak urtetan ez daben lez, alantxe ziltzaldija sortuten dauna kendu ezkerro ez dago ziltzaldirik. — 2.º Ziltzaldijak goituteko otoi egiñ biar da: *orate ut...* Geurez indargeak gara: eziñ dogu gauza onik egiñ; au argiro dirauzku Jesukristo gure Jaunak: *sine me nihil potestis facere.* Biar dogu zeruko laguntza, au da grazija, eta grazija edo eskaña jaristen da otoi bidez: *petite et accipietis.* Otoi egiñ, ba, apaltasun andijagaz, uste edo konpijantza osuagaz, eta Jaungoikuak ez gauz deslai itxiko. Ziltzaldi orduetan ona da ziñatutia, ba kuru-

tziak indar andija dauko txefena oñatuteko; ona da jakulatorija edo otoi labur bat Birgiña Marijari, Jose Deunari edo norberak deritxon Deun bateri egitia, indartu gaizan eta ziltzaldija azpiratu daigun.

Ziltzaldijak goituko doguz baita be barau egiñagaz; barauak ikaratuten dau txefena, barauak makalduten dauz aragijaren griña gaiztuak, barauak geituten dauz arimako indafak eta adoretuten gauz arimako burukaldijetarako. Gure gorputza abere kastia da, aberien antzeko griña eta ekanduak daukoz; berangaitik aberien antzera esi eta azpiratu biar da. ¿Zelan esiten doguz aberiak? Jana kenduagaz, zigortadak emonagaz. Zigortu, ba, geure gorputza, ildurate edo mortifikaziñoiagaz eta beste nekegarri askogaz. Esi barauakaz. Onan egiñ dabe gaur donokijan aintzaz inguraturik dagozan Deunak.

Gorde biotzian ikaskizun eder onek; gogoratu safi eurakaz, eskatu Jaungoikuari ziltzaldijak ezagutu eta goituteko eskaña eta eskari au; eskatuten badeutzazue apaltasunez eta uste osuagaz, emango deutzue, ba ez dau gura beste gauzarik geure ona eta bere aintza baño.

Garizumako bigaren igandea

(Irakurri edo esan goizpafa, eta jafaitu onan):

Jesukristo gure Jaunak amabi apostolu eta beste jafaiñe asko eukazan; eta gaurko goizpafak dirauzku, Taborko mendira, bere Jaungoikotasunaren izpitxu bat ikustera, iru apostolu bakarik eruan ebazala. ¿Zegaitik eruan ebazan iru bakarik, eta ez amabijak? Nik ez dakit, ba Jaungoikuaren asmo eta erabakijak eziñ ulertu neikez, baña goizpafak beste aldi baten dirauzku «asko diriala deituak, eta gitxi aukeratuak», eta onek esan gura deuzt deitu guztiak ez diriala izango aukeratuak. Judeatar aldra andija urten zan, Egiptotik, eskiñiriko lufera, baña bi bakarik eldu ziran lur zorionekora. Judasi deitu eutzon zerurako, baña ez zan eldu zerura, infernura baño. Gizon guztijai

deituten deutze zerura, baña izenbat ez duaz infernura!, ez Jaungoikuaren efuz, ezpada norbere efuz baño.

Aratu daiguzan ba goizpar onek saratuten dauzan ikaskizunak. Entzun, ba, gogo onagaz.

Jesukristo gure Jaunak Taboroko mendira igotian agertuten dau argiro mendi zalia dala. Jaungoikua Sinaiko mendijan agertu jakon Moisesi; Taboroko mendijan agertu eban Jesukristok bere Jaungoikotasunaren ispitxu bat; Kalbarijoko mendijan il zan Jesukristo; Olibeteko menditik igo zan Jesukristo zerura; Siongo mendira jatxi zan Espiritu Deuna be. ¿Zer esan gura deuzku mendijak? ¿Eskutapen andiren bat saratuten ote dau mendijak? Dudatzek, mendijak gauza asko gogoratuten dauzku; mendijak gauza asko esan gura dauzku: mendija goijan dagualako erakusten dauzku zerua be goijan daguala; eta mendi galufera igoteko neke andijak eta izerdi ugarijak ixuri biar dirian lez, alantxe zerura igoteko be neke andijak igaro biar diriala. Bai, kristiñaua, zerura ez da igoten aukeratasuneko bidetik, ez jolaseko bidetik, ez atsegiñezko bidetik, ezpada arantzezko bidetik, kurutzeko bidetik baño; beraz geure sentzunak ilduratuten badoguz, geure griñak ezi eta azpiratuten badoguz, geure buruari naikunde zatafak ukatuten badeutzagu, itz baten esatiafen kurutzeko eta naigabezko bidia jaraituten badogu, elduko gara zerura; baña nekezko bidia jaraituten ezpadogu, eta an beian, lautadan, atsegiñetan geratuten bagara, zerura ez gara elduko, beian geratuko gara, au da infernuan.

Diño goizparak, Jesukristo Taboroko mendira eldu zanian, bere izate Jaungoikozkua agertu ebala; bere arpegi ta begijak eguzkija baño argijago zirudijen; bere soñekuak bariz edufa baño zurijago. Eguzkija egiz da edefa, eta esan lei ludijan ez daguala bera baño gauza edefagorik: eguzkija da osasunaren iturija: eguzkirik ezpalego, bizitzarik ez legoke: eguzkijak dana biztuten dau, dana alaituten dau. ¡Ze edefa da eguzkijak argi egiten daben eguna! ¡Ze alaitasuna sortuten dau blotz guztijetan! Bariz eguzki bako eguna izan oi da iluna eta ituna. Apaltasuna da eguzkijaren antzera, arimiari bizitzia emoten deutzona; apaltasun barik onoimenik ez dago, deuntasunik be ez, da zerurik be ez, ba zerua apalentzat egiña da. Jesukristo gure Jauna apala izan zalako Aita zerukuak goraldtu eban, Belenen aingeruzko aldra andija bialduagaz, eta Taboroko mendijan edertasunez apainduagaz; gu be, apalak bagara, edertu eta apainduko gauz donokijan, aintzaz jantzi ta inguratuaz.

Eta ¿zer aituten emon gura deuzku goizparak edufaren zuritasunagaz?

Esan gura deuzku, zeruan sartzeko zuri zuri, garbi garbi egon biarko dogu-
la; zeruan orbanduriko gauzarik eziñ sartu leiteke. Argiro dirauzku Juan
ebangelarijak: *non intrabit in eo aliquid coinquinatum*. Beraz garbitu biarko
da emen lufian, eta garbitu ziatz oben eta obenaren orban guztijetatik, peni-
tentzijako su garbijetan; eta garbitu nai ez dabenak egon beitez ziur ez dabe-
la zeruan saferarik izango.

Diño baita be goizparak, Jesukristok Jaungoikotasuna agertu ebanian,
Moises eta Elias igarlia ordu berian agertu ziriala. ¿Zegaitik agertu ziran
gizon deun onek Jesukristogaz batera mendi tontor atan? Ara zegaitik. Jesu-
kristo gure Jauna ludi onetan bizi zanian, edozeinbere gizaseme zirudijan:
bere bizi modua eta jazkeria beste gizonen antzekua zan, eta judeguak jez
eben ziñistuten Jaungoikua zala; geijenez be igarla bat zala: Elias, Moises
edo alakoren bat; eta oraiñ gizon deun onek, Taborko mendijan agertutian,
ikusi eta ezagutu eben, batez be apostoluak, Jesukristo ez zala Moises, ez
Elias, ezpada eurak baño lenagokua, eta andijagua, au da Jaungoiko eta gi-
zon egijazkua, eta onan sendotu zan euren ziñismena.

Azkenez diño goizparak, Jesukristo aintzaz inguratuta ikustian, iru apos-
toluak poz pozik egozala, eta Pedro Deuna asartu zala Jesukristori esaten:
¡Jauna, ondo gagoz emen! Gura badozu iru txabola egiñgo doguz ementxe
bertan, bata zuretzako, bestia Moisesentzako eta irugarrena Eliasantzako.
Egija ziñuan Pedro Deunak, ba Jesusen onduan beti dago poztasuna, alaita-
suna; Jesus daguan tokija beti da zoragarrija, atsegiñgarrija, Jesus dalako
atsegiñ guztijen iturrija; Jesus barik egotia zoritxar osoa da; Jesusegaz ego-
tia bariz zorion utza da. Eta ¿nortzuk dagoz Jesusegaz? Biotz garbidunak,
grazijan bizi dirianak, beragaz aizkide dirianak, apal eta baketzuak dirianak.
Pekatarijak, arima loijak, aruak eta gofototzuak ufiñ dagoz Jesusengandik:
onek ez dira bere aizkidiak, etzai edo arerijuak baño.

Jesusek esan eutzen Apostoluai ikusi ebena: ez egijuela iflori esan, eta
onetan bere burua apal egiñ eban, ba apalak ez dabe gura euren egintzak
agirijan eta zaratatzu ibili deitezan, ezpada ixilian eta eskutuan baño; gizon
aruak bariz gauza on guztijak agirijan eta zaratatzu egiten dabez, goraldijak
eta txaluak bilatuten dabezelako. ¡Eruak!, emengo zari guzufezkuez naikotu-
ten dira.

Gorde, ba, ikaskizun eder onek zeuen biotzian, zuzendu eurakaz zeuen
egiñtza guztijak, eta alan auferatuko zare onomenian, irabaziko dozuz me-
rezimentu andijak emen lufian eta gero euren zarija zeruan.

Garizumako irugaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Jesukristo gure Jauna ludi onetara etoñi baño len, txeñena zan ludiko agintarija, eta ludiko agintarija zalako, ainbat gizaseme eukazan bere menpetasun gogorian; eurretariko batzuek mututu ebazan, beste batzuek itxutu, eta beste asko gortu. Baña Jesukristo jatxi zan ludira gizonak gaizkatuteko eta txeñenari bere aginpidia kentzeko, berak beste aldi baten esan eban lez: *nunc princeps huius mundi ejicietur foras*; eta eginkizun bi onek egiñ ebazan bere bizitzako azkenengo iru urtetan.

Lukas Apostolu Deunak diño, goizparak aitatuten deuzkun gizona txeñenak mututu ebala; Mateo Deunak bariz diño gizon au txeñenak mutututa eta itxututa eukala; beraz txeñenak gizonak mututu eta itxututen daki.

Eta benetan, izenbat gizon da emakume!, izenbat mutil eta neskatila itxututen ez dauz pekatuan jausi eragiteko!, eta pekatu egiñ ezkerokuan izenbat mutututen ez dauz egiñiko pekatua ez autortuteko!

Txeñenak, gizasemiak pekatuan jausi eragiteko lenengo egiten dabena da, itxutu, esanaz pekatua ez dala aiñ gauza andija, aiñ ezaña, aiñ kaltegarrija, eta egiten bada be, Jaungoikua erukioña dala eta eraz parkatuten dabela, eta onan ez bildufik eukiteko pekatua egikeran. Onako esan eta bariketakaz askoren arimako begijak lausotuten dauz, ilunduten dauz, eta jausi eragiten deutze pekatuan; baña pekatu egin ostian beste izketa bat erabilten dau: orduan dana da bildufa sartzia, lotsia sartzia. ¿Zer, esaten deutzo pekatarijari, pekatu andi eta ikaragarri ori agertuko deutzezu autor entzuliari?, ¿zer esango dau sutor entzuliak ori entzutian, zeñek uste eban aingerutxu bat ziriala? ¡Ez, ez, itxi egizu autortziari! ez zaitez konfesau, beste aldi baten egiñgo dozu, alako misiñoetan edo erbestera zuazenian edo kanpotar abaden bat datoñenian; eta onan lotzaz lotetan dauz, mutututen dauz.

Beiñ baten, deun edo santo batek txeñena ikusi eban elexako atetan, eta itandu eutzon zer egiten eban toki atan; txeñenak erantzun eutzon: ni nago

emen Jaungoikuaren zazpigarfen agindua betetan. ¿Zelan izan leike ori?, zirautzan deunak; eta txefenak erantzun eutzon onan: nik pekararijai pekatu egiñ baño len lotsia kentzen deutzat, eta pekatua txit efes egiten dabe; gero bañiz, konfesau edo autortu biar dabenian, gogoratuten naiz zazpigarfen aginduagaz eta biurtuten deutzet ozturiko lotsia eta bilduñ, egiñiko pekatua konfesau ez daijen, edo konfesetan badabe txarto konfesau daijen, au da, gitxituta edo apainduda, edo zerbait ixilduta; ara ba zergaitik natoñen elexa-ko atetara, pekararijai ozturiko lotsia biurtutera.

Autorkuntza edo konfesiñoia da Jesukristok gure efukiz eta gure argaltasunari begiratuta, bere Elexa Santuan ipiñi daben Sakramentua, zeñen bidez parkatuten jakuzan bautizau ostian egiñiko pekatu guztiak: andijak, ezañak, nai ugarijak izan, baldiñ autortuten badira apaltasunez, damutasunez eta osteraz ez egiteko asmo senduagaz. ¿Zegaitik ba, argaltasuna euki badogu pekatu egiteko, ez dogu eukiko apaltasuna autortuteko? Ondo egiñiko konfesiñoiak ekarten dau biotzera bakia, atzedena, alaitasuna eta atsegiñ andija. Ez ba jaramonik egiñ txefenaren esanai. Onek mututu egiñ gura zaitue pekatua autortu ez daizuen, pekatuan bizi zaitezen, pekatuan iñ zaitezen, gero bere laguntzan infernuan bizi zaitezen.

Autortu, ba, pekatu guztijak: andijak, nai txikijak, ezañak nai osterantze-kuak, argi ta garbi, lotsa barik, bildur barik; baña autortu damutasun andijagaz, geijago ez egiteko asmo senduagaz, eta Jaungoiko efukioñak, konfesoriararen bidez, parkatuko deutzuez oso osuan, eta zuen arimak geratuko dira garbi garbi, zuri zuri eta eder eder.

Ez uste izan konfectoria arituko danik zuen pekatuak entzutian, ez: zuek esan, asmau eta egiñ zeinkien pekatu guztiak ezagututen dauz, irakufita daukazalako; eta pekatuak andijenak, ezañenak eta baltzenak entzun da be, patxada bardiñian geratuko da.

Pekatu andijak naijago dauz parkatu, txikijak baño. Ara zegaitik: konfectoria bardiñdu giñai eiztari bategaz: eiztari edo kazadoriak naijago dau aña-pau erbi bat, txindortxu txiki bat baño; alantxe konfectoria be naijago dau aña-pau basurde antzeko pekatari bat, pekatari txiki eta txepetx antzeko bat baño. Konfectoria ipiñi dau Jesukristok pekatu andi eta astunak parkatuteko, ba pekatu txikijak, dotriñako liburutxuak diñuan lez, bederatzi gauzagaz parkatu leitekez.

Pekatu lotsaz autortu barik itxiten bada, edo pekatua gitxituta, apainduta autortuten badau, Jaungoikuak ez deuzo parkatuten; eta len ogei pekatu

izan badauz, orain ogeta bategaz geratuten da, konfesiño txafa egiñ dabelako; beraz salbauko bada danak oso osuan autortu biarko dauz.

Konfesiñoia onurakoña da, ez bakarrik pekatu guztiak parkatuten dauzelako, baita be arimia baketu, poztu eta indar andija emoten deutzolako bañero pekatuan ez jausteko eta adore andiz ekanduai eta griña txafai jarkiteko.

Ez ba bildurik eta lotsarik euki pekatuak autortuteko; oldoztu edo pentsau ondo orain lotsaz autortu barik itxiten dozuen pekatua egunen baten autortu biarko dozuela, Jaungoikuaren aurian, agiri agirijan, zuek atzipetu dozuen konfesoriaren aurian, zeuen guraso, senide eta aiskiden aurian, zeintzuek uste eben aingerutxu batzuk ziriala. ¡Ze lotsarija orduan! ¡Ze tamal eta pena andija, eta orduan osotu edo efemedijau eziñgo dana!

¡Kristiñauak!, ez itxutu pekatua egikeran; eta onako zoritxarrik eukiten badozue, ez mututu gero bera autoñeran, ba mututasun ori kaltegarrija da, mututasun ofek infernura eruan zeinkez ta. Eskatu, ba, Jesukristo gure Jaunari, ebangelijoko mutua erukiz beterik askatu eban lez, gu be askatu gaitzala bildur eta lotsatik, geure pekatu guztiak argi, garbi eta oso osuan autortu daiguzan, autorkuntza onegaz bere grazi eta aiskidetasun santuagaz jaubetu gaizan emen luñian, eta gero an goijan pekatari damutuentzat izentaurik daukon zarijagaz.

Garizumako laugarren igandea

(Irakurri edo esan goizparra, eta jaraitu onan):

Jesukristo gure Jaunak isfaeltar gosetuai emon eutzen ogija baño askozaz gozuagua eta osasuntzuagua da egunero altarako mai santuan kristiñau guztiai emoten deutzana. Ogi au da zeruko ogija: *panem de caelo*. Ogi au da Jesukristoren gorputza; baña ogi au jateko ez dogu zaletasun andirik erakusten, ezpada oztasuna eta atzerakuntza andija mai santura elduteko. ¡Zenbat gizaseme bizi dira mai santu onetatik urñiduta! ¡Zenbat uferatuten dira

urtian beiñ bakarik! Eta onetariko geijenak gertaera barik, esamesen bildu-
fez, gurasuen bildufez, efijan edo ausuan markauta geratu ez ditezen. Ikusi
daigun, ba, kristiñauak gai onetzaz ze egiñ biar dauken, ba esan leike askok
aztuta daukela egiñ biar au. Entzun gogo onagaz.

Elexa Ama Deunaren lenengo gizaldijetan kristiñau guztijak egunero Jau-
na artuten eban, eta auxegaitik zirian kristiñau onak, zintzoak, goi-maitasun
andiko gizon da emakumak. Eukaristia zan eurentzako bizitzia eta sendota-
suna: bizitzia kristiñau onai dagokijon lez bizi izateko, eta sendotasuna aldi
atako esetzi gogofai arpegija emoteko, Elexan Jauna artu eziñ ebenian, la-
ketuten jaken etxera eruatia, eta bakotxak bere etxian gorde eta gurtuten
eban, eta artu be bai euren biotzetan. Gizaldi batzuk beranduago ziñismena
otzitu zalako, oitura onak galduaz joiazalako, eta goi-maitasuna be erdi edo
guztiz amatau zalako, gizasemiak be ufiñdu ziran mai santutik eta galdu zan
Jauna artzeko zaletasuna. Elexa Ama Deunak, Lateranoko batzarñan agindu
eban urtian beiñ gitxienez Jauna artzia; beraz kristiñau guztijak adiñeko ur-
tetara elduten dirianetik beartuta dagoz agindu au betetara. Iru gauza sara-
tuten dauz agindu onek. 1.º Urtian beiñ Jauna artutia; 2.º Pasko aldirian Jaun
artute au egitia; 3.º Bakotxak bere parokijan Jauna artutia. Pasko aldirian
irauten dau ilabete, eta toki batzuetan ila bi, eta iru be bai. Gotzariak dauko
eskubidia Pasko aldiria luzatu edo laburtuteko, eta berak izentetan daben al-
dirian egiñ biar da Jauna artzia. Aldi atan agindua bete eziñ dabenak, nai da-
lata erbestera juañ biar dabelako, edo beste eragozpen bat daukalako, aurre-
ratu edo atzeratu leike baimenagaz, edo artu Jauna elduten dan tokijan eta
agertu agirija Cura Jaunari. Alan egiten dabe kristiñau zintzo dirianak. Al
dala Pasko aldirian Jauna ez artutia pekatu astuna da, Elexa Ama Deunaren
agindua ezaubera osuagaz austen dabelako. Pasko aldirian pekatu astunagaz
erainduta Jauna artzen dabenak ez dabe Elexa Ama Deunaren agindua bete-
tan; pekatu bafijak egiten dabez, eta bearturik geratuten da agindua beteta-
ra. Umetxuak, agindu onen ezauberarik ez daukelako, euren ez dabe pe-
katurik egiten, baña bai euren guraso ardurabakoak. Gurasoak euren seme-
alabai erakutzi biar deutzo gai onetzaz jakiñ biar dabena; baita be zer dan
Eukaristia deritzon Sakramentua: nok egiñ eban, noiz egiñ eban, zetarako

egiñ eban, ze gerfaera biar dan Jauna artzeko, eta noiz Jauna artu biar dan Elexa Ama Deunaren agindua betetako, zelako onera eta mesede andijak egiten dauzan Eukaristiak ariman. Egiñ biar au eurenez bete eziñ dabenian beartuta dagoz abade jaunagana bialdutera. Baña ¿zer jasoten da? Eurak kristiñau ikasbidia ez dakijelako edo aztu jakelako, ezerbere erakutzi ez, eta ikasiko daben tokira bialdu ez, eta geratuten dira umetxuak, aberen antzera, jaten bakafik dakijela. ¡Ze tamala! ¡Ze zoritxara sendi askotan ikusten dana! ¡Ze estua izango da Jaunak egunen baten artuko deutzen kontua!

Elexa Ama Deunak gura dau ainbat sarijen artu daigula, baña ez edoze-
lan, ez oituraz lez, askok artuten daben lez, ezpada ziñismen biziz, arima garbi eta asmo zuzenez. Eta ¿zetan dago ziñismena? Dago ziñistutian ostija santuan dagoala Jesukristo berbera, zeruan dagan lez, bizirik, bera dala zeru lufen egilia eta jaubia, gure maitasunez zerutik jatxi zana, gizondu zana, Belenen jaijo zana, eta gu txerenaren mendetik gaizkatutiafen, eta guri zerua emotiafen kurutze lotsagarijan il zana, eta berak egiñ ebala Eukaristia deritxon Sakramentua gure artian bizitiafen eta gure arimako janari eta edarija izatiafen. Auxegaitik dirauzku Sagrarijo ofetatik: *Venite ad me et comedite panem meum*: erdu danok nigana eta jan egizue nire ogija; *Ego sum panis vitæ*: ni naiz bizitzako ogija; au da bizitzia emoten dabena eta gozotasun guttijek saratuten dauzen ogija: *Omne delectamentum in se habentem*. Auxe ziñistuagaz eta onakoxe ziñismenagaz eldu biar dogu Jauna artzera.

Baña ziñismena bakafik ez da asko; Jauna artzeko euki biar da arima garbija, eta au Jesukristok erakutsi eban Apostoluai oñak garbitutian, ba oñak garbitutiaz esan gura eban arima garbijagaz uferatu biar dala Jauna artzera. Pekatua da arimia ezainduten dabena, eta arima ezainduagaz Jauna artuten dabenak iruntziten dau bere galdumendija; alan diño Pablo Apostolu Deunak: *Judicium sibi manducat et vivit*. Berangaitik, Jauna artzerakuan begiratu biar dau bakotxak zelan daukon bere arimia: *probet autem seipsum homo*. ¿Garbi dago? Artu jauna, eta garbijago egiñgo da, garbitasuna berbera artzen dabelako; baña ezaiñduta badago garbitu lenengo autorkuntza zintzo eta damutasunezko baten bidez Jauna artzia, izan dediñ onurakoña beretzako eta aintza andikua Jesusentzako.

Azkenez, artu biar da Jauna gogo zuzenez, Jaungoikuaren naija egitiafen, Jesusenganako maitetasunian sututiafen, pekatuan ez jaustiafen, onoimenian auferatutiafen, eta santu izatiafen. Tomas jakitun deunak diño lau gauza egiten dauzela Komuniño santuak gure arimetan: *sustentat, auget, reparat et*

delectat. (Dígase en vasco). Baña Komuniño santuren egitadak ez diriala bardiñak arima guztietan, ba Tomas Deunak berak diño: *sumunt boni, sumunt mali, sorte tamen inequali*: artzen dabela Jauna onak eta dongak, eta onentzako, arima garbijentzako dala bizitzia: *vita bonis*; eta dongentzako, arima ezañentzako, dala eriotzia: *mors est malis*. Jauna artzia ez dedilla izan zuentzako eriotzia, ezpada bizitzia, alaitasuna eta poza.

Gorde, ba, biotzian, irakatzu onek; bete Pasko aldijan Elexa Ama Deunaren agindua, seme zintzoai dagokijon lez, uferatu beti altarako mai santura ziñismen biziz, arima garbi eta asmo zuzenez; uferatu ainbat sarijen: igandetan, jai nagusijetan eta aste bafuan albadozue, Komuniñoia izan dediñ zuentzako *panis dulcissime*, ogi gozua, zuen biotzak sendatu, gozatu, poztu eta Jaungoikuaren maitasunian ixiotu zagiezan. Alan izan dedila.

Garizumako bostgaren igandea

(Irakurri edo esan goizpara, eta jaraitu onan):

Eskutapen afigari bat saratuten dabe goizpar onetan esan doguzan itz onek: *Jesus abscondit se*: Jesus ostendu zan, estaldu zan. Jesus gugandik estalduten danian, gure arimia argi baga eta ilun geratuten da, eta berangaitik galtzeko arisku andijan jarten da. Gure betiko zoriona edo zoritxara dago Jaungoikuaren eskar edo grazijei erantzutian, edo eurai jarkitian. Eskriba eta fariseo doñofak ez eben ziñistu gura izan Jesukristogan; itzez eta mirari andiak egiñagaz agertu eutzen bera zala Mesias itxaroten ebena, bera zala Jaungoikuaren Semia. Baña alpefik; ondasunak eta gofotuak itxutu ebazan, eta ez eben ziñistu gura izan; ara zergaitik Jesukristo aldendu zan eurakgandik esanaz: *in peccato vestro moriemini*. Beste onembeste jaso leikigu guri be, Jaungoikuaren deija eta esana ez entzun egiten badogu, edo bardiñ dana, bere eskar edo grazijakaz balietan ezpagara. Ikusi daiguzan, ba, zelakuak diran eskar onek, eta zelan erantzun biar deutzagun.

Eziñ ukatu Iei Jaungoikuaren deija grazija bat dala. Jaungoikuak ez deutzon iñori be deituten gauza txafetako, onerako baño, eta deituten deutzon gixien uste dabenian. Pedro eta bere anaia Andresi aiantzuan ebiltzala deitu eutzen Apostolu izatera: *ambulans Jesus juxta mare Galileæ vidit duos fratres et ait illis: venite post me*. Mateo bere etxeko atarijan txindija zenbatuten eguala deitu eutzon Apostolu izatera: *vidit Jesus hominem sedentem in telonio, Matheum nomine et ait illi: sequere me*. Zakeori zugatz baten igon da eguala deitu eutzon: *Zakee festinans descende: Zakeo, jaki ariñ*.

Gizon onek Jesusen deijari berbertatik erantzun ezpaleutze, çizango ziran Apostoluak? Deritxot ezetz; biziko ziran euren arazuetan: ez eben Jesus eza gutuko, eta benturaz galduko ziran betiko. Jaungoikuak bere eskar eta mesediak zabalduten dauz bidaztijen antzera: bidaztijak euren mandatuak egiten dabez geratu bage, ariñ; eta onan egiten dau Jaungoikuak be, era askotan. Bidian joyala argitu eban Jerikoko itxua; bidian joyala osatu eban odol erijua eukan emakumia; bidian joyala biztu eban Lazaro; bidian joyala egiten eban mesede andijak: *pertransiit benefaciendo*; eta aldi onekaz balietan ez danak galtzen dauz mesediak. Jaungoikuaren eskañak lagungafi andijak dira: eurak argituten dabe gure adiña, eurak mugiten dabe gure borondatia gauza onak egiñ eta gauza txafetatik aldendu gaizan; eta eskar onekaz balietan ez dana galdu leiteke, eta askotan galtzen da. Begira ezpabere zer jaso jakon Judas Apostoluari. Saldu eban Jesukristo gure Jauna ogeta amar dirutan: pekatu astuna egiñ eban; baña izuna (falso) zalako, arpegi bikua zalako, gaur egunian gizaseme asko dirian lez, asartu zan Jesusen maijan afarirako jarten. Jesusek ondo ekijan Judasek egiñ eban gaiztakerija, baña maite eban, pekatari guztijak maite dauzan lez, beragandu gura eban, salbau gura eban, eta alan, danen aulfian, baña izentau barik, diño: *unum ex vobis me tradet: zue-tariko batek salduko nau*. Jesusen itz sentikor au grazi bat zan Judas konturatu zediñ, damutu zediñ; baña Judasek ez eban beretzat artu. Bañiro be, oñak garbitutian, samiñtasunik andijenagaz biotzera itz egiñ eutzon, baña alpeñik. Irugañenez be, Judas aldra andi bategaz Jesus preso artzera joan zanian, esan eutzon: çlaxtan bategaz Jaungoikuaren Semia saltzen dozu?: *osculo filium hominis tradis?* Baña alpeñik; ez zan damutu, ez eban baliau gura izan Jesusek eskintzen eutzan efukitasunagaz, eta galdu zan betiko. Auxe berberau jaso zan ebangelijo santuak aitatuten daben Epulon aberatzagaz. Gizon aberatz au bizi zan aukera guztijan: jazten zan oyalik bitxidamakaz, egunero eukazan jan-aldirik eder eta gozoenak, ez zan gogoratuten ez Jaun-

goikuagaz, ez zeruagaz, ez infernuagaz, ez eta bere arimiagaz eta eriotziagaz; egiñ eukiezan limosna andijak, ba egunero juakon bere atetara Lazaro eskeko txirua, eta au zan Jaungoikuak egiten eutzan deija, grazija; baña alpefik: jafaitu eban bere bizitza nasai eta dongan: ez zan balio izan Jaungoikuaren grazijagaz, eta ondatu zan infernuan: *et sepultus est in inferno*.

Jaungoikuaren deija entzun eta egiñ biar da berbertatik, gerorako itxi bage; Jaungoikuaren grazi edo eskañai oratu biar jake unian bertan, igasi baño len, ba eskar edo grazi onek dira egaz doiazen txorijen antzekuak: *sicut aves volantes*, eta igasiten badira jaso leiteke geijago ez eukitia eta ariskuan geure arimako salbaziñoia ipintia. Eskar edo grazi onek izan leitekez misiño santu bat, jubiliño bat, lur ikara bat, bat-bateko eriotza bat, irakurte on bat, itzaldi bat, edo ikusten dogun onbide bat. ¿Nundik sortu zan Agustin Deunaren biuferia? Ambrosio Deunaren itzaldijak entzutetik. ¿Nundik sortu zan Loyolako Inazioaren biuferia? Irakurte on batetik. ¿Nundik sortu zan Antonio Abadiañena eta Nikolas Tolentino Deunarena? Sermoe edo itzaldi bat entzutetik. Gaur egunian be, gazte askok, bai mutilak eta bai neskatilak, munduko zorakerija guztiak itxita, badoaz lekaretxera (konbentura), da Jaungoikuak biotzera egiñ deutzen deijari oben egiñ deutzelako. ¡Oh ze gauza gitxijan dagan gure betiko zoriona edo zoritxaña! Jesukristoren aldamenian il ziran lapur bijetatik bata salbau zan eta bestia galdu zan, batak erantzun eutzolako Jesusen deijari, eta bestia jarki zalako; aldi edeña euki eban lapur dongiak salbetako, baña galdu eban eta galdu zan betiko. ¡Ze damu eukiko daben oraiñ infernuan!

Jaungoikuak gauza guztijak daukoz zenbatuta, neurtuta, eta ez da ludi onetan ezerbere jasoten berak ezagutu barik, berak nai izan barik; zenbatuta daukoz gure buruko ule guztijak, zenbatuta daukoz zugatxetako ofi guztijak, eta ez da gure burutik ule bat jausiko, ez zugatxetik ofi bat berak nai ezpadau: *capilli capitis vestri omnes numerati sunt*. Modu beratan jasoten da bere eskar edo grazijakaz be. Jaungoikua da eskar guztijen jaubia; berak emon eta zabalduten dauz gura daben lez eta gura daben neufijan: batzuei geijago, beste batzuei gitxiago. Ebangelijo santuak argiro diño: batari emon eutzazala bost talentu, bestiari iru eta bestiari bat, eta eurakaz balioten danari geituten deutzo, baña balioten ez danari kenduten deutzo.

Jesukristo gure Jauna on utza dalako eta gure betiko zoriona gura dabelako, guri be ainbat eskar emoten deuzkuz, zelan dirian adiñeko argija, borondateko zirkiña, gauza onak ezagutu eta egiñ daiguzan. Pekatua egiten

dogunian sortuten deuzku kezkak, biotzeko afa, urten daigun pekatutik; begijen aurian ipinten deuzkuz lagun urkuaren egite on da onbideak, eurak jafaitu daiguzan. Eta ¿zelan erantzuten deutzegu eskar onei? Bakotxak daki zer egiten daben eta emon lei erantzuna.

Gogoratu, ba, igarla deunak dirauzkuna: *hodie si vocem ejus audieritis, nolite obdurare corde vestra*: Jaungoikuak deituten badeutzue, ez itxi zeuben biotzak, ba jaso leiteke bigarenez ez deitutia; ez gortu bere dei santuetara: entzun berbertatik, balijau bere eskařakaz, egite onakaz, aberaztu zeuen arimak emen luřian, gero zarituak izan zaitezzen zeruan.

Abar igandea

Elexa Ama Deunak gogoratuten deuzku egun onetan Jesukristo gure Jaunak Jerusalengo urijan egiñ eban sařera ospetzua. Isaias igarliak gizaldi askozaz lenagotik sařera ospetzu au iragaři eban esanaz: *Jerusalem ecce Rex tuus venit tibi mansuetus sedens super asinam*: Jerusalem, ara or non datořen zure Bakaldun otsana asto gañian jezařita. Jesukristok igarleen esan guztijak bete biar ebazan, eta au be bete eban gaurko egunian: urien zan Betanitik Apostoluen laguntzan, eta Betfage deritzon auzuna auřera eldu zanian, bialdu ebazan ikasle bi esanaz: zuaze urlija etxera, atarijan aurkituko dozuez asta-ama eta astakumia, askatu eta ekardazuez, eta jaubiak ezer esaten badeutzue erantzun Jaunak biar dauzela, eta beste bage itxiko deutzuez. Alantxe jaso zan; ekaři ebezan, eta gañian jezařita abijau zan Jerusalemeneruntz.

Egun atan gizarte andijak egozan Jerusalemene; Paskoa uřeratuten zala ta, alde guztijetatik aldre andijak jo eben bertara, eta jakiñ zanian Jesukristo etořela, batzuek bera ikustiařan, beste batzuek bera ezagututiařan eta mesederen bat jaristiařan, eta beste batzuek ostera artu ebezan mesediakgaitik, esker ona erakuztiařan, urten eutzen bidera ongi-etofi alaia egitera. ¡Zelako abestijak, zelako goraldijak, zelako txaluak! Batzuek ezarten ebezan luřian euren txamařak Jesus gañetik igaro zeitian, beste batzuek palmak eta eriñots

o struak gora gora jasorik abestuten eben *Hosanna Hosanna filio David*, batez be mutikotxuak, onako egunetan aurrengo dirianak, abestuten eben zoli eta alai: *Benedictus qui venit in nomine Domini*. Biotz guztijak egozan ordu atan atsegiñez eta pozez gañezka; bakañik Jesukristoren biotz samuñ egoan zerbait ilunduta, ba ikustian urñetik uri deuna, negañez solinga ari zan itz sentikor onexek esanaz: *Jerusalem, Jerusalem, si cognovisses et tu..... quæ nunc abscondita sunt oculis tuis* (digase en vasco) *Videns civitatem flevit super eam*. Urija ikustian Jesukristok negar egiñ eban; ¿eta zergatik? Ekijalako gizona eta gizostia be aldakoñak diriala. Jesukristok biotz guztijak ikusten ebazan, eta ondo ekijan Eskriba eta Fariseo eta osterantzeko agintarijak ixilian eta bere kaltez ebiltzezan lan gaiztuak eta lau egun baru gizostia atzpetuta bere eriotzia eskatuko ebela. Jesukristok negar egiñ eban Jerusalemaren itxutasunagaitik eta euren gañera jausi biar eben zoritxar andijakgaitik.

Safera ospatzu onen gomutaritzat Elexa Ama Deunak donetzituten dauz erñotzak eta egiten dau ibilkunde edo prozesiñoe labur bat: safatuten dira elexako atiak, abestuten da ongi etorija eta gero elexan sartuta asten da meza santua.

Baña itxi daigun alde batera Jesukristoren safera ospatzua, eta gogoratu daiguzan geure ikasbiderako, Jerusalemgo urijan eta sei egun baru jaso zirian aldakuntza mingarajak. Juan ebangelarija Deunak diño, gaurko egunian Paskuako jaija zala ta, alde guztijetatik etofi zan gizoste andijak ongi-etofi ospatzu eta alayena egiñ eutzola Jesusi, eta oyuka, santzoka eta txaloka, lagundu eutzela elexaragiño; eta sei egun baru kurutzeratuta il agiñian ikusi ebenian danak itxi eta iges egiñ ebela beragandik. ¿Nok, alagiña, eta aiñ egun gitxijan, okertu eta aldatu eban gizoste aren biotza?, ¿nok Jesusen alde eguan gizostia ipiñi eban bere kaltez gañazika? Dudatzeke, Anasek eta Kafasek, Eskriba eta Fariseo dolofak, eriko agintari eta jauntxuak. Onek ziran ondonaiez beterik Jesus gorotetan ebenak; onek ziran batzarian batu ta Jesus iltia erabagi ebenak; onek ziran zatoñen antzera azpitik biar egiñ ebenak eta gizoste efukigarija okertu eta Jesusen kaltez gañazika ipiñi ebenak. ¡Ze itxumendija agintarijetan! ¡Ze aldakuntza gorfotogarija gizostian! Ikasi daigun jasoera onetatik zein aldakoña dan gizona; eta ez ipiñi beragan geure uste edo konfiantzia, ba gaur goralduten gabezanak bijar azpiratuko gaitube, gaur txalotuten gabezanak bijar *tolle tolle, crucifije crucifije*, didar egiñgo dabe. Geure uste guztia Jaungoikuagan ipiñi daigun, berak bakañik lagundu leikigulako beste danak deslai itxiten gaituenian, berak poztu bestiak naigabetu-

ten gabezanian, eta berak bakarik salbau bestiak il gura gabezanian. Zoriontzua Jaungoikuagan bere biotza ipinten daben gizona!, ba beragan bakarik aurkituko dau bakia eta atsedena.

Gaurko egunian Jerusalemak eta erbestetik etofi ta Jesusi bidera urten eutzenak txamafak kendu eta ezarten ebezan lufian Jesus gañetik igaro zertian, eta sei egun baru, au da bariku santu egunian, zer egin eutzen? Ainbeste goraldur eta aintzatu eben Jesusi kenduten deutez bere jantzizak, bilostuten dabe eta itxiten dabe lotsaririk andijenian... eta ez deutez inok zapi bat eskintzen, ez deutez inok bere aragizak estalduten. Ze egija dan esaera zar batek diñuana: «goraldijetan aizkidiak ugari, beraldijetan aizkidiak ufi!» Auxe egiten dau gizonak ongilerik eta aizkiderik andijenakaz be: zorion aldijetan beragaz ibili, zoritxar aldijetan beragandik iges egin. Jesukristoren jantzi kendute lotsagarizkoak esan gura deuzkue ludi onetako ogazunak aldakorak diriala, eta alan da egiz: gaur aukeratasun guztian bizi dirianak, benturaz bijar ikusten dira ez-biar andijan; gaurko aberatsak bijar izan oi-dira txiroak. Ogazunak bira biraka dabiliz, erotarizak lez, gaur esku batian, bijar bestian. Ez, ba, zeuen biotzak lafegijan iratzi ondasunetara, ba zenbat geijago maitatuten dirian, ainbat gorijago izaten da eurak galtzia, sortuten daben naigabia eta tamala. Jesukristok ez eban tamalik artu jantzizak kendutian, bere biotza aske ebalako eta ondasunetara iratzita ez eukelako.

Azkenez, Jesus, maitale andija, guri zeruko bidia erakustiafen ainbeste alegindu zana eta gu gaizkatutiafen bere odola ixuri eta bizitzia emon ebana, kurutzian il aginian egoala be, irañez, izekaz eta naigabez ase ase egin eben. Ona emen zelan erantzun deutez Jesusi bere erizak, zelan erantzuten deutez bere mesede eginai Jerusalemgo gizoste eskerbagiak; auxe da ludi onetan beti jasoten dana. Ez gaitian, ba, eruak izan: geure eginketan munduaren aintza ez daigun bilatu, mundua ordaintzale txara da ta; ba ondo egiña geijenian eskergaiztuagaz ordainduten dau; onan diño euskaldunen esaera zar batek be: «ondo eginaren pagua, ate ostian palua».

Gorde, ba, zeuen biotzetan, ikaskizun onurakor onek, ipini Jaungoikuagan zeuen uste edo konpijantza guztija, bera dalako bardiña era eta aldi guztietan, zorion aldijetan eta zoritxar guztijetan; bera da gure aitarik onena eta arduratsuena, bera gure ongilerik andijena eta bera gure pozkile bakara. Bere aizkide bagara emen ludijan, ziur egon an goijan aintzatuak izango gariana, zein biotzetik danoi opa deutezuedan.

Berbizkundeko igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Egun andija, egun zoragarija, egun alaya gaurko eguna; beronek gogoratuten deuzku Jesukristoren biztuera miragarija eta garaitza andija. Jesus biztu da geijago ez ilteko; eriotziak ez dau geijago beragan aginpiderik eukiko: *mors ultra non dominabitur illi*; Jesusek goitu dauz arerijo guztijak, oinperatu dauz, zapaldu dauz danak, eta oraiñ, bere gizatasun deunian aintzatuta eta zorionduta ikusten da; bere Aitak emon deutzaz eskubide guztijak zeru luřetan, eta inpernuan be bai, eta ez dago agintaririk, ez indařik, ez luřian, ez eta inpernuan, bera goituko dabenik. Poztu eta atsegiñdu gaitian ba, beragaz eta beragaitik: *exultemus et lætemur*; gure abesti bakařa egun onetan auxe izan dedila: *aleluya, aleluyo*; Kristo gure Eřegia biztu da, *aleluya*; Kristo gure askatzale eta maitale andija biztu da, *aleluya*; Kristo gure Aita eta irakaslia, berak esan lez, biztu da, *aleluya*. Elexa Ama Deunak be egun onetan ez dauko beste abestirik, auxe baño: *aleluya, aleluya*, berau dalako Jaungoikuak egiñ daben egun andija: *hęc dies quam fecit dominus*. Jesukristoren garaitza gure garaitza da, ba Jesus il zan gu txerēnaren eta pekatuaren mendetik ateratiařen, eta biztu zan guri betiko bizitzia emotiařen. Goiz onetan azalduko deutzuet eskutapen miragaři au. Entzun gogo onagaz.

Jesukristo gure Jaunak gura izan baleu, il zan egun beratan biztuko zan, ba bizitzia itxi eta bařiro artuteko eskubidia eukon; baña ez eban gura izan, ba egun beratan biztu izan balitz askok ez eben ziñistuko egiz il zala, eta auxegaitik luzatu eban irugařen eguneragiño ziñistu egijen Apostoluak eta osterantzeko guztiak egi egijan il zala eta egiz biztu zala. Jesukristo ez zan biztu Jaungoikua lez, gizona lez baño; gizona lez pasau ebazan neke miñ eta samiñtasun guztijak eta eriotzia berbera, eta gizona lez biztu zan, berez, bere indařez al izatia eukalako, egijaztuten ziriala David igarla deunak gizaldi

askoz lenagotik esan ebazan itz onexek: *salvavit sibi dextera ejus et brachium sanctum ejus*: salbau zan, au da, biztu zan bere besuaren indahez. Jaungoikotasuna ez zan bere gorputzetik aldendu obijan sartu ebenian, ez eta bere arimatik Abrahamen tokira jatxi zanian, eta auxegaitik al izatia eukan gura eban egunian eta orduan gorputz eta arimia batuteko eta bañiro bizitzara biurtuteko.

Idazti deunak beste biztuera batzuk be gogoratuten deuzkuz: Lazarorena, Naingo mutil gaztiarena eta Kafarnaengo neskatilatxuarena; baña onek ez zirian biztu berez, Jesukristok biztu ebazan; gañera ez zirian biztu betiko, ezpada urte batzuek beranduago ilteko. Baña Jesukristo biztu zan berez, bere indahez, geijago iñoz be ez ilteko: *mors illi ultra non dominabitur*, diño Pablo Apostolu Deunak: eriotziak ez dau geijago menperatuko.

Jesukristoren biztuera santuak ikaskizun andijak saratuten dauz. Pablo Apostolu Deunak gogoratuten deuzkuz ikaskizun onek; berak dirauzku: *quomodo Christus surrexit a mortuis..... ita et nos in novitate vitæ ambulemus*: Jesukristo ilen artetik biztu zan lez, alantxe gu be pekatuko eriotzatik bizitza bañira. Pekatua da gure arimia ilten dabena, pekatuak kentzen deutzalako grazija, zein dan arimako bizitzia. Pekatuagaz ezainduta urten genduan amaren sabeletik, pekatuagaz ezainduta agertu giñian ludi onetan, baña bautismo santuaren bidez biztu giñian grazijazko bizitzara, eta bizitza onetan iraun izan bagendu, zorientzuak izango giñian emen eta gero betikotasun guztian. Baña, zoritxahez, danok egiñ dogu pekatu: batzuek geijago, bestiak gutxiago; batzuek argaltasunez, bestiak borondate eta ezaubide osuagaz; eta alan il dogu arimia. Beraz salbauko bagara, nora ezekua da bañiro biztutia. Eta ¿zelan biztuko gara? Jesukristo biztu zan lez: Jesukristok, obitik urteran obijan itxi ebazan lokafi guztijak: gorputza lotuten eben zapijak, arpegija estalduten eban zapija, obija estalduten eban arlosa andija... eta iges eragiñik obi zaintzaliari, urten zan obitik bizitza bañijagaz, aintzaz beteriko bizitziagaz, bizitza ilezkoñagaz. Guk be, egiz biztu gura badogu, itxi biar doguz pekatuak, pekatuko oitura gaiztuak, ibilera gaiztuak, izketak eta artu-eman dongak, eta auferuntzian ibili zuzen, artez, Jaungoikuaren bide santuetan, eta egiñ gauza guztijak kristiñau zintzo bati dagokijozan lez; eta au egiten ezpadogu, eta orain artian lez jafaituten badogu: goizian konfesetan, ařatzaldian pekatuetan; goizian Jauna artzen, ařatzaldian diabruaren jolasetan; goizian aingeru baten irudira, eta ařatzaldian azkatasun eta nasaikerijetan... gure biztueria ez da izango egijazkua, ez iraunkoña, guzufezkua baño. Arimako

biztueria egijazkua danian ezagututen da bizieran ikusten dan aldakuntza andijan; esaterako, ikusten badogu mutil bat, neskatila bat, len elexarako atzeria zana, orain elexara safi datořela; len konfesetan eta Jauna artzen berandurik berandura ikusten zana, orain igandeetan eta jaijetan uferatuten dala; len buru eritxija eta afokerijaz betia zana, orain apal apala agertuten dala; len efomerija guztijetan, jolas guztijetan, dantza nastu guztijetan da beti aske eta nasai agertuten zana, orain nozian bein bakarik agertuten dala, eta orduan be moduzkotasun andijagaz... bertatik esaten dogu mutil ori, neskatila ori, ez da lenagokua, aldakuntza andija egin dau mutil ofek, neskatila ofek. Arimako biztueria egijazkua izango bada, izan biar dau iraunkořa; izan biar dau, bizitza onian, ez egun baten, ez ila baten edo urte betian, ezpada bizitza guztian, eriotzako orduragiño, beti bariztauta agertu biar dau Jaungoikuaren eta gizonen begijetan, bariztauta elexan, etxean, kalia, arazu guztijetan eta egintza guztijetan; bariztauta berbetan, pentsamentuetan, bere asmo eta intenziño guztijetan; eta onan biztuta, bariztuta, eriotzaragiño irauten dabenak artuko dau betiko zarija zeruan: *qui perseveraverint usque in finem salvus est.*

Baña begira, geure indar utzakaz eziñ bizitza onian luzaruan iraun giñai: argalak gara, indargeak gara; kañabera algatu bat aiziak beinguan beratuten dauan lez, alantxe zirikaldiru batek gu be luferatuten gaitu; zeruko laguntza biar dogu, eta laguntza au eskatuaz jaretxiko dogu, ba Jesusek esan euzkun eřkatu daigula eta emongo jakula: *petite, et accipietis.* Eskatu laguntza au, eta iraun bizitza onian eriotzaragiño, eriotz ostian Jesukristok biztu eta beragana eruan gaizan. Amen.

Pasko osteko lenengo igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Jesukristo gure Jaunak Apostoluai lez, nik be zuei, neure eliztar maitioi, bakia opa deutzuet, eta opa deutzuet biotz biotzetik, bakia dalako ludi oneta-

ko ondasunik edereña, andijena eta baliotzuena. Bakiak, ondasunak, aberas-
tasunak eta aginpidiak baño geijago balio dau; bakiak aukerak, atzegiñak
eta gozotasun guztiak baño geijago balio dau; bakian bizi dana ondo bizi da;
bakian bizi dana aukeran eta patxadan bizi da; bakian bizi dana zerutañen an-
tzera bizi da, ba zeruan ez dago asañerik, ez goñoturik, ez kezkarik, ez lañi-
tasunik: an goijan dana da bakia, atsedena, amaibako zoriontasuna.

Baña bakia egijazkua izateko izan biar dau iru eratakua: 1.º Jaungoiku-
gaz, 2.º geure geide edo projimuagaz, eta 3.º geure buruagaz. Ikusi daigun,
ba, bake au zetan daguan. Entzun gogo onagaz.

1.º ¿Zelan biziko gara bakian Jaungoikuagaz? Bere grazijan bizi izanagaz,
bere aizkide izanagaz; pekatu astunian bizi dana eziñ izan leiteke Jaungoi-
kuaren aizkidia, pekatuak uratuten dabelako Jaungoikuagazko aizkidetasu-
na; pekatarijak pekatu egitian esaten deutzo Jaungoikuari, berbaz ezpada
egitez: zure esana ez dot egiñ gura, eta emendik sortuten da Jaungoikuaren
asafia. Jaungoikua bake utza da; auxegaitik zirautzen Pablo Apostoluak bere
eliztañai: *Deus pacis sit cum omnibus vobis*. (Digase en vasco). Apostolu onek
beronek esan eban beste aldi baten: *Deus pacis conterat Satanam*: Jaungoiko
baketzuak susitu daijala Satanas infernutara. Jaungoikuaren aldetik bakia
ludi onetan beti legoke: Jesukristo Belenen jaijo zanian bakia ekañi euzkun,
eta alan gotzonak bakia abestu eben: *gloria in excelsis Deo...* Jesukristo biz-
tu zanian be bakia opa eutzen Apostoluai, eta euretan guri: *pax vobis* izan
zan bere aguña. Itz batian esatiañen, Jaungoikuak bakia gura dau, baketzua
dalako. Pekatua da bakar bakañik Jaungoiko baketzuaren arerijua, eta peka-
tua da baita be Jaungoikuaren eta gizonen arteko bakia uratuten dabena, eta
berangaitik ikusten dira ludi onetan nazpñle ikaragañijak, goñotuak, ikusi ezi-
ñak, guda odoltzuak, eriotzak eta abar; pekatuak ekañi dauz ludi onetara
uriola andijak, izufijak, gosia, gaijotasunak eta osterantzeko gatx guztijak;
pekatua dala ta, gaur be Jaungoikuak zigortuten dauz urijak eta eñijak, sen-
dijak, oporketa gaiztuakaz, lanik-ezagaz eta gosiagaz. Pekatua eta bakia
eziñ alkartu leitekez; auxegaitik pekatarijak ez dauko eta eziñ euki leike ba-
kerik, argiro dirauzkunez David bakaldun deunak: *non est pax impiis*. Beraz
Jaungoikuagaz bakian bizi gura badogu, izan gaitian bere aizkidia, bete

daiguzan bere aginduak, eta iraun daigun zintzo zintzo bere atzegiñtasun santuan.

2.º ¿Zelan biziko gara bakian geure geide edo lagun urkuagaz? Biziko gara egiz eta benetan maitatuagaz. Jaungoikuak aginduten deuzku maitatu daigula geure geide edo urkua geure burua lez, au da, geure buruari opa deutzoguna opa izanagaz, eta geure buruari opa ez deutzoguna lagunari be ez opa izanagaz. Jesukristok azkenengo afarijan esan eutzen Apostoluai: «agindu bafi bat emoten deutzuet: alkar maite izan daizuela neuk maitatu izan zaituedan lez; eta oraindiño geijago esan eutzen: gura dot maitasuna izan dediña nire ikasle eta jafaitzañe guztijen ezaugarija. Maitasun egijazkua badogu, bakian biziko gara lagun urkuagaz, maitasunak dana lautu eta efastuten dabelako. Baña maitasuna otzituden bada, amatetan bada, galtzen bada, beragaz batera bakia be galduko da; ara zegaitik ikusten diran ainbeste asafe, gofoto eta bizi eziñ ezkonduen artian, guraso eta seme-alaben artian, agintari eta menpekuen artian, eta baita aizkiden artian be. Biztu, ba, zuen biotzian, lagun urkuaganako maitasuna; eskatu Jesukristo gure Jaunari Apostoluen biotzetan Espiritu Deunak ixuri eban maitasuneko sua ixuri daijala gure biotzetan be, onan iraun daigun beti Jesukristok gura daben lez.

3.º ¿Zelan biziko gara bakian geure buruagaz? Bakotxak bere biar-izanak zuzen eta zintzo betiagaz, nagikerija albo batera itxi eta l-na egiñagaz. Lana gogor egiten daben gizonak ez dauko astirik ez jokorako, ez bafiketari ibiltetako, ez izpar guzufeizkuak emen entzun eta an zabalduetako; langiñe onak beti daukoz goguan bere etxia eta etxeko arazuak; eta auxegaitik bizi da bakian. Alpeña, nagija bafiz beti dago gertu jolaserako, jokorako, txufut egiteko, eta dirua paña paña eragiltetako; eta emendik sortuten dira etxian asafia, eskandalua eta bakerik eza.

Ludi onetan, etsai edo arerijo asko daukaguz, eta arerijuen artian bizi danak, burukan egiñ biar izaten dau, eta gu burukan gabilz egunero. Gure arerijuak iru dira, txerena, mundu gaiztua, eta geure aragija bere griña gaiztuakaz; txerena (diabrua) atzipetu gura gauz, Jaungoikuagandik aldendu gura gauz, zeruko bidetik aldendu gura gauz, berak galdu eban zeruko aintza eta zoriontasunagaz jaubetu ez gaizan; munduak, au da gizon gaiztuak be beregandu gura gaitue, eta jakiñik ezez obenduten gariana, atzegiñ jakuzan, ikusgari, entzungari, jolasgari eta txalogari guztijetara eskintzen deuzkuz, eñomerija galgarijak, zine zikiñak, teatruak, eta paperetan agertu eta ikusten diran lizunkerijak; aragijak bafiz, zirikatuten gaitu oitura donga ta nabar-

menkeri guztijetara; aragija da areriorik txafena geugaz bizi dalako, etxeko arerijua dalako, eta etxeko arerijuak izan oi-dira txafenak: *inimici hominis domestici ejus*; aragijak zirikatuten gauz batzuetan afokerijara eta banerijara; beste batzuetan, ondazun edo enbidijara, beti okerkerija edo nazaikeri guztijetara, eta jzenbat bidar urteten dau beriagaz!; esan beije gizartian ikusten dirian zatarkeri eta ekandu gaiztuak. ¡Kristiñauak!, gudiak irauten daben artian ez oi-da izan bakerik; arerijuak aginduten daben artian be ez. ¿Zelan jaubetuko gara, ba, bakiagaz? ¿Zelan? Arerijo guztiak oinperatu eta zapalduagaz. Ona emen danok egiñ biar doguna: lenengo esi eta menperatu aragija, eta bere griña gaiztuak ekafi Jaungoikuaren legepera, ildurate edo mortifikaziñoiaren bidez. Griña txafak ez dira azpiratuten bere naikunde eta zitalkerijak jafaituagaz, betetiagaz, ezpada naikundiak ukatu eta zitalkerijak esi eta azpiratuagaz. Onan burukan egiten dabenak izango dau bakia bere buruagaz, bere arimiagaz.

Alegiñdu, ba, Jesukristok gaur opa deuzkun bakiagaz jaubetuteko; ibili beti zuzen da artez Jaungoikuaren bide santuetan; bete zintzo zintzo zeuen biar-izanak; eta onan egiñik lortuko dozue bakia zeuen biotzetan, etxetan, lagun artian eta abar, eta eriotzako orduan entzun al-izango dozuez atsegiñezko itz auetxek: *beati pacifici quoniam filii Dei vocabuntur*.

Pasko osteko bigaren igandea

(Irakurri edo esan goizpafa, eta jafaitu onan):

Jesus gure artzaiñ onak bete izan dauz, eta beteko dauz auferantzian be, artzaiñ onari dagokijozan eginkizun gustijak. Artzañaren eginkizunak dira lau: 1. *ardijak esagututia*. Artzaiñ on da arduratzuak ezagututen dauz bere ardiak; es bakarik txabolan batuta dagozarian, baita be zelaijan, espafuan, edo basoan bananduta dabilzasanian, eta ezagututen dauz ardi bakotxa zelakua dan, zelako ekanduak daukezan, eta ze igali edo frutu emoten daben.

Jesucristo gure Jaunak be, ezagututen dauz bere ardiak; alan diño Ebangelio santuan: *Ego cognosco oves meas*. Eta ¿zeintzuk dira ardi onek? Mundu zabalían bananduta dagozan gizaseme gustijak, danak esagututen dauz; eta esagututen dauz oso osuan, gorputz eta ariman; eta daki, utz egiteko bildur barik, bakotxa zelakua dan; gorputzaren aldetik daki osasuntzua edo gaijotija dan, indartsua edo indargea dan; arimiaren aldetik daki siñisteduna edo siñistebakua dan, ekandu onekua edo txarrekoa dan, Jaungoikuaren eta arimiaren arazuetan zaletazuna daukon edo ez; berba baten ezatiaren, oso osuan ezagututen gauz, eta ezagututen dauz gure pensamentu, gogo, asmo eta intenziño gustijak; es jako ezerbe estalduten dana daukalako bere begijen aurian: *omnia nuda et aperta oculis ejus*. ¡Ze jakindurija aundija! ¡ze ezaubide aundija! Jesukristo eziñ iñok atzipetu edo engañau leike; beraz gaistuak eta okerrak izanik, onak balira lez agertu gura dabenak, oker dabiltz, Jesukristok ezagututen dauz; ardi gaistuak izanik, bildots nafuz jasten dirianak oker dabiltz, Jesukristok ezagututen dauz. Izan ba, onak, zintzuak, zuzenak, Jesukristok ardi onak lez maitatu zagiezan, eta zerura eroan zagiezan.

2.^a Artzaiñ onak ardiak maitatuten dauz, eta auxegaitik eurakaz ibiltenda beti, nai zelaijan, nai basoan, nai osterantzeko tokijan; eta ardi bat galtzen bada, bere ondoren juaten da, eta idoro edo topetan badau, lepoan artu eta ekarten dau artaldera edo txabolara. Jesukristok be maite dauz bere ardiak, maite gauz danok, maitasunik andijenagaz, eta maitiak maitiagaz egon gura izaten dabelako, jatxi zan zerutik luñera gugaz eta gure artian bizi izatien; egiñ zan gizon Virgiña Marijaren sabel garbian, gure antzeko egiñ zan, Elexa Ama deunak argiro diruskunez: *et Verbum caro factum est*. Maite dirianak alkañegaz bizi gura izaten dabe, eta Jesukristok maite genduzalako, ogeta amairu urtian gugaz bizi izan zan, eta emon euskun irakatzirik ederenak, eta onbiderik miragañienak; Jesukristok maite genduzalako, ixuri eban bere sañetako odol gustija, eta galdu eban bizitzia, kurutze lotsagañi baten, gu diabruaren mendetik ateratiaren eta guri zerua emotiaren: *dilexit nos et tradidit semetipsum pro nobis*. ¡Oh se maitasun aundi eta bizija! ¿Nork maite izango ez dau Jesus, gure artzaiñ ona!

3.^a Artzaiñ on eta arduratzuak ardiak janarituten dauz, eta auxegaitik eruaten dauz bedar onak dagozan tokira, gizendu ditezan, esne asko emon daijen; eruaten dauz baita be, ur garbiak dagozan eñekatxuetara, egañija ase dagijen, eta aldenduten dauz ur zikiñak eta kaltegañijak dagozan toki gustijetatik. Auxe berberau egiten dau Jesukristok bere ardiagaz, gizaseme gusti-

lagaz; janarrituten gauz bere ikaskizun zerutafakaz, bere gorputz eta odola-
gaz, sendotu gaitian, indartu gaitezana, zeruko bidean adorez ibilteko; janari-
tuten dauz gure gorputzak be, luñari eta zugatzai igali modu gustijak emon
eragiñagaz eta aberiai, esnia, lania eta aragija emon eragiñagaz; baña jana-
ririk lenena, indartsuena eta osasungarijena, arimako janarija da; ara zegai-
tik ezan eban Jesukristok berberak gizona ez dala bizi ogijagaz bakarik, ez-
pada bere aotik urtetan daben itzagaz baño: *non in pane solo vivit homo sed
de omni verbo quod procedit de ore Dei.* ¡Oh se ontasuna eta maitasun andi
eta samuñ erakusten deuskun Jesus gure artzaiñ onak!

4.^a Artzaiñ on eta arduratzuak zainduten dauz bere ardiak, auxegaitik
ibilten da beti eurakaz, egunaz eta gabaz, euritzu, nai edurtzan, txabolan nai
basoan, eta ez da eurakgandik iñoz aldenduten, beti dago zur, ia txakurik
agiri dan, ia otzorik inguruan dabilen, ia pistirik uferatuten dan, eskuan da-
rabilen, makila senduagaz, uratu eta aldenduteko artaldetik; alantxe egiten
eban David artzaña izan zan aldiñan, eta irakurten dogu idazki santuetan beñ
baño gejegotan otzua il ebala bere eskuakaz. Beste onenbeste egiten dau
gugaz Jesus artzaiñ onak; gugaz dago egunez eta gabaz altarako sagrarijo
ofetan; ortijek zainduten gauz infernuko otso amofatuak eta ostiango pistijak
kalterik egiñ ez daigun; ez da gure artian iñor galduko Jesusen efuz; galtzen
bada izango da bere efuz eta artzaiñ ona dan Jesusgandik aldendu dalako
eta iges egiñ dabelako. Jesus artzaiñ ona eta arduratsua da; ez da luñeko
artzaiñ batzuk lez alogerako artzaiña; alogerako artzaiñak geijenian ez dira
artzain onak, ez eta arduratsuak, ardiak beriak ez diralako, eta auxegaitik
batian magikeriz, bestian ardura ezaz, eta otsua edo pistijen bat badator, bil-
duñez eta ikaraz, itxiten dauz ardiak, igas egiten dau, eta otsuak triskantza
andijak egiten dauz artaldijan. Jesusegaz onakorik eziñ jaso leiteke, dana
ikusten dabelako, eta arerijo gustiakgandik gaiskatu geintezalako, bere
eriotza santuagaz gaiskatu genduzan infernuko otsua dan diabruagandik,
menderatu eban, lotu eban, eta ezin leikegu gatxik egiñ, geuk nai ezpadogu
(dígase lo del perro atado.)

Maitatu daigun ba Jesus, gure artzaiñ ona, bizi gaitian beti bere artaldi-
jan, bere deja entzun eta bere ezana egiten dogula, emen luñian bere jañaila
zintzuak izanik gero an goijan beragaz bizi gaitezana. Alan izan dediña.



Pasko osteko irugaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Goizpar onetako itzak (berbak) Jesukristok ezan ebazan bere bizitzako askenengo egunian, eguen santu gabian, afal ostian: uferatuten zan ludi au itxi eta Aitagana juateko eguna, betikotazun guztitik izentauriko eguna; eta samurkiro, dirautze bere Apostoluai: unetxu bat, eta geijago es nazue ikusiko, neure Aitagana noya ta; baña lazter ostera be ikuziko nozue; ni juaten nazanian, zuek negar sotiñak egingo dozuez, baña mundua edo mundutarak poztuko dira.

Ara emen Jesus onak ludi onetako ondasunak zelan satitu, partidu edo bananduten dauzen: onai, zuzenai, bere maitaliai, negar samiñak, ezbiarak eta kurutzia itxiten deutzez; mundutarakai bariz lufeko ondasunak, atsegiñak eta poztasunak. Eritxi baten esan lei Jesukristok ez dabela au ondo egiten, ba onak izan biar leuke zarituak eta dongak zigortuak; baña ez; Jesukristo zuzentasuna berbera da, eta onan egiten dabenian, ondo ezagutu eta egiten dau. Jesukristo gure Jaunak bere zuzentasuna, ontasunagaz bat egiñik, gura dau onak neke miñ laburakaz euren pekatu eta orban guztijetatik garbitu, gero zeruan zari andijago bat euki dayen; eta gura dauz dongak, pekatarijak, ludi onetako ondasun eta atsegiñakaz zaritu, emen, ludijan egiñ ebezan egite on batzuek gaitik; ba eziñ ukatu leike dongak be nozian beiñ gauza on batzuk egiten dabezala, baña egite onek ez zirialako Jaungokuaren maitetasunez egiñak, es zirian zeruan duiñ be; auxegaitik sarituten dauz emen lufian. ¡Erukariak benetan! Emengo zorionak gura dabez eta emen zarija artuten dabe; goiko zorion asken bagakuak ez dabez gura, eta betiko galduten dabez. ¡Erukariak benetan! Baña dongak, pekatarijak, ¿zoriontzuek ete dira emen lufian? Eritxi baten bai; ba ikusten dogu aginpide andijan, ondasun eta aberastasun andijakaz, gozotazun eta atsegiñ ugarijakaz, aizkidez inguratuta, goralduta, txalotuta; baña aztertuten badogu euren biotzak, ikusiko dogu zoriontzuna ufin daguala eurakgandik; diru egarriak nekatuten dauz, galtzeko bildurak ikaratuten dauz; atzegiñ guztijakaz ase eziñak, naigabetu-

ten dauz, eta azkenik, eriotziaren bildurak eta eriotziagaz dana itxi beafak, kezka eta samintazunez betetan dauz; zorientzuak dira irudiz, baña efukafiak egiz. ¡Zenbat aginpidedun, zenbat aukeradun, zenbat aberats andi eta milloie andijen jabe ziranak ikusi ez dogu danbada bategaz bizitzia kenduten! ¡zenbatek jaurti izan dabe euren burua itxasora eta ito izan dira!; oraindiño urte gitxi dala, Belgikako bankeru bat, diru askoren jabe zana, areoplanutik bere burua jaurti eban itxasora eta ito zan.

Ez dago ez ludi onetan egijazko zorionik, ez aginpidetan, ez aberastasunetan, ez atsegiñetan, ez aukera guztijan bizi izatian, ez ezetan bez, ez izanik Jaungoikuaren maitasunian eta bere atsegiñ santuan bizi izatian baño; onexek bai dira egijaz zorientzuak ludi onetan. Ez gaitian ba itxutu mundutafan zorion labur eta arantzaz markaurikoakaz; biztu ziñismena, eta jaso begijak goruntz, eta bilatu ango zorionak, eurak dirialako egijaskuak, arantza bagakuak eta beti beti iraungo dabesanak.

Ludi onetan, erbestian gagoz, eta erbestian ez oi da izaten poz eta atsegiñ aundirik; auxegatik Jesukristok apostoluai ezan eutzen: ni juaten nazanian, mundua eta mundutafak postuko dira; zuek bañiz, itun (triste) egongozarie; baña itun edo tristura au gejenian azaletikua da, ez da biotzeraño elduten; begira ezpabere Paulo Apostoluari, ¡zembat ezbiar, zenbat ezatzi, zenbat naigabe, zenbat ezeuki eta zenbat zoritxar igaro ebazan Jesukristoren izena eta ikazkizun zerutafak zabaltzen ebazanian; eta alangusti be, diño berak, naigabe guztien artian atsegiñez gañezka egoala; *superabundo gaudio in omni tribulatione nostra*. (Corint. 2, 7-4.) Agustin deunak bere penitentzija eta laztazunak ikuztian beragaz efukituten zirianai esaten eutzen: oraiñ ixurrituten dodazan negafak, gozoagoak dira neure bizitza gaistoan euki dodazan atsegin guztijak baño. Jesukristoren izenian yasetan doguzan ezbiar eta nekeak, atsegiñ andija emoten deuzkue; au autor dabe Jesukristoren maitaleak, zeintzuek, Paulo Apostoluaren itzak auan arturik, ezaten eben: *quasi tristes semper autem gaudentes* (Cor. 6-10); itun gara irudiz, baña beti poztasunez egiz.

Mundutafak egijasko poztasun eta atsegiñak ez dabez ezagututen, ezdakijelako zein dan euren iturburua; iturburu au da Jaungoikuaren maitasuna, Jaungoikuaren otzegintzan zintzo-zintzo ibiltia, beti biotz garbija eukitia, eta bere bizierako egin bialak ondo betetia, emendijek sortuten da egiasko poza eta zorientasuna; Jaungoikuagaz bizi dana ondo bizi da, baketzu bizi da, zorientzu bizi da; baña mundutafak ez dira Jaungoikuagaz bizi, eta auxegai-

tik euren zoriona ez da biotzekoa, azaletikua baño, ez da egiazkoa, irudizkoa baño; eta ez da irankofa, unetzu batekoa baño; eta gitxien uste dabenian amaituten jake. Baltazar efege edo bakaldunari bere zoriona afal ostian amaitu jakon; Holofernes bakaldunari, moskortuta lo egoala, eta beste askori bidasti doazala, alai dagozala, eta asmo edo erabagirik aundijenak artutera doazala.

Azkenez, Jesukistok zirautzen apostoluai: unetxu bat eta oztera bafiro ikusiko nozue eta zuen biotza poztuko da, eta zuen ituna atsegiñ biurtuko da, eta ez deutzue inok be kenduko. ¡Ze atsegingarriak diran Jesukristoren berba onek!; eurak emoten deuzkue, ziurtazuna emengo ezbiar, naigabe eta negar eta naigabe laburari jaraituko deutzela beti irauneko poztazun eta zorionak; alantxe ezan eban beste aldi baten Jesukristo berberak: zorionekuak negar egiten dabenak, ba izango dira poztuak; *beati qui lugent quia consolabuntur*. Baña dongai beztela jasoko jake, ba euren poztazuna biurtuko jake negar samiñ, eta euren atsegiñak betiko neke ta miñ; *væ vobis, qui videtis nunc, quia lugebitis et flebitis*. (L. 6, 25.)

Gorde ba biotzian ikazkizun onek. Ezkatu Jesukristo gure Jaunari bialdu daigula guri be Espiritu deuna, gure adiña argitu eta biotza sendotu daigun, eruapen andiz, uneko negar sotiñ, ezbiar eta zoritxañak eruanik, betiko zorionagaz jaubetu gaizan. Alan izan izan dediña.

Pasko osteko laugarren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

¡Ze zoriontzuak izango geintekoz Jesukristoren antzera eriotza aufeko egunetan ezan al bagiñai: banua neure Jaungoikuagan; ludi onetako neure egiñ beaña zein izan dan Jaunkoikua goraldutia, maitatutia eta bere otzeintzan bizi izatia, amaitu dot orain; neure Jaungoikuana noya! ¡Ze zoriontzua, diñot bafiro be, au ezan leikian kristotara; Jaungoikuagandik gatoz e ta Jaun-

goikuaganuntz goaz; ara emen egi bi osasungafijak gure arimiarentzako. Eurak azaldutia nire goiz onetako lana izango da. Entzun ba gogo onagaz.

Gauza guztien asiera eta amaija Jaungoikua da; *ego sum alfa et omega*, diño Juan Ebangelarijak; zeru ta lufian agiri dirian gauza guztiak beragandik urten dabe; *ipse dixit et facta sunt*. Gizona, izaki guztien artian nagusijena eta danen bakaldun edo efegia bere eskutik urten dau. Orain eun urte zer giñian?; ezer be ez; ¿nun gengoan orain eun urte?; inun be ez; Elexa au gu baño zaragua da; bost eun bat urte sutunik daruaz; eta gu orduan eta geruago be ez giñian ezer be; or basuan ikusten doguzan lantai luze eta ederak gu baño zaraguak dira urte askotan, aixe txistulariakaz bufuka gogofa igaro dabez; eta gu, orduan eta geruago be, ez giñian ezer be; ofako mendi tontofak urte askotan edur zuriz jantzita ikusi dirianak gu baño zaraguak dira; eta gu ez orduan, ez geruago be, ez giñian ezer be; ¿nork emon deusku ba, izatia ta bizitzia? ¿nork agertu gaitu ludi onetan?; bakarik algustiduna dan Jaungoikuak; bai kristiñaua, gutariko bakotzak ezan lei: Jaungoikuak ezerebertik atera nau, Jaungoikuak egin nau. Gurasuak ez dauke al izaterik guri izatia eta bizitzia emoteko; begira zer zirautzen Makabeotafen amak bere zazpi semiai: Neure maitetxuak, nik ez dakit neure zabelian zelan agertu zian, ba arimarik ez neutzuen nik emon, ez izaterik, ez eta bizitarik; zuen gorputzeko zati guztijak eta bakotza bere tokijan, nik ez nebazan ipiñi Jaungoiko al guztidunak eta gauza guztien egiliak, egin dauz gauza ofek; beraz ezan giñai Job aita-len santuagaz: *manus tuæ facerunt me et plasma-verunt*. Zuk, Jauna, zure ezkuak egin nabe; zuk, Jauna, emon deutzazu arima bat zeure antzerakua; zuk aragiz jantzi ninduzun, zuk azufez eta sanez orni-du ninduzun. Beraz Jaungoikuak eginbanau, beragandik nator, bera izan da nire egilia eta bera da nire jaube bakara be; bera da nire aita, eta nire aita dalako maitatuten nau, maitasunik andijenagaz, sutzuenagaz; eta nire aita dalako, nire arimiaren, nire gorputzaren eta bizitzako gauza guztien arduria berak dauko.

Jaungoikua gure egilia eta jabe bakara dalako, aginduten deuzku bera bakarik Jaungoikotzat euki daigula, bera bakarik gurtu daigula, maitetu daigula, goraldtu daigula; eta gure ugazaba lez, beti bere mendian, zintzo zintzo,

bizi gaitezala. ¡Oh ze zoriontsuak izango genitekezan egi osasungari onek beti goguan eukirik, gure oldoskun, gogo, asmo, berba eta egite guztiak beragana eta bere aintzarako zuzenduko bagenduz!

2.^a Jaungoikuagana goaz: ara emen beste egi bat inok be ukatu eziñ leikiana; eřekako urak itxasoruntz doazan lez, alantxe doaz gisaseme guztijak Jaungoikoa-ganuntz; gorantz jaurtiten dan ari-kozkořa berantz datořen lez, alantxe goaz dañok Jaungoikoaganuntz. Gizonaren biotza une baten be ez dago geldirik; gizonak gura dau bere ona, gura dau bakia, gura dau atsedeen zoriontzua, bere ondoren dabil beti, baña ez dau arkituten ludi onetan; ludi onetako gauza guztiak ezin ase eta bete leije gizonaren biotza; gizonaren biotza aundija da, sakon-sakona da, eta bakarik ase eta beti lei andi eta neuri bagia dan Jaungoikuak. ¡Zenbat bidar, luřeko gauzen edertasunagaz itxuturik, uzte izan dabe gizonak eurretan aurkituko dabela zoriontasuna, eta ęzer jaso jake? arako pitxoletari jaso jakona; pitxoletia argi inguruan bira biraka ibiltzen da, eta askenian argijak itxututa, bertan eřeta geratzen da; afaña, ařantzaliak amo egalian ipinten deutzon jakija jan naian ibiltzen da, eta askenian amuan bertan eskeita geratzen da; txoritxuak, mutikuak lakirijuan ipinten deutzen garana jan nairik ibiltzen dira, baña gitxien uste dabeanian sama-samatik oratuta geratzen dira. Ez gaitian eruak izan; Jaungoikua da gure zoriontasun bakara, eta beragandik aldenduta ez dogu inunbe zoriontasunik aurkituko; ez eban aurkitu Salomon Israelgo bakaldun edo eřege aundijak; ez eban aurkitu Agustin jakitunak: ez dabe aurkitu eta aurkituko be ludi onetan bizi dirian gizonik ospetsuenak be.

ęNor Salomon baño gizon aundijagorik? Befogei urtian izan zan Israelgo bakalduna, eřegia; bere ondasun eta aberastasunak ezin zembatu zeitekezan, aukera guztiak, gozotazun guztiak eta atsegiñ guztiak gozau ebazan, baña ez zan ase, ez zan bete, eta lo zořo batetik iratzartu balitz lez, ezan eban: bizitziak gogait egiten deust, dana da uzkerija, banerija, utza: *Vanitas vanitatum et omnia vanitas*. Agustin deuna, Jaungoikuagana biurtu baño len, bizitarik nasai eta azkatuena eruan ebana, uste eban jolasetan, gozotasunian eta atsegiñ loijetan bilatuko ebala bere biotzak ain biziro nai eban bakia eta atsedena, baña ez eban billatu, eta aitortu biar izan eban Jaungoikuagan bakarik, aurkituten zuala bakia, atsedena eta egijasko zoriontasuna; ara emen bere itzak: *fecisti nos Domine ad te et inquietum est cor nostrum, donec requiescat in te*; Jauna, zeuretzako egiñ gozuz, eta gure biotza artega dago, zeugan atzedendu artian.

Jaungoikuagana goaz, bera dalako gure atsedeen eta zoriontasun bakafa; beragana goaz, ezkiñiriko sarija artutera; ba berak ezan euskun: *Ego ero merces tua magna nimis*; beragana goaz, aintzaz betikotazun guztian bizi izatera; beragana goaz, beragaz, Birgiña Marijagaz, aingeru eta santuen laguntzan bizi izatera; baña ¿zelan goaz?, ¿ziñismen bizijagaz?, ¿maitasun sutzuagaz?, ¿birtutez edo onomenez ornituta?, ¿egite onakaz aberastuta? Gogoratu auxe ondo, ba onan ezipaguaz, oker goaz. Artu ba erabagi sendo bat, Jaungoikuaren bidetatik ibilteko; Jaungoikuaganako bidia agindu santutako bidia da; Jaungoikuaganako bidia, kurutzeko bidia da; bertatik ibili dira gaur zeruan dagozan deun guztijak; bertatik baguaz, jaubetuko gara otzein zintzo-zintzuentzat izentaurik daukon sarija, zein danoi biotz-biotzetik opa deutzudan. Alan izan dediña.

Pasko osteko bostgaren igandea

(Irakurri edo esan goizpara, eta jafaitu onan):

Jesukristo gure Jaunak goizpar onetan erakusten deutze beldun edo apostoluai eta eurretan guri be, zeruko eskar eta mesediak jarizteko bidia; bide au otoija da, eta bereakaz nire goiz onetako itzaldija izango da. Entzun ba...

Otoija ¿zer da? Kristiñau ikasbidiak diñuaneez, otoija da Jaungoikuagana biotza jaso eta mesediak eskatutia. Otoija era bitakua da: gogozkua eta aozkua. Gogozkua da adiñagaz, biotzagaz egiten dana; aozkua bariz da aogaz berbaz, egiten dana. Gogartia egiten dogunian, gogozko otoija egiten dogu. Aita guria edo Agur María esaten dogunian, aosko otoija egiten dogu. Baita be otoija izan leiteke bakafekua eta azkoren artian egiten dana; ixilekua eta agirijan egiten dana. Agustín deunak diño gauza onak irakurten doguza-

nian Jaungoikuak itz egiten deuzkula, eta otoi egiten dogunian geuk Jaungoikuagaz itz egiten dogula. Otoja biar-biañekua da, nora ezekua da, ba gauza azko, geurez, eziñ egiñ genikez, ez eta mesediak jaretzi Jaungoikuaren laguntasun baga; eta laguntza ori otojaren bidez Jaungoikuari eskatu biar jako; ba eskatu barik ez deuzku emongo; Jesukristok argiro dirauzku: *petite et accipietis*; eskatuizu eta emongo jatzu; *pulsate et aperietur vobis*; deituizu eta edegiko jatzu. Mateo deunaren aoz dirauzku: zitzaldian (tentaziñoian) jausi gura ezpadozu, otoi egizu, iñoz azpeltu eta gogaitu barik, otoi egizu: *orate ut non intretis in tentationem; sine intermissione orate*. Beraz, nora ezekua eta biarbiañekua da otoija.

Otoija da arimiarentzat arnazia bizitziarentzat lez; asnaza barik gizona ilten da; otoi barik be arimia ilten da pekatuko eriotzazaz: otoija da arimiarentzat euriya eta euzkija baso, mendi, solo, zelai eta ibañentzat lez; euriy baga eta euzkiy baga dana legortuten da, eta ez da ezerbere artzen; au ondo dakije lugiñak; eguzkija ilunduko balitz, ezerbe ez litzateke erne, ez azi, ez elduko; bardiñ jasoten da animiagaz be: otoi barik, ariman ez litzatekez sortuko, ez erne, oldoskun onik, ez gurari deunik, ez eta zerutar egintzarik; alañ diño Igarliak: *anima mea sicut terra sine aqua tibi*.

Otoija da arimiarentzat ura añañarentzat lez; añaña uretik ateraten bada, ilten da, ura dalako bere bizitzia; arimia be, otoi baga, ezin luzaruan bizi liteke Jaungoikuaren aizkidetazunian, otoja dalako bere bizitzia eta Jaungoikuagaz bat egiten dauana.

Otoijak indar aundija dauko Jaungoikuagandik edozeiñ mesede jarizteko; bera da zeruko atiak edegiten dauzen giltza, Agustin deunak diñuanetz: *oratio justi clavis est cœli*; otoijak, Jaunaren asafia biguntzen dau, *oratio lenit Deum*; otoia da txerñak ikeratuten dauzana Loreño Justiniano deunak diñuanetz: *oratio terret demones*; otoja da ezetzi eta zirikaldi guztijak goituteko izkilu edo armia, Juan Krisostomo deunak diñuanetz: *oratio est optissima arma*

Baña norbaitek ezango du: ¡Jauna! aiñ indartsua bada otoja, ¿zergaitik ez dogu jarizten bere bidez eskatuten dogun guztia? Santiago Apostoluak ezango deutzue zergaitik dan au: *Petit is et non accipitis eo quod male petatis*. *Lenengo*, otoijagaz ezdogu jarizten ezkatuten doguna, txarto ezkatuten dogulako. ¡Zenbat otoi egiten da ganora barik, zer ezkatuten dogun be ez dakigula! ¡Zenbat bidar otoija egiten dogun aldijan gagoz aldamenera begira, berbetan, bañez, siñuka! Eta ¿mira egiten jatzue onelako otojak Jaungoikuak ez entzutia? *Bigarren*, otoijagaz ezkatuten doguna ezdogu jarizten arimako

onerak ezkatu biazian, gorputzeko edo bizitzarako gauzak ezkatuten doguzalako, eta Jaungoikuak ondo daki zein dan guretzako onena eta zein dan kaltegarijena; umetxu batek kañibeta amari ezkatuten badeutzo, amak ez deutzo emoten, kaltegarí izango lekiolako; ba bezte onenbeste egiten dau Jaungoikuak gugaz be, ukatu eta ez emon guretzat kaltegarí izan leikiguzan gauzak (pónganse ejemplos de la salud, del dinero, etc.). *Irugarren*, otoiagaz ezkatuten doguna sarí ez dogu jarizten, iraupenik ez dankagulako otoi egitian; azten dogu otoja batutazun andijagaz, gar bizijagas, itxaropen andiz, baña irugañen edo laugañen egunian jarizten ezpadogu gura doguna, amate-tan da gure biotzeko gaña, galduten dogu itxaropena, eta bertan bera itxiten dogu otoi egitia.

Gura badogu Jaungoikuak gure otojak entzun dagizan, egiñ biar doguz *1.º gar aundijagaz*. Arimako gar barik egiten dirian otoiak dira ilak, epelak, motelak; eta onelako otoiak ez dauz Jaungoikuak entzuten; baña onerazpen zintzo-zintzo bategaz eta zihizmen bizijagaz egiten dirian otoiak beti entzuten dauz, eta emon be bai beren bidez ezkatuten dana. *2.º apaltazunagaz*, otoi apala, zeruragiño eltzen da; afokerijaz egiten dana bariz, luñian geratuten da. Goizparkijan irakurten dogu, aldi baten, fariseotar bat eta publicano edo petzu batzañe batek, Jerusalengo Elexara igon ebela otoi egiteko azmoz. Fariseotafak, elexiaren erdijan, agiri-agirijan eta zutun-zutunik egoala, zirautzan Jaungoikuari: «Jauna, ezkerak emoten deutzudaz bezte gizonak eta ordagoan ori lez ez nazalako; nik biritan barau egiten dot, eta amafenak bezuzen ordainduten dodaz»; eta onan jañaitu eban bere otoija, beran afokerijazko egitzak agertuagaz. Petzu batzaliak bariz, elexako baztartzu baten belaubikotuta, zirautzan Jaungoikuari: Jauna, eñuki zaz ni pekatari onegaz; ofek jaretxi eban bere pekatuen parkaziñoia, etá biurtu zan etxera donetuta. Fariseotafa baña etxeratu zan len baño dongiago egiñda. Eurendik ezagutu zihai ze indar aundija daukon apaltasunez egiten dan otoiak. *3. iraupenagaz*. Iraupena biar-biañekua da edozein be gauza, nai mezede, jarizteko; au argiro erakuzten deuzku Jesukristok; gure Jaunak ebangelijo santuan ba diño: zue-tariko batek aizkide bat badauko, eta gau erdijan bere etxera juanik, iru ogi ezkatuten badeutzo, ukatuko deutzoz, berandu dalako eta etxeko guztiak oeratuta dagozalako eta ezin jaiki leitekialako; baña au ta guzti be, irauten badau bere eskabidian, emoten deutzoz, ez aizkidia dalako, ezpada erakaitza (inoportuno) dalako; kanango andratxuak, ainbat bidar ezkatu eutzon Jesukristori bere alabiaren osasuna, eta ez eutzan jaramonik egiñ, baña irauñ

ebalako, azkenian be, jaretxi eban berak gura ebana, ba ezaeutzon: andria, andija da zure zinizmena, egiñ bedi zeuk gura dozun lez, eta alabia berbertatik osatu zan.

Egiñ ba zeuen otoijak ondo, gar bizijagaz, apaltazunagaz eta iraupen andijagaz; ezkatu Jesukristori lenen, arimako ondasunak, ezkar edo grazijak, bizitza onian irauteko, onoimen edo birtutan auferatuteko, merezimentu andijak irabazteko; eta onan egiten badogu, lortuko doguz emen lufian donetzi ugarijak eta gero, an goijan, betiko aintza eta zoriontazuna.

"Rogationibus"

Jesusen igokunde aureko otoi egunak

Gure Elexa Ama Deun arduratsuak beti eta aldi guztijetan bere seme-alaben ona bilatu izan dau. Ikusirik premiña andijak daukoguzala, bai arimien aldetik, baita be bizitziaren aldetik, gura leuke bere seme-alaba guztijak bat egiñik, zeruruntz euren biotzak jaso dagijezala, andijek bakarik etofi leikeguzalako gure premiña eta inguratuten gabezan gatx guztijen osageixa eta laguntasuna, ba igarle deunak argiro dirauzkunez, bere eskuan daukoz Jaungoikuak gauza guztien jua-etoñijak: *quia in manu ejus sunt omnes fines terræ.*

Bijar asi eta iru egunian jaraituten daben eñogatibako ibilkunde eta otoijak Elixien bostgañen eunkadan sortu ziran; Mamerto Deunak, Bienako Gotzaña izan zanak, lenengoz onako ibilkunde edo rogatibak egiñ ebazan, Jaungoikuagandik jaristiañen aldi atan Bienako urijan eta inguru guztijetan jasau edo sufriduten zirian zoritxañak, guda odoltzuak, legortiak, gosetiak, izufijak eta enparan lazkerijak (calamidades). Zortzigañen eunkadan, Pranzijako Gotzañak agindu eben rogatiba ibilkunde eta otoijak dieñ guztijan egiñ zeitezala aldi atako gatx eta izufi guztijak amaitu zeitezana, eta apurtxu bat

geruago Aita Santu Leon III-gafenak agindu eban onako rogatibak **Elexa** guztijan egiñ zeitezela.

Beraz, egun onek dira otoi egunak, Jaungoikuari mesede andijak eskatuteko egunak; baña Kristotar askok ez dabez aintzakotzat be artuten. Gure aurretiko asaba zañak, euskaldun ziñismendunak, Jaungoikuaren maitale andijak, eliztar zindu zinduak, aldra andijan onako elizkizunetara juaten ziran; gaur bafiz gizonik ez da ikusten, eta andrazkuak gitxi, onako ibilkundetan; eta onek adierazoten dau Jaungoiko zaletasuna gitxituaz doiala, ziñismena otzituaz, eta otoi zaletasuna amatauaz.

Artu daigun, ba, asmo sendo bat auferuntzian onako ibilkundetara etorteko, gure otoiak Elexa Ama Deunaren otoiakaz ba egiñik lortu daiguzan mesede andijak. Goiz onetan, ba, esango deutzuet ze indar andija dauken agirijan eta askoren artian egiten dirian otoijak.



Otoijak indar andija daukola edozeiñ mesede jaristeko eziñ ukatu leikian gauzia da; otoijaren indaia ez dator gizon onak edo txañak otoi egitetik, ezpada otoijaren indaiaetik; indar au Jaungoikuak berak emon deutza otoijari; auxegaitik esan eban Jesukristok: *petite et accipietis. Omnis qui petit accipit*: eskatuizu, eta emongo jatzu; eskatuten daben guztiak artuko dau; ez dau esaten onak, justuak eskatuten badau emongo jako, eta txañak, dongiak, pekatarijak eskatuten badau ez jako emongo; ezpada esaten dau eskatuten daben guztiak artuko dabe. Jesukristo gure Jaunak emon dau itza, berbia, eta jaongo dau. Gizonak safi askotan atzipetuten gaitue: gaur emoniko itza bijar ukatuten dabe; baña Jesukristok eziñ atzipetu geinkez, dalako Jaungoikua, dalako egija bera; eta lenago ezereztuko dira zeru-luñak Jaungoikuaren itzak uts egiño daben baño. Bakañian egiten dan otoijak aiñ indar andija badauko, ¿zenbat indar geijago eukiko ez dau askoren artian egiten dan otoijak?, eta otoi au egiten bada Elexa Ama Deunagaz batera, ¿nork neurtu otoi onen indaia? Elexia da Jesukristo gure Jaunak irasi edo fundau eban batzaña, bere bidez eta bere ikaskizunak ziñistu eta egiñagaz gizon guztijak salbau ditezan, zeruratu ditezan. Jesukristok bere artu-emon guztijak Elexiagaz daukoz; Jesukristok maite dauna, Elexiak maite dau; eta Jesukristok gorotaten dabena, Elexiak gorotetan dau. Elexia da, ba, egun onetan otoi egiten dabena, eta

Ellexiagaz batera otoi egiten dogu rogatibako ibilkundian parte artuten dogun Kristotar guztiok. Emendik ezagutu ziñai ze indar andija eukiko daben Ellexiaren otoijak!

Ellexa Ama Deunak onan asten dauz bere otoijak: *Exurge Christe adjuva nos et libera nos propter nomen tuum*: Jagi zaitez Kristo, lagun zakiguz, eta zeure izen santuagaitik aske gaizuz zoritxar guztijetatik. Gero gurtuten dau Irubatasun Deuna, eta ipintzen dauz bitarteko Birgiña Marija, Jose Deuna eta zeruko Deun guztijak, dan danak eskañi deijuen Aita zerukuari bere Seme maitiaren jaijotza, bizitza, nekaldi, eriotza, biztuera eta igokundeagaitik, aske gaizala zoritxar guztietatik. Pekatua da zoritxarrik andijena, berak ondatu geinkezalako betiko infernuan, eta auxegaitik deutso aŕen aske, librau gaizala pekatutik: *Ab omni peccato libera nos Domine*. Bat-bateko eriotzia da askotan, batez be pekatu astunian bizi dirianentzat, zoritxar andija; auxegaitik eskatuten deutso aske edo librau gaizala ez-jakiñeko eta bat-bateko eriotza gaiztotik: *A subitanea et improvisa morte libera nos Domine*.

Mundu edo ludi onetako zoriontasunik andijena da Jaungoikuaren aizkide-tasunian eta bere otzegin santuan eriotzaragiño irautia; eta Ellexa Ama Deunak bere seme-alabak zerurako gura dauzalako, eskar edo grazi auxe eskatuten deutso: *Ut nosmetipsos in tuo santo servicio conservare et confortare digneris: Te rogamus audi nos*.

Eleza Ama Deunak ikusi eta ezagututen dau zenbat etsai daukazan ludi onetan, zenbat alegiñduten dirian bai masoiak, zinge edo eregiak eta eskertar guztiak, bera birinduteko, lurperatuteko, eta al baleije ilteko. Badaki Ellexa Ama Deunak au eziñgo dabela egiñ eskertar guztiak infernuko indar guztijakaz batuta be, bere alde daukalako *Jesukristoren itza: portæ inferi non prevalebunt*; baña bere seme-alabak galdu ez ditezan eta kalterik izan ez daijen eskatuten deutso arerijo guztijak apaldu edo humildu daijezala: *Ut inimicos Sanctæ Ecclesiæ humiliare digneris: Te rogamus audi nos*.

Ez da onegaz naiketuten gure Ellexa Ama arduratsua, jakiñik lurbira guztijan zabaldurik dagozala milaka arimak Jesukristo gure gazkaitzale andija ezagututen ez dabenak, eta beste asko eta asko Jesukristo ezagututa gero bere artaldetik iges eginda, ardi galduak lez dabiltezazala, eurakaz erukiturik eskatuten deutso Aita zerukuari ekañi daijazala danak Jesukristoren ezaupidera eta bere artaldera, danak artalde bat artzaiñ baten azpijan bizi eta salbau ditezan.

Azkenez, Ellexa Ama Deunak, gure bizitza eta bizitzako premiñakaz go-

goraturik, eskatuten deuzo lufak emon dagiguzala arnarijak geure janarirako. ¡Oh ze eskabide eder eta oneratzuak! ¿Nok naiko ez dauz mesede onek guztijok? Ba geure eskuan daukaguz. Jesukristok esaten deuzku eskatu daiguzala eta emongo jakuzala: *petite et accipietis*. Etoñi, ba, egun onetan, rogatibako ibilkundetara; itxi etxeko arazuak ordu pare baten, ba arazurik nagusijena arimako salbaziñoia da; otoi egiñ Elexa Ama Deunagaz bat egiñik, indartzuaguak izan ditezan gure otoijak; eta onan egiten badogu lortuko doguz donetzitasun andijak eta mesede ugarijak emen luñian, eta gero betiko zoriontasuna zeruan.

Jesusen igokunde osteko igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Jesukristo gure Jaunak maite maite ebazan Apostoluak, eta eurañgandik aldendutian naigabetu ez zeitezan, maitero maitero esan eutzen: unetxu bat, eta ez nozue ikusiko, neure Aitagana noya ta; baña ez zaituedaz umezurtz itxiko: neuk Aitari eskatuko deutzat eta berak bialduko deutzue poztutzañe bat beti zuekaz egon dediñ: *non relinquam vos orfanos, ego rogabo Patrem...*

Ondo ekijan Jesukristo gure Jaunak Apostoluak izango ebezan ezetzijak ebangelijo santua ludijan zabaldutera joazanian; baita be zelako aldi txar, estutasun eta zoritxarñak igaroko ebezan; baña bildurtu eta ikaratu ez zeitezan, eta adorerik galdu ez egijen, eskintzen deutze zuzentzañe indartsu bat, zeñen laguntzan lanik neketsuenak beteko ebezan. Zerura igon eta amargañen egunian bete eban Jesukristok bere eskintzarija: bialdu eban Espiritu Deuna, eta beragaz argituta eta indartuta, abijau zirian Jesukristoren irakatzijak zabalduen. Euren aotik judeatar guztijak entzun eben Jesukristo nor zan, zetarako etoñi zan ludira, nun jaijo zan, nun bizi izan zan, zer egiñ eban bere lenengo ogeta amar urtetan, zer egiñ eban bere bizitzako azkenengo iru urtetan, zelan gaizkatu eban gizona pekatutik eta txerñen gaiztuaren mendetik, bere

nekaldi eta eriotza santuaren bidez, eta azkenian ilen artetik berbiztu eta igon eban donokira. Ikaskizun eder, mamintsu eta osasungafizko onek entzunda, judegu dongak, Jesusen iltzalak asafatu ziran, amofuz bete ziran, eta Apostoluen aurka jafi ziran, ezeztu ebezan, zigortu ebezan, espetxeratu ebezan; baña Apostoluak ez zirian ikaratu, ez eben adorerik galdu, poz pozik jasau ebezan zigorkadak eta espetxiak Jesusen izenian: *quoniam digni habiti sunt pro nomine Jesu contumeliam pati*. ¿Nok kendu eutzen bildufa? ¿Nok ainbeste indar eta adore emon eutzen? Espiritu Deunak. Beste onenbeste jaso zan lenengo Kristotafakaz be: izan ziran gofotauak, ezeztuak, espetxeratuak; baña adorerik andijenagaz jasau edo sufridu ebezan zoritxar guztiak: alan dirauzku Lukas Deunak: *Ecclesia consolatione Spiritus Sancti replebatur*.

Guk be, Jesusen ikasle eta jafaitzaliak garian aldetik, izango doguz negafezko ludi onetan gagozan bitartian, ezetzijak, gofotuak, estu-aldijak eta zoritxarak, batzuetan ziñismen bakuen aldetik, beste batzuetan agintarijen aldetik, beste batzuetan ortik edo emendik, ludi onetan bakerik eziñ euki leitekialako; baña Espiritu Deuna gugaz badago, jasango doguz zoritxar danak eruapen andijagaz, berak sendotu eta adoretuko gauzalako. Onetarako egunero eskatu biar deutzagu Jesukristo gure Jaunari bialdu daigula guri be Espiritu Deuna; onan egiñ dabe aldi guztijetan Kristotar guztiak, otoi bero beruakaz eta bizitza ona eta garbija eruanagaz. Pekatua da eragozpenik andijena Espiritu Deuna geuganduteko; beraz pekatuan bizi eta pekatuan iraunduten bagara, nekezko baten Espiritu Deuna gugana etofiko da.

Espiritu Deunak ez bakarik poztu, sendotu eta adoretu ebazan Apostoluak, baita be argitu ebazan. Jesukristok zerura igon baño lenago, Apostoluak ez egozan gogor eta sendo ziñismenian, ez eta Jesukristoren irakatzijetan: euren adiña iluntxu egoan oraiñdiño eta gauza asko ez ebezan aituten. Auxegaitik esan eutzen Jesukristok: gauza asko daukadaz oraiñdiño zuei esateko, baña ez zagoze aituteko eran: Espiritu Deuna bialtzen deutzudanian, berak argituko eta erakutziko deutzue jakiñ biar dozuen guztija. Eta alan jaso zan: Espiritu Deuna artu ebenetik euren adiña argitu zan, eta erligiñoeko egija eta eskutapenik andijenak argiro ezagutu ebezan, eta arimako eta zeruko arazuetan erakusle jakitunak izan ziran.

Beste onenbeste Espiritu Deunak egiñgo dau gugaz be; gure biotzetan artu eta irauten badau, argituko gauz eta erakutziko deuzkuz gure erligiño santuko eskutapen eta zeruko egijak; erakutziko deuzkuz zer egiñ biar dogun arimako arazuetan, zelan garbituko dogun arimia, zelan orniduko dogun

oroimenakaz, zelan zuzenduko dogun borondatia eta zelan bilatuko doguzan zeruko ondasunak, eta berak argituko gauz duda eta ezjakiñetan, utsik egiñ ez daigun. Baña onetarako ibili beti arima garbijagaz; ibili beti zuzen, artez eta zintzo Jaungoikuaren atsegiñtzan.

Elexa Ama Deunak bere arazuetan, batez be gafantzi andiko erabagiren bat artu gura dabengan, lenen egiten dabena da Espiritu Deunaren laguntza eskatu: lekaretxe edo Konbentuetan, ikastoletan, misiñoiak edo ejerzijo santuak asikeran eta beste edozeiñ gauza egikeran, beti eskatuten da Espiritu Deunaren laguntza esanaz: *Veni Sancte Spiritus.....* bere laguntza barik eziñ leikialako gauza andi eta onrazkorik egiñ. Gure aurretiko euskaldunak, Bizkaiko aldun goragarijak Gernikako zugatxpian erijaren onerako zuzenbideak eta erabagijak artutera joazanian ¿zer egiten ebela uste dozue? Lenengo eta beiñ meza santua entzuten eben batzar etxeko elexatxuan, Espiritu Deunaren laguntza eskatuaz, eta gero aldun guztijak asmorik on eta zuzenakaz erabagijak artuten ebezan. Onan bizi ziran euskaldunak beti ondo eta zoriontzu. Alantxe biziko gara gu be erligiño santuari berarizko itzala gordetan badeutzagu, Elexa Ama Deuna maitetuten badogu, euskaldunen oitura on da garbijak zainduten badoguz eta geure asaba zañen antzekuak bagara.

Baña, ez uste izan beti bake gozotsuan biziko garianik, ez: ez zirian bizi Apostoluak, ez lenengo Kristotafak, ez eta ondoriengo Kristotafak, eta ez gara biziko geu be, ludi onetako bizitzia gudazko bizitzia dalako, argiro ziñuan lez Job aitalen deunak: *militia est vita hominis*; aldi labur bateko bakia izango dogu, baña bake osua ez; bake osua goiko sarija da. Emen erbestian izango doguz ezetzijak, guda gogoñak, gofotuak eta abar. Jesukristok argiro iragafi eutzezan Apostoluai, eta aretan guri: *in mundo presuram habebitis... odio eritis omnibus hominibus propter nomem meum, sed ego vici mundum.* (Dígase en vasco). Jesukristoren itzak ez dabe iñoz utsik egiñ.

Bizi gaitian, ba, Jesukristoren jafaitzalai dagokijon lez, bere irakatzi deunak ziñistu, bere agindu eta esanak zintzo eta leijaltasunez bete, eta onan egiten badogu Espiritu Deuna gugaz izango da, eta bere laguntzaz goituko doguz etsai guztijak, lautuko doguz eragozpen guztijak, eta jaubetuko gara Jesukristok bere jafaile zintzuai eskiñiriko zarijagaz.

Irubatasun Deunaren igandea

Gaur ospatuten dau Elexa Ama Deunak Irubatasun Deunaren jaija. ¡Eskutapen arijarrija!, gure adiñ ilunak ezelanbere ulertu eziñ leikiana, dalako adiñez gañetikua. Beronek gogoratuten deuzku Jaungoiko bat iru notin edo personetan, irurak bardiñak izatian altasunian, betikotasunian eta egokitasun guztietan. Auxe da, eta izan biar dau, katoliko guztiak ziñistu biar doguna; alan diño Atanasio Deunak: *fides autem catholica, hæc est ut unum Deum in Trinitate et Trinitatem in unitate veneremur*. Eskutapen au da gure erligiño santuaren zimentu arija lez, ba bera barik eziñ azaldu leikez Jesukristoren gizon egintza, jaijotza, bizitza, nekaldi, eriotza, biztuera eta zerura igoera.

Jaungoikuak lege zafian eskutapen onen izpitxu bat baño ez eban agertu, baña Jesukristo gure Jaunak ludi onetara jatxi zanian, ainbat bidar agertu eban argiro argiro, batez be Apostoluai agindu eutzonian lurbira guztitik zabaldu zeitezala bere irakatzijak iragaritera, eta beragan ziñistuten ebazanak ugutzau edo bautizau egijazala Aitiaren, Semiaren eta Espiritu Deunaren ize-nian. Eskutapen arijarri au ulertu ez afen ziñistu biar dogu, Jaungoikuak Eleza Ama Deunari agertu deutzalako eta onek guri erakusten deuzkulako, ba Jaungoikuak eziñ guzuñik esan lei, egi utsa dalako, eta Elexa Amak be ez, eta euren esana asko da burua makurtu eta beste bage ziñistuteko. Gurtu daigun, ba, apaltasun andijagaz eta esker onez, beregandik mesede andijak artu doguzalako. ¿Ze mesede artu doguz Irubatasun Deunagandik? Entzun gogo onagaz, eta ikusiko dozuez.

Gure ziñismenak dirauzkun lez, asko eta andijak dira Irubatasun Deunak egiñ deuzkuzan mesediak. Aita zerukuak atera ginduzan ezerbezetik, Seme Jaungoikuak atera ginduzan txerenaren mendetik, eta Espiritu Deunak deundu edo santutu ginduzan. Aita betikuak emon deuzku izatia eta bizitzia; miñaka izaki eukazan Jaungoikuak bere adiñ azken bagakuan benturaz guk baño

zintzuago otzeinduko ebenak, eta arek guztijak utsian itxirik, emon deuzku izatia eta bizitzia, ez geure merezimentuz, ezpada betikotasun guztitik maite ginduzalako eta guri on egiñ gura euzkulako: *in charitate perpetua dilexit te*; eta emon deuzku izatia eta bizitzia urte batzuek emen luñian bere maitasun eta otzegintzan igaroagaz, gero zeruan beragaz bizi gaitezana; emon deuzku arima bat bere antzera egiña eta iru almenez aberastua; emon deuzku adiña bera ezagututeko, gomutia bere mesediakaz gogoratuteko, eta naimen edo borondatia bera geure indar guztiagaz eta adore andijagaz maitetuteko; emon deuzku gorputza bost sentzunakaz apaindua, osasuna eta bizitzarako biar dogun guztia, eta emon deuzkuz gauza onek guztijok, duarik, geure aldetik merezidu bagarik. Onezaz gañera, alderatu dauz gugandik afiskuak, zeñtzuetan galduko genduan bizitzia; alderatu dauz ainbat zoritxar, zelan dirian guda odoltzuak, uriolak, izufijak, legortiak eta osterantzeko gatxak. ¡Zenbat giza-seme il ez dira gudan, lur ikaretan, itxasuan eta izufijetan! Eta gu ¿nork gorizan gaitu? Jaungoikuak, eta bakarik Jaungoikuak. ¡Zenbat mesede! Eta ¿zelan erantzun deutzagu mesede onei? ¿Bera maitatuaz?, ¿bere esana egiñagaz?, ¿bere gogoko dirian gauzak egiñagaz? Bai zera be; erantzun deutzagu esker gaiztuagaz, iraiñakaz, pekatuakaz, dolorkerijagaz.

Seme Jaungoikuak atera ginduzan txefenaren mendetik. Adanen oben edo pekatua zabaldu zan bere ondoriengo gizaseme guztijetara: danok jaijo giñan ezainduta ariman eta gorputzian, eta zerutik erbestetuta: ez eguan iñor, ez aingeruen artian, ez gizonen artian, gu gaizkatu geinkezanik, gu txefenaren erpetatik atera geinkezanik; eta Jaungoikuaren Semia, gugaz efukiturik, eskeñi jakon Aita zerukuari esanaz: *tunc dixit ecce venio*: Aita, neu jatxiko naz luñera, gizon egiñgo naz eta ordainduko dot gizonak egiñ deutzuen iraña eta zuri deutzuen zoña. Eta eldu zanian bere aldiya jatxi zan luñera, gizondu zan Ama Birgiñaren sabel garbijan, jaijo zan Belenen, bizitu zan Nazareten, ibili zan iru urtian uririk uri, eñirik eñi, zeruko ikaskizun eder eta mamintzuak zabalduen, danai esku zabalez mesediak egiten, eta azkenez bere nekaldi gogor eta eriotza lotsagañijagaz ordaindu eutzon Aita zerukuari gure iraña, gure zoña. Baketu zan Jaungoikua, eta txefenaren mendetik aske (libre) geratu giñan. ¡Ze mesede andija! Eta mesede au egiñ euzkun duarik, geure aldetiko merezimentu barik.

Eta au asko izan ezpalitz lez, irasi edo fundau eban bere Elexa Deuna, emen kutxa baten lez sartuta, munduko ezetzi eta galbide guztijetatik salbau geintezan. Bere Elexan ipiñi ebazan zazpi Sakramentnak, grazijazko itufijak,

enretan ase eta aberastu geinkezan geure arimak; eta bere biotzeko maitasun sutsua guri erakustiafen geratu zan geugaz altarako mai santu ofetan. Ortxe dago, ba, Jesus, gure maitale andija, guri deiez, guri mesede egiñ guraz. ¡Zenbat mesede, eta zenbat zijo edo motibo esker ona erakusteko!

Espiritu Deunak santutu genduzan. Espiritu Deunaren egintza auxe da: gure arimak, gure biotzak deundu edo santututia; eta au egiten dau lenengo bautismo santuagaz: bere bidez parkatuten deuzku pekatu jatofizkua eta beste edozeiñ be pekatu aurkituten bada gugan; eta egiten gauz Jaungoikuaren seme eta zeruaren jaubegi edo herederu. Pekatuagaz galdu genduzan Jaungoikuaren semetasuna eta zerurako eskubidia, eta Espiritu Santuak bañiro biurtuten dauzkuz eskubide bi onek. ¡Ze zoriontasuna guria! ¡Ze jabetasun andija egunen batian eskuratuko doguna! ¡Zerua, bere zoriontasun guztiagaz, bere aberastasun eta atsegiñ guztijagaz, geuria izango da geure efuz bañiro galtzen ezpadogu pekatuagaz. Espiritu Deunak, onezaz gañera, aberastuten gauz doe eta grazi andijagaz, aberastu ebazan lez Apostoluak eta lenengo kristiñauak, sendaro iraun daigun ziñizmenian eta Jaungoikuaren maitasunian.

Orain ba, maitasunak maitasuna eskatuten badau, eta mesede egiñak esker ona, guri jaoku Irubatasun Deuna maitatutia beti eta era gustijetan esker ona agertutia, eta au erakutziko dogu pekaturik ez egiñagaz, bere aginduak zintzo-zintzo betiagaz, bere gogoko gauzak egiñagaz, batez be oetik jajeran eta oerakuan itzal andijagaz ziñatutiaz, eta onan egiten badogu Irubatasun Deunak lagunduko deuzku emen luñian, eta zorionduko gaitu an goijan, danoi opa deutzudan lez. Alan izan dedila.

Etorkundeko igandea (Pentecostés)

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Andijak dira Jesukristo gure Jaunak bere maitalñai eskintzen dautzezan

onera eta mezediak, eta eurakaz jaubetu zagiezan esango deutzuet zetan dagan Jaungoikuaren maitasun egijazkua. Entzun ba...

Gizonak Jaungoikua maitatu biar daula, ez dago zetan ezan. Loyolatar Iñaki deunak, berak idatzitako gogo inarkunen idaztijan diño: Jaungoikuak gizona egiñ ebala Jaungoikua maitetu, otzeindu eta goralduteko emen lufian eta au egiñagaz zerua irabazteko: baña deun onek ezango ezpaleikigu be, Jaungoikuak berberak lenengo aginduan dirauzku itz onexekaz: maitetuko dozu zeure Jaungoikua biotz osuagaz, arima osuagaz eta zeure indar guztijagaz; beraz gizonaren lenengo eginkizuna da Jaungoikua maitetutia. Onezaz gañera zeijo edo efazoe andijak daukaguz Jaungoikua maitetuteko. 1.º Garian guztija eta daukagun guztija berak emon izan deuzkulako: izatia, bizitzia, osasuna, ogasunak, bizitzarako biar dogun guztia berak emon deuzku, eta berak gura dabenian kenduko deuzku. 2.º Maitatu biar dogu Jaungoikua bere efukitasun andijan eta bere Seme Jesukristoren bidez, txerenaren mendetik atera eta zeruagaz jaubetuteko bidian ipiñi izan gaitualako. 3.º Jaungoikua maitatu biar dogu ainbat bidar egiñ doguzan obenak, gaiztakerijak eta dolorkerijak parkatu deuzkuzalako. ¿Zer izango zan guzaz lenengo obena egiñ genduanian bertan infernura jaurti bagenduz, gotzonak zerutik jaurti ebazan lez?

Baña deritzot jakiñ naiko dozuela zetan dagan Jaungoikuaren maitasuna. Maitasuna izan leiteke egijazkua eta guzuzekua. Egijazko maitasuna ez dago aoan, biotzian baño; ez dago itzetan, egitetan baño. Ara zegaitik dirauzkun Juan Ebangelari Deunak: *Filioli mei, non diligamus verbo et lingua sed opere et veritate*: Jaungoikuaren maitasuna ez dago aoagaz esatian «Jauna, maite zaitut»; ez dago otoi asko eta luziak egitian, ez eta elexara ta osteria ibiltian, eta ikurtonak, Sakramentuak artutian be ez: gauza onek guztijok onak dira, isiotu leije gure biotzetan Jaungoikuaren maitasuna, baña eurak berez ez dira Jaungoikuaren maitasuna. Jaungoikuaren maitasuna ez dago penitentzia eta laztasun andijan egitian, gorputzeko sentzunak ilduratu edo mortifikatian, ixiltasuna gorde ta batutasun andija eukitian: egite onekaz biztu lei gure biotzetan Jaungoikuaren maitasuna, baña eurak ez dira Jaungoikuaren maitasuna. Jaungoikuaren maitasuna ¿zetan dago, ba? Nik ez deutzuet esango; nire ordezes Jesukristo berberak esango deutzue. Entzun Jesukristok gaurko goizpa-

fian dirauzkuna: *Si quis diligit me, sermonem meum servabit.* (Dígase en vasco). Beraz Jaungoikuaren maitasuna dago bere esana egitian, bere lege deuna betetian; aozko maitasuna, berba utsezko maitasuna maitasun guzuzekua da; berbak, itzak aiziak daruaz; egiñtzak bariz ez; ibilkuntza (movimiento) ibilijaz agertuten dan lez, maitasuna be egiñtzakaz agertuten da.

Egijazko maitasuna daukanak maitiaren esana egiten dau, maitiari atsegiñ emoteko alegiñduten da, eta ez deutzo ezegaitik be naigaberik emoten; egijazko maitasuna daukanak, beti, era guztijetan eta alde guztijetan maitasuneko ezaugarriak emoten dauz; egijazko maitasunak maitiaren gogoko gauza guztijak egiten dauz; egijazko maitasunak dana jasau edo sufriduten dau, eta ez da ezegaitik be ikaratuten, ez bildurtuten, adore eta kemen andija agertuten dau ařiskurik andijenetan be. Begira ziñopa edo martirijezi ze alai, ze pozik, ze kemen eta adore andijagaz jasau ebezan neke miñik andijenak eta ixuri eben euren odola eta emon bizitzia. Begira Bořiochoa deunari ze adore andijagaz aizkorapian bere burua ipiñi eban. Guk be, egiz eta biotzez Jaungoikua maite badogu, bere esana eta bere legia beteko dogu, berak gořotetan dabena gořotauko dogu, berak nai ez dabena ez dogu nai izango, eta itxiko doguz bere kaltez dirian gauza guztiak: auxe da egijazko maitasuna.

Onelakua ote da gure Jaungoikuaganako maitasuna? Ez dot uste. Begira ezpabere geure egitadai: eurak esango dabe argiro zelakua dan. ¡Zenbat gizasemek iraiñduten dabe Jaungoikuaren izen santua birau eta blasfemijarik ikaragarrijenakaz! ¡Zenbatek austen dabez jai egunak mezarik ez entzunagaz eta premiña barik aste-eguna balitz lez biar egiñagaz! ¡Zenbat senar-emastek austen dabez ezkontzako lege santuak eta seme-alabakganako daukezan biar-izanak! ¡Zenbat gizaseme bizi dira ezjakiñtasun negargarrijan, otoitxu bat egiñ barik, ez jaikieran, ez jatorduan, ez eta oerakuan!, Jaungoikuagaz, ari-miagaz, eriotziagaz eta betikotasunagaz gogoratu barik! Eta onek guztijok esan leije Jaungoikua maitetuten dabela? Bai zera be. Beste asko bariz, kristiñautasuna eta katolikotasuna aoan erabili ařen eta saři autortu eta Jauna artu ařen, Elexako agintarijak aginduten dabinari ez deutze jaramonik be egiten; esaten jake ořako jantzi labur, lizun, aragikerijaren biztugarriak dirianak itxi daijezala, eta jaramonik be ez; ořako jolas, dantza eta ibilera gaiztuak itxi dagiezala, eta entzun be ez, jaramonik be ez... eta onek guztijok ¿esan leikie Jaungoikua maite dabela? Elexako agintarijai jaramonik egiten ez deutzonak Jesukristori jaramonik ez deutzo egiten. Berak esan dau argiro argiro: *Qui vos audit, me audit.* (Dígase en vasco).

Jaungoikua egiz eta benetan maitetuten dabenai Jesukristo gure Jaunak iru eskintza eder eta pozgarriak egiñ deutez. 1.º *Pater meus diliget eum*: Nire aitak maitetuko dau, eta nire Aitak maitetzen badau ¿zer bildur izan leike?, ¿nok kalte egiñ leikio? Jaungoikua da alguztiduna: berak zaindu eta gordeko dau arerijo guztijetatik, berak emongo deutzo biar daben guztija, aberatsa eta esku zabalekoa dalako, berak emongo deutzo emen luñian biotzeko bakia eta atsegiña eta an goijan betiko zorientasuna. ¡Oh ze zorientzua da egiz eta biotzez Jaungoikua maite daben gizona!

2.º *Et ad eum veniemus*. Jaungoikua maite daben biotzera Irubatasun Deuna etofiko da: biotza, arimia, zeru biurtuko da, zeruko atsegiñak gozauko dauz, luñagaz eta luñeko gauzakaz aztuko da. Jaungoikua gugaz badago, txefenak gugandik igez egiñgo dau, bakian itxiko deuzku, ez gaitu atzipetuko; onan jaso izan da Deun askogaz, arima on askogaz, eta onan jasoko da gugaz be.

3.º *Et mansionem apud eum faciemus*. Jaungoikua maite daben biotzian Irubatasun Santuak atsedean egiñgo dau, eta bere biotza izango da bizilekurik edefena, elexarik ospatzena, tronu edo jarlekurik eregijena, eta ixuriko dauz biotzian eskar edo grazirik andijenak, eskaña bizitza onian irauteko, eskaña onoimenian auferatuteko, eta eskaña merezimentu andijak irabazteko eta gero zeruan deun andi bat izateko.

Mesede onen jaube egiñ gura badogu, asi gaitian gaurtik Jaungoikua egiz eta biotzez maitatuten, bere esanak, aginduak eta lege guztijak zintzotasun guztijagaz bete daiguzan. Onetarako eskatu Jesukristori goiko laguntasuna, ba geure indar utzaz eziñ bete geinkez ta, eskatu Jesukristori gaurko egunian Apostoluai bialdu eutzen lez Espiritu Deuna, bialdu daigula guri be, bere doez aberastu, bere eskañez indartuta, bere maitasun su gañez sututa, iraun daigun bizitza guztijan bere maitasunian, gero eriotz ostian bere zorientasunagaz jaubetu gaitian. Alan izan dedila.

(Si se quiere predicar el misterio de la Venida del Espíritu Santo, predíquese la platiquilla que va al fin).



Etorkunde osteko bigaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Ebangelijo santuak gogoratuten deuzkun afarija komuniño santuaren irudija da. Jesukristo berbera da mai santu onetara deituten deuzkuna, bada gura dau bere gorputz eta odolagaz gu alikatutia, gure arimako bizitzia indartutia, sendotutia. Ondo ekijan Jesukristok argalak giñiala, gatxera obenduta gengozala, eta zirikaldi andijak izaten doguzala, bai geure griña gaiztuen aldetik, baita geure arimako arerijuen aldetik be; auxegaitik emon gura izan euzkun sendagarri on bat, indartsu bat, eta au ez da besterik Komuniño santua baño.

Jauna arima garbijagaz eta biar dan gertaeriagaz artzen daunak aterako dauz onera eta mesede andijak.

Jauna arima garbijagaz artuten dauna Jesusegaz beragaz bat egiten da, eta au Jesukristok berberak esana da: *Qui manducat meam carnem..... in me manet*. Bat egite au da grazijazkua, maitasunezkoa. Santo Tomas jakitunak irudi bategaz adierazoten dau bat egite au; diño Santuak, zugatz bat mentetan dogunian mentuagaz bat egiten dan lez, alantxe Jauna artuten dogunian Jesusegaz bat egiten gara.

Jauna arima garbijagaz artuten daunak eñesago goituten dauz diabruaren ezetzi edo zirikaldijak, eta baita be griña gaiztuak eta oitura dongak, zergaitik indar andijak emoten deutzezan Jesusek berberak.

Bufuka baten ¿nor izaten da geijenian garailari? Indar andija daukana. Indargea edo indar gitxikua beti izan oi da azpiratua, goitua. Beraz gu indartuten bagara Jesusen gorputz eta odolagaz, ez gaitu diabruak azpiratuko, ez eta gure griña gaiztuak goituko.

Jauna arima garbijagaz artuten daunak artzen dau zeruko gauzen zaletasuna, Jaunak berak emoten deutzo argitasuna, eta argi onegaz ikusi eta ezagututen dau ze ezerberezak dirian mundu onetako gauza guztijak; argi onegaz ezagututen dau ondasunak eta aberastasunak ez diriala iraunkoñak, ezpada aldakoñak eta beiño baten galduten dirianak; aukerak eta jolasak eta

atsegiñak une baten bakafik irauten dabela, eta geijenian keska gafaza biotzian itxiten dabela; argi onegaz ezagututen dau ludi onetan ez daguala egiazko zorientasuna, an goijan baño, eta ara zuzenduten dauz bere alegin eta ardura guztiak.

Jauna arima garbijagaz artzen dauen arimetan ikusi oi-da aldakuntza andija euren izatian eta baita be euren egitadetan. Euren izatian erakusten dabe batutasun andijagua, ez bakafik eleixan, baita be kalia: moduzkotasun geijago berbetan, ibileran, tratu edo artu-emonetan eta osterantzeko gauzetan, ixiltasun geijago euren berbaldijetan, baketzuago agertuten da guztijakaz, prestuago edozeñi on egiteko eta laguntzeko.

Komuniño santua egiñ eban Jesukristok janarija eta edarija lez: *caro mea vere est cibus*; eta janarijak gorputza sendotu eta indartuten daun lez, alantxe komuniñoagaz gure arimia janarituten da, indartuten da, sendotuten da. Komuniño santuak isiotuten dau gure biotzetan Jaungoikuaren maitasuna, sortuten dau birtutiaganako zaletasuna, geituten dau onerazpen edo deboziñoia eta emoten deuzku betiko zorientasunaren itxaropen ziuña; alantxe dirauzku Elexa Ama Deunak: *et futuræ gloriæ pignus nobis datur*.

Gaur egunian Jauna artzia zabaldua dago lurbira guztian, baña aldakuntza gitxi ikusten da; oitura edo ekanduetan geituaz dua biotz guztijetan apaindurijarako, jolasetarako eta nasaikerija guztijetarako zaletasuna. Jauna artuten da, baña ¿zelañ artuten da?: batzuek artuten dabe bada-ezpadako konfesiñoa egiñda, arapataka, pentsau barik, gogoratu barik zer artutera doazan eta zetarako artutera doazan; beste batzuek artuten dabe arimia borondatezko pekatu ariñakaz ezainduta eta euretatik garbitu barik; beste batzuek osterara artuten dabe burua eta biotza zorakeriz beteta dabela: apaindurija, jolasa, dantzia dauke goguan, biotzian, aoan... eta onelako Jauna artziak ¿ze onera eta mesede ekañ leije? Janarija ona eta indartzua izan afen, gaijo bati emoten bajako ez deutzo onik egiño, baña ez janarijaren paltaz, ezpada gaijotasunagaitik baño. Beste onenbeste jasoten da Komuniño santuagaz be: janari santua da, zerutik jatxiriko ogija da, indartsua, osasuntzua da, baña artzen da gertaera barik eta arimia gaijo dala, gaijo ekandu gaiztuak daukazalako, eta goitu gura ez dauzalako, gaijo munduko gauzen zaletasun lafegija daukalako, gaijo ikusi-eziñak eta ondasun edo enbidijak daukazalako, eta eurak azpiratuteko ezerbe egiten ez dabelako; eta auxegaitik ez dau fruturik bat be ateraten Komuniño santutik.

Janarijak eta edarijak onik egiten ez dabenian ezagun izaten da gaijotasu-

nen bat daukala, eta egiten da alegiña gaijotasuna ezagutu eta biar dirian osageijak artu eta osatuteko.

Beste onenbeste egiñ biar da Jauna artziagaz be. Jauna ainbeste bidar artuagaz ontzen ezpagara, pekatuak gitxituten ezpadogu, birtutiaganako zaltetan geijago ezpadaukagu, begira ondo eta astertu ze utsuna, ze palta, ze ekanduak dirian onera au galaerazoten deuzkuna, eta arduraz eta alegiñez azpiratu eragozpen ofek; onantxe Jauna artziak izango dira onurakoak. San Pablo Apostoluak bere denporako kristiñauai zirautzen: *Ideo inter vos multi infirmi et imbeciles et dormiunt multi*: zuben artian gaijo asko dagoz, eta eruak be bai, eta asko ilten dira. ¿Zergatik? Jauna dongaro edo gertaera barik artuten ebelako.

Ea ba, Jauna artzera guazanian pentsau daigun ze artzera guazan, eta uferatu beti mai santura arima garbijagaz, birtutetan auferatuteko intenziñoiagaz eta Jesusen maitasunian isiotu eta gartuteko gogo bizijagaz, izan ditezan gure Jaun-artziak Jesusen gogokuak eta arimiarentzat onera andikuak, zeñ guztioi opa deutzuedan. Alan izan dedila.

Etorkunde osteko irugaren igandea

(Irakufi edo esan goizpafa, eta jafaitu onan):

¡Ze eruki eta samurtasun andija agertzen dau Jesukristok goizparki edo ebangelijo onetan! ¡Ze maitegari agertzen dan obendi edo pekatarijakganako! Ikusten dau Fariseotarak eta beste onen antzeko gizonak dongaro ezaka eta mormorijetan ebiltzazala bera zerga batzaliakaz eta obendi edo pekatarijakaz batzen zalako eta noxian beñ maikide be jarten zala ikusten ebelako; eta euren dongaro ezanak eta mormorijak osatu eta bide onera ekartiafen entzun dozuezan irudi edo parabola bi ofexek esan ebazan. Jesukristo gure Jauna berak beste aldi baten esan eban lez, artzaiñ ona da, arimen artzaña

da, eta danak maite maite dauz, eta danak zeruratia gura dauz, eta onetara zuzendu ebazan bere ardura guztijak, eta zuzenduten dauz gaur be. Jatxi zan zerutik lufera, pekatarijak salbetiafen. Zeru goyetatik ikusi eban gizona pekatu egiñagaz aldendu zala Jaungoikuagandik eta lau oñian joyala bere galdumendira, au da infernura, eta erukiturik beragaz, jatxi zan lufera, artu eban gizatasuna Birgiña Marijaren sabel garbijan, egiñ zan ume txiki gizon pekatarija uste osuagaz beragana uferatu zediñ: ume batek ez dau iñor bildurtuten, ez ikaratuten; ume batek beraganatuten dauz biotzik gogoñenak, biotzik dolofenak, biotzik otzenak; ume bat edozeñek laztanduten dau, ume bati txerra bigun goxuak edozeñek egiten dautzoz; auxegaitik, pekatari guztijak ere-sago beraganatutiafen, egiñ zan ume txiki. Jaungoikua, bere altzutasun guztijan agertu izan balitz, ¿nor asartuko zan beragana uferatuten?

Gizon guztijak, onak eta zintzoak, gaiztuak eta okeñak, dan danak maite ebazalako eta danak salbau gura ebazalako, esan eban beste aldi baten: ez naz on eta zintzoen bila bakarrik etofi, baita be gaizto eta okefen bila. Auxegaitik Jesukristo batuten zan donga eta pekatarijakaz be, eta batzuetan euren maikide edo konbidau izaten zan, dan-danak beragandu gura ebazalako, danak salbau eta zeruratu gura ebazalako. Fariseotafak, ikustian Jesus pekatariakaz batzen zala, ez eben au ontzat artuten: uste eben Jesus eurerariko bat zala, edo Jesusek maitiago ebazala pekatarijak zintzoak baño. Baña ez zan olakorik; seme asko dituan amak, eurerariko bat goxotuten bada, besteak baño kutunago eta maitekoñago zaindu daroa, eta seme ori sendatzen danean atsegiñ berezia eta poz andia artzen dau; alantxe Jesusek be zintzoak pekatarijak baño maitiago izan afen, gaizto bat damuz onduten danian eta bide onera etorten danian poz andia artuten dau.

Pekatarijak beregandutiafen eta salbetiafen ibili zan Jesukristo iru urtian eferik efi, basefirik basefi, itzaldijak egiten. *Ego sum lux mundi*, zirautzen danai: ni naz munduko argija; niri jaraituten deuztana ez da ilunpetan ibiliko: *qui sequitur me, non ambulat in tenebris*; niri entzun eta nire esanak ziñistuten dituanak jakingo dau zein dan Jaungoiko egijazkua, zein andijak dirian bere onoidadiak eta zein azken bagia dan bere erukitasuna, eta baita be jakingo dau ni nor nazan, nundik etofi nazan, zetarako etofi nazan eta ze arduratzu neure arloa betetan dodan; niri entzun eta nigan ziñistuten dabenak jakingo dau gizona zer dan, nundik etofi dan, zetarako daguan ludi onetan eta zein izango dan bere azkena, zorientzua zuzen badabil eta zintzo bere biar-izanak betetan badauz, eta zorigaiztokoa oker ibili eta bere biar-izanakaz

aztuten bada; nigan ziñistuten dabena ez da ilgo betiko eriotziagaz, ezpada biziko da: *qui credit in me... vivet.*

Pekatarijak maite ebazalako eta salbau gura ebazalako ibili zan euren ondoren, artzaiñ on bat ardi galduaren bila ibili oi dan lez. Gure mendijetako artzaiñak ezagututen dabengan ardi bat paltau dala, ¿zer egiten dabe? Enparauak itxiten dauz eskortan edo lañan, eta an doia, egunaz nai gabaz, euriz nai atefiz, beiñ aldapan gora, mendiz mendi, basartez basarte, aitzik aitz, gero zulorik zulo, eta sasi-arte guztijak begiratuten dauz... eta idoroten badau ardi galdua, ez dau makilaka astintzen, ezpada samurkiro artzen dau, eskuakaz igortziten dau, eta lepoan arturik lengo bidetatik ziar artaldera eroaten dau. Alantxe ibili zan Jesukristo be bere azkenengo iru urtetan, eñirik eñi, baseñirik baseñi, ausuerarik ausuera, pekatarijen bila, eta aurkituten ebazanak samurkiro artuten ebazan. Esan beije Samarijako emakuma galduak, Magdalako neskatila galduak eta Zakeo eta beste pekatari askok.

Azkenez, pekatarijak maite ebazalako eta zeruratu gura ebazalako, igaro ebazan oñazerik gogofenak, samiñtasunik andijenak, ixuri eban bere sanetako odol guztija, eta emon eban bere bizitzia lotsaririk andijenian, lapur bijen erdijan. Bizitzia galtzia bada maitasunaren ezaugaririk andijena: *Majorem charitatem...*, au be emon eban Jesukristok pekatarijen alde.

Eta bizitzako aldijan aiñ eñukioña izan bazan pekatari dongakaz, ¿gaur zeruan dagoala gitxitu ete da bere guganako eñukitasuna? Ez, kristiñauak, ez. Zerura juanaz ez da gitxitu bere eñukitasuna. Juan Ebangelari Deunak dirauzku Jesukristo dala zeruan gure bitarteko altzua, eta berak eñegututen deutzola Aitari gugaitik eta pekatari guztijokgaitik: *advocatum habemus apud patrem*; eta bere otoijak indar geijago egiñ daijuen Aitari, agertuten deutzozala bere eskuetako zaurijak esanaz: begira Aita, pekatarijakgaitik artu nebazan zauri onek; eñukitu ba eurakaz eta parkatu egijozuz euren iraiñ eta pekatu guztijak. Jesukristok gu pekatarijon alde otoi egiten dabelako jaristen deuzkuz ainbat eskar edo grazija, zeintzuk bage ez genduke oinkada bat auferatuko zeruko bidian, ez eta jaretxi geure pekatuen parkamena. Gogoratu, ba, safi safi, Jesukristoren pekatarijakganako eñukitasuna, euki beragan uste edo konfijantza oso osoa; eta iñozko aldijan argaltasunez pekatuan jausiko bagiña, jagi ariñ eta juan beragana biotz damutuagaz, entzun daizuen bere aotik Magdalenari esan eutzozan itz gozo onexek: *Remittuntur tibi peccata; vade in pace.* Alan izan dedila.

Etorkunde osteko laugarren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Eskutapen afigafi bat safatuten dabe Pedro Apostolu Deunaren itzak: «¡Jauna, gau guztijan ez dogu afaiñtxu bat be artu!» Elexako erakusle jakintzuak dirauzkue gaba eta iluntasuna pekatuaren irudijak diriala, eta pekatupian gagozan bitartian gure egintza guztijak on-onak izan afen be ez diriala zeruaren duiñ. Argija itzuli edo amatetan danian iluntasunak inguratuten gabezan lez, bardiñ arimako argija, zein dan eskar edo grazija, galtzen danian, itxuliten danian, pekatuaren iluntasunak inguratuten gabez.

Ilunian gauza asko eziñ leikez egiñ: eziñ leike idatzi, ez irakufi, ez yosi; gauza bat galtzen bada, eziñ leike idoro: argija isiotu biar da, eta bere laguntasunagaz idoro edo topetan da. Bardiñ jasoten da arimako arazuetan be. Pekatua da arimako iluntasuna, eta iluntasun onek ariman diranen artian eziñ lei egiñ zerua irabazteko duiñ dan gauzarik. Grazija da arimako argija: grazija da gure egite on guztijai bizitzia emoten deutzona, eta auxegaitik grazija bage egiten dirian egintza guztijak, berez onak, ez dira zeru duiñak izango. Au Jesukristo gure Jaunak argiro dirauzku: *sine me nihil potestis facere*: ni bage, nire grazi edo laguntasun bage eziñ ziñai ezerbere egiñ, ez oldozkun edo pentsamentu on bat euki, ez gurari eta asmo on bat euki, ez oinkada bat bera onoimeneko bidian emon, eta aiñ gitxi deuntasuneko mañara igon; geijago ondiño: Jesukristo gure Jaunak dirauzku: matz-adañak matz onduagaz bat egiñik ezpadago eziñ lei matzik emon; bardiñ zuek be zeruko igalirik eziñ emon ziñaike nigaz bat egiñik ezpazagoze: *sicut palmes non potes ferre fructum nisi manserit in vite, ita et vos, nisi in me manseritis*. Eta ¿zek al denduten gaitu Jesusengandik? Bakañik oben edo pekatuak. Beraz efukigarriak dira pekatuagaz Jesusegandik al denduta bizi dirian gizasemiak. Eta onek ¿zeintzuk dira? Ziñiste bagakuak, zinge edo herejiak, izismatikuak, eta osterantzeko gizon dongak; baita be urte luzetan pekatuan bizi dirian kristiñauak eta pekatutik urteteko asmorik ez daukenak; onek guztiok, ba, alpeñik lan egiten dabe.

Baña pekatuak, zerurako duiñ dirian egite onak galaerazotiaz gañera, lenago egiñiko on guztija oztu edo ezereztuten deuzku. Daigun kontu gizaseme batek ogei edo berogei urtian Jaungoikuaren aizkidetasunian bizi dala, eta urte luze onetan egunero meza santua entzuten dabela, sañi Jauna artzen dabela, egunero agurtza deuna eta beste otoi eta eginkizun on asko egiten dauzela. ¿Nok zenbatu gizaseme onek irabazi dauzan merezimentuak?, ¿nok adierazo donokijan izango daben zarija?. Baña egiten dau ezaubera osoz pekatu astun bat, pekatu ilgafi bat, eta une beretan merezimentu guztijak eta zeruko sarija galtzen dau. Eta ez uste izan au neure eritxija dala, ez; Jaungoikuak argiro dirauzko Ezekiel igarliaren aoz: *omnes justitiæ ejus quas fecerat, non recordabuntur* (c. 18, v. 24): berak egiñiko egite on guztijak ez dira aintzakotzat artuko.

Ara zegaitik Elexako erakusle jakintzuak gizon pekatarija edo pekatuan jausi dana irudituten daben, ondasunez beteriko itxas ontzi bategaz, zeñek itxas-bide zati bat ondo egiñ ondoren, ekatz gogofak artu eta ondatuten daben bere ondasun guztiakaz.

Pekatu astun bat ezagueraz egiten dogunian une beretan jaurten doguz, botetan doguz arimako aberastasun guztijak; lumakade bategaz atzinduten doguz (borrar) ainbeste urtetan zeruko idazkijan idatzi genduzan irabazte guztijak: oinkada txar bategaz galtzen doguz zeruko bidian emoniko oinkada guztiak. ¡Oh ze galtze negargañija! Jeremias igarle deunak galtze au gogoratutian tamalez beterik esaten dau: *manum suam misit hostis ad omnia desiderabilia ejus*: arerijuak berak gura eban guztiari eskua ezafi deutzo; arimako edertasuna, efubakotasuna, eskar ugarijak, onoimenak, merezimentuak, zeruko sarija... dana oztu deutzo, danakaz jaubetu izan da: *manum.....*

Baña esan dirian kaltiak asko ezpalira lez, beste andijago bat egiten deutzo pekatuak gizonari. Juan Ebangelarija Deunak diño gizon pekatarija bere arimiaren arerijo biurtuten dala: *qui faciunt peccatum hostes sunt animæ sue*. Arerijua gertuago egon oi-da kalte egiteko mesediak egiteko baño. Pekatuak eragozpenak ipintzen deutzo arimiari, Jaungoikuagana biurtu ez dediñ; pekatuak arimia itxututen dau, bere egoera tristia ezagutu ez daijan eta etofi leikion ondamendija ikusi ez daijan; pekatuak gortuten dau arimia, Jaungoikuaren dei samufa entzun ez daijan; pekatuak mutututen dau arimia, ototirik egiñ ez daijan, autorkuntza on bat egiñ ez daijan; pekatuak lotuten dau arimia, lokañirik gogofenakaz, bere onerako dan ezertxu be egiñ ez daijan eta pekatuko lupetzetik urten ez daijan. ¡Oh ze egoera efukigañija dan pekatari-

jarena! Nai leuke pekatutik urten, eta eziñ dau, alde guztijetatik eragozpen andijak aurkituten dauzelako: autorkuntza egitia neke andiko arazua deritxo, eta atzeratuten da; Jauna artziari emakumaren zeregiña deritxo, eta ez da uferatuten altarako mai santura; agurtza deunari eta beste onerazpenai erokerijai lez begiratuten deutze, eta ez dau agorik edegiten; Jaungoikuaren dei samufai ez deutze jaramonik egiten; eta, azkenez, konzientzijako keska gafaxak itoten dauz bere baruan; itz baten esatiafen, dana egiten dau bere kalterako eta biurtuten da bere buruaren etzai, arerijo.

Gogoratu, ba, astiro astiro, elexan zagozenian eta osterantzian, pekatuaren kalte onek, eta argaltasunez pekatuan jausi eta oraindiño pekatuan bazagoze, urten ariñ pekatutik grazijazko egoera eder eta baketzura, osatu edo efemedijau pekatuaren galtze guztijak. Eskatu Jaungoikuari biotz biotzetik eta ziñiste bizi bategaz, iratzi daijala zuen biotzetan bere bildur santua, bildur onek alderatu zagiezan pekatutik, eta eskabide au apaltasunagaz egiten badeutzazue, entzun eta emongo dau bere aintzarako eta zuen arimen onerako. Alan izan dedila.

Etorkunde osteko bostgaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Asko eta andijak dira Jesukristo gure Jaunak goizpar onetan emoten deuzkuzan ikaskizunak, baña, laburzalia nazalako, gaur bakarik zuzentazunatzaz itz egiñgo deutzuet. Entzun, ba, gogo onagaz.

¿Zer da zuzentasuna? Zuzentasuna da onoimen bat, lokatu eta igitzen gaituana bakotxari beria emotera. Baña bakotxari beria emon al-izateko bakotxari zer zor deutzagun jakiñ biar dogu. Bernardo Deunak diño: Zuzenak

izango bagara, Jaungoikuari, abefijai, gurasoai eta beste lagun eta geide guztiai geure eurakazko zoña zeatz ordaindu bear deutzagula. Jaungoikuari zor deutzagu maitasuna, gurtze, menpetasun eta eskar ona; abefiari zintzotasuna eta maitasuna; gurasuai lastantasuna, lotsia eta laguntasuna; geure ongiliai euren on-egite eta mesedien gomuta eta ordaña; nagusi eta zafagoai menpetasuna, lotsa ta itzala; bardiñai kidetasun eta txera ona; txiro eta bear-tzuei bariz efukia.

Baita be zuzentasuna da onoinen guztien batza, eta ornitasun oso osoa; zuzentasuna da gauza guztijak ondo eta artez egitia eta bilatutia. Jesukristo gure Jaunak dirauzku, Eskriba ta Fariseoak baño zuzentasun geyago ezpadogu ez gariala zeruan sartuko. ¿Zelakua zan Eskriba ta Fariseotafen zuzentasuna? Azaletikua, mamin bagakua: irudiz bakarik ziran onak, elizkoiak, baña egiz dongak, gaiztuak: euren otoiak, barauak, limosnak eta osterantzeko gauza onak egiten ebezan on eritxiz, ikuslak ontzat euki egiezan, txalotu egiezan, goraldtu egiezan. Baña Jesukristok ikusten eban euren biotzeko usteltasuna, eta auxegaitik zematuten ebazan. Gizonak atzipetu edo engañau leikez, ba gizonak azala edo kanpotikua bakarik ikusten dabe; biotza eta biotzian jasoten dana eziñ ikusi leije; auxegaitik epaituten dabe agiri danetik, ikusten danetik; eta ara zegaitik gizonen epaijak ez dirian beti, ez gitxiago be, artezak, zuzenak; safi utz egiten dabe eta dauke ontzat dongia dana, eta dongatzat ona dana. Baña Jaungoikua eziñ iñok atzipetu lei, eziñ iñok sartu leikio guzufa egitzat, ustela zindotzat, loija garbitzat; azaluzkerija bizi leike gizartian, baña Jaungoikuaren begijetan ez. Jesukristok Eskriba ta Fariseoak ondo baño obeto ezagututen ebazan, euren biotzeko usteltasuna eta azaluzkerija ikusten ebalako; eta auxegaitik bere itzaldijetan zematuten ebazan itz gafatz eta gogof onexekaz: ¡Zuen erukarija, Eskriba ta Fariseo azalutzak, otoi luziak egiñaz alargunen ondasunak iruntziten dozuezalako! ¡Zuen erukarija, edontzi ta efatiluaren azala garbitu ta bafutik afapakeri eta zikinkeriz beterik zagozalako! ¡Zuen erukarija, kanpotik edefak baña bafutik ilen azufez eta zakarkeriz beteriko il-obi zurituak dirudidozuelako! Itz gafatz onetatik ezagutu zeinke zein gofotagafija dan Jaungoikuaren begijetan azaluzkeri eta on-eritxi utza. ¡Zenbat ez dagoz Kistotafen artian be, Eskriba ta Fariseotafen antzera, on-eritxiz bakarik gauza guztijak egiten dauzenak! Aratu daiguzan egintza batzuk. Urlija dator elexara, eta egotaldi andijak egiten dauz, otoi luziak egiten dauz, autorkuntza eta Jauna artziak be bai. Baña, ¿zegaitik egiten dauz?, Jaungoikuaren naija egitiafen?, bere arimia onoinen-

naz ornidutiafen?, zeruagaz jaubetutiafen?... ¡Ay onan balitz! ¡Ze egite on, deun eta Jaungoikuaren gogokuak! ¡Ze sari andija izango daben! Baña, zori-txarñan, ez da beti, ez gitxiago be, onako gogo edo intenziño zuzenagaz egiten, ezpada on-eritxiz, azalkeriz, ontzat euki dagijen, mesederen bat jariztiafen, an, emen edo beste tokiren baten eñesago sartutiafen, emplio bategaz jaubetutiafen. ¡Kristiñauak!, biotzak ikusi al baleitekez, ¡zenbat azaluzkeri, zenbat guzur, zenbat aizunkeri (hipocresía) agertuko litzake!

Berendijak egiten dau limosna bat, karidade bat. Ondo da. Baña ¿zegaitik egiten dau?... premiña bat, estualdi bat osotutiafen, negar samiñak legortutiafen... eta egiten dau ixilik, biotzez, eñuki andiz?... ¡Ze egiñtza ona eta Jaungoikozkua! Baña geijenian egiten da paperetan bere izena agertu dediñ, urlija baño gitxiago ez izatiafen, itzunez (compromisos)... Eta ¿zer balio dau Jaungoikuaren begijetan onango goguagaz egiten dan limosniak? Ezerbere ez, ez ebalako emon Jaungoikuaren maitasunez, on-eritxiz baño. (Dígase lo del óbolo de la viuda del Evangelio).

Jesukristo gure Jaunak gura dau gure zuzentasuna izan dediña egijazkua, oso osua, akatz bakua gure oldozkun edo pentsamentuetan, berbetan eta egitada guztijetan; euki daigula beti gogo ona, garbija, zuzena; kanpotik erakutzi daigula biotzetik edo bafutik gariana: ez gaitzala ibili estalkijakaz, izunak (hipócritas) ibili oi-dirian lez, ba, ardi-nañuz jantzi afen, Jaungoikua ez dogu atzipetuko, ez deutzagu iruzur egiñgo, bere begi zolijak dana argiro ikusten dabelako.

Jesukristo gure Jaunak gura dau izan gaitiala onak biotzez eta egiz, onak bafutik eta kanpotik, onak era guztijetan eta gauza guztijetan, ba gauza bazuetan bakarik onak bagara ez gara onak osuan izango, ezpada erdiz-erdiz, eta onako ontasuna ez dau Jaungoikuak zarituko; esaterako, lagun urkuaren arazuetan eta artu-emonetan ez da asko lagun urkoa maitetutia eta bere bizitzan, osasunian, eukijan eta osterantzian kalterik ez egitia; onezaz gañera opa izan biar deutzagu geure buruari opa deutzaguzan on eta zoriontasun guztijak; eta ez dogu beragaitik dongaro pentsau eta esan biar, ez bere egiñtzak dongaro epaitu, ez berari gofotua eta ikusi-eziña euki; eta kanpotik ez agertu afen, biotzian onetariko gauzaren bat badaukagu ez gara onak eta zuzenak Jaungoikuaren begijetan izango.

Bardiñ jasoten da beste onoimen edo birtutetan be. Esaterako, garbitasuna gordetako ez da asko garbija izatia itzetan, berbetan... ez; izan biar dau ariman eta gorputzian, pentsamentuetan, gurarijetan, asmoetan, egitadatan,

begiraunetan da abar; ba garbija izan afen gorputzian eta gorputzeko osotasuna gorde afen, ezainduta badauko arimia eta biotza pentsamentu eta gurari loijakaz, ez da izango garbija Jaungoikuaren begijetan, ez dau garbitasunaren zaririk izango; ara zergaitik diñuan Isidoro Deunak: *Virgo carne, non mente, nullum premium habet in repromissione*. Menpetasunatzaz be beste onenbeste esan giñai: ez da egijaz esanekua, zuzena, gurasuen, nagusijen eta agintarijen esana gogo txafez, nagikeriz, arpegi ilunez egiten dabena, ezpada itxu-itxuan, gogo onez eta zintzotasun guztijakaz egiten dabena baño. ¡Zenbatek betetan dabez aginduak eta egiñ gauzak asariaren bildufez edo beste gauzaren batgaitik! Onelakuen menpetasuna, otsantasuna, ez da egijazkua, guzufezkua baño, azaluzkerija utza.

Goñotau daigun, ba, guzufezko zuzentasuna, eta maitatu daigun egizkua; gure gauza guztijak egiñ daiguzan zuzen, artez, Jaungoikuak ikusiko bagen-
duz lez; eskatu onetarako goi-eskafa, ba geure indar utzez eziñ giñai gauza onik egiñ da, eta eskar au ziñismen biziz eta gurari andiz eskatuten badogu, emongo deuzku bere aintzarako eta gure arimen onerako. Alan izan dedila.

Etorkunde osteko seigaren igandea

(Irakufi edo esan goizpafa, eta jafaitu onan):

Jesukristo gure Jaunaren idazkizun eder, mamintzu eta onuragarriak entzuteko Judeatarak eta Galileatarak erakutzi eben zaletasuna erakutziko ba-
lebe gaurko kristiñauak, ¡ze jakintzuak arimako eta zeruko gauzetan, eta ze zoriontzuak eta onak izango litzatekezan! Arek iru egun oso osuan ibili ziran Jesukristoren ondoren, etxiagaz, arazuagaz eta janarijagaz aztuta; gaurko kristiñauak bafiz ez iru egunian, ezpada iru astian, ilabetian eta urtetan dabiltz itzaldijetatik, sermoetatik igesi, kristiñau ikasbidetatik igesi: ez dauke zaletasunik, oztasun eta nagikerija andija baño; eta auxegaitik bizi dira itxutasun negargarrijan, eta ez-jakintasun onetatik datoz ludijan ikusten doguzan zoritxar guztijak.

Argitu nairik zuen adiñak eta lokatu zuen biotzak kristiñau ikasbideatzaz zaletu zaitez, esango deutzuet goiz onetan ze andija dan kristiñauak alde onetatik daukon egiñ-beafa. Entzun, ba, gogo onagaz.

Jakiñ gura badogu nundik sortuten dirian ludi onetan dakuzkuzan zoritxak, itandu daijegun Oseas igarliari, ba berak argi eta garbi esango deuzku: *Non est scientia Del in terra, maledictum, homicidium et adulterium inundauerunt eam*: ez dago Jaungoikuaren ezaubiderik luñian, eta auxegaitik madarika-ziñoiak, guzuñak, giza-iraltza eta aragikerijak lurpetu dau lufa. Itanduten ba-deutzagu Jeremias igarle deunari zek galdu daben ludija, esango deuzku: *Desolatione desolata est terra, quia nullus es qui recogitet ex corde*: Zoritxafez ondatuta dago lufa, iñor ez dagualako zeruko gauzak biotzez gogoratuten daunik. Gizonak gogoratuko baleu nundik etoñi dan ludi onetara, nora doian, zetarako daguan emen ludijan, zeñ izango dan bere azkena, eta zetan geratuko dirian bere izatia, diñadia, aginpidiak, aberastasun eta aukera guztiak, ez leuke ainbeste zarata aterako ludi onetan. Baña, zoritxafez, gizonik geijenak gauza onek ez dabez gogoratuten, eta itxuturik ludi onetako arazukaz, irabazpidiagaz, sal-erostiagaz eta jolasakaz, bizi dira beste bizitzarik ezpalego lez eta luñian betiko bizi izateko egiñak balira lez. Gizaseme geijenak kristiñau ikasbidea ez dakije edo ikasi ebena aztu jake, eta auxegaitik ez dakije zer dan kristiñau izatia, ez eta zeintzuek dirian kristiñauaren egiñkizunak. Kristiñau ikasbidea ez dakijanak eziñ otzeindu lei Jaungoikua, eta Jaungoikua otzeinduten ezpada ludija beti izango da okeña, galdua, eta beti eukiko dau ludijak itxura gaiztua. Jaungoikua otzeinduten ezpadogu, gure bizimodua ez da ona izango: beti kezkoa, lañtasuna eta atsekabia izango dogu. Jaungoikua otzeinduten ezpadogu gure eriotzia izango da lañija, bildurgarija, eta gure azkena txaña. Begira, ba, ze kalte andijak dakarzan kristiñau ikasbidia ez jakitiak.

Jaungoikuak gura dau bera ezagutu eta maitatutia: ludi onen asieran, edo obeto esateko, gizona ludijan agertutian Jaungoikuak berberak erakutzi eutzon gure Aita Adani zorijontasunagaz jaubetuteko jakiñ biar eban guztia. Lege zañian Jaungoikuak berak erakutzi eutzezan Aitalen deunai guk oraiñ ziñistu eta autortuten doguzan eskutapen batzuk; geruago bañiz bialdu ebazan, igarraz, erakusteko israeltañai jakiñ biar eben guztija; eta ez zan onen-

bestegaz naikotu: izentauriko ordua eldu zanian bialdu eban ludi onetara bere Seme bakafá, Jesukristo gure Jaunak berak erakutzi egijezen gizaseme guztijai jakiñ biar ebena, eta auxegaitik ibili zan bere azkenengo iru urtetan uririk uri, efirik efi, bere ikaskizun zerutafak erakusten, gizonak argituten, gizonai zeruko bidea erakusten; eta bere misiño santua amaitu eta Aitagana juateran agindu eutzen Apostoluai zabaldu zeitezela lurbira guztitik eta erakutzi egijezela gizaseme guztijai berari entzun eta beragandik ikasi eben guztia: *Ite, docete omnes gentes.*

Elexa Ama Deunak auxe berberau aginduten deutze Gotzafnai, abadiak, misiolariak eta osterantzeko guztijai, jardun dagizela beti eta era guztijetan kristiñau ikasbidea erakusten, gizonak argitu, Jaungoikua ezagutu eta maite-tu, eta salbau deitezán.

Zenbat ikasbide geijago dakijan batek, ainbat ezaubide geijago eukiko dau zeruko arazuetan.

Kristiñau ikasbidea dakijanak daki Jaungoikua dala izakirik bikaiñena, zeru-lufen egilia eta jaubia, onai betiko zoriona eta gaiztuak zoritxarfa emoten deutzona. Kristiñau ikasbidea dakijanak daki Jesukristo nor dan, zegaitik etofi zan ludi onetara, nun jaijo zan, nun bizi izan zan, nun il zan, eta zegaitik il zan, zer egiñ eban bizitzan eta bere azkenengo iru urtetan.

Kristiñau ikasbidea dakijanak daki Espiritu Deuna nor dan, noiz etofi zan, zelako irudipian etofi zan, eta zelan bafiztau eban ludi guztija bere doe miragarfijakaz eta karidadiaren sua bijotz guztijetan isiotuagaz. Kristiñau ikasbidea dakijanak daki zer dirian Sakramentuak, nok egiñ ebazan, zetarako egiñ ebazan eta ze onera andijak dakarzan arimara; zer dan mezia, zelan entzun biar dan eta ze mesede andijak jaristen dirian meza santua arima garbi eta gogo onagaz entzutian.

Kristiñau ikasbidea dakijanak daki ze andija dan gizonaren argaltasuna, bere indar utzez eziñ leikiala ezertxo bere egiñ zerurako duiñ dan gauzarik, eta biar dabela goi-eskar edo grazija, eta au jaretxiko dabela otiojaren bidez.

Kristiñau ikasbidea dakijanak daki ludi au negarrezko erbestia dala, gure diefija, abefija, an goijan daguala; eriotzia defigofekua dala eta eriotza ostian kontu emote itzala izango dala. Eta jakintza onek guztiok ¿nok ez daki onera andikuak diriala? Egija onek gizona iratzartuten dabe, azkortuten dabe, lokatuten dabe, eta zeruko bidian artez eta zuzen erabili eragiten deutze. ¡Oh ze mesede andijak dakarzan arimara kristiñau ikasbidea jakitiak!

Bafiz kristiñau ikasbidea ez dakijana itxu-itxuan dabil ludi onetan, eta

Itxuak jasoten jakona jaso leikio beraribe: itxuak ez daki nundik dabilen, eta safi askotan jausten da leza-zulo baten edo eskilara batetik ziar, eta ilten da; bardiñ dotriñarik ez dakijana jausi leiteke infernuko leza-zuloan.

Kristiñau ikasbidea ez dakijanak eziñ lei mezarik ondo entzun, ez autortu eta Jauna ondo artu; auxegaitik ikusten dira ainbat gizaseme zutun zutunik mezatan dagozanak, otoitxu bat egiñ bage, ezer pentsau bage, eta ainbeste autorkuntza eta Jaun-artze oiturazkuak eta frutu bagakuak. Azkenez, kristiñau ikasbidea ez dakijenak ez dau ezagututen pekatuaren astuntasuna, ezaintasuna, eta arimiari dakarzan kalte andiak; dotriñarik ez dakijenak bizi dira abereen antzera, beti luñera begira, beti luñeko gauzak buruan dabezala, gogoratu bage arimiagaz, zeruagaz, betikotasunagaz. ¡Ze tamala! ¿Nok ez daki itxutasun au kaltegarrija dana?

Alegiñdu, ba, guztiok, ikaskizun onetan. ¡Gazterija biotzekua!, bariztau umetan ikasi eta gaur aztuta daukazuen ikasbide eder ori. ¡Umetxuak!, alegiñdu egunero egunero dotriñako ikasbidetara etorten. ¡Gurasuak!, begiratu ikaskizun oni zeuen egiñ biarrik andijenari lez, ba gaur egunian infernutarik eta euran antzeko gizonak aberetu gura dabez zuen umetxuak irakatzirik Jaungoiko bagako irakatzijak, eta ito gura dabez euren biotz erubakoetan Jaungoikuaren bildur santua, Jaungoikuaren maitasuna eta onerako zaletasun guztia, zabaldurik ate guztijak dongakerijarako eta nasaikeri guztijetarako. ¡Kontu umetxuakaz!, ba eurak galtzen badira ziur izango da zuen galdumendiya be. Eskatu Jesusen Biotz Deunari zaindu eta gorde dagizala zuen umetxuak eta gazterija bere biotzian emen luñian eta eriotz ostian eruan dagizala zerura, zeñ danori opa deutzudan. Alan izan dediña.

Etorkunde osteko zazpigaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Goizpar onen azkenengo itzak argiro erakusten deuzkue zer egiñ biar dogun zeruagaz jaubetuteko. ¡Jauna, Jauna! aoagaz bakarik esanagaz ez dogu

zerua irabaziko, ez eta onerazpen edo deboziño asko eukijagaz be, zergaitik onerazpen asko ao utzezkuak dirialako eta biotzak eurretan lekurik ez daukalako. Onerazpenagaitik esan lei ziñismenagaitik esaten dana; ziñismen utza, au da, egite on bagako ziñismena ila dan lez, era beratan egite on bako onerazpena be onerazpen ila da. Aratu daigun, ba, atal auxe, gafantzi andiko arazu onetan utzik egiñ ez daizuen.

Kristotar edo kristiñauen artian gitxi dira onerazpenik ez daukenak: batzuek Jesusen Biotz Deuna ospatuten dabe, beste batzuek Birgiña Marija, Jose Deuna, Antonio Deuna eta beste donokijan dagozan Deun asko; gizaseme askok samatik eskeita daroiez kurutzia, domiñak, eskapularijuak eta abar, eta uste dabe eurak eruanaz beste bage otoi batzuk aoz bakarik eta ganora bage egiñagaz zeruagaz jaubetuteko diriala; eta onetan oker dagoz, ba gauza onek guztijok, berez onak izanik, egiten badira edo eruatzen badira pekatu astunagaz arimia ezainduta daukela, ez deutze ezerbe balioko. Pekatu astunian bizi eta ilten dana betiko galduko da, Jaungoikuaren asafian ilten dalako. Alan guzti be, nire esana jaraitu gura badozue, esango deutzuet ez daizuezala itxi daukazuezan onerazpen edo deboziñoiak, eta erabili daizuezala kurutze, domiña eta eskapularijuak, baña ziñismen bizijagaz eta itxaropen oso osuagaz, ba euren bidez jaretxi ziñai pekatu astunian bazagoze pekatutik urteteko eskar edo grazija, eta eskar oni erantzunagaz eta bizitza onian iraunagaz, jaubetu zeintekezelako zeruagaz. Gizaseme askok darue soña kurutzez eta domiñaz apainduta, arimia bariz pekatuz ezainduta eta diabruz beteta; eta zenbat pekatu geijago, ainbat eta arimia ezañago eta baltzago.

Egijazko onerazpen edo deboziñua ez dago domiñak eruatian eta kurutzia panpaferijaz eruatian, ez eta aoz bakarik ¡Jauna, Jauna! esatian, ezpada Jaungoikuaren esana egitian: otzeiñ bat berez ona izanañen, ugesabaren esana egiten ezpadau ez da otzeiñ ona izango, ez dau bere saririk izango. Jaungoikuak zer esan daben eta zer nai daben argiro dakuzku bere agindu santuetan; lenengo lau aginduetan dirauzku zer egiñ biar dogun, eta beste sei aginduetan zer ez dogun egiñ biar. Jaungoikuaren naija da bera bakarik ezagutu eta autortu daigula Jaungoikotzat, eta bera bakarik gurtu, maitetu eta otzeindu daigula, bera dalako gure egilia, arduraduna eta jaubia,

eta osterantzeko gauza guztiak, andi nai txikijak izan, eder nai miragarriak izan, ez daiguzala Jaungoikotzat euki. Jaungoikuaren naija da bere izena donetzi eta goraldua izan dedila lurbira guztian; eta au egiñgo dogu itzal eta begiramentu andiz aitatuaz. Jaungoikuaren naija da beretzako autu dituan egunak jai gordetia eta euretan lanik ez egitia, eta egiñkizun guztijak bere aintzarako eta geure arimen onerako zuzendutia. Jaungoikuaren naija da gurasuai eta nagusijai, zeintzuk dirian bere ordeko agintarijak luñian, lotsa ona gordetia eta euren esanak eta aginduak zintzotasun guztijagaz betetia. Bere naija da baita be bakotzak bere bizierako biar-izanak zuzen da ondo betetia: abade eta elizgizonak euren biziera edo estaduari dagokijozanak, ezkonduak ezkonduai dagokijozanak, eta ezkongai eta osterantzeko seme-alabak bakotxari berari dagokijozanak. ¡Auxe bai dala bide zuzena, bide ziuña zerua irabazteko!

Baña ez da emen amaitzen Jaungoikuak nai dabena eta gizaseme guztijai eskatuten deuzena. Danoi eskatuten deuzku lagun urkuari ez deijogula kalterik egiñ, ez bizitzan, ez osasunian, ez eukijan, ez izen on edo faman, eta onetan egiten deutzaguzan kaltiak ordaindu daiguzala; izan gaitiala zuzenak, artezak tratuan eta artu-emon guztijetan, iñor atzipetu barik, iñori iruzur egiñ barik. ¡Oh ze onak eta deun andijak izango geintekezan Jaungoikuaren naija oso-osuan beteko bagendu! Jaungoikuak deun izateko ez deuzku eskatuten baru gogofak egitia, nekegafi andijak artutia, gaubela luziak egitia, ordu luzetan elexan egon eta otoljak egitia, ezpada bakar-bakafik bere naija egitia, bere aginduak betetia: *si vis ad vitam ingredi serva mandata*; eta agindu onek betetako bere laguntza, eskar edo grazija eskintzen deuzku, zeñegaz arindu eta efestuten da gure egiñ-biaña. Baña gizona, beti doñoa eta agintza-auslea, naijago dau bere gogua bete Jaungoikuaren agindua bete baño, eta emendik sortuten da bere galdumendija. ¿Zer jasoten jako ugasa-baren esana egiñ nai ez daben otzeñari? Etxetik jaurti edo botetia. Auxe berau egiñgo dau Jaungoikuak lotsabagako gizaseme askogaz, bere naija emen luñian bete gura izan ezebelako.

Gizonak ludi onetan daukan egiñ-beafik andijena, txalogarriena eta onragarriena da Jaungoikuaren naija egitia: gauzarik txikijenak, ezerbezenak, Jaungoikuagaitik egiten badira, artzen dabe balio andija: eskeko bati baso bete ur emotia gauza ezerbeza da, ezez egiten dana da; alan guzti be Jaungoikuaren izenian eta gogo onagaz emoten bada balio andija dauko. Jesukristo gure Jauna Nazaretko etxetxuan Jose eta Marijaren mendian bizi zala

ez eban zarata andiko gauzarik egiñ, baña egiñ ebalako Jaungoikuaren naija aita eta amaren esana egitian, izan zan gure eredu edo modelua, eta irabazi ebazan merezimentu guztiz andijak. Jose eta Marija Deunak be ez eben mirarizko gauzarik egiñ: etxeko arazuak, garbiketak, arotzijako lanak eta abar; bizi ziran etxian ostenduta, zarata barik, iñok aintzakotzat be artuten ez ebezala, eta alan guzti be eldu ziran deuntasunik andijenera, eta irabazi ebezan merezimentu andijak. Eta ¿zegaitik? Jaungoikuaren naija oso-osuan egiñ ebelako.

Jaungoikuaren naija egiten dabena baketsu bizi da, pozik eta atsegiñetan bizi da: ez da ezegaitik be lañituten, ez ikaratuten, dakijalako gauza guztijak datozala bere eskutik, eta diriala geure onerako; auxegaitik zoritxañak ez dabe estuten eta lañituten, ez zorionak arotuten.

Artu, ba, asmo sendo bat beti eta era guztijetan Jaungoikuaren naija egiteko, alan gauza ehezetan zein da gauza gatxetan; artu gauza guztijak, alan zoritxañak zein da zorionak, berak bialduak eta bere eskutik etorriak lez; otzeindu Jauna beti biotz apal eta zintzo-zintzuagaz, jaubetu zagiezan Jesukristok agin-sarijakaz, zeñek esan dauan: *qui fecerit voluntatem Patris mei, ipse intrabit in regnum cœlorum*; zeñ guztioi opa deutzudan.

Etorkunde osteko zortzigaren igandea

(Irakuri edo esan goizpaña, eta jafaitu onan):

Jesukristo gure Jauna bere bizitzako azkenengo iru urtetan uririk uri eta eñirik eñi ibili izan zan bere ikaskizun eder eta mamintzuak gizaseme guztijai erakusten; eta ikaskizun onek obeto ulertu egijezen ipuiñ edo parabolakaz agertuten ebazan, eta onetariko bat izan zan iragañi deutzuedan ipuiña. Ipuñ onetan Jesukristok erakusten deuzku zelan erabili geure ogasunak. Aratu daiguzan, ba, goizpar onek sañatuten dauzan ikasbide edeñak.

Goizparak aitatuten daben ugesaba Jaungoikua da: ugesaba bakafa eta gustiz aberatsa, Bera da gauza guztien egilia eta jaubea; bere eskutik urten dabe zeruan, lurian, itxasuan eta alde guztijetan agiri dirian eta ez dirian gauza guztiak; danen jaubetasun oso-osua dauko, eta inok be eziñ kendu leikioz. Ara zegaitik aldi baten Moisesi esan eutzon: *Omnia mea sunt* (Exod. 13-2): gauza guztiak neuriak dira. Goizparak aitatuten daben Ogasun-zaintza edo Mayordomua, gizona da, eta oni emon deutzoz ogasun andijak gordetako, zainduteko eta eurakaz zuzen ibili ta zerua irabazteko. Ogasun onek dira arimakuak eta gorputzekuak: arimakuak dira gogo almenak, adimena, naimena, gomutapena, eskarak, doiak, zurtasuna, askatasuna eta abar; gorputzekuak dira izatia, bizitzia, bost sentzunak, edertasuna, osasuna, begiramentu ona, aberastasunak, aginpidiak eta abar. Ogasun onek Jaungoikuak emonak dirialako, guk gura dogun lez eziñ erabili geinkez, Jaungoikuak nai dauan lez baño, eta gitxien uste dogunian euren kontu ziatza eskatuko deuzku. Gaztiak gazte dalako eziñ leike bere osasuna eta gaztetasuna ordikeri, nasaikeri eta gabeko zorakerijetan ondatu. Aberatsak aberats dirialako eziñ leikiez euren dirutza eta ogasunak afokeri eta atsegiñ galgarijetan eralgi. Gure gogo almenak eta gorputzeko sentzunak ez dira nai doguna irakuri, nai doguna ol-dotu, nai doguna esan, entzun, ikusi, eta nai dogun lez bizi izateko; gauza onen jaubea Jaungoikua dogu, bere ardurapian gagoz, eta ogasun onek erabilteko lege eta arauak esari deuzku, eta aldia datoñenian, au da eriotzako orduan, danoi artu-emonen kontu zofoz eta ziatza artuko deuzku.

Goizparkiko ugesabak deitu eutzon ogasun-zaintzari zalatua izan zalako; baña Jaungoikuak zalatzale biarik ez dauko, dana argiro ezagututen dabelako, eta berak emoniko ogasunak zelan darabilguzan ondo baño obeto ezagututen dauzalako. Auxegaitik gitxien uste dogunian bat-batera deituko deuzku esanaz: *redde rationem villicationis tuæ*: emon egidazu zeure ardurara ipiñi nebazan gauza guztien kontua. ¿Zer egiñ dozu nik emoniko gogo almenakaz? Adiña emon neutzun neu ezagutu eta Jaungoikua lez gurtuteko; naimena emon neutzun neu gauza guztien gañetik maitetuteko; gomutapena emon neutzun nik egiñiko mesediak gogoratuteko eta esker ona emoteko. ¿Zer egiñ dozu gorputzeko sentzunakaz? ¿Zelan erabili dozuz? Zuzen, artez? ¿Zer egiñ dozu bizitziagaz, osasunagaz, edertasunagaz, zeintzuek emon neutzuzan neu otzeinduteko? ¿Zetan kastau edo eralgi dozuz nik emoniko dirutza eta aberastasun andijak? ¿Zelan erabili dozu nik emoniko askatasuna, zurtasuna, aginpidia? *Redde rationem...* ¿Zelan bete dozuz ezkontzako le-

giak? Seme-alabakganako biar-izanak jafaitu dozuz?, asijera ona emon deutzazu?, lagun txafetatik aldendu dozuz?, eta euren okerkerijak zigortu dozuz? *Redde rationem.....* ¡Oh ze estua eta ziatza izango dan egun atan gure ugesaba dan Jaungoikuak artuko deuzkun kontua! ¿Zer erantzungo deutzagu Jaungoikuari?: *¿Quid sum miser tunc dicturus? ¿Ze bitarteko bilatuko dogu?: ¿Quem patronum rogaturum?* Deun Zipriano andija, ziñopa ospetzua, Jesukriston maitasunez eta bere ziñismena ez ukatutiafen poz-pozik bizitzia emon ebana, ainbeste ikaratu bazan kontu emote onegaz, ¿zelan ikaratuko ez da pekatari gaixua Jesukristogaz afez-aur ikusten danian? Job Deuna, Jaungoikuaren maitale andija, Jaungoikuak berberak ainbeste goraldue ebana esana Hurko lur aldian ez eguala bera lango gizon zuzen eta onagorik, Job Deuna, diñot, ainbeste ikaratu bazan kontu emote onegaz, zeñek zirautzan Jaunari: Jauna, itxi egidazu negar egiten lañu baltzez inguratuko lufera, au da eriotzara, uferatu, sartu nadiñ baño lenago: *dimite me ut plangam paululum dolarem meum antequam vadam ad terram tenebrosam.....* Au baziñuan gizonik onenak eta Jaungoikuaren maitalerik andijenak, ¿zer esan geinke guk ordu lafi atan?

Gogoratu oraiñ, astiro-astiro, egija osasungafi onek, eta artu gaurtik bertatik biar dirian neufijak. ¿Zer egiñ eban len aitatu dogun ogasun-tzañak, au da mayordomuak? Bere burua galduta ikusi ebanian eta gofijak igaro biar ebazala ezagutu ebanian, oldoztu edo pentsau eban zordun bakotxari deitu eta zor ebanetik zerbait eratzi, eta onan zordunagazko artzekodun geratzen zan; beraz nagusijak etxetik jaurti afen, bai eban nun sartu. Auxe bai dala zur jokaturia. Ara zegaitik Jesukristok goretzi eban bere zurtasuna: etorkizun lafia beragardik alderatuten jakiñ ebalako. Bere antzera, guk be auferuntzian zur jokatu biar dogu; berak lez guk be Jaungoiko gure ugesabak emoniko ogasun ugarijak ondatu izan doguz: ez doguz berak agindu euzkun lez erabili, ezpada geure naikeri eta griña txafak nai eben lez baño; oker baño oker egiñ dogu; auzi egunian bildur izateko bidian gagoz; etorkizun baltza datorkigu. ¿Zer egiñ, ba, zigor-aldi ori aldenduteko? Lenengo ta beiñ, bizitzia ondu, Jaunaren lege pian zintzo zintzo bizi, eta Jaunaren aizkideak rabazi. Eta Jaunaren aizkidiak nortzuk dira? Dira txiro beartzuak, gose dirianak, gaxo dirianak, atsekabez dagozanak... ofexek eta ofen antzekoak dira Jaunaren aizkideiak: onelako bati mesede egiten deutzona Jaunagazko artzekodun geratuten da, ba berak esana da: Nire izenian onelako bati mesede egiten deutzonak, niri egiten deuzt.

Josi, ba, irakatzi eder onek, zeuen biotzian; egiñ zeuen egitada guztijak zuzen, artez, zerura begira, Jaungoikua goretzi eta zeuen arimia onoimenez orniduteko asmoz, eta onan lortuko dozuez zeruko aberastasunak eta betiko aintza. Alan izan dedila.

Etorkunde osteko bederatzigaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

¡Gauza ariarria benetan, Jesukristo gure Jauna, Jaungoikuaren seme egiazkua, gure askatzaile on-ona, Jerusalem-i begira negaiez ikustia! Eritxi baten esan leike zijo edo motivo geijago eukala poztuteko, atsegiñduteko, negar egiteko baño, ba egun atan Jerusalem-tarak eta Pazko jaijak ospatutera erbestetik etofi ziran gizaseme guztijak bidera urtenda, pozik, alai eta oyuka, Jesusalengo txadonaragiño lagundu eutzen. ¿Zegaitik, ba, negar egiñ eban? Ona emen eskutapena; bera azaldutia izango da nire goiz onetako itzaldi laburra. Entzun gogo onagaz.

Jesukristok maite eban bere erria, eta inortxok baño maitiago. Aita zerukoak Jerusalemgo urija autu eban Israel-taren uri nagusizat: bertan jaso zan Elexarik edefena, eta bakarra; Jerusalem-en jasoko zirian gure uzkurtza edo erligiñoeko eskutapenik ariarrijenak; auxegaitik uri oneri uri deuna deitute eutzen. Jesukristok maite eban uri deun au, bertan gauza miragarriak egiño ebasalako, eta bertan nekaldi gogor eta eriotza samiñ baten bidez gizatasun guztija gaizkatuko ebalako. Jesukristo Jerusalem-era etofen esku zabalez, bakia, gentza eta erukia eskintzera; baño Jerusalem-taren biotzak gogor egozan, eta euren begijak estalita; eta gogorkeri eta itxutasun onek bere ondoren ekarzan zigorkadak miñberatu eben Jesukristoren biotz samurra eta negar

egiñ eban ikustian esanaz: *quia si cognovisses et tu, et quidem in hac die tua quæ ad pacem...* ¡Ah, ezagutuko bazendu egun onetan beintzat zeure onerako eskintzen jatzuna! Baña zure begijak estalita dagoz. Egunak datorkitzuz, eta zure arerioak lubaki-eria inguruan irigiko dautzue, eta bafuan artu eta alde guztijetatik estutuko zaitue, zu eta zure seme guztijak zurituko zaitue, eta ařirik aři gañian be ez dabe itxiko. zure aldia ezagutu ez dozulako.

Jesukristok Jerusalem negar egiñ eban, gogoratu ebazalako uri onen pekatu eta gaiztakerija andijak. Jesukristok esan eukion Jerusalemgo urijari: Zuk ixuri dozu nik bialduriko igarlen odola: zuk il dozuz; zuk baita be il dozu nire aufetik bialdu neban Juan Bautista andija; Aita zerukoak bialduriko Mesias neu naz, eta ez nozu ezagutu gura izan; nire irakatzijak eta nik egiñiko mirari ařigarijak be ez dozuz aintzakotzat artu; zure agintari, elizgizon eta osterantzeko jakitunak ezeztu nabe: donga eta gaiztotzat euki nabe; ezagututen dodaz ni ilteko darabiltzuzan asmo gaiztuak: elduko da eguna zeñetan Barabasen askatasuna eta nire eriotzia eskatuko dozuena eta azkenez ni kurutze lotsagaři baten josi eta ilgo nozuena. Baña gogoratu ondo: zigorkada izugarijak jausiko dira zuen gañera bakia eskintzen deutzudan egun au ezagutu gura ez dozulako.

Azkenez, Jesukristok negar egiñ eban judutariak geijenak bere uzkurtza edo erligiño deuna, jařaitu nai ez ebelako, eta bere nekaldija askorentzat alpeřikua izango zalako. Oldozkun onexek miñberatu eban Jesusen biotz samuřa: *¿Quæ utilitas in sanguine meo?*

Befogei urte bafu bete ziran Jesukristok emen iragařitako zigofak. Tito Eřomako gudalburua zanak esari eutzon lubaki-eria bere bafuan uritar guztiak artu ebazan; egundo ezagutu ez dan lako gose gořija izan eben, eta amak izan ziran euren umiak eře ta jan ebazanak. Miloi bat judutar baño geijago eriotziak iruntzi ebazan: uri zoragařija bařiz bere eleiz eder ta guzti pořokatuta, suntzituta, triskatuta gelditu zan, ařirik aři gañian geratuten ez zala. Oraingo uriya beste toki baten, lengoaren alboan iraikita dago; neu izan naz bertan, eta esan leike gaur be Jaunaren madarikaziñoia bere gañian darauala, aiñ da uri atsege eta ituna.

Jaungoikua gure Aita da, eta aitarik onena, maitiena, samuřena, eta seme-alabai zigořa ezartea latz egiten jako; baña eřukiořa eta maitatia bai-zen zuzena be bada; gizonen eta eřijen gaiztakeriari mugak ipiñi dautzoz, itxasoari ipiñi eutzozan lez. Onaxiño elduko zara eta ementxe puskatuko dira zure olatu bizdunak, esan eutzon itxasoari; eta gizonai da eřijai be berebat

dirautze: onaxiño elduko zara eta ementxe puskatuko dira zure afokeri guztijak. Gizonaren obenak ludi onetan gitxitan zigortuten dauz: gerorako itxiten dau gizon baxotxaren sari edo zigofa; baña eñjak ez dauke geroko bizitzarik: emen bertan saritu edo zigortu daroaz Jaunak eñjen egintza on edo okerkerijak. Eta zigor ori gugandik aldenduteko dei zoli edo samuía egiten deuzku. ¡Zenbat bidar gure nagusijen bidez esan deuzku itxi daiguzala jantzi nabarmenak, jolas gaiztuak, gabeko ibilera dongak, lizunkerijak, ordikerijak eta abar!, eta guk jaramonik be ez. Aldi onetan igaroten doguzan ez-biar eta zoritxar, izurñjak, gosetiak, lanik-ezak eta abar ¿ez ote dira Jaungoikuak bialtzen deuzkuzan zigofak? Eta ¿zer egiten dogu Jaungoikuaren asafepian ez jausteko? Ezerbe ez.

Jesukristok maite eban bere urija, eta bere gogorkeri, itxutasun eta eskergabetasun andijakgaitik, gogoratutian bere gañera etorkiozan zoritxar eta zigor andijak, negar egiñ eban; eta guk, ikusi afen gure aberija nazpilduta, eñjak okertuta, gizasemerik geijenak luñeko gauzetara obenduta, ¿ez ote dogu ezerbere egiñgo geure aberija jasoteko eta Jaungoikuaren asafia ibituteko? Aberija maite ez dabenak ez dauko biotzik. Aberija da gure jaijotefija, gure poztasun, atsegiñ eta naigabe guztijen testigua: emen dagoz obiratuta gure asaba zarak, emen atsedengo dabez gure azurak be Jaunak azkenengo epaikunde egunian beragandu arte. Seme on batek amaren miñ-atsekabetan parte artuten dauan lez, era beratan gure ama aberijaren atsekabe guztijetan guk be parte artu biar dogu, eta lagundu berari geure indar eta kemen guztijagaz, eskatuaz geure Jaunari bere ez-biar eta zoritxar guztijetatik azkatu daijala edo beragandik uññdu dagizala.

Azkenez, Jesukriston negar,ak legortu gura badoguz, izan gaitian bere seme zintzoak, ibili gaitian artez, zuzen, bere bide santuetan, au da, bere agindu santuen bidetan; onan ibilijagaz poztu eta atsegiñduko dogu bere biotz ona eta geuganduko doguz emen luñian bere donetzi ugarijak, eta gero an goijan betiko atsedan zorientzua.

Etorkunde osteko amargaren igandea

(Irakufi edo esan goizpara, eta jafaitu onan):

Ara emen otoitzale bi, gustiz dezbaridiñak, bai otoi egitian, eta baita be, otoiaren onera edo arnasija ateratian, fariseotara zan bata, zergalariya bestia.

Fariseotarak zirian, Jesukristo jaijo baño be egun uste lenagotik, sortu zan latra bat (secta), jakitunak, alkuntza andiko gizonak, judutafen ikastoletan, eta sinagoga edo elexetan, aginpide andija eukenak, baña afokeriz bestiak, ba, euren buruak zintzo, eta bestiak eserbezetzak eukesan, eta otoiak eta osterantzeko egite gustijak on eritxiz bakafik, egiten ebezan.

Zergalarijak, era bitakuak zirian, batzuek aberatsak, zerga edo kontribusiño gustijak, euren kargura, artuten ebezanak, eta bestiak, lenengo onen, otzeiñak, zerga gustijak batuten ebezenak; zergalari onei, eritafak, ez eutzen begionez begiratzten, zintzotasun bagako gizonak zirialako, atzaskal luzedunak zirialako, eta onezaz gañera biotz gogofekuak ziriala, itz baten esatiafen, gofoto gofijan zirian. Ikusi daigun ba, geure ikasbiderako, gizon bi onek egiñ eban otoiya.

Fariseotara sartu zan Elexan, eta belaunbikotu barik, sutun sutunik parauta, eta bere burua garbi garbi, eta ezetariko akatz, eta utzeiterik baga, zirautzan Jaunari: Jauna'eskefak damotzudaz, ni beste gizonak lakoa, ez nazalako, neu izanezik, beste emparau gustijak, dira lapufak, okefak, eskonz auzteak, or sokonduan ezkutatuta dagoan zergalari ori lez. Nik astero bifitan baru egiten dot, eta nire ogazun gustien amafenak be zintzoro ordaintzen dodaz. Au edonok esagututen dau ez dala otoi egitia, bere burua goraldutia baño. Onako otoiya Jaungoikuak, ezin entzun lei, afokeri galgafija dalako. Otoiya da, Jaungoikuagana biotza jaso eta mesediak eskatutia, alantze diño dotriñako kartilatxu edo idastiñuak. Otoi egiten dogunian Jaungoikuagaz itz egiten dogu, eta ez dago zetan esan, Jaungoikuagaz itz egitian gorde biar dala, itzal eta apaltasun andija, Jaungoikua dalako guztiz altsua, algustiduna, zeru lufen egilia eta jaubia. Fariseotarak, ez eban agertu, ez itzalik, ez eta apal-

tasunik, afokeri gofotogafija baño, bere burua makurtu bialian jaso eban afokeriz beteta, bere uzkerija eta ezer-eza, apal apal autortu bialian, bere egintza onak, agertu zituan. Jaunak ondo daki, gu zer garian, gure gogorapen, asmo eta egintza guztiak ondo baño obeto ezagututen dauzelako, ez daukagu ba, zetan geure ondo egiñak aizetu, zabaldu; ba Jaungoikuaren begijetan gariana, orixe gara. Jaungoikuak eziñ entzun eukian Fariseotafaren otoija, afokeriya gofotetan dabelako; berak diño, afuai ukatuko deutzezala bere ezkar edo grazijak, eta bakarik apalai, emongo deutzezala.

Kristiñauen artian be, asko dira Fariseotafen antzera otoi egiten dabenak; uzte dabe, elexara safi datozalako, mesia entzuten dabelako, edo safi autortu eta Jauna artzen dabelako bakarik, bestiak baño, eliztar eta katoliko zintzoagoak diriala, eta afo afo esaten dabe, ofek bestiok edozer dozak. ¡Eruak! Jaungoikuak ikusten dauz, danen biotzak, eta berak daki nor zelakua dan, eta onen da aren, oneraspenna, edo debosiñoia azaletikua ala barutikua dan, miñeskua, ao utzezkoa, edo biotzekua dan eta gizonen aurian onerazpentzuak agertu afen, Jaungoikuaren begitan izan leitekez, azal utzak, donga estaliak. Afokerijak itxutu eban Fariseotafa, bestien ona ez ikusteko, afokerijaz itxututa, uzte eban, berak ez eukala ezeren bearik, on utza zalako, eta ez eutzon ezer be Jaungoikuari ezkatu. Gizon afuak, ez dakije eskabiderik egiten, uzte dabe dana zor jakela eurai, eta emparau gustijak, bere otzein izan biar dabela, bere esana egiñ biar dabela, eta bere eritxija jafaitu biar dabela bere jopu edo mendeko izan biar dabela. ¡Oh ze gofotogarija dan afokerija! Ez naz miraritututen esatia Jesukristo gure Jaunak bere burua goralduten dabena, izango da beratua, *qui se exaltat humiliabitur*. Alan jaso jakon Farisiotafari, ba jatxi zan etxera len baño dongago eta pekatari andijago.

Ikusi daigun orain zergalarijaren otoija. Ebangelijo santuak diño sartu zala Elexan itzal andiz, parau zan ate ostian, eta begijak jasoteko adore barik, damu andiz bere bulafa juaz, zirautzan Jesusi: Jauna eruki oberdi edo pekatari onegaz. ¡Ze otoi apala, edefa eta Jaungoikuaren gogokua! Zergalari au, jatxi zan etxera zintzotuta, bere pekatuetatik garbituta; apaltasunak obenik astunenak be, beinguan garbitzen dauz; apala maite dauz Jaungoikuak, apalari emoten deutzo ugari, bere ezkarak, apala jasoten dau, apalari agertuten deutzo eskutapen sakonak, apala artzen dau beti, bigun, zamurkiro, gozoro.

Artu ba zergalarijaren otoija, eredu edo modelotzak, otoi egin beti itzal andiz, pentzaurik Jaungoiko altuagaz itz egiten dozuela, eta apaltasun egizkoagaz. Alantxe otoi egiten dabe, gizon zintzoak, gizon onak, gizon onoi-

tzuak, alantxe otoi egiñ eban Jesukristo gure Jaunak be, deun guztijen deunak, eta gure erakusle Jaungoikozkuak. Jetzemaniko baratzian otoi egin eban, belaunbikotuta eta bere burua lufian ezafita, gogoratuten dalako, gizona lez, Jaungoiko altzuaren aulfian dagoala. Otoi egin daigun zergalari gaxoaren antzera, bulafa juaz, ba onela egiñagaz autortuten dogu, pekarijak gariala, eta damu dogula Jaungoikua iraindua, eta zigortuten dogula, geure gaiztakerija eta Jauuari egiñiko iraña. Gure otoi jak onan egiten badoguz izango dira entzunak, eta ontzat artuak, Jaungoikuak parkatuko deuzkuz pekatu gustijak, artuko gaitu bere aiskide santuan emen lufian, eta gero emango deuzku an goijan bere aiskide zintzoentzat, gertaurik daukon betiko zoriontasuna. Alan izan dedifa.

Etorkunde osteko amaikagaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jaraitu onan):

Zorionekuak benetan izango giñatekez gure lan eta arazu guztijak ondo egingo bagenduz. Jesusek, gor-mutua osatutian, dan dana ondo baño obeto egiñ eban; auxegaitik goraldtu eban gustadijak, ezanaz: *bene omnia fecit*. Guk bariz, gauza guztijak, ez ondo, ezpada akatzez beteta egiten doguz; batzuetan afokeriz egiten doguzalako, beste batzuetan on eritxiz, eta zari azkotan goraldija eta txaluak bilatutiafen. Asmo onekaz egiten dirian egintza guztijak, berez on-onak izanafen, ez dira Jaungoikuaren gogokuak, ez dirialako egiten Jaungoikuaren goraldirako, ezpada geure buruaren goraldirako.

Bene omnia fecit, goraldi eder au entzun gura badogu, egin daiguzan gauza guztijak Jesukristoren antzera eta berak gura daben lez eta izango gara deun andijak.

Askok uzte dabe deuntasuna mirari andijak egitian dagoala, zarata andiko egintzetan dagoala, edo nekegari eta laztasun gogorak artutian dagoala, baño oker dagoz. Deuntasuna ez dago gauza ofetan, ez eta elexan luzaro

egotian, otoi asko egitian, safi Jauna artzian, burua makurtuta ibiltian, eta bera begira begijak erabiltian. Gauza onek guztijok onak dira, deuntasunera-ko bidiak dira, baña deuntasuna ez da. Deuntasuna gauza andi eta gatxetan balego, deun gitxi izango litzatekez, gizasemen artian gitxi diralako gauza andi eta gatxak egiñ litekezanak. Paulo Apostolu deunak diño Jaungoikuaren naija dala, danok deunak izatia. *Hæc est voluntas Dei, sanctificatio vestra.* Beraz deuntasuna, danok ezez-ezez egin geinkezan gauzetan egon biar dau. Bakotxak bere bizieran idoro leike deun izateko bidia; elizgizon edo abadiak elexako eta arimen arazuetan; lekaide ta lekaimiak, bakaretzeko egin-kizun guztietan; gudarija, gudako arazuetan; alan deundu ziran Koldobika (Luis) Franzijako bakalduna eta Fernando Españako bakalduna; lugiña deundu leike, etxeko ta solo, baso, mendijetako lan eta arazuetan; onan deunduzan Isidro lugiña; gurasuak, seme-alabak, otzeiñak eta abar, danak deundu leitekez, bakotxa bere bizieran. Zeru goyetan dagozan deunak, biziera gustikuak izan dira: arotzak, lugiñak, efementarijak, jostunak, baita komedian-tiak be, eta au ezingozan izan deun izateko gauza andi, gatx eta ospe andi-kuak egin izan biar balira.

¿Zer egiñ eban Jesukristo gure Jaunak ogeta amar urte luze luzetan Nazaretoko etxetxuan? Gauza andi eta ospetzurik ezebez; gizonen gogua eruan leikian gauzarik bat be ez; bizi zan Jose eta Marijaren menpian, euren esanak zintzo-zintzo egiñ, ura ekafi, tresnak garbitu, Jose deunari zurak lantzen eta ebaten lagundu, alan guzti be, gauza guztijetan bere Aita zerukoaren naija egiñ ebalako, bere egintza guztijak izan ziran Jaungoikuaren gogokuak, eta ez eban gitxiago irabazi lan txiki onetan, zeinda gero Judeako eta Galileago ibilera eta lan neketzuetan. Birgiña Marijak, bere irugeta bi urteko bizitzan ¿zer egiñ eban? Zarata andiko gauzarik bat be ez; bete eban Jaungoikuaren naija gauza eta egin guztietan, alan gauza ezezetan zein da gauza gatxetan, alan zorion aldian zein da zoritzar egunetan, eta beste baga deundu zan eta deuntasuneko mañarik aundijenera igon zan; aiñ modutan eze, ez da izan da izango be iñortxo deuntasunian beragaz bardindu leikianik. Jose deuna, Marijaren senar ospetzuak, ¿zer egin eban ainbat urtian Nazaretoko etxetxuan? Ospe andiko gauzarik, ezer be ez; arotzijako lanian eroyezan egunak, ilak eta urtiak, beti zintzo-zintzo, eta gogotsu lanari oratuta, baña Jaungoikoren naija oso-osuan bete ebalako, izan zan, eta da gaurbe, donokiko izafrik eder da argitsuena. Ebangelijuak aitatuten dauzan otzeñak, ¿zer egin eben? Ardura andiz bizi, ugazabak emoniko talentu edo biar izanak zu-

zen eta ondo bete, eta gauza gitxijan leijalak izan zirialako, sari andiz sari-
tuak izan ziran: *quia super pauca fulisti fidelis supra multa te constituam.*

Beraz ezan giñai, deuntasuna dagoela eguneroko biar izanak, nai Jaungoikuari dagokijozanak, nai geure lagun urkoari eta geure buruari dagokijozanak, ondo eta zuzen egitian; baña egitian lenengo Jaungoikuaren ezkar edo grazijan; bigarfen, Jaungoikuagaitik egitian, eta irugarfen, Jaungoikuak nai daben aldijan, tokijan eta eran egitian. 1) Jaungoikuaren ezkaña, deuntasunaren zimentu arija edo oñarija da; Jaungoikuaren ezkar baga, oldozkun edo pentzamentu on bat eziñ giñai euki; oinkada bat onoimenian eziñ giñai auferratu, zerurako ÷duiñ dan gauzarik edo egitekorik eziñ giñai egiñ. Grazijan bizi dana, Jesusegaz bat egiñik dago; eta Jesusegaz bat egiñik daguanak, betiko bizitzako arnari edo igali ugarijak eruango dauz: *qui manet in me, et ego in eo, hic fert fructum multum.* Jesus baga eziñ giñai ezerbere egin; au argiro dirauzku berak: *sine me nihil potestis facere;* matzadafak, matzik eziñ emon lei matzondoari iratzita ezpadago; alantxe zuek be ezin igali onik emon zeinke nigaz bat egiñik ezpazagoze: *sicut palmes non potest ferre fructum a semetipso nisi manserit in vite, ita nec vos nisi in me manseritis.* ¡Zenbat arimako ondazun galtzen doguz grazijan ez irauteafen!

2) Gure egintzak berez onak izan afen, egiten badoguz oituraz, on eritxiz, goraldijak eta txaluak bilatutiafen, edo ludiko irabazijakgaitik, edo mundutafen ezamezakgaitik, ez dira Jaungoikuaren gogokuak izango, ez dauz Jaungoikuak sarituko; Jaungoikuak ez dau sarituten beragatik egiten ez dan gauzarik. David igarliak diño gure gogo edo arimiaren edertasun guztija, bafutik datoñela, au da, biotzeko gogo edo intenziñoetik: *omnis gloria ejus ab intus;* beraz gauzak egitian, begiratu biar da zelako goguagaz egiten doguzan; gogua ona bada, zuzena bada, egintza ona eta zuzena izango da Jaungoikuagaitik egiten dirian gauzak; txiki eta ezerbezak izan afen, azko balio dabe; baso bat ur eskeko bati emotia, egintza txikia da; alan guztiz be, Jesukristok dirauzku au bere izenian egiten dabenak, sari andija izango dabela. ¡Zembat egintza txiki eta onak geratuten dira sari baga, gogo ona eta zuzena ez eukitziafen.

3). Azkenez, gauza guztijak egiñ biar dira Jaungoikuak gura daben aldian, gura daben tokijan eta gura daben eran (pónganse ejemplos). Teologijako ikazkizunetan erakusten da, gauza bat ona izango bada, izan biar dala alde guztietatik: *bonum ex integra causa, malum ex quocumque defectu;* alde batetik utzunerik badauko, ez da oso osuan ona izango; ona da mezia egu-

nero entzutia, Jauna artzia, eta beste onerazpen batzuk egitia, baña gauza onek egiten badira etxia eta etxeko arazuak etxian egoteko ezkatuten dabean, ez dira onak izango, eta ez dauz Jaungoiknak ontzat artuko. Auxe berau jasoten da beste egintza on azkogaz be. Gauza guztijak dauke bere aldi-ja, diño Jaunak Ezakunen idaztiajan: *omnia tempus habent*; aldi-ja otoi egiteko eta aldi-ja lana egiteko, aldi-ja itz egiteko, eta aldi-ja ixilik egoteko, eta gauzak bere alditik ateraten dirianian, ezin izan leitekez onak eta Jaungoikuaren gogokuak.

Ea ba; gura badogu Jaungoikoak goraldu gaizan, egiñ gauza guztijak, alan arimakuak zein gorputzekuak, zuzen, artez, ondo, Jaungoikuagaitik eta Jaungoikuak gura daben aldi-ja da eran, eta izango gara ludi onetan orniduak eta an goijan deun andijak, zein guztioi opa deutzuedan.

Etorkunde ozteko amabigaren igandea

(Irakuri edo esan goizpafa, eta jafaitu onan):

Zoriontzuak benetan izan ziran Jesusen ikasleak, egunero Jesus ikusi eta bere itz eztitzua entzun ebelako; baña zoriontzuago deritzat izan ziriala Jesusen aginduak bete ebasalako. ¿Zeintzuk zirian agindu onek? Zeure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz, adore-adorez, maite izango dozu eta zeure geidea (lagun urkoa) bafiz zeure burua lez. Ez dira agindu bi, agindu bat baño. Jaungoikoa maite dabenak, lagun urkoa be maite izango dau; eta lagun urkoa maite ez dabenak, ez dau Jaungoigua maite izango. Judeguak, lagun urkotzat, bakarik euren abefikuak edo efitarak ezagutzen ebezan; eta onetan efitakuntza andijan egozan, eta berau dezegitiafen Jesukristok len entzun dozuen irudi edo paraboliagaz adierazo eutzen zein zan egijazko lagun urkoa.

Gure geide edo lagun urkoak dira Adanen jatofitik datozen gizazeme guztiak, nai urekuak, nai urifnekuak izan; nai efitarak, nai afotzak izan, nai aiz-

kide, nai arerioak izan. Bardin dira gure geideak, ziñizte bakoak, Judutafak, mahomatafak, protestantiak, zismatikuak ta abar, danok, Aita baten seme-alabak garialako; danokgaitik il zan Jesukristo gure Jauna, eta kurutzian ilten eguala be, danokgaitik Aita zerukoari otoi egin eutzon, eta azkenengo afari oztian be, danokgaitik otoi egiñ eban, esanaz Aita betikuari: «Aita, egi-zu danak izan deitezala bat, zu ta ni bat garian lez, *ut unum sint*. Eta ezelan maitetu biar dogu lagun urkoa? Argiro dirauzku Jesukristok: *diliges proximum tuum sicut teipsum*; maitetuko dozu lagun urkoa zeure burua lez, Samaritar efukiofak maite izan eban lez, itzez ta egikunez. Samaritafa maitasunez efukitu zan lapuren eskuetan jausi eta zaurituta eta il agiñan itxi eben gizon gaixoagaz, eta efukiz urgazi eban, eta alebanez bere laguntasuna egiñ eutzon, eta ber-berak egiñ be, eta ez iñoren edergafiagaitik, geixoa nor zan begiratu baga, efukiz eta maitasunez. Gizon zauritua, auzaz Samaritafen are-rijua zan, bai edeztiz, bai oituraz, bai uzkurtz edo erligiñoez, ba Israeltar eta Samaritafak ez eben alkar artzen.

Eliztar izatia ez da naikoa. Gexoaren ondotik, eta jaramonik egiñ baga. igaro ziran jauparija ta Lebitafa eliztafak ziran. Ez eben ordea Jaungoikoa-
ren gogoz jardun; Samaritafa oztera ez zan eliztafa; alan da be, Jaunak ur-
koagazko maitasun iruditzat ipiñi euzkun. Jesukristoren benetako ikaslea
izateko, lagun urkoa geure burua lez maite izan biar dogu; ezaterako, geure
buruari bizitza luzia, osasuna, ogazunak eta zoriontazunak opa badeutzaguz,
bardin lagun urkoari be opa izan biar deutzaguz; beztelan ez dogu egiz mai-
tetuko: geure buruari Jaungoikuaren aizkidetasuna, ezkafa, arimako bakia
eta betiko atsedena opa badeutzagu, bardiñ lagun urkoari be opa izan biar
deutzagu; eta bestelan, geuretzako nai ez dogunik lagun urkoari be ez deu-
tzagu nai izan biar; geuretzako gaijotasunik, ezbiafik, ez ondazunetan kalte-
rik, ez ozterantzeko zoritzañik nai ez dogun lez, bardiñ lagun urkoari be ez
deutzagu opa izan biar; geuretzako gura ez dogun lez gofotorik, ikusi eziñik,
ez bengantza gaiztorik, ez pekatuan jausi ta ilterik, bardiñ-bardiñ lagun ur-
kuarentzat be ez dogu nai izan biar. Itz baten ezatiafen, geure buruarentzako
daukaguzan sentimentu bigun, samur eta gozoak euki biar doguz lagun ur-
koarentzat be. Lagun urkoaganako maitasunak, era bitakua izan biar dau:
azaletikua eta biotzekoa; izango da biotzetikoa, egiz eta benetan, biotz-
biotzetik, baru-barutik maite izaten badogu; eta izango da azaletikua, bio-
tzian daukagun maitasuna, azaletik erakutzijakaz, txafa ona egiñagaz, arpe-
gi bigun eta gozua erakutzijagaz, premiñan badago lagunduagaz, gose bada

janarija emonagaz, biłozik badago jantzija emonagaz, itun badago, alaituagaz, eztu eta lafi aurkitzen bada, bere alde alegiña egiñagaz, eta gaijorik badago ikusialditxo batzuk egiñagaz; auxe da egizko maitasuna. Ao utzeko maitasuna, miñezko maitasuna, ez da maitasuna, leuntasun utza baño; onelako maitasunari erderaz esaten jako: *jarabe de pico*. Ara zegaitik dirauzkun Joan ebangelarijak: *filioli, non diligamus verbo aut lingua sed opere et veritate*. Semetxuak, ez egizue aoz eta miñez maitetu, ezpada egitez eta egiz.

Baña maitasunak bere mañak daukaz, bakotxa bere mañan maitetu biar dogu; auzokoa ezin geinke etzekoa beste maitetu; arerioa bere ez aizkidia beste; erbestekoa be ez eritara beste, eta olan maña guztietan. Azkok uzte dabe maitasun egiazkua daukela noxian beiñ berba gozo ta eztitzuak lagun urkoari esaten deutzelako, baña onetan utz egin darue: maitasun egijazkuak berarizko ezaugarriak daukoz. Pablo apostolu deunak ezaugarri onek banan banan izentetan dauz: maitasuna baketzua da, biguna, gozua eta eruapen aundikua da; maitasun egijazkuak ez dauko ondamu edo enbidijarik, ez dauko asakakuntzarik, ez bengantza gaiztorik. Begira zer egiñ eban Jesukristo gure Jaunak: kurutzian ilagiñian eguala, ez eban eskatu goiko su bizerik, ez zigorik, ez bezte zoritxarrik, parkamena baño. Bardiñ egiñ eban Esteban ziñopa andijak be bera arika ilten ebenakaz, eta alan egin dabe beti ziñopa edo martirijak, deunak eta ozterantzeko gizazeme maitasun egizkoa biotzian euki dabenak.

Maitasuna da onoimen guztijen artian, lenena, naguzijena, onoimen guztijen eregiña, bera daukonak, onoimen guztijak daukoz, eta bera ez daukona, naita ziñismen birija euki, naita mirarijak egiteko eskubidia euki, ez dauko ezerbe, ez deutzo ezerbe balio; alan diño Pablo Apostoluak berak, *nihil sum, nihil mihi prodest*. Maitasun Jaungoikozko au daukonak, jaretxiko dau pekatu guztien parkamena, alan diño Juan Ebangelarijak *Caritas operit multitudinem peccatorum*, alan jaso zan Marija Magdalena pekatari andijagaz, zeñek entzun eban Jesusen aotik itz gozo onexek: *remituntur peccata, quonian dilexit multum*, parkatu jakoz pekatu gustijak, maitasun andija euki dabelako.

Agindu au betetako aleginduko bagintzaz, ez litzateke eliztañen artian, ainbeste asafe, gofoto, alkar ikusi eziñ, eta izkanbila izango: euren burua ontzat daukenak, ez litzatekez asartuko, lagun urkoaren entzute, eta ospe ona, guzuzer baltzituden, ez eta anayen artian asafe latzak biztuten.

Ea ba, biztu daigun geure biotzetan maitasun egizkoa, eta beragaz maitetu daigun geure lagun urkoa be. Onan egiñaz agertuko dogu biotzeko eruki eta

ondo naija, eta Jaungoikuak zarituko gaitu, efukitsuai ezkiñi deutzen zarijagaz, zeñ guztioi biotzetik opa deutzuedan.

Etorkunde osteko amairugaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

¿Zeñen irudija dala uste dozue legenaña? Elexako erakusle jakintzuak dirauzkunez, pekatu loijarena. Legenañak gorputzian egiten dauzan kaltiak, pekatuak egiten dauz gure ariman.

Gaxo izugarija da benetan legenaña, eta efukañiak ziñez legenardunak: gorputz atalak zatika zatika ustelduaz jausten jakez; atsa ta sorna darioela ibili oi dira ikusten dabezanen naskagañi eta efukañi diriala. Aldi atan legenardun efukañientzat ez eguan gure aldi onetan lez gaixo etxerik, eta bizi oi-ziran basuan, mendijan, iñogaz be artu-emonik ez ebela; gañera Judutafak legenarduna ikutu edo arekaz artu-emonik ebana loitutzat eukiten eben. Legenardun gizagaijuak jazten ziran zapi zar batzuekaz, eta iñortxo ikusten ebenian uññetik gañazika esaten eutzen: *tane, tane:* loija, loija, iñor eurakana uferatu ez zeitian.

Legenaña lenengoan orban edo mantxatxu bat baño ez da izaten; bera agertzen da gorputzian azalian; eta orban onek beiñgo baten zabaltzen dira gorputz guztijan, eta dana naskagañi eta iguiñgañi izten dabe. ¡Orban edo mantxa batetik sortuten da usteltasun aiñ andija!

Loikerijako pekatuaz be auxe ber-berau jasoten da: pekatu onek kentzen deutzo arimiari bere edertasun guztija, ezainduten dau, eta iketza baño baltzago izten dau, Jeremias igarliaren esanian: *Quomodo obscuratum est aurum.* Eta ¿nundik sortuten da pekatu ezaiñ edo galgañi au? Safi askotan gauza txiki batetik: batian izango da oldozkun edo pentsamentu loi bat, bestian begirakune bat, berba nasai bat, dantza bat, gabeko ibilera bat... Dana dala, beragaz ereiten da ariman azi txaña: azi au jaijoten da, ernetan da, geruago indar andijago artzen dau, eta konturatu orduko arimia ezaindu ten dau eta us

telduten dau. Auxegaitik esaten dau Ambrosio Deunak onelako arazuak il-obirik atzituena baino atzituagoak diriala: *Nonne gravius omnibus fetet sepulcris?* Legenaia gorputzian baino pekatu loija ariman ariñago zabaltzen da: legenaia geldika geldika doya gorputza janagaz; pekatu loija bariz ekatz donga batek dakafen lañu baltzez beiñguan arimia ezainduten dau. Begirakune batetik sortuten dira mila pentsamentu loi, gurari zikiñ, berba nasai eta egite dongak. Itandu Dabid bakaldunari zek jausi-eraso egiñ eutzon pekatu aiñ andijan, eta esango deutzue begirakune bat izan zala; itandu urlija neskatiliari zek galdu eutzon bere donzelatasuna, eta esango deutzue, egija esan gura badau, itz bat, berba leun bat, txera bat izan zala. Adanen pekatuak makurtu eta obendu eban gure izate guztija gatxera, eta auxegaitik indar txiki bat asko da gizasemerik onoimentzuena, birtutetzuena pekatuko lupatzian ondatuteko. Gizarterik geijena dago loikerijako olatupian urpetuta; esan lei antziñako uriola ondatzaliak urijak, erijak eta baso mendijak ondatu ebazan lez, loikerijako pekatuak urijak, erijak, ausunak eurak ondatu eta naskagafi egiñ dauzala. Gaur egunian alde guztietan nasaikerija baino besterik ez da ikusten: nasaikerija eta bilostasuna jantzijetan, nasaikerija jolasetan eta ibiñeretan, nasaikerija izkefan eta dantzetan, nasaikerija ondartzan eta bañu toki-jetan, nasaikerija mendi eta eguzki artzetan... zerbait lotsa daukenak bilduraz egon biar dau ibil-aldi bat egiteko. Bultzijetan, tranbijetan eta abar zenbat lotsabakeri entzuten ez da? ¡Auxe bai dala benetako legenaia! ¡Zenbat arima ezaindu, usteldu eta infernuetara ez daroaz! Baña iñondik azaldu eziñ leikena da, katoliko zintzo burua egiñ, Mariaren batzarfekoa biar bada izan, saritan Jauna artu, batzar on guztijetan sartuta egon, ta jantzikeran, dantzetan eta jolasetan besteen antzera agertutia. Eta ¡zenbat olango ez dago! Kurutzia eta domiñak idunean, eta besuak soil-soil (Jesus lapur bijen erdijan lez). Egi gafatzak dira onek, baña egi utsak. Gaur lotsabakokerijak aiñ indar andija artzen ba-dau, guraso eta gazte katolikoek ezuz da.

Eta ¿zelan osatu leike gatx negargafi au? Jaungoikuak Moisesi emon eutzon osageijagaz. Jaungoikuak agindu eutzon Moisesi jaurti egijazala uritik bakartadera legenardun guztijak enparau gizasemiak sornetu ez dagijazan: *precipe filiis Israel ut ejiciant de castris omnem leprosum*. Auxe berbera egiñ biar litzateke gizaseme loijakaz, euren izketa, abesti, dantza eta egite dongakaz arimak sornetu eta galtzen dauzanekaz, jaurti eritik kanpora, gazterija ezaindu ez daijen, umetxuen erubakotasuna galdu ez daijen, jaurti gizartetik urñera, euren arnasia ilkoia izan ez dediñ.

Zeuek ikusi izan dozue, bai sendi edo famelijetan, bai aiskiden artian, eta baita be ezagunen artian, zenbat kalte egiñ dauzan loikerijako pekatuak. Ikusi izan doguz neskatila eta mutil gaztiak, guraso on eta elizkoyen seme-alabak, asijera ona euki dabenak, eñubakotasun andijan urte batzuetan bizi izan dirianak, Jauna safi artuten ebenak, arimako arazuetan arduratzuak zirianak... beiñgo baten elexatik urñduta, oitura galgafiz azpiratuta, okertuta, lotsabakotuta. ¿Zek alagiña aldatu ebazan? ¿Nundik sortu zan aldakuntza galgafija? Lagun txafakaz, loijakaz, alkartu zalako, aiskidetu zalako: batu zan eurakaz, esafi eutzon benenua, sornetu zan (nastau zan) eta galdu zan. Eta ¿norena izan zan eñua? Beria lenengo, baña baita be gurasoena, lagun txafetatik alden du ez ebelako. ¡Oh ze estua ta gogofa izango da Jaungoikuak guraso askori artuko deutzen kontua!

Gatx eta kalte andi onek gugandik alderatutiafen begira zer dirauzkun Jesukristok Ezakunen idazti edo liburuan: *prohibe pedem tuum a semitis eorum*: alderatu daiguzala geure oñak euren bide gaiztuetatik, euren itzak ilgafijak dirialako eta euren arnasia be eñegafija dalako. Aiskide txafagaz batzen dana bere antzekua egiñgo dala: *cum perverso perverteris*.

¡Gurasoak!, zaindu zeuen seme-alabak, gaurko umeak biarko lotsabakoak izatea gura ezpadozue; zaindu eta ekiñ gogor itzez eta egitez, katoliko eta euskotafak lez; zaindu gure oitura garbi edefak; ixuri euren biotzetan euskaldunen oitura onakganako zaletasun bizi bat; iraun danok gorputzeko eta arimako garbitasun andijan. Arima garbijak Jaungoikuaren gogokuak, Jesukristoren maitale andijak dira; berak esan dau arima garbijak zorientzuak diriala eta Jaungoikua ikusiko dabela: *beati mundo corde quoniam ipsi Deum videbunt*. Auxę da biotz biotzetik danoi opa deutzuedana.

Etorkunde osteko amalauaren igandea

(Irakufi edo esan goizpafa, eta jafaitu onan):

Goizpafa Jesukristo gure Jaunaren itza da, beraren irakaskintza da. Jesu-

kristo egija berbera da: *ego sum veritas*, esan dau berak. Jesukristok utzi eziñ egiñ lei, jakinduri guztija beragan daukalako; alan diño Pablo Apostolu Deunak: *in Christo inhabitat plenitudo sapientiæ et scientiæ Dei*. Beraz Jesukristok esaten dabenian eziñ iñork ugasaba bi otzeindu leikezala, egi utza esaten dau, bada bata maite badau, bestia gofoto izango dau; bata aintzakoizat artzen badau, bestia eziñ ainbestekotzat artu; bata atsegiñ eta gogoko bada, bestia eziñ gogoko izan. Eta ugasaba eta jaube bi onek ¿nortzuk dira? Jaungoikua eta txeñena: Jaungoikua ta mundu gaiztua: Jaungoikua ta diru zalekeria: Jaungoikua ta edozeiñ griña txar. Jaungoikua eta txeñena eziñ leikez era batera otzeindu, bataren eta bestiaren legiak, aginduak eta esanak alkañen aurka dirialako. Jaungoikuak dirauzku bera bakarik maitatu daigula, biotz osoz, arima osoz eta indar guztijakaz, bera dalako gure egilia, gure jabe bakara eta gure ongile utza, garian guztija eta daukagun guztija berak emon deuzkulako; txeñenak bariz gura dau bera Jaungoikotzat eukitia; eta beste aldi baten Jesukristori lez, dirauzku: neure arian belaunbikotu ta gurtuten banozu, gauza guztijak emongo deutzudaz. Jaungoikuak dirauzku: izan zaitze apalak, obenduak, otsanak, garbijak, begiramentu andikuak; txeñenak bariz gura dau izan gaitezela, bera lez, geurekoyak, aruak, geure nai-zaliak, eta gofotau daigula menpetasuna, izan gaitiala aske, libre, nai doguna oldoztu, nai dogun lez itz egiñ, jolastu eta atsegiñdu. ¿Zelan ba bete aurka dabil-tzazan agindu onek?

Jaungoikuaren eta ludi gaiztuaren agindu, lege eta esanak be bata bestiaren aurka dagoz. Jesukristok diño: zorientzuak biotzez txiro dirianak, zorientzuak biotz garbikuak, zorientzuak otsanak, baketzuak; ludi gaiztuak, luditar dongak bariz, biotzez eta aoz esaten dabe: zorientzuak aberatsak, aukera guztijan bizi dirianak, gozotasunez eta atsegiñez asetan dirianak. Jesukristok diño: arerijua maitetu egizu, biotzeko gofotua amatau egizu, bizi zaitzez baketzu; luditar gaiztuak bariz diñue: gofotau arerijua, kalte egiñ aldozun guztia lagun urkuari bere izen onian, bere eukijan, bere artu-emonetan. ¿Zelan bete giñai alkañen aurka dabil-tzazan agindu eta esan onek? Jesukristoren jarailak bagara emen lufian eta bere aginduak zintzo zintzo betetan badoguz, bere lagunak izango gara zeruan; baña ludi gaiztuaren esanak eta aginduak betetan badoguz, bere lagunak izango gara infernuan be. Jesukristok dirauzku: ¡ene semia!, ekatzu zeure biotza, baña oso-osorik, ez erdizkatura: *fili mi, da cor tuum mihi*. Jesukristok eskatu leikigu biotza, garian guztija eta daukagun guztija, berak emon deuzkulako: berak emon deuzku

Izatia, bizitza, osasuna, ogasuna, aberastasunak eta abar, eta emon deuzkuz urte batzuetan bere otzegintzan igaro ta gero zeruan bizi izateko; ez deuzku lafegi eskatu, ba, dana emon deuzkunak dana eskatu leikigu. Biotza eskatutian maitasuna eskatuten deuzku, maitasunak biotzetik urteten dabelako; baña luditar gaiztuak maitasuna ukatu edo erdiz-erdiz maitatu gura dabe, eta au eziñ izan leiteke: Kristorena edo ludijarena.

Begira ezpabere zer egiten daben ludi maitazaliak. Goizian meza entzuten eta Jauna artzen, aŕatzaldian Jesukristo Judasek baño merkiago saltzen; goizian autortzen, aŕatzaldian Jesus iraiñduten; goizian aingeruzko moduzkotatunagaz, aŕatzaldian diabruaren nasaikerijakaz; goizian garbi eta txukun, aŕatzaldian, gaubian nabarmen, zikiñ, ezaiñ. Ugasaba bi onen begija eziñ bete genike, ba Jesukristok argiro dirauzku: *qui non est mecum, contra me est.*

Jaungoikua eta diru zalekerija be aurka dabiltz; Jaungoikua eta edozeiñ griña txar be bai. Diru zalekerija griña txar guztijen sustraija da: aberastu gurea, ta aberastu beiñgoan, eta edozeiñ bidez aberastu be. Aldi guztijetako gaxoa da diru gosea, baña gure aldi onetan txindi gafa bizi-bizi dagoala eziñ ukatu geinke.

Baña norbaitek esango dau: ¿Ez al-gara janariz arduratu biar? Bai, ba Jaungoikuak berak ipiñi deuzku janari ta jantziar arduratu bifa, baña arduratu neuriz. Bidezko ardurea ez deuzku Jesukristok galerazten; baña gizaseme asko dira jateko bakarik bizi diriala diñarduenak: zer jan, zer jantzi eta zegaz atsegiñdu izan ezkerro beste ezertxoz arduratzen ez diranak, euki andjak euki ta be asetzen ez diranak, ufengorako edo etorkizunerako lain izango ote daben artega eta keskaz bizi dirianak.

Gizonok ogiz bizi gara, janarija biar dogu, baña ez ogija bakarik: gorputzeko janari eta jantziar gañera beste ardura batzuk daukoguz, eta ardura onetatik sortzen diran egiñkizunak ez aintzakotzat artutia diru-jopu izatia da. Jaungoikua esagutu ta maite izan eta bere aginduak ziero bete eta ofen bidez betiko zoriona eskuratzia da gizonaren elburua, eta au egiñ ezkerro Jaungoikuak emongo deuzku beste enparaua. ¿Zer ote da bikañago, dirauzku Jesusek, bizia ala janarija, gorputza ala soña estaltzeko jantzia? Bizia emon deuzkunak ¿ez al-deuzku ba bizi ori asi ta sendotzeko biar dogun janarija emongo? Ta gorputza emon deuzkunak ¿ez al-deuzku soiñ ori estali ta berotzeko biar dogun jantzia emongo? ¿Zegaitik ba artegatu? Begira, egaztijak ez dabe reeiten, ez itaitzen, ez kutxetan batzen; alan da be zuen Aita Goikoak oparo

alikatzen ditu. ¿Ez al-zarie ba zuek areik baño gurenago? Egaztijakaz ofen zintzoro arduratzen dana ¿ez al-da bere semetzat artu gauzonakaz geijago arduratuko? Bere ardurapean gaukaz ba Aita maitekofak. Jan-edan eta jantziteko gure alegiñ zurak eta bidezkoak onetzituko dauz; bizi izateko biar doguna, ufi edo ugari, emongo deuzku. Jaungoikuaren ala, Jaunaren jaubetza eta Jaungoikuaren gogoa bilatu lenen, eta beste gauza guztiak gañez ezafiko deuzkuz. Onezaz gañera Jauna zintzo zintzo otzeginduten badogu, izango gara zorientzuak emen eta zorientzuagoak an goijan. Berak esan dau: *Si mandata mea servaveritis... absque pavore habitabitis in terra vestra.* (Digase en vasco). *Conferam malas bestias, dabo vobis pluvias in temporibus suis.* (Digase en vasco). Alantxe egiñ dau beti Jaungoikuak bere serbitzari zintzoakaz. Gure Jaungoikua ugasaba ona da, eta ugasaba onak serbitzari zintzoak ondo artzen dauz, ondo laguntzen deutze. Begira Isidro Deunagaz zer egiñ eban. Isidro lugiña zan, txiroa zan, ogasunik ez eukan, baña bera serbitzari zintzo zintzoa izan zalako, pozik eta baketzu bizi izan zan, eta ez jakon palta ez zer jan, ez zegaz jantzi, ez zegaz limosnak egiñ, eta gaur bizi da goi-aldian aintzaz inguratuta, eta bere izena da ospatsua ludi guztijan. Bafiz, Jaungoikua itxi, ta txeñena edo ludi gaiztua otzeinduten badogu, benturaz izango doguz aginpidiak, goraldijak, txaluak, atsegiñak. Eta onek ¿zer dira? Autza, utza, beiñgo baten galduten dirianak. Begira ze ariñ jausi dirian Europako Efegetasunik geijenak; begira zenbat aberats txiro biurtu dirian; begira ze ariñ amaituten dirian gozotasun eta atsegiñ guztijak: gaijotasun bategen beiñguan iñten dauz danak. Gañera txeñenak eta ludi gaiztuak eskintzen dauzen atsegiñ-gozotasunak ez dira osoak, ezpada miñgoztasun eta keska andiz naztuak. Txeñenaren esana egiñ ondoren, au da, pekatua egiñ ondoren, biotza iñunduten da, keska garatzez beteten da, estu, artega eta lañi aurkitzen da galdu dabelako une beratan bakia, Jaungoikuaren grazija eta aiskidetasa.

Izan, ba, Jaungoikuaren otzein zintzoak, bete bere esan eta aginduak ariñ, zuzen. gogoz eta atsegiñez, eta berak donetziko zaitue emen luñian eta sari-tu an goijan betiko aintzagaz.

Etorkunde osteko amabostgaren igandea

(Esan goizpafa eta jafaitu onan):

Gazte onen eriotziagaz Jesukristo gure Jaunak ikasbide eder eta onuratzua emon gura deuzku. ¿Ze ikasbide da au? Ikasbide au da ludi onetan giza-
seme guztiok bidaztijak gariala, betikotasuneruntz goazala, eta an izango gariala, edo betiko zoriontsu edo betiko zorigaiztoko. Egi bildurgarrija, safi-safi oldoztu biar gendukiana, bada bertatik onera andijak atera geinkez. Egiñ daigun, ba, gogarte laburtxu bat bereatzaz.

Bizitzia ¿zer da? Itaune au munduko jakitunai eta mundu zaliai egiten badeutzagu esango deuzkue bizitzia dala jolastu, atsegiñdu eta gozetako aldija; baña itanduten badeutzagu Job aita-len deunari, ludi onetako jakitun afo guztijak baño geijago dakijanari, onek esango deuzku bizitzia dala aizia: *ventus est vita mea*, eta aiziaren ariñtasunagaz ludi onetan egiten dogun ibiñ-aldi bat; bañiz itanduten badeutzagu Dabid bakaldun deunari ¿zer dan bizitzia?, onek erantzuten deuzku bizitzia dala amaren sabeletik obira egiten dogun ibiñ-aldi bat; eta egijaz, jaijoten gara, emoten doguz oinkada batzuk lufaren gañian, oratuten gauz gaijotasunak, oyan ezarten gauz eta beinguan betikotasuneko bidia artzen dogu.

Bai, betikotasuneruntz goaz: jaijotzako egunian bertan arako bidea artu gendun, eta geldi-geldi eta nafaz lez, ara goaz danok. Gutariko batzuk, ume-tasuneko egun zoriontzuak eta eñu bagako jolasak uñiñ itxi dabez; gaztetasuneko urte loratsuak, eta amesak, eta zorakerija guztijak uñiñ eta betiko itxi dabez; gizatasuneko urte ederak, oldozkunak, asmo eta erabagijak be uñiñ itxi dabez. Begiraldi bat atzeruntz emoten badogu, ikusiko dogu bide luzia egiñ dogula, eta ija bizitziaren amaijan gagozala.

Eriotzara goaz, baña eriotziagaz ez dira amaituten gauza guztiak: iñtia ez da amaitutia: iñtia bizitza bañija astia da. Burdiñ-bidetik doyan bultzija tunelian

sartzen danian ez da ango iluntasunian geratzen, ezpada beste aldi argitsuam agertzen da: gu be, eriotzako tunel ilunian sartzen geranian ez gara iluntasun atan geratuko, ezpada beste aldi argitsu edo ilunago baten argituko gara. Oldoztu edo pentsau beije au pekatu astunian eta Jaungoikuaren asafian bizi dirian efukarriak; arimiagaz, zeruagaz eta betikotasunagaz aztuta bizi dirianak; ludi onetako jolas gaizto, atsegiñ, gozotasun eta lizunkeriz bakarik gogoratuten dirianak eta autorkuntzia eta Jauna artzia albo batera itxita daukenak; ba betikotasunera eldutan agertu biarko dabez euren gogoan, ariman, konzientzian daroien nazpīle guztija. Erbestera guazanian, nai Franzijara, Ingleterara, nai beste dieñi batera, ango agintarijak edo agintari ordekoak daruagun guztija argitara atera eragiten deuzkubē eta dana aratu eta astertuten dabe. Au zegaitik egiten dan edonok daki. Guri be Jaungoikuak, gauza guztijak esagutu eta agirijan daukazanak, beste onenbeste egiñgo deuzku.

Ludi onetan salozketak (kontrabanduak) ezez igaro leikez, batzuetan ixilian edo eskutuan eruanagaz, beste batzuetan zaintzaliari eskupekua emonagaz, eta beste era askotara. Baña Jaungoikua ¿nok atzipetu? ¿Nok ixilian edo eskutuan ezer igaro berari? Bere begi zolijak dana dakutze; bere zuzentasuna eziñ iñok erosi lei, ez txindijagaz, ez ezegaz be. Ez dago, ba kontrabandorik egiñ edo pasetarik: bere aurian agertuko da bakotxa izan dan lez edo dan lez; an agertuko dauz bakotxak ixilian, eskutuan, bakarik edo lagunagaz egiñiko obenak; an agertuko dauz Erligiñoiaren eta Elexiaren kaltez esaniko itz zatar, gafatz eta lotsarizkuak; an agertuko dauz asariak, gofotuak, ikusi-eziñak eta bengantza gaiztuak; an ikusiko da zeñ izan dan bere jafaile egijazkua, zintzoa, bere maitale benetakoa, eta zeñ izan dan jafaile epela, bada-ezpadakoa eta dongaro dana Judasen antzeko izun (hipócrita) paltzua; an ez dabe balioko, ez guzurfak, ez atzakijak, ez beste izunkerijak; an ez deutze balioko jakitunari bere jakitunak, aberatsari bere dirutzak, ez bakaldunari bere aro edo koroyak, ez eta anderaño eta dama guztijai bere pitxijak. ¡Ay, au ondo oldoztuko balebe ofako Kristotar otz, epel, beti lufera begira dagozanak!, ofako jolas, atsegiñ, gozotasun eta jan-edanetan euren biotza ipinten dabenak! Ofako Kristotar, iñetan eta urtetan autortu barik, Jauna artu barik, beragandik ufiñduta bizi dirianak, diñot bariz be, egija bildurgari onek goguan balebez, ¡ze onak, ze onoimentzuak, ze deunak izango litzatekezan!, ze afeta eta ardura andiz arimako salbaziñua bilatuko leukien! Baña, zoritxafez ez dabe ezer oldoztuten (pentsetan) eta bizi dira beste bizi-tzarik ezpalego lez, emen ludi onetan dana amaituko balitz lez. ¡Eruak! Bes-

te bizitza bat dago, eta ez emengua lez, labufa, ezpada betikua, beti iraungo dabena; eta aruntz goaz, ariñ-ariñga, geratu barik: *loit homo in domum æternitatis*. Ariñago goaz egaz doyan txorija baño; ariñago goaz mendi-berantz datoñen efekatxua baño; ariñago goaz itxas zabalían eta ke baltzez inguratu ta doyan itxas-ontzija baño; ariñago goaz or bidetan ziar oñoeka eta auts pilo andijak ateraka tximista lez doyan tafanta baño. Batzuei gurasuak iges egiñ deutze, beste batzuei senafak edo emastiak, beste batzuei seme-alabak, beste askori aiskide maite kutun-kutunak; danak banan-banan igesi duaz, eta euren ondoren gu bere bai. Jaijo giñan egunian esan euzkun Jaungoikuak: *aurrera, aurrera*; eta arantz goaz berak jalto ortxe! esan arte.

Bizitza onetan aldi batzuk bildurgarijak, ikaragarijak izaten dira. Onetari-ko bat da arako gabaz eta bidazti goazala uste bagatik jeup! edo alto emen, esaten deuzkuenian. Didar bildurgari au entzuten dabena ziar daki lapuñen eskuetan dagoala eta daroyan guztija oztuko deutzela, eta benturaz bizitzia bera be bai; auxegaitik bidazti erukarijai sartzen jake safakio ikaragarija biotzian, eta izu aldi (susto) onetan batek baño geijagok galdu dabe sentzuna eta bizitzia bera. Orain, ba, lapur batzuen didafak ainbeste bildurtu eta ikeratuten bagauz, ¿zer izango da Jaungoiko altsuak, bizijen eta ilen epaikarijak, pekatari dolofari, itz bategaz sartuko deutzon ikaria? Pablo Apostolu Deunak diño ikaragarija dala Jaungoiko bizijaren eskuetan jaustia: *horrendum est incidere in manus Del viventis*.

Gogoratu, ba, astiro-astiro, egija bildurgari aonexek: gogoratu egunero, elexara zuazenian, mezetan zagozenian eta osterantzian.

Betikotasunera goaz danok: batzuek bide zuzenetik, bestiak bide okefetik, eta emendik doiazanak eziñ eldu leitekez betiko zoriontasunera. Zoriontasuneko bidia bide zuzena da, agindu santuen bidia da; bide ofetatik juan dira Apostoluak, Martirijak, Konfessoriak, Neskutz edo Birgiñak, arima onak, Jesusen maitale izan dirian guztijak; bide ofetatik doaz Kristotar zintzo guztijak, pekatari damutuak eta bizitza onian jaraituten daben guztijak. Okefeko bidetik doaz Jesukristogaz eta bere Elexa Deunagaz ezelako artu-emonik gura ez dabena. Onak eta bestiak eziñ ezelan bere alkar idoro leije; ez zirian idoro an goijan Ignazio Loyolatará eta Lutero lekaidia, ez eta Teresa Jesuserena eta Isabel Inglateráko efegiña, ez eta Beñotxoatar Balendin eta bere iltzalía. Bide okefetik eriotzaragiño doazanak galduko dira; bide zuzenian zati bat ibilita bide zuzenetik aldenduten dirianak galtzeko ariskuan jarten dira, bafiro bide zuzenera penitentzijan bidez sartuten ezpadira.

Gogoratu, ba, egi bildurgafi aonexek; gogoratu safi bidaztijak gariana, betikotasuneruntz goazana, eta nai ta naiez ara elduko gariana. ¡Zoriontzua bide zuzenetik doiana! ¡Zorigaiztokua bide okefetik doiana! Eskatu goiko Jaunari bere eskar edo grazija, bere laguntasunagaz beti artez, beti zuzen zeruko bidean ibilteko, eta grazi au eskatuten badeutzagu ziñismen biziz eta gogo eta asmo onez, emongo deuzku bere aintza geigarirako eta gure goguaren onerako.

Etorkunde osteko amaseigaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Gizon urmindua ¿noren irudija dala uzte dozue? Elexako erakuzla jakintzuak dirauzkue gizon urminduak iru pekatu irudituten dauzela: diru zalekerija, loikerija, eta afokerija: aratu eta ikusi daiguzan banan-banan.

1.º Gizon urmindua egafi dago beti, urak ez dau asetzen, zenbat geijago edan, geijago gura dau; eta zembat geijago edan, gatxa geijago geituten jako, auxegaitik puztu eta andituten jako sabela, beste onembeste jasoten jako diru zalekerijako ekandua daukon gizon nai emakumiari: gitxi badauko asko gura dau; asko badauko geijago gura dau, ez da iñoz aseten, ez ogazun andijakaz, ez ondasun eta aberaztasun ugarijakaz, ez eta txindi pilaokaz; efazoez ziñuan jakitun batek, txindi egafija txindijagaz geituten dala. Agustín deunak diño diru zalekerija infernuaren irudija dala, bada infernuak mila-ka arima iruntzi afen, iñoz ez daben lez ezaten, *asko da*, alantze ekandu gaizto au daukonak, eukijak euki ta be, ez dau iñoz ezaten *asko da*; auxegaitik, ekandu galgafi au nekezko baten osatuten da; zenbat zafago, aibat gogofago egiten dalako; beste ekandu gustijak, zartzaruan indargeak izaten dira, baña txindi zalekerijak ez deutzo gizonari iñoz be itxiten, beragaz juan oi da obira eta betikotasunera be.

2.º Gizon urminduak irudituten dau loikerijako pekatua. Gizon urmin-

duak bafu guztija galduaz juakalako, euki oi dau amaza atzitua, ain modutan ze, gaijo zaintzaliak eurak safitan ezin jazan edo sufritu izaten dabe. Beste onen-beste jazoten da loikerijako ekandu zikiña daukon gizasemiagaz be; bere begirakune, bere ziñu, bere izketa, egintza, dantza eta ibiñera guztijakaz ezkandaluko atz zikiña alde gustijetan zabalduen dau; osiñik baltz eta zikiñena baño baltzago eta zikiñago da bere biotza, bere burua: geldigeldi daguan ur loijak ez dau ats zikiñik emoten, baño makilla bategaz zirikatuten bajako, bafuko loi gustija beinguan azalera, kampa, urteten dau; alantxe gizaseme lojak, berbakaz eta egitadakaz, azalera, kampa, ateraten dau biotzian daukon loikeri guztija; urminduaren gatxa ez da ezarten beragaz dabilzazanai; bañiz loikerijako ekandua ezarten jake beragaz dabilzazan guztijai; begira ezpabere ¿zek alagiña galdu dau gaurko gazterija? loijakgazko aizkidetazunak, sagaf ustel batek inguruan dagozan sagar guztijak, usteldu eta galduten dauzan lez, alantxe gizaseme loijak loituten dauz beragaz dabilzazan guztijak. Efazoez diño idazki deunak: *cum sancto sanctus eris, cum perverso perverteris.*

3.º Gizon urminduak irudituten dau afokerija; gaijo au daukon gizasemia puztuten da, urdaña andituten jake eta ura atera biar izaten jake; afokerijako ekandu gaiztuak be gizona puztuten dau, andituten dau, baño ez anditasun egijazkuaz, guzuezkuaz baño, gizon afo andiputzak uste dau bera dala naguzi gauza guztietan, bai edertasunian, ornitasunian, jakiturijan, aberaztasunian, indarketan eta abar; gizon afluak, daukon on apurtxua geituten dau; daukozan utzune, palta, eta akatzak ezalduten dauz; bizi da bere burua atzipetuaz; uzte dau zerbait badala, ez izanik ezerbe. ¡Ze itxumendi galgarija! bere adiña, bere naija, bere biotza eta izate guztija daukoz puztuta, andituta, urmindun gaijuaren antzera. ¡Oh ekandu gaizto eta galgarijak diran iru ekandu onek! ¿Aske edo libre ete gagoz euretatik? Aratu daiguzan apurtxo bat geure buruak eta ikusi, eta onetariko ekandu gaiztorik ezpadaukogu, emon ezkeñak Jaungoikuari euretatik gorde izan gaitualago; baño ekandu onek iratzi badira gure biotzetan, eta eurakaz ezaindurik bagagoz, edo euren mendian bagagoz, artu ber-bertatik neurijak azpiratuteko, edo egiñ Ebangelijoko gizon urmindun gaixoak egiñ ebana.

¿Zer egiñ eban gizon gaxo onek? Itxi ebazan ludiko osagile guztijak eta zeruko osagile on eta jakintsua bilatu eban, eta bere bidez osasuna bilatu eban. Guk be, bere antzera, bilatu daigun zeruko osagile maitekofa; altara ofetan daukagu Jesús, osagile jakintsu eta erukiofa, ainbat gaixo ludi onetan

osatu ebazana; ludi onetako osagiñeak gorputzeko gatxak bakafik osatuten dabez; Jesukristok bariz gorputzeko eta arimako gatx guztijak osatuten dauz; eta osatu osoro osoro. Sagrarijo ofetatik dirauzku guztijai: *venite ad me omnes*; erdu nigana gaixo zarien guztijok, nik osatuko zaitudaz. nire alta-suna ez da gitxitu, ez da laburtu, nire efukitasuna be ez, erdu ba nigana, ez nizan etofi osasundunak bilatutera, gaixoak bilatutera baño, eta batez be arimaz gaixo dirianak; damutu zeuen oben edo pekatuakaz, zaletu otoi eta Jaun artziagaz eta osatuko zare, gizon urmindua osatua zan lez, arimaz eta gorputzez.

¿Zer geijago egiñ eban gizon urminduak? Dana itxi, juan Jesusengana eta agertu bere auñan: *erat ante illum*; ez eban itzik edo barbarik atera, ez eban ezerbe eskatu, ixilik egon zan; baño bere biotzak itz egiñ eban, Jesusen al izatian ziñizmen bizi-bizija eukan, Jesusen efukitasunian uste oso-osua ipiñi eban, bere begiraune gozo bat itxaroten eban, eta beste baga jaretxi eban aiñ biziro opa eban osasuna. Ara emen zer egiñ biar dogun guk be: etofi Jesusengana, belaunbikotu bere auñan, berari adi-adi egon, baño itzal andijagaz, apaltasun andiATEGAZ, maitasun sutzuagaz eta Jesus efukituko da eta emongo deuzku gura doguna. ¡Ah kristiñauak! biotz bik alkañi begiratu-ten deutzenian, biotzez baño ezpabere alkañegaz itz egiten dabengan, sortu-ten da maitasuna, eta maitasunak eskatuten dabena eziñ izaten da ukatu; au da egija bat gizarteko maitasunetan be ikusten dana.

Guazen ba Jesusengana; agertu dejoguzan geure gaijotasun guztijak, arimakuak eta gorputzekuak, ziñizmen bizijagaz, uzte onagaz eta osatuko gauz, bere aintzarako eta gure arimen onerako, zein dan guztioi opa deutzudana.

Etorkunde osteko emezazpigaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Jesukristo gure Jaunak dirauzku goizpar onetan lenengo agindua eta nagusijena dala Jaungoikua maite izatia gauza guztijen gañetik; eta bigarrena,

lagun urkoa maitatutia geure burua lez; danok gara aita baten semiak eta berangaitik anaijak; baña ez dogu maitatuten lagun urkoa, Jaugoikuak gura daben lez, eta au da geijenian geure genijo edo izakera zitalagaitik. Genijua biar dan lez zuzenduten ezpada, pekatu askoren sustraja izaten da. Gatxa da genijua ezi edo aspiratutia, baña geure aldetiko arduraz eta Jaungoikuaren laguntazunagaz ezi eta ondu leitekiana da. Guazan ba berakaz berbatxu bi ezatera. Entzun gogo onez.

¿Zer da genijua? Ez da ezez itaune oni erantzutia; danok esaten dogu: urlijak genijo ona dauko, berendijak genijo zitala, eria, dauko; baña ez dogu beiñ be esaten zer dan genijua; alan guzti be asartuten naz esaten genijua dala jaijotzaz bakotzak dakargun izakeria, eta izakera au dezberdiña dalako, genijua be desberdiña izaten da. Izakera batzuk dira ilak, epelak, alan itz egiteko, nai traturako, nai artu emonetarako, nai egitza guztijetarako; onelakuak ez dira ezegaitik estututen, ez lafituten, ez arbinduten, ez mugitzen, zirikada bat biar izaten dabe biztuko badira; beste izakera batzuk oztera, bizijak, azkarak, kementsuak, izan oi dira, beinguan asmau, oldoztu edo pentzau, esan da egiten dabenak. Izakera batzuk dira bigunak, gozuak, menak; beste batzuk zitalak, eriak, batzuk alaijak, beste batzuk itunak, gogo ilekuak, Izakera onek guztijok ezagututia onera andikua da, ba ezagutuaz, dakigu batagaz eta bestiagaz zelan zuzenduko garian.

Izakera txarā daukona, ausokua bada eta alkartasun onian bizi gura bado-
gu, ez auferapide aundirik emon, ez lafegijan beragaz sartu; lagundu bai,
baña bakotxak bere tokija, lekua gordetan dabela. Izakera txarā daukona
etxekua bada eta batez be gurasoia, ez bere esanai erantxuera txarrik emon,
iritu ez dediñ, eta bere iritazunagaz pekatu astunetan jausi ez dediñ; safi
askotan eruapen apurtxu bat ez eukitiafen, sendija infernu biurtzen da. Erua-
penak dana goituten dau; karidadiak dana jasau edo sufriduten dau. Lenengo
gizaldijetako kristotarā maitasunik sutsuenian eta bakerik gozatzuenian bizi
ziran, eta ainbestian ze, Lukas Apostolu deunak esaten dau, danak biotz bat
eta arima bat eukela: *cor unum et anima unum*; eta ¿zegaitik?; izakera des-
bardiña eukiafen maitasunak dana bardinduten ebalako.

Baña gaur egunian bestera jasoten da maitasunagaz eta txera bigunagaz
eta isiltasunagaz; izakera gaiztoa amatau biarrian, zirikatuten da itz garatza-

kaz; ezaterako, emaztiak daki bere senafak genijo edo izakera bizija daukola, eta beinguan asafatuten bada eta itz bigunak esan bialian, itz zofotz eta garatzak ezaten dautzazala ¿nork ez daki, aldi onetan, bere senafa irituko dana? Otzeñak daki bere ugazabak genijo edo izakera bizija daukona, eta beingo baten suak artuten dabela eta apal erantzun bialian, bekoki astun eta ilunagaz erantzuten deutzola ¿nok ez daki era onetan bere ugazaba geijago eta geijago sutuko dana? Aizkide batek daki bere lagunai ez jakola atsegiñ izaten alako eta bestelako bariketak eta jolasak, eta alan guzti be, egunero eta orduero, beti zirika dabilela ¿nok ez daki aizkide au asafatuko dana eta benturaz biraoka asiko dana? ¿Nundik sortuten dira gizarteko ezda baidak? ¿nundik asafiak eta ikusi eziñak? geijenian izakera txar edo genijo gaiztotik. ¿Nundik sortuten dira senar-emazte askogan ikusten dirian agirika gogor, asafe eta konpondu eziñak? genijo dezberdiñetik; bijak eutsi gura deutze beriar; batak gogor, beztiak gogofago; bata zital, bestia zitalago; bata ilun, bestia ilunago; eta gero ¿zer jasoten da? ekatz egunetan jaso oi dana: odei baltz ilunak agertzen dirianian ezagun izaten da ekatz gogofen bat datořela, zabalduen dira odeijak, azten dira tximista ikusgarrijak, entzuten dira trumoe ots bildulgarrijak eta gero txingořada eta euri ondatzaliak; auxe berau jasoten da senar-emazte askoren genijo desberdin eta zitalagaz; lenengo, odoi baltz ilunak, au da, bekoki astun eta mosu ilunak; gero, tximistak, au da, zitalkeri garatzak; geruago trumoi ots bildulgarrijak, au da, berba astun, gogor eta garatzak, eta azkenez, txingořada eta euritza kaltetzuak, au da, negar samiñak, buřuka gaiztoak, ezkandaluak eta alkafengandik igez egitiak. Gauza bi, berez gogofak dirianian, alkar joten badabe, zarata andija ateraten dabe; baña bata gogořa izanařen bestia biguna bada, otsa, zaratia amatetan da (pónganse ejemplos). Beraz nora ezekua da izakerak, genijuak, esagututia, maitasun eta eruapen apurtxu bategaz alkar ondo eruan al izateko.

Baña ez da asko besten izakeria esagututia, norberia be ezagutu biar da, ezi eta aspiratuteko: danok daukagu berariko izakera edo genijua eta ez ona, txara baño, eta beran eziten aleginduten ezpagara, iraungo dau eriotzaragiño, obiragiño; ara zegaitik esaten daben erderazko esakunak: *genio y figura hasta la sepultura*; au da, izakeria obirañokua.

Eta ¿zelan ezi edo aspiratuko dogu, edo aldatu izakeria, genijua? Ilduratuaz, mortificadugaz. Tantai luziak eta zugatzak zuzenduten dira aiskoriagaz eta zeriagaz, okeřunak eta koskak kenduagaz; guk be ildura edo mortifika-

siñoeko aizkora eta zefiagaz landu biar doguz jaijotzatik dakarguzan griña eta okefune guztijak; onetarako eskatu Jaunari laguntasuna eta grazija eta beragaz indarduta, alegindu, dana landu, bigundu eta gozotuten; alantxe egiñ dabe zeruan dagozan deun gustijak, alantxe egiten dabe onoimenian auferatu gura daben arima on gustijak, alantxe egiñ biar dogu guk be.

Ibiñi ba zuzen eta artez Jaunaren bide santuetan; ezi eta aspiratu biotzeko okefuna guztijak; izan beti baketzuak, artu daizuen egunen baten Jaungoikuak baketzuai ezkiñiriko sarija: *beati pacifici quoniam filii Dei vocabuntur.*

Etorkunde osteko emezortzigaren igandea

(Irakufi edo esan goizpafa, eta jafaitu onan):

Jesukristo gure jaunak Ezkriba eta Fariseotar doñofai zirautzana deritzat gaur egunian, kristotar askori be ezan leikijuela: *ut quid cogitatis.....* zeuen biotz baruan ¿zegaitik aiñ dongaro oldoztu edo pentsetan dozue? Ekandu gaizto onek gizartian zabalera andija dauko. Ez dira gaiztuak bakarik dongaro oldoztuten dabenak, baitabe onak, elexa zaliak, safi autortu eta Jauna artzen dabenak eta euren buruak ontzat daukazenak. Pekatu au biotzaren baruan eta ixil-ixilik egiten dana da, eta esaten jako juzgu dongia edo, bardiñ dana, epaikunde dongia, Jatofizko pekatuak itxi euzkun txaferako makurtasun edo obentasun au, eta auxegaitik ezez-ezez artzen doguz okeferantz lagun urkoaren esan, asmo eta egintza guztijak. Gure begijak argi-argi daukoguz besten utzunak ikusteko, baña lausotuta edo ilunduta geure utzunak ikusteko. Guazan ba gai onetzaz zerbait ezatera. Entzun....

Gure adimenaren egintzak desbarbiñak dira; batzuetan zalantzak (dudak) beste batzuetan susmak (sospetxak), beste batzuetan epaijak; zalantza edo

dudia daukonak, ez dau ezerbe erabagiten, eta auxegaitik ez dau pekatu egiten; susma edo sospetxak daukozanak, geijago obenduten dau alde batera bestera baño, baño ez dau ezer erabagiten eta auxegaitik geijenian ez dau pekatu egiten, edo pekatua izango da ariña; juzgetan edo epaituten dabena, erabagiten dau bere eritxijan, baño eritxi au izan leike zuzena, bidezkoa, edo okeña eta bidegabekua. Gure epaijak (juzguak) bidezkuak, afazoezkuak badira, ez dogu pekatu egingo. Agiriko pekatarija dongaro juzgetia, epaitutia, ez da pekatu; esaterako, geuk ikusten badogu eta ziur badakigu arako gizona lapurra, ordija, loija, blasfemarija dala, eta agiri-agirijan dala, eziñ agaitik ezan giñai ez dala alan; karidadiak beartuten gaitu aren falta eta utzunak ez esatera eta beragaitik otoi egitera ondu dediñ, baño ez aua ontzat eukitera. Agiriko pekatarija ez izan aua, ziur badakigu urlijak gaiztakeri andiren bat egiñ dala; esaterako, eriotza bat, lapurra bat, ziñistu geinke alan dala, baño geure siñiztia ez dogu lafegijan aua eruan biar eta euki dongatzat oituraz, okerkerija bat bein bakarrik egiñ dala; esaterako, bein birao bat ezan dabelako, ezin giñai esan biraotija dala; bein lapurra bat egin dabelako, eziñ giñai esan lapurra dala; nezkatiā batek argaltasun bat izan dabelako, eziñ giñai esan eta juzgau nezkatiā au bizitza gaiztokoa dala. Fariseotarak, dongaro juzgau edo epaitu eben Maria Magdalena, Jesusen oñetan auspastuta negauez ikusi ebenian, baño ordu atan, aldi atan, M.^a Magdalena ez zan pekatarija, ezpada penitenta andija eta arima justua. Judeguak dongaro juzgau eta epaitu eben Juan Batiatziā, eta ¿nok ezdaki Juan Batiatziā izan zala deuna jaijotzaz, deuna eta penitente andija bizitzan eta deuna eriotzan bertan? Jesukristo gure Jaunagaitik ¿zelako oldozkun edo pentzamentu gaizto egiñ ez ebazan Escriba eta Fariseo dolor ta ondasuntsuak?

Kristiñauen artian be, asko dagoz ikusi, entzun eta esaten dan guztija dongaro artzen dabena eta dongaruago juzgau edo epaituten dabena; esaterako, ikusten dabe urlija txiroai limosnia emoten eta bestebaga esaten dabe banerijaz egiten dabela; ezagututen dabe berendija begiratua dala bere eukijan, eta diñue zekena dala; alako edo beztelako nezkatiā, elexa zalia dana, sañi autortu eta Jauna artzen dabela, eta esaten dabe izun edo hipokrita, paltzua dala. Aiñ ezez gauza guztiak juzgau edo epaituten dabezanak bai diriala dongak eta kristiñau txarak.

Beste batzuk osteria izakeratik bakarrik juzgau edo epaituten dabe dan dana: esaterako, begi goñjak daukazalako, edalia dala, ordija dala; begi ur-

diñak badaukoz, guzurtija dala; bigun-bigun itz egiten badau, miñ labanekua dala. ¿Nok ez daki juzgo donga edo epaitute onek pekatu diriana? Jesukristok argiro dirauzku ebangelijo santuan, ez daigula iñor juzgau edo epaitu arpegikeratik: *nolite judicari per faciem*; bada beti edo geijenian utzegite andijak egiñgo doguz eta pekatu andijetan jausiko gara.

Juzgo donga edo epaitute dongiak karidadia eta justizijako birtutia austen dauz. Karidadiak agintzen deuzku maitetu daigula lagun urkoa geure burua lez eta izan deijogula begiramentu ona, geure buruari opa deutzagun lez; justizijako birtutiak bafiz agintzen deuzku ez daijogula iñori be kalterik egiñ, ez bere onran, ez bere izen onian, eta ez daigula iñor gaiztotzat euki bidebagekeriz: *nemo existimandus malus nisi probetur*; geuretzat nai ez dogunik ez deutzagu iñori opa izan biar. Ez daigun ba aiñ eñez iñor juzgau edo epaitu. Jaungoikua da gure Epailari bakafá, eta Epailari zuzena, arteza, gauza guztijak ondo baño obeto ezagututen dauzana, eta egiz eta artez epaituko gabezana.

Geijenian, ez esatiafen beti, geure gaiztotasunetik eta lagun urkoari deutzagun ondamu, ikusi-eziñ, da goñototik. Egiz ona eta zuzena danak, beti ondo eta zuzen pentsau eta epaituten dau; okefa eta gaiztua danak bafiz beti oker eta gaizto pentsau eta epaituten dau. Maitasun egijazkua daukanak, maitasunez pentsau eta epaituko dau; baña goñotua daukonak eziñ gauza onik ikusi lei goñoto deutzanagan deunik andijena izanda be.

Jaungoikuaren begijetan onak eta zuzenak izan gura badogu, garbitu daiguzan lenengo geure biotzak, ezi eta azpiratu daiguzan griña txar eta oitura gaiztuak, eta amatau goñotuak, eta onan obenduko gara beti ondo pentzau eta ondo epaitu edo juzgetara: biotz onaren ezaugafija da gauza guztiak alde onera ezartia eta ondo eta zuzen juzgau edo epaitutia. Eskatu deijogun Jesukristo gure Jaunari eskar edo grazija beti bigun, beti ondo eta beti zuzen juzgau edo epaituteko zaletasuna, eta apaltasunez eskatuten badeutzagu emongo deuzku bere aintzarako eta geure arimen salbaziñoerako.

Etorkunde osteko emeretzigarren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Elexako erakusle jakitunen eritxijan goizpar onek aitatuten daben eztegua Eukaristia deunaren irudija da. Jesukristo gure Jaunak gertau eban bazkari eder eta goxo au bere Elexa Deunian; ber-bera da bazkari onetara giza-
seme guztiai, au da Kristotar guztijai, deituten deutzona Sagrarijo ofetatik esanaz: *venite, et comedite panem meum*: erdu, eta jan egizue nire gorputz eta odola, baña gura dau eldu gaizan arima garbijagaz eta gertaera onagaz; auxegaitik, Sakramentu au egiñ eta Apostoluai emotian, oñak garbitu eutzezan adierazoteko zeñ garbi eldu biar eben Jauna artutera. Itz batzuk esan daiguzan, ba, gai onetzaz. Entzun.....

Bitarikuak dira Jauna artzera doazanak eruan biar dauzan gertaerak: batzuk gorputzaren aldetik, bestiak gogo edo arimiaren aldetik. Gorputzaren aldetik, egon biar da barurik, au da ezer jan eta edan barik gabeko amabijetatik aufera, Jauna artu arte. Zerbait jan edo edaten bada austen da baraua, eta eziñ Jauna artu leike; baña baraua ez da austen agiñ artian geratuten dan apufen bat iruntzi afen edo arpegija garbitutian ur apurtxu bat norberak nai ez-dabela iruntzitiafen, edo txistu apurtxu bat iruntzitiafen: onek uskerijak dira eta ez jake jaramonik egiñ biar.

Barau au ez dau Jesukristo gure Jaunak aginduten, ba guztijok dakizue apal-ostian Apostoluak Jauna artu ebela; barau au aginduten dau Elexa Ama Deunak, Jesukristoren gorputz deunari zor jakon itzalagaitik, eta berangaitik baraurik egon bage Jauna artzen dabenak, obena, pekatua egiten dau, Elexa Ama Deunaren agindua austen dabelako. Onezaz gañera, Jauna artutera doyanak eruan biar dauz esku ta arpegija garbirik, soña biar besteko jantzi txukun ta apainduta, erakusten dabela begijetan, oinkadetan eta izate guztijan modutasun eta apaltasun berarizkoa. Au asijera onak eskatuten dabena da, ba andiki, aberats, nai osterantzeko baten aufera guazanian, garbi, txukun da apaltasun eta moduzkotasun andiz agertu biar bada, ¿zenbat zijo edo

efazo geijagogaz Jesukristo gure Jaunagana, izanik berau andiki guztijen andikija? Berangaitik, dongaro egiten dabe arako neskatila jantzirik onenakaz eta bitxidunakaz dantzara doazanak eta Jauna artzera edozelako jantzi zirtziñakaz duazanak; dongaro egiten dabe sare mordo eta ofaztu bagako griñakaz, papar zabal, beso agiri, gona motzakaz uferatuten dirianak; eta bardiñ esan leike ofako gizon eta mutil jantzi baldar eta zikiñakaz datozenak-gaitik.

Jauna artutera doazanak, arimiaren aldetik ardurarik andijena ipiñibiar dabe. Jesukristo gure Jaunak lenengo eskatuten deuzkuna da arimako garbitasuna, au da, oben astunik ez eukitia. Oben astunian dagoanak derigoñianautorkuntza zintzo eta damuzkuaren bidez jafi biar dau grazijan, Jaunaren adiskidetasunian; eta ez da asko Neure Jesukristo geure Jauna esatia, edo damudot esatia. Begira ezpabere zer diñuan Pablo Apostolu Deunak: *probet autem seipsum homo, antequam de pane illo edat aut de calice bibat*: Jauna artubaño lenago begiratu begi gizonak bere arimia garbi dagan edo ez, ba asartuten bada obenagaz Jauna artuten, iruntziko dau bere galdumendija: *qui enim manducat et bibit indigne, judicium manducat et vivit*. Onezaz gañera, Jauna artutera doyanak alegiñdu biar dau pekatu edo oben txiki edo ariñ guztijetatik garbituteko, ez oben txikijak galaerazoten dabelako Jauna artzia, baña bai onera eta mesede andijaguak jarizteko. Oben txikijen parkamena jaretxi geinke, bai autorkuntzaren bidez, eta baita be dotriñako ikasbideak diñoazan bederatzi gauzen bidez.

Jauna artzera doyanak uferatu biar dau baita be ziñismen biziz, apaltasun andiz, eta uste edo konfijantza osoz. Eta ¿zetan dago ziñismena? Dago ziñistutian Jesukristo gure Jauna daguala ostijan eta bere zatirik txikijenian egiz eta benetan, zervan dagan lez, eta bertan daguala bere gorputza, odola, arimia eta Jaungoikotasuna, eta ziñiste onegaz gurtu Jaun altsua Ebangelijoko itxuak lez, esanaz: *Credo, Domine*: ziñistuten dot, Jauna, Elexa Ama Deunak onetzaz irakasten deuztan guztija, eta zeu zariana Sakramentu au gure maitasunez eta gure janari eta edaritzat egiñ dozuna eta bertan egiz eta benetan zagozana. ¿Zetan dago apaltasuna? Gogoratutian artzera guazan Jauna dala Jaungoiko altsua, zeru-lufen egilea eta jaubia, zeruak eurak laburdatorkiozana, gotzonak aspertu barik goralduten dabena abestuez *Sanctus, Sanctus, Sanctus*, eta gu ez gariala duiñ geure biotzetan artuteko; gauza onek gogoratuaz urtengo deuzku bafu-barutik arako Kafarnaungo eñegetxuak ziñuana: *Domine non sum.....*

Azkenez, Jauna artzera uferatu biar dogu uste edo konfijantza oso-osua-gaz. Bera da gure askatzaia, aitarik maite eta bigunena: berak esaten deuzku juan gaitiala beragana: *venite ad me*; auxegaitik uferatu beragana esanaz: emen nator, Jauna, deitu deuztazulako eta maite nozulako: garbitu nagizu neure orban guztijetatik, osatu neure arimako gajotasunetatik, aberastu nagizu zeure eskar edo grazijakaz eta oroitu oroimenakaz, zure duiñ izan naitian. ¡Kristiñauak!, Jauna artzera onako gertaeria eruango bagendu, ¡ze onera eta mesede andijak aterako gendukezan!, ¡ze Jaun zaletasun andija gure biotzetan sortuko litzateken!

Gaur egunian askok egunero Jauna artzen dabe, beste askok astero eta ilero, baña ¿ze aldakuntza ikusten da euren bizieran?, ¿ze auferakada onoi-menian eta santutasunian? Ezerbe ez, biar dan gertaerarik eruaten ez dalako: batzuk datoz Jauna artzera oikeraz (por rutina), beste batzuk urlija abadiak esan deuzelako, onek gazteen artian modia dalako, arek ikusijak izan ditezan ta abar: gitxi bizi-modua ondutiafen, pekatu ariñak gitxitutiafen, Jaun zaletasunian auferatutiafen. Afokeri eta banerija zalia, murmuradore miñ zofotzduna, dantza zikiñ zalia, izakera edo genijo gaizto ta pifiduna, nun ze bafi dan etxerik etxe, guzur da egi, naste-bofaste guztijak zabaltzen dauzana: Jauna artzen beti, baña beti bardiñ. ¡Kristiñaua!, edo Jauna rtze gitxiago, edo gogo eta asmo obiagaz artu. Eskatu deijogun, ba, Jesukristo gure Jaunari, argitu gaizala geure oraiñ arteko eñakuntzak ezagutu eta osoz uzteko, aufe-runtzian Jauna artze guztijak izan ditezan Jesukristoren gogokuak, onak eta onera andikuak; eta grazija au eskatuten badeutzagu ziñismen biziz eta apal-tasun andiz, emongo deuzku bere aintzarako eta geure arimen onerako, zeñ dan guztioi opa deutzuedana.

Etorkunde osteko ogeigaren igandea

(Irakufi edo esan goizpará, eta jafaitu onan):

Ikasbide eder eta onurakoñak sarátuten dauz gaurko goizparák. Ikusi dai-gun euretariko batzuk. Jesukristo gure Jaunak Judeatik urten eta Galileako

lur aldera zuzendu zanian lenengo egiñ eban mirarija Goizpafak gogoratuten deuzkun mirarija izan zan. Mirari onegaz autortu gura eban bera zala Jaungoikuaren semia eta etofela ludi onetara gizonen biotzetan ziñismena biztutera. Mirari au egiñ eban Kafarnaungo jauntxo andi, aberats eta Galilea guztijan ezaguna zanaren alde. Jauntxo onek entzun ebanian Jesukristo Kanango efitxuan aurkituten zala, juan zan beragana, eta bere aurian belaunbikoturik eskatu eutzon aŕen etofi zediña Kafarnaunera il-agiñian eguan bere semetxoa osatutera. Aita atsekabetu onek uste izan eban bere semiaren gaijotasuna zoritxar andi bat zala bere etxerako: ez ekijan, eta ez jakon otuten, ludi onetan igaroten doguzan atsekabe, ez-biar eta zoritxafak Jaungoikuaren eskutik datozala, eta geijenian geure onerako laketuten dauzala. Ezpada esan egidazue, ¿zek eruan eban gizon au Jesukristogana? Bere semiaren gaijotasunak; eta gaijotasun onek sortu eutzon atsekabe andiak: semiaren gaijotasuna zoritxar andi bat zan beretzako, eta alan guzti be zoritxar auxe izan zan berari eta bere sendijari mesederik andijenak ekari eutzazana, ba ezagutu eban Jesukristo, lortu eban bere semiaren osasuna, eta onezaz gañera bere salbaziñoia; bere semia gaijotu ezpalitz ezan estutuko, ez zan lafituko, ez eban Jesukristo ezagutuko, eta ez eban bere semiaren osasunik lortuko. Zoritxafak, askotan dira Jesukristok artzen dauzan bidiak guri mesediak egiteko. Guraso on eta arduratsu bat il eta iru edo lau umezurtz itxiten dauzanean, danok eŕukituten gara sendi aregaz, uste izaten dogu alargun txiro eta eŕukigarriak umezurtzak eziñ janaritu izango dauzala, eziñ gizon atera izango dauzala, baña Jesukristok bide asko daukoz eta eriotziak egiñ dauzan okefunak bere jakiturija azken bakuak zuzenduten dauz, eta beiñ baño geijagotan ikusi izan da umezurtz bat urlijak jaso dabela, bestia otsegintzan ipiñi dabela, bestia ostera ikastolan sartu ta gizon andi izatera eldu dala. Onantxe daki Jaungoikuak zoritxafak geure onerako biurtuten.

Ludi onetako aukerak, aberastasunak eta atsegiñak gizona geijenian Jaungoikuagandik alderatuten dabe; baña atsekabiak, zoritxafak eta ez-biafak Jaungoikuagana uferatuten dabe. Gizona aukera guztijan bizi danian ez da Jaungoikuagaz, ez arimiagaz, ez zeruagaz gomutetan, eta aiñ gitxi bere pekatuakaz; baña zoritxafak jo eta inguratuten dabenian, atsekabez bere biotza ilunduta daukonian, konturatuten da eta ezagututen dau ludi onetako gauza guztijak uskerijak eta banerija utzak diriala, guzufezkua dala berak eskintzen dauan zoriona, eta orduan biurtuten da Jaungoikuagana. Alan jaso zan goizpafak gogoratuten deuzkun seme ondatzaliagaz eta beste aren antzeko asko-

gaz be. Seme ondatzaliak bere tokamena artu eta aitagandik ufindu zanian uste eban zoriontsu zala; emon zan jan-edan, jolas gaizto eta nasaikerija guztietara; txindijak diranan artian aiskidiak be eulijak eztijagana lez uferatuten jakozan; baña txindija amaitu, aiskidiak ufindu eta gosiak eta zoritxarak inguratu ebenian eta bere burua deslai ikusi ebanian konturatu zan, eta tamalez beterik esan eban: *ñire aitaren etxian ainbat otseñek zer jan eta zer edan ugari dauke; ni bañiz gosiak ilten nago!* Ezagutu eban dongaro egiñ ebala aitagandik ufindutia, eta era beratan damaturik aitagana biurtutia erabagi eban: *surgam et ibo ad patrem meum*. Zoritxara izan zan aldi onetan be seme ondatzaliari zoriona ekafi eutzona. Suak ufe gorijagaz, limiak burdiñiagaz eta zepiluak egufagaz egiten dabena, naigabiak eta zoritxarak gizonakaz egiten dabe. (*Explíquese esto si se quiere*). Atsegiñak, gozotasunak, aberastasunak eta pekatuak gizona itxututen dabe; atsekabiak eta zoritxarak bañiz argituten dabe: *oculos quos culpa claudit, pena aperit*, diño Gregorio Deunak.

Antioko bakaldunak aginpidian, andikerijetan, gozotasunian eta gaiztake-rijetan bizitzia eroyanian, ez zan ezegaz be gogoratuten, ez Jaungoikuagaz, ez arimiagaz, ez infernuagaz; baña gaijotasunak eldu eutzonian, ilteko ariskuan ikusi zanian... orduan bildura, estutasuna, lafitasuna: orduan tamalez beterik didar egitia: *Nunc reminiscor malorum quæ feci in Jerusalem*. ¡Zenbat gizon donga eta buru-bakori, zenbat gazte zoroai jasoten jake auxe ber-berau! Osasunian dana ikusten dabe argi, zuri, eder eta goxo, baña il-agiñian dana ilun, baltz eta bildurgafi.

Artu, ba, Jaungoikuaren eskutik etofijak lez, nozian beiñ izaten doguzan kurutzia, ez-biarak eta zoritxarak, eta jasau eruapen andijagaz; ez Jaungoikuagaitik dongaro esaka ibili, askok egiten daben lez, ezpada jafaitu Job deunaren onbidiari, zeñek ondasun eta aberastasun guztijak galdu ebazanian, bere seme-alabak il jakozanian eta bere burua gaijotasun ikaragari bategaz korta baztarian eta te la zati bategaz bere zakaarak kenduten ebazanian ziñuana: *Dominus dedit, Dominus abstulit, sit nomem Domini benedictum*. (Dígase en vasko). Alantxe egiñ dabe gaur donokijan dagozan deunak euren zoritxar aldijetan, eta alantxe egiten dabe gaur be arima onak eta Jaungoikuaren maitale andijak. Goraldu eta onetsi daigun gure Jaungoikuaren jakinduri azken bagia, zeñek zigortuten bagaitu, izaten da gu osatzeko, gure onerako; ipiñi beragan uste edo konfijantza oso osua, eta ziñismen biziz eta uste osoz geure estu aldijetan beragana elduten bagara emongo deuzku geure onerako izango dana, zeñ guztioi opa deutzuedan.

Etorkunde osteko ogeitabatgaren igandea

(Irakurri edo esan goizpasa, eta jaraitu onan):

Jesukristo gure Jaunak ainbat bidar esan deuzku biotz zabal eta efukio-
rak izan gaitiala, eta lagun urkoak egiñdako irañak aintzakotzat be artu ez
daiguzala, eta parkatu deijoguzala: geuk neurtuten dogun neufiz neurtuak
izango gariala. Baña gizonak atxekija asko ipinten dabez agindu au beteta-
ko: batzuek esaten dabe, Jauna, neure onria ta izen ona lurpetu deuztanari
eziñ parkatu neikio; bestiak diñue: Jauna, nere ogasunak ostu eta kalte andi-
jak neure eukijan egiñ deuztanari eziñ parkatu neikio; urlijak esango dau,
Jauna, neure sendija janarituteko neukan irabazpidia guzurfakaz eta dongaro
esanakaz galdu deuztanari eziñ ezelan be parkatu neikio... eta onan beste
askok esango dabez gauza asko. Baña danoi esango deutzet biar-biafekua
eta nora ezekua dala irañak parkatutia. 1.º Jesukristo gure Jaunak aginduten
deuzkulako; 2.º Jesukristok bere egiñagaz erakusten deuzkuleko; eta 3.º geuk
parkatuten ezpadogu Jesukristok be geure pekatu eta irañak parkatuko ez
deuzkuzalako. Ikusi daiguzan banan-banan iru zijo onek.

1) Jesukristo gure Jaunak ondo ekijan gofotuak, ikusi-eziñak eta ben-
gantza gaiztuak zelako kalte andijak ludi onetan egiten ebazan. Diefirik
indartsuenak eta efregetasunak eurak birindu dabez; uririk eder eta abe-
ratsenak galdu dabez; sendi edo familietan neba-afeba eta aiskiden artian
asariak sortu eta ereiñ dabez... eta gatx onei guztijoi osakija ipiñi nairik, agin-
du dau, aginpidia daukolako eta agindu leikialako, alkar maitetu daigula, mai-
tasuna dalako osageirik onena gatx onek guztijok osatuteko. Auxegaitik esan
eban: *Hoc est preceptum meum.....* auxe da nire agindua, nik gordetia gura
neukiana: alkar maitatu dagizuela nik maitatu izan zaitudan lez; geijago
oraindiño: gura dot, diño Jesukristok, nire jaraitzalien ezaugarija alkarfen
maitasuna izan dediña: adiskidiak maitatutia efaza da, danak egiten dabena
da, baña arerijuak, etsaijak maitatutia Kristotafai bakarrik dagokijona da:
amicos diligere, omnium est, inimicos solum christianorum. Onako agindu
eder, bigun, goxo eta onurakoñik ez da iñoz entzun: ez Efomako, ez Atenas-

ko ikastoletan, ez da iñoz entzun. Onako tokijetan diadar auxe entzuten zant maitatu egizu adiskidea eta gofotau arerijua. Jesukristo gure Jauna izan zan lege donga au, ezakun gaizto au aldatu ebana esanaz: *Ego autem dico vobis, diligite inimicos vestros, benefacite iis qui oderunt vos, et orate pro persecutibus et calumniantibus vos.* (Dígase en vasco). ¡Ze lege bigun, goxo eta onurakoña! Bera gordetian dago gure zoriontasuna lufian, eta baita be zeruan. Beraz Jesukristok aginduten dabelako beartuta gagoz iraiñak lagun urkoari parkatutera.

2) Jesukristok egiñagaz (ejenpluagaz) erakusten deuzku parkatuten. Bere bizitza guztija igaro eban mesediak egiten, argiro dirauzkunez idazki deunak: *pertransiit benefaciendo*: janaritu ebazan gosetijak, osatu gaixuak, sendatu efenak, argitu itxuak, poztu atsekabetsuak eta parkatu pekatu eta iraiñ guztijak... Eta mesede onen ordaintzat ¿ze artu eban? Izekak, destañak, gofotuak eta ikusi-eziñak. Eskriba eta Fariseo doñoñak iraiñdu eben ainbat bidar dongakerijarik baltzenak esanaz edalía zala, erijak naspilduten ebilela, pekatarijakaz batzen zala, demoniñuagaz bat egiñik egoala; eta iraiñ onek eruapenik andijenagaz eruan ebazan; eskubidia, al-izatia eta indafa eukon, gura izan baleu donga onek birñindu ta ilteko... baña ez, bere biotz andi ta maitaliak danai parkatu eutzon. Kurutzian josita, oñazerik andijenetan il agiñian eguala be itz bigun, goxo eta estitzu onek bere aotik urten ziran: *Pater dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt.* (Dígase en vasco). Eta ¿zegaitik onan egiñ eban? Guri erakustiafen bere antzera parkatu biar dogula.

Jesukristoren ikaskizun oneri jaraituaz, deunak be beste onenbeste egiñ daroe. Esteban Deunak, Paulo Deunak, Juan Gualberto Deunak, euren arerijuai eta iltzalíai biotz-biotzetik parkatu eutzen. Beraz gu be Jesukristoren eta deunen antzera bearturik gagoz arerijuai parkatutera.

3) Azkenez, lagun urkoai eta arerijuai parkatuten ezpadeutzagu, Jesukristo gure Jaunak be ez deuzkuz geure iraiñ eta pekatuak parkatuko. Argiro dirauzku berak: guk neurtzen dogun neufiz neurtuak izango gariala; efukioñak efukija aurkituko dabela; baña gofototsuak eta biotz gogofekuak gogortasuna aurkituko dabela. Beraz ez dabe balioko, ez atxakijak, ez negafak: parkatuten ez dabenak ez dabe parkaziñoerik jaretxiko; onelakuari esango deutze Jesukristok epaikunde egunian: *Serve nequam, omne debitum dimisi tibi.* Otsein dongia, bizitzan egiñ deutzazuzan iraiñ guztijak parkatu deutzudaz, eta ez beiñ, miña bidar baño, ¿zergaitik, ba, nire antzera, parkatu ez deutzazuz zeure lagun urkoari?: *¿nonne ergo oportuit et te misereri conseroi*

tui? Beraz alpeñik damutu, alpeñik negar egiñ, alpeñik nekerik miñenak artu, gofotua biotzian daguan artian Jaungoikuak ez deuzku parkatuko.

Ea ba, eliztar biotzekoak, Jesukristoren eta Deunen onbide edefari jafaituaz, parkatu lagun urkoagandik artu dozuezan iraiñ guztijak; parkatu biotzbiotzez, parkatu oso-osuan gofotuaren tanto bat, izpitxu bat biotzian gorde bage; aztu betiko iraiñ guztijak, Jesukristok donetzi zagiezan emen lufian, eta gero an goijan efukioñai eskiñiriko sarija artu daizuen, zeñ danoi biotzetik opa deutzuedan.

Etorkunde osteko ogetabigaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Gauza bi erakusten deuzkuz Jesukristok goizparki onetan. Lenengua, izunkeri edo hipokresija gofotogañija dala, eta bigañena bakotxari beria emon biar jakola. Fariseotañak, eta baita be Erodestañak, bekaizkeriz (enbidijaz) beterik egozan. Jesukristo gure Jauna eziñ ikusi eben, gofoto eutzen: bere irakatzi zerukotañak, bere onbide edeñak eta bere alatz edo mirari afigañijak eziñ iruntzi ebezan; Jesukristo galtzeko asmoz ebiltzazan, guzufak eta nas-kagañi guztijak zabaldu ebezan, baña alpeñik; orduan erabagi eben maltzurkeriz beteriko, itaunia egitia, ustez añapauko ebela, eta zalaturik Erodesi, onek espetxian ipiñiko ebala. Labankeriz uferatu jakozan Jesusi eta itandu eutzoen: Irakaslia (majua), badakigu egi zalia zariana eta Jaungoikuaganako bidea egiz irakasten dozula, eta egiz irakatzi eta autortuteko iñoren ardura eta lotsarik ez dozula, gizonen esamezak edo zemayak ez dautzuela atzera egiten; itz onetan ikusten da euren izunkeri gofotogañija, ba aoaz ziñuena biotzez ez eben ziñistuten. Izun guztijak auxe ber-berau esaten dabe: aoagaz gauza bat esan, eta biotzian beste gauza bat gorde, atzipetuteko asmoz. ¡Zenbat onako izun ez dago gizartian!, ¡zenbat onako fariseo ez dago lagun artian! Baña fariseotar arek Jesusek lotsatuta itxi ebazan lez, gizarteko fariseo eta izun guztijak be lotsatuta geratuko dira egunen baten.

Fariseotar zital arek zirautzen Jesusi: Irakaslia, ¿zer deritzazu, Kaisari (Efegiari) zerga edo petxua emon leikio? Itaune au maltzurkeriz ipiñia zan; ederto jafita egoan. Erodes zan, aldi artan, Kaiser-aren ordezkarija, atzeñita-fa zan berau, eta Judeatañentzat, batez be Galileatañentzat, goñotagañija zan gizon onen buztaripean egon beaia. Zerga ematea zilegi etzala esaten ba-eban, an ziran Erodestañak, zalatuko eben, eta Erodesek espetxian sartuko eban; zerga emotea zilegi zala esaten ba-eban bañiz, Judeatañak bizirik iruntziko eben; erantzuna gatxa zan. Baña ¿zer balio dabe gizonen asmakizun guztiak Jaungoikuarentzako? Jaungoikua eziñ atzipetu: Jaungoikuak biotz bañenak ikusten dauz, eta mutikoak jaboï uragaz egiten dabezan globo edo puz pilaok beiñgoan ezereztuten dirian lez, alantxe desegiñgo dauz euren maltzurkeri guztijak. Jesusek dirautze: ¿Zergaitik zatoze zirika azal-utsok? Zerga txanpon bat erakutzi egidazue. Erakutzi eutzen txanpona, eta arturik eskuetan, dirautze: ¿Noren irudija eta idazkuna da ori? Kaiser'ena, erantzun eutzoen. Orduan, dirautze Jesusek, emoyozue Kaisañena Kaisañai, eta Jaungoikuari Jaungoikuarena. Au entzunaz, lotsatuta geratu ziran fariseo zital arek eta alde ziran Jesusegandik.

Izun edo hipokrita guztijak dira goñotogañijak, zatofen antzera azpi-jantzaliak dirialako. Izunakaz ez dago iñor baketsu, ez etxian, ex txaidian, ez gizartian, ez iñunbe. Izunak beti itz egiten dabe bigun, gozoro, labankeriz, auxe dalako euren bide bakaia lagun urkoa atzipetuteko; baña gordetan dabe bañuan, biotzian daroien beneno edo pozoia al-dabenian ezarteko. Judas saltzaliaren antzekuak dira, eta arek lez, mosu paltso bategaz saltzen dabez eurakaz artu-emonak daukezan lagun urko guztijak.

Jesukristo gure Jaunak ondo ezagututen ebazalako, zematuten ebazan itzik gogofenakaz. ¡Zuen efukañijak Eskriba eta Fariseo azal-utsak, edontzija azaletik garbituta bañutik añapakari eta zikinkeriz beterik zagozalako! ¡Sugeak eta ziraunkumeak zare! Bai, eliztar biotzekoak, iges beti izun edo hipokritakgandik; ez euki eurakaz ezetariko artu-emonik baketsu bizi gura badozue, ba Jaungoikuak eta gizon zintzo guztijak goñotetan dabe izunkerija.

Bigafen ikasbidia da bakotxari beria emotia, eta auxe da Jaungoikuaren legia be: Jaungoikuari, Jaungoikuari dagokiona, au da, gur edo adoraziñoia, maitasuna, otsegintasuna, itzala; agintarijai, agintarijai dagokiona, au da, itzala, eta bere agindu eta lege zuzenai obentasuna; arimiari, berari dagokiona; gorputzari, berari dagokiona, janarija, jantzija ta abar; gurasuai eta seme-alabai, eurai dagokiona; jai egunai, jai egunai dagokiona, zelan dan

meza osua entzutia eta premiña bage bialik ez egitia; astegunari, berari dagokiona, lana, biala, eta beragaz etxerako biar dana; atsedenari eta jolasari, eurai jagokozana. Neufi au erabiliko bagendu, arau onegaz geure biar-izan guztijak zuzenduko bagendu, ¡ze baketsu biziko geintekezan!, ¡ze egun eta urte bete-betiak eukiko gendukezan!, ¡ze irabazi andijak zerurako eukiko gendukezan! Negafezko ludi au zero biurtuko litzateke.

Baña, zoritxafez, bakotxari beria ez deutzagu emoten, ezpada, esan egidazue, ¿nor da, zuen artian, oetik jaikieran Jaungoikuagaz gogoratu, bera gurtu eta berari eskeñak emoten deutzozana gau ona igaro dabelako?, ¿nor da Jaungoikuari jaikieran eskaña eskatuten deutzona eguna eta eguneko arazu guztiak ondo, zuzen eta bere aintzarako egiteko? ¡Zenbat kristiñau, zenbat katoliko ez dagoz, ez goizian jaikieran, ez egun bañuan, ez afatsalde eta gabian be ziñatu be egiten ez dirianak eta Aita-gure bat otoi egiten ez dabena! Eta au Jaungoikuagaz egiten badabe, ¿zer egiñgo dabe bere arimatxueguz? Tautik be ez. Bizi dira arimarik ezpaleukie lez, beste bizitzarik ezpalego lez, eriotziagaz dana amaituko balitz lez. ¡Kristiñauak, iratzartu gaitian; ez gaitian eroak izan! Jaungoiko bat dago, eta bera zuzen-zuzena, iñok atzipetuko ez dabena; arima bat daukagu, eta bera iñezkoña; bizitza bat bakaña daukagu eta bera labuña eta miserijaz eta naigabez betia, eriotza bat baño ez dago, eta bertan utz egiten badogu edo txarto urteten badogu, betiko galdu izango gara.

Gogoratu, ba, egi bildurgañi onek, emon bakotxari beria, zuzen jokatu gauza guztijetan, eta egunen baten sarituko gaitu zuzen-zuzena dan Jaungoikuak, zeñ danoi biotzetik opa deutzuedan.

Etorkunde osteko ogetairugaren igandea

(Irakufi edo esan goizpafa, eta jañaitu onan):

Kafarnaungo andikija ¿zergaitik uste dozue juan zala Jesukristogana? Gaijotasuna eta eriotzia etxian ikusi ebazalako. Jaungoikua askotan balijetan

da ez-biafakaz, gaijotasunakaz eta eriotziagaz pekatarijak bereganduteko; safi askotan gorputzeko gatxak arimiaren onerakuak dira. Kristotar askogaz jasoten da mutil gudalarijakaz kuartelian jaso oi-dana: kuartelian mutilak ibiltzen dira zarataka, abestuten, jolastuten eta safi gaiztakeri jak egiten; baña korneta soñua entzuten dabengan beiñguan ixilduten dira, eta bakotxa bere tokira edo zeregiñera jua n oi-da. Era beratan Kristotar asko be bizi dira, erokorijetan, jolasetan, atsegiñetan, arimiagaz eta zeruagaz aztuta; baña Jaungoikuak nozian beiñ jotzen dau korneta soñua, au da, bialtzen dau gatx ilgarija, oñazea edo naigabe andiren bat, eta orduan ikaria eta ilteko bildura eta arimako arazuakaz gomutatia. Eriotzako orduan ludi onetako gauza guztijak beste modu baten ikusten dira. Eriotziaren gomutia osasungarija da; eriotziagaz safi gomutetan dana ez da pekatuan jausiko, ez da betiko galduko.

Eriotzia bildurgarija da: baimenik eskatu bage etxe guztijetan eta sendi guztijetan sartzen dalako; eriotziak ez dau inor aintzakotzat artzen: gaztia, nai zafa, aberatsa, nai txiroa, bere atzamar artian ařapetan dauz: gaurko neskatilia gaztia zan, guraso aberatsen alaba bakařa zan, gurasuak kutun eben, bere gaijotasuna sendatzeko alak-al egiñ ebezan danak alpeřik: eriotziak ez eutzon jaramonik egiñ, bere ordua eldu jakon, eta izar! ebagi eban bizitzia. Jesukristo gure Jauna eldu ezpalitz ez eben guraso maitekor arek ludi onetan bere alabatxoa beřiro bizirik ikusiko. Eriotzia garatza eta gozoa da: garatza bizitza onetan Jaungoikuagaz eta bere arimiagaz aztuta bizi dirianentzat, bafiz gozoa da emengo ondasunak erabili bai baña biotzik ezarten ez dautzenentzat, biotza ta gogua an goijan egundo agortuko ez diran atsegiñetan dabenenentzat. Eriotzako utz egitiak ez dira ezegaz be osotuten; auxegaitik bizi biar dogu beti itzartuta eta beti gertu: onetarako eruan bizitza ona eta Kristotar bati dagokion antzekoa. Jesukristo gure Jauna da bizitziaren eta eriotziaren jabe bakařa. Ni naz, esan eutzon Marta Deunari, bizitzia eta bizituera: *Ego sum resurrectio et vita*; nigan ziñistuten dabena, il ařen, berbiztuko da: *qui credit in me.....* ondo ilten dana ez da betiko ilten, ba jaijoten da bizitza bafira, eriotzarik ez dagan bizitzara. Emendik ezagutu giñai gure betiko zoriona edo zoritxafa ez daguala goiz edo berandu iltian, gaztetasunian edo zartzaruan iltian, ezpada ondo iltian. Batzuetan gaztetan iltia Jaungoikuaren mesede andija izaten da, ba Espiritu Deunak diño, jakiturijako idazkijan, bere arimia Jaungoikuaren gogokua zalako ludi gaizto onetatik atera ebalat: *Placita enim erat Deo anima illius, propter hoc properabit educere illum de medio iniquitatum*; beste batzuetan, berandu iltia be izaten da mese-

de andija, emoten deutzolako aldija bizitzia obaturteko, pekatuakaz damutu eta autortuteko eta penitentzija egiteko. Pekatu astunian bizi izatia afisku andijan bizitia da, pekatuak bizitzia laburtuten dabelako eta uste-uste barik infernuan jausi leikialako. Begira zer diñuan Dabid igarle deunak: *Anni impiorum abbreviabuntur*. Itia gauza bildurgafija eta gafatza da: ez dago inor eriotziak bildurtuten ez dabenik, baña eriotzako bildura geituten da Jaungoikuarenn eskar edo grazijagaz, eta gozotuten da Jaungoikuagan itxaropen sendua eukijagaz. It danaren gorpua jasoten dogunian, berba itzal onexek abestuten doguz: *si iniquitates observaveris Domine*: Jauna, nire gaiztakeriak gogoratuten badozuz, zelan bildurtuko ez naz?; baña ondoren beste itz aonexek esaten doguz: *speravit anima mea in Domino quia apud Dominum misericordia*: baña nire arimiak itxoroten dau zukan, efukija ber-bera zariatuko. Kristau zintzoak begiratu biar deuzo eriotziari beste bizitzarako bidia-ri lez. Eriotzatik igaro zan Jesus, eriotzatik igaro zan Birgiña Maria, Jose Deuna eta gaur donokijan dagozan Deun guztijak be; gu be bide ofetatik juango gara, eta ondo juateko eruan bizitza ona, ba zelakua dan bizitzia, alakua izan oi-da eriotzia: zuzen bizi dirianak Jaungoikuaren adiskidetasunian itgo dira; oker bizi dirianen eriotzia bizitzaren antzekoa izango da.

Eldu gaitian, ba, Jesukristo gure Jaunagana, uste edo konfijantza oso batagaz, gaurko goizparak aitatuten deuzkun andikija eldu zan lez. Jesús da gure jaube bakara: bere eskuan daukoz osasuna eta gajotasuna, bizitzia eta eriotzia: ikutuaz beste bage osatu geinkez, berbiztu geinkez, berbiztu eban lez Kafarnaungo neskatilatxua. Eskatu deijogun, ba, Jesukristo gure Jaunari, grazija bizitza onian irauteko, gero eriotza on baten bidez beragana ega egiñ daigun, zein guztiari opa deutzuedan. Alan izan dediña.

Etorkunde osteko ogetalagaren igandea

(Esan goizpar edo ebangelijua, eta jafaitu onan):

Jesukristo gure Jaunak aldi atan egiñ ebazan iragargai itzalak, geure egu-

netan be ontxe dakuzguz. Gure uskutz edo erligiño santua, zerutik gure onerako ekañija, mesediak ugari egiñ deuzkuzana eta egiten deuzkuna, aurkituten da ezetxirik gogofenen artian: gure Elexa Ama Deuna, amarik maite eta samurēna, alde guztijetatik zirikatua eta ezeztua da: kurutze donea jaurti dabe ikastoletatik, ibil deunak galaerazo dabez, elexak efe dabez, ondasunak ostu deutzez, kristiñau ikasbidia irakastia galaerazo dabe, ezkontza santuak nazpildu dabez, Jaungoiko bako ikastolak alde guztijetan ipiñi dabez, eta ikastolak *laika* izango diriala erabagi dabe, eta asmo galgari onek eta geijago aufera eroateko egiñalak egiten dabez. ¡Zelako menosprezijuak, lotsarijak eta miñgoztasunak ez daroiez Erligiño eta Elexa Deunak aldi onetan! ¿Zer egiñ biar dogu ba katolikuak aldi txar onetan? Itxi Erligiñoiari eta Elexa Deunari laguntasuneko eskua emon barik? Ez miñ bidar, ez. Seme on eta zintzoak lez, zaindu daigun Erligiño santua, lagundu deijogun Elexa Ama Deunari sendotasunik andijenagaz. bere naigabe andijetan parte arturik eta bere alde otoi samur eta bero-beroak egiñik; au katoliko guztien biar-izana da. Guazen, ba, gai onetzaz zerbait esatera. Entzun gogo onagaz.

Iru eratakoak dira gaur Erligiñoia eta Elexa Deuna ezeztuten dabezanak. Lenengo, jakitun itxu eta afokeriz beterikuak. Onek gura leuke Jaungoikua ludi onetatik kendu eta ez daijala aginpiderik euki; onetarako zabalduen dabez irakatzirik atzitu eta galgarijenak izparingijetan, efebistetan, idazki edo liburuetan, ikastola txiki eta nagusijetan, batzarētan, mitiñetan eta al-daben toki guztijetan amatau gura dabe biotz guztijetan Jaungoikuaren ezaupidia, Jaungoikuaren bildur santua, azke edo libre bizi ditezan, eta abereen antzera nasaikerija guztijetan ondatu ditezan. Guda gogor oni, lotsabakerija andi oni, aurka egiñ biar deutzagu. ¿Zelan baña? Arpegija atariagaz eta koldar edo bildur barik irakatzi onak zabalduagaz, batez be gazterijaren artian eta umetxuen artian. Negargarija da gaurko gazterijaren ezjakintasuna, eta gazteri ezjakiñ eta buru ariña edozetarako dago beti gertu, batez be gaiztakerirako, eta onakorik jaso ez deiten eta gazteri ben-bena eta jakintsua euki daigun, al-dabenak al-daben lez lana egiñ biar dau. Baita umetxuai be emon biar jaketz irakatzi onak eta sartu euren biotzetan Jaungoikuaren bildur santua, ba gaurko umetxuak bijarko gizonak dira, eta zelako asikeria emoten jaken,

alako gizonak izango dira. Ekiñ, ba, gurasuok, eta al dozuen guztijak gazterija zuzenduten eta gazterijari irakatzari onak emoten, bijarko gizadija ona eta Jaungoikuaren gogokua izan dediñ.

Erligiñoiaren eta Elexa Deunaren bigaŕen arerijua da agintarija. Gaur egunian, Erligiñoiaren eta Elexa Deunaren aurka dabiltz lurbira guzliko agintarijak; esan leike Dabid igarle santuak aldi atan ziñuana gaur be jasoten dala: *Astiterunt Reges et Principes convenerunt in suum adversus Dominum*: Efegiak, Principiak eta osterantzeko agintarijak bat egiñ dabela Jesukristori eta bere Erligiño santu eta Elexiari guda gogoŕa egiteko. Txinan, Mejikon, Rusian, Españian eta beste dieŕi askotan, masoiak zirikatu ta danak bat egiñ dabe Erligiñoia kendutzeko eta Elexa Santua zapalduteko: *Dirumpamus vincula eorum et projiciamus a nobis jugum ipsorum*. Esaten dabe, ¿ze Jaungoiko, ze erligiño eta ze Aita Santu?: uŕatu daiguzan ipiñi deuzkuezan legiak, kendu daigun konzientzijako buztarija, zeñegaz lotu gura gaituen, izan gaitian azke, libre, eta geuk zapalduko dogu guztija; eta asmo auxe auŕera eruatiaŕen emoten dabez legerik gogoŕenak; laster-laster jesuiten elexakaz, etxiakaz eta ondasunakaz egiñ dabena egiño dabe gure elexa, abade, etxe, ortu, ondasun eta aberastasun guztijakaz, biłoztuko dabe Jesukriston Elexa Deuna, eta ipiñiko dabe bizi eziñdako eran. Baña ez bildurtu, ez usterik galdu. Nik ondo dakit, ni ziur nago Jaungoikua ez daguala lo, eta egunen baten, benturaz aldi gitxi baŕu, arerijo onei guztijoi goiko Jaunak baŕe eta burla egiño deutzena, ba Dabid igarliak esanda itxi eban: *qui habitat in caelis irridebit eos et Dominus subsanabit eos*: nik ondo dakit egunen baten goiko Jaunak bere asafia erakutziko deutzela lotsabako agintari onei eta ipiñiko dauzela munduaren baŕegaritzat: *loquetur ad eos in ira sua et in furore suo conturbabit eos*; alan egiñ eban Konbes, Viviani, Kaŕes eta beste oŕen antzeko arerijua-kaz: il ziran, obijan zapalduta dagoz; eta Jaungoikua bizi da. Erligiñoia eta Elexia bizi dira, eta Elexak baŕiztauak izango dira. Gizontxuak urte gitxitarrak dira; baŕiz Jaungoikua betikua da, eta itxas asaŕatuko olatu bizdunak atxetan puzkatuten dirian lez, alantxe Jaungoikuaren eta bere Elexa Santuaren arerijua be biŕinduak, puzkatu eta zatituak izango dira Jaungoikuaren oñetan.

Eta bitartian ¿zer egiñ biar dogu? Otoi Jaungoikuari, otoi beti eta asper-tu barik: *oportet orare et numquam deficere*; otoi ja da izkilu edo armarik indartsuena arerijua garaituteko eta Elexiareu azkatasuna lortuteko. Begira, Pedro Apostolua Erodesen aginduz Jerusalengo presondegijan egon zanian,

aldi atako kristiñau guztijak otoi egiñ eutzen Jaungoikuari atera egijan pre-sondegitik, eta Jaungoikuak oben egiñik aren otoijai, atera eban Pedro ain-geru baten bidez. Jaungoikuak bide asko daukoz ezetzirik gogofenai amaija emoteko berak gura dabengan, itxasuak baretu ebazan lez, baretuko dauz oraiñgo ezetzijak be. Otoi, ba, eta otoi aspertu barik, eta onezaz gañera ondu bizitzia, bizi kristiñau bati dagokijon erara, artu laztasun batzuk be Jaungoikua erukitu dediñ, bere asañia amatau dediñ, eta onan jaretxiko dau Elexa Ama Deunak garaitzik andi eta miragañijena, eta guk bake zorienttsua, zeñ guztioi opa deutzuedan.

O A Ñ A

Idazki onetan, irakorlako utzune batzuk arkituko dozuez, baña er'asak zuzentzen dirialako, norberak zuzenduko ditu.

ARKIBIDEA

	<u>ORIAK</u>
Euzkadi'ko Txanburu eta Jauparijei, agur.	5
Abenduaren lenengo igandea. Buldia.	7
Abenduaren lenengo igandea	11
Abenduko bigarren igandea	14
Abenduko irugarren igandea	17
Abenduko laugarren igandea.	19
«In Vigilia Nativitatis» laugarren igandean jausten danerako	21
Jesusen jayotz osteko lenengo igandea	24
Urte barija	27
Eregeen osteko igandea	30
Eregeen osteko bigarren igandea	33
Eregeen osteko irugarren igandea	36
Eregeen osteko laugarren igandea	38
Eregeen osteko bostgarren igandea.	41
Eregeen osteko seigarren igandea	44
Garizuma aurreko lenengo igandea	46
Garizuma aurreko bigarren igandea.	49
Garizuma aurreko irugarren igandea	52
Garizumako lenengo igandea	55
Garizumako bigarren igandea	58
Garizumako irugarren igandea	61
Garizumako laugarren igandea	63
Garizumako bostgarren igandea.	66
Abar igandea	69
Berbizkundeko igandea	72
Pasko osteko lenengo igandea	74
Pasko osteko bigarren igandea	77

Pasko osteko irugañen igandea	80
Pasko osteko laugañen igandea	82
Pasko osteko bostgañen igandea	85
«Rogationibus». Jesusen igokunde aurfeko otoi egunak	88
Jesusen igokunde osteko igandea.	91
Irubatasun Deunaren igandea	94
Etorkundeko igandea (Pentecostés)	96
Etorkunde osteko bigañen igandea	100
Etorkunde osteko irugañen igandea	102
Etorkunde osteko laugañen igandea	105
Etorkunde osteko bostgañen igandea.	107
Etorkunde osteko seigañen igandea	110
Etorkunde osteko zazpigañen igandea	113
Etorkunde osteko zortzigañen igandea	116
Etorkunde osteko bederatzigañen igandea	119
Etorkunde osteko amargañen igandea	122
Etorkunde osteko amaikagañen igandea.	124
Etorkunde osteko amabigañen igandea	127
Etorkunde osteko amairugañen igandea	130
Etorkunde osteko amalaugañen igandea	132
Etorkunde osteko amabostgañen igandea	136
Etorkunde osteko amaseigañen igandea	139
Etorkunde osteko emezazpigañen igandea	141
Etorkunde osteko emezortzigañen igandea	144
Etorkunde osteko emeretzigañen igandea	147
Etorkunde osteko ogeigañen igandea.	149
Etorkunde osteko ogeitabatgañen igandea	152
Etorkunde osteko ogetabigañen igandea	154
Etorkunde osteko ogetairugañen igandea	156
Etorkunde osteko ogetalaugañen igandea	158



